

# Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**berdintasuna** \*\*  
egiteko asko



<b>I. ZATIA - BERDINTASUNERAKO II FORU PLANAREN AURKEZPENA</b>	
<b>ETA INGURUNEA .....</b>	<b>5</b>
1. <i>Berdintasunerako II. Foru Planaren aurkezpena eta egitura</i> .....	7
2. <i>Berdintasunerako plan bat, krisi-garaian pentsatu eta garatutakoa</i> .....	10
3. <i>Bizitzaren iraunkortasuna erdiguneko ardatz bezala</i> .....	13
4. <i>Arauen eta eskumenen ingurunea</i> .....	14
5. <i>GFAk berdintasunaren alde egindako politiken ibilbidea</i> .....	18
6. <i>Berdintasunerako II. Plana prestatzeko prozesua</i> .....	21
<b>II. ZATIA - ERALDAKETARAKO ILDOAK.....</b>	<b>23</b>
<b>GOBERNU ONA - BIZITZAREN IRAUNKORTASUNAREN ALDE JARDUTEN ETA ERABAKITZEKO</b>	
<b>MODU BERRIAK.....</b>	<b>25</b>
1. <i>Sarrera</i> .....	27
2. <i>Begirada zabaltzea</i> .....	32
3. <i>Politika publikoak eraldatzea</i> .....	33
4. <i>Kudeaketa-eredua eraldatzea</i> .....	35
5. <i>Koordinatzeko eta parte hartzeko mekanismoak eraldatzea</i> .....	37
6. <i>Helburuen matrizea</i> .....	41
<b>SARE ETA PRAKTIKA FEMINISTAK .....</b>	<b>47</b>
1. <i>Sarrera</i> .....	49
2. <i>Begirada zabaltzea</i> .....	51
3. <i>Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzeko baldintzak hobetzea</i> .....	54
4. <i>Gizartean eta politikan parte hartzeko prozesuak eta espazioak aintzakotzat hartzea</i> .....	59
5. <i>Helburuen matrizea</i> .....	63
<b>ZAINKETA DUINAK ETA GUZTIENTZAK .....</b>	<b>69</b>
1. <i>Sarrera</i> .....	71
2. <i>Begirada zabaltzea</i> .....	73
3. <i>Zainketa jasotzeko eskubidea bermatzea</i> .....	75
4. <i>Zainketa profesionalaren baldintzak hobetzea</i> .....	83
5. <i>Helburuen matrizea</i> .....	87
<b>BIZITZAREN IRAUNKORTASUNERAKO EKONOMIA .....</b>	<b>91</b>
1. <i>Sarrera</i> .....	93
2. <i>Begirada zabaltzea</i> .....	95
3. <i>Baliabideak eskuratzea bermatzea</i> .....	99
4. <i>Baliabideak ekonomia-eremu guztietan birbanatzea</i> .....	104
5. <i>Helburuen matrizea</i> .....	109
<b>INGURUNE IRAUNKORRA.....</b>	<b>115</b>
1. <i>Sarrera</i> .....	117
2. <i>Begirada zabaltzea</i> .....	119
3. <i>Hiri- eta landa-ingurunea, harremanetarako ingurunea eta ingurumena eraldatzea</i> .....	124
4. <i>Helburuen matrizea</i> .....	129

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK.....	133
1. Sarrera.....	135
2. <i>Begirada zabaltzea</i> .....	139
3. <i>Indarkeria matxistaren adierazpen zuzenen aurkako borrokan</i> .....	143
4. <i>Indarkeria matxistaren zeharkako adierazpenen aurkako borrokan –egiturazkoak eta kulturalak–</i> .....	146
5. <i>Helburuen matrizea</i> .....	149
<b>III. ZATIA - KUDEAKETA EREDUA .....</b>	<b>155</b>
1. Sarrera.....	157
2. <i>Kudeaketa-ereduaren funtsezko alderdiak</i> .....	158

# I. ZATIA

## BERDINTASUNERAKO II FORU PLANAREN AURKEZPENA ETA INGURUNEA

*Aurkezpena eta  
egitura*

*Berdintasunerako  
plan bat, krisi-  
garaian pentsatu  
eta garatutakoa*

*Bizitzaren  
iraunkortasuna  
erdiguneko ardatz  
bezala*

*Arauen eta  
eskumenen  
ingurunea*

*GFAn  
berdintasunaren  
alde egindako  
politiken ibilbidea*

*Prestatzeko  
prozesua*



## 1. Berdintasunerako II. Foru Planaren aurkezpena eta egitura

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020 aldirako GFAk berdintasunaren alorrean garatuko dituen politika publikoen ingurune estrategikoa da.

Oso berezia den garaian prestatu da, krisi-garaian alegia. Ingurune horretan, krisia ekonomia monetizatuko zirkuituetan dauden arazoak besterik ez direla aldarrikatzen duen eta egoeraren arabera fenomenoztat jotzen duen ikuspegi hegemonikoaren aurrean, beste irakurketa bat egin dugu plan honetan: egiazko krisia finantza-eztanda baino lehenagokoa da eta alderdi anitzekoa da. Funtsezko arazoak daudela aditzera ematen du, eta erakusten du ezin dela krisi iragankorrari buruz hitz egin, arazoa sistema delako.

Merkatuak eta irabazi ekonomikoa erdigune dituen ekonomia- eta gizarte-antolaketaren eredian oinarritutako sistema bat, hain zuzen ere, lehentasuna beti hauskorra den eta zainketen beharra daukan bizitzaren beharrei erantzuna ematea dela ahaztuta.

Ildo horretan, II. Plana joeraren kontra dabil: azterketa feministatik abiatuta, krisiaren benetako garrantzia ulertzeko balio duen tresna bat izatea nahi dugu, krisiaren ordeko bideak proposatzeko, gizarte-polarizazioa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak areagotzea saihestuta.

Jomugan, elkarbizitza antolatzeko eredu baten eraldaketa dago; eredu hori egun dugun eredutik –kapitalaren metaketaren logika baztertzailan oinarrituta– bizitzaren iraunkortasuna GFaren politika publikoen erdigunean kokatuta dagoen hautabidezko beste eredu batera igaroko da –biziera ona–. Hala ere, eredu batetik bestera igartzeko, beharrezkoa da gizarte- eta erakunde-eztabaida egiteko espazioak sortzea, bi alderdi jorratzeko: zein den bizitzea merezi duen bizitza eta nola antolatuko garen talde moduan bizitza iraunarazteko, bi funtsezko irizpidetan oinarrituta: Unibertsaltasuna (pertsona guztiek baldintza duinetan bizi behar dute), eta singularitasuna (esperientzien eta bizi-baldintzen aniztasuna errespetatuz).

Ildo horretan, II. plan honek inflexio-puntu bezala funtzionatzea nahi dugu; hala, orain eta hemen, egungo egituren barruan, erantzunak emateko estrategiak identifikatu behar ditugu, baina egungo eredu higitzen duten egitura berriak eta lan-prozesuak sortzeko beharra begien bistatik galdu gabe, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna egungo ereduaren eraldaketa sakona egin gabe erdiesterik ez dagoela ulertzen dugulako. Geure gain hartutako erronka eta proposatutako gizarte-aldaketek behar duten denbora kontuan izanda, II. Planaren indarraldia 8 urtekoa izango da (2012-2020). Aldi hori egokitzea jo dugu, sustatutako berdintasun-politikek gizartean duten eragina ebaluatu ahal izateko.

II. Planaren azterketa-esparrua eta lehentasunak xehetasunez azaldu ahal izateko, Plana hiru atal nagusitan oinarrituta egituratu dugu:

**Lehenengo zatian** honakoa jaso dugu:

- II. Planaren ikuspegi orokorraren eta agiriaren egituraren aurkezpen laburra.
- II. Planaren ikuspegi politikoari buruzko azalpen zehatza, bai **zergatiari** dagokionez –krisiari buruz egiten den irakurketa kontuan hartuta–, bai **noranzkoari** dagokionez, hau da, norantz joan nahi dugun, gizarte-eraldaketan zer jomugatara iritsi nahi dugun. Eztabaida kritikoa egiteko gonbidapena luzatu nahi dugu, eta horretarako beharrezkoa da II. Planaren lehentasunak eta helburuak bideratzen dituzten analisi-elementu nagusiak nolabaiteko sakontasunez aztertzea.

- II. Foru Planaren jardun-ildoak gidatzen dituen arau- eta eskumen-testuingurua.
- Ibilbide labur bat GFAn bultzatzen diren berdintasunaren aldeko politiketan barrena, eta erdietsitako lorpen batzuk zein betetzeke dauden erronkak adieraztea. Ildo horretan, adierazi behar dugu Berdintasunerako II. Plana ez dela abiatzen zuzin dagoen orrialde batetik: aurreko legealdian (2007-2011) jadanik hasi ziren lan-prozesuak finkatu nahi ditugu, legealdi honetan identifikatutako lehentasunekin bat egiten duten neurrian. Aldi berean, ekimenak berriz azaldu eta ekimen berriak definituko ditugu, nahi dugun norabidean aurrera joateko.
- Eta, azkenik, II. Plana lantzeko egindako lan-prozesuaren deskribapena jaso da.

Planaren bigarren zatian, jardun-ardatz nagusiak garatzen dira, hau da, eraldaketarako ildoak izendatutakoak. Bi atal ditu:

- Lehenengo atalean, Gobernu Onaren ildoan, Plan honen **nola** galderari erantzun diogu. Bertan, gobernantza demokratikoagoa lortzeko baldintzak osatzen dituzten alderdiak definitu eta garatzen dira; alderdi horiek aldatu egin behar dira, bizitzen zainketa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun egiazko eta eraginkorra bultzatzen dituen ekonomia- eta gizarte-ereduaren eraikuntza kolektiboaren zerbitzura dauden politika publikoak sustatu ahal izateko.
- Bigarren atalean, zehaztu dugu **nondik** has gaitezkeen ibiltzen, hau da, desiratzen dugun gizarte-eraldaketan aurrera egiteko lehentasunetzkotzat jo ditugun ildoak. Hona hemen aipatutako ildoak: *Emakume-sareak eta jardun feministak, Bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia, Zainketa duinak eta guztientzat, Ingurune iraunkorra eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.*

Eraldaketarako ildo guztiek egitura bera daukate: hasieran, **sarrera** bat egin da, esku-hartzea zer teoria- eta kontzeptu-inguruetan kokatu den eta ildo bakoitzean lortu nahi diren helburuen alderdi nagusiak zeintzuk diren laburbilduta azaltzeko. Eta gero, **esku hartzeko alderdiak** garatu dira, kasu bakoitzean desberdinak, lehenengoa, "begirada zabaltzea" izan ezik, ildo guztiek partekatzen dute eta.

"Begirada zabaltzea" atalaren bidez, hausnartzeko eta ezagutzak trukatzeko prozesuei hasiera eman nahi diegu, bizitzen zainketa kolektiboa erdigune duen beste eredu hori definitu, guztion artean eraiki eta erakunde publikoetatik eredu horretara igarotzea ahalbidetzeko. Arlo honetan, beraz, lehendik dagoen zerbaitetik abiatuta berria den zerbait eraikitzeko erronka onartzeak berekin duen tentsioari irtenbidea emateko laguntza eskaintzen da, emakumeen eta era askotako taldeen ikuspegia eta beharrak kontuan hartzen dituzten eta guztiz demokratikoak diren espazioak sortuta, ikuspegi eta behar horiek erakunde eta politika publikoetara eramateko.

Ildo bakoitzean, jardun-eremuetan erdietsi beharreko helburuak zehazten dira, bereizketa hau eginda:

- **Helburu orokorrak:** II. Planaren indarraldian, berdintasunaren alorrean lehentasuna duten gaiak zeintzuk diren zehazten dute.
- **Helburu espezifikoak:** helburu orokorrak nola zehaztu behar diren definitzen dute, eta urteko plan operatiboaren osagai izango diren neurrien eta ekintzen definizioa egiteko oinarri dira<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Urteko plan operatiboak zehaztasun handiagoz deskribatuta daude agiriaren hirugarren zatian, kudeaketa-ereduari buruzkoan.



Bi helburuak tauletan jasota aurkeztuko ditugu aurrerago, hasierako adierazle-sistema batekin eta ezarritako helburuak lortzeko erantzukizuna duten eta parte hartzen duten foru-departamentuen zerrendarekin batera.

Azkenik, dokumentu honen **hirugarren zatian**, Planaren **kudeaketa-eredua** azalduko dugu. Hau da, Planaren indarraldian, berdintasunaren alorrean erakundeek Plana abian jartzea eta burutu behar duten egitekoa bideratuko dituen gida. Bertan, abiagune dugun esku-hartzeko esparrua, esku hartu behar duten eragileak, Planaren garapenean konpromisoa har dezaten eta erantzule ere izan daitezten erabilitako estrategiak, eta urteko plangintza-prozesua, segimendua eta ebaluazioa definitu dugu.

Azkenik, eta kontuan hartuta Planaren zeharkako izaera, departamentu eta zuzendaritza nagusi guztiak dira erantzule helburuen lorpenean. Zenbait kasutan, erantzukizuna zuzenekoa da; bestetan, erantzukizun partekatua dute; azkenik, beste kasu batzuetan, helburen baten lorpenean inplikaturik daude.

## 2. Berdintasunerako plan bat, krisi-garaian pentsatu eta garatutakoa

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, GFaren Berdintasunerako II. Plana krisi-ingurunean kokatu behar dugu, eta horrek planaren prestaketa ez ezik, geroagoko garapen osoa ere nabarmen markatu du.

Baina, zein da etengabe ahotan erabiltzen dugun krisi hori? Begirada hegemonikoak krisia mugatzen du finantza-eztandak sortutako arazoetara, eta egoeraren araberrako fenomeno moduan ulertzen du, hori gainditzea doikuntza-neurri batzuen ezarpenaren baitan utzita.

Hala ere, II. Planean jaso dugun planteamendua da krisia egitura-izaerakoa eta alderdi askotarikoa dela, finantza-merkatuetan sortutako ekaitzaren aurrekoa dela eta, nagusiki, hiru elementu hauek dituela barnean:

### a) Bizitza-prozesuen eta horien euskarria den ingurunearen porrota.

Porrot hori, praktikan, honela islatzen da:

- **Zainketen krisia**, mugimendu feministak duela hamarkada asko salatu zuena. Krisi horren ondorioak zainketa-sistema tradizionalen gainbehera eta gizartearen erantzunik eza dira, eta, horren ondorioz, egungo zainketak ez dira gogobetegarriak, ez dira nahikoak, eskasak dira eta ez dituzte askatasunez aukeratu beren gain hartu dituztenek, hau da, emakumeek batik bat.

*Dimentsio  
anitzeko  
krisia*

- **Osasunaren krisia**, barnean fenomeno bikoitza duena: alde batetik, gorputzak gaixotzea, kutsatu eta agortzen dituen ereduaren presioaren ondorioz, irabaziak lortzeko erabiltzen dituelako; eta bestaldek, gaitz jakin batzuk ikusezin bihurtzen dituen eta medikalizatzeko joera duen medikuntza-ikuspegiaren garapena.

- **Gizarte-birsorkuntzaren krisia**, herritarrei ongizate material eta emozionalaren itxaropenak betetzea galarazten diena. Hiru ondorio ditu ezaugarri nagusiztat:

- Bizitzaren ezegonkortasunaren handitze orokorra, hau da, aukeratutako bizitza-proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak era iraunkorrean eskuratzekoan dagoen segurtasunik eza.
- Ezegonkortasun-egoeretatik bazterketa-egoeretara igarotzea; egoera horietan ez dago jadanik baliabideak eskuratzeari buruzko zalantzarik, horiek eskuratzeko ezintasuna baizik.
- Gizarte-desberdintasunak nabarmen handitzea, eta gizarte-bazterketa eta -bereizketa egiteko bide berriak sortzea. Fenomeno horren ezaugarriak aberastasuna eta eskubideak talde jakin batzuetan metatuta egotea dira, gehiengoa ezegonkortasunerantz eta bazterketarantz doan bitartean.

- **Krisi ekologikoa**, izaera orokorrekoa, barnean elkarlotuta dauden alderdi anitz hartzen dituen, hala nola: klimaren aldaketa, baliabide naturalen agortzea, edo biodibertsitatearen kolapsoa.

### b) Egitura politikoak zalantzan jartzea.

Ordezkaritza politikoaren krisi bat dagoela planteatzen da, ezaugarri nagusi hauek dituen:

- *Herritarren eta ordezkari-tza politikoaren artean gero eta handiagoa den tarte bat dagoela hautematea*, gure bizitzen norantzkoa eta elkarbizitza antolatzeko

modua zehazten dituzten erabaki politikoetan parte hartzeko aukerak gero eta mugatuak direla pentsarazten digun sentipen orokorrak eraginda.

- *Edukien, legitimotasunaren eta alderdi eta sindikatuetan parte hartzearen krisia*, gizartearen interesetatik gero eta urrutiago –gutziz kontra ez badaude– sentitzen diren neurrian.
- Eta bere borrokak identitate egonkor baten inguruan (subjektu langilea edo subjektu emakumea) definituak zituzten *gizarte-mugimenduen krisia*, gero eta konplexuago eta desberdinagoak diren esperientziak itotzen dituena<sup>2</sup>.

### c) Etikaren eta balioen sistema zalantzan jartzea.

Azkenik, krisiaren barruan, **zentzuaren krisia dago**, subjektibotasunen aldaketa eragiten duena, hau da, zer ulertzen den bizitzea merezi duen bizitzaz, eta, bizitzea merezi duten bizitzak bermatzeko, nola ulertzen den elkarbizitza antolatu behar dela. Hemen, galdetu behar dugu ea krisia, orokorrean, zentzu berriak azaleratzen ari den, eta, hala bada, zein diren. Ea desberdintasuna zilegi bihurtzen duten jarreretara atzera-jotze orokorra gertatzen ari den, edo aurretiaz saihetsezintzat onartu ziren eta logika kapitalistaren nagusitasunari lotuta dauden prozesuak zalantzan jartzen ari diren.

Nolanahi ere, alderdi anitzeko krisiak agerian jarri du bizitzari lehentasuna eman ez eta, aitzitik, bizitza eta lur-ingurunea kapitala metatzeko prozesuaren zerbitzuan jartzen dituen gizarte- eta garapen-eredu baten iraunkortasunik eza. Ildo horretan, metaketaren logikari lehentasuna emateak berekin dakar bizitzaren iraunkortasunean gizarte-erantzukizuna egotea galaraztea, eta erantzukizun hori honela geratzea:

a) **Pribatizaturik**: etxera mugatuta, baliabideak modu pribatuan eskura dauzkaten etxeetara.

b) **Ikusezin bihurturik**: hainbat mekanismok (arloan publikoaren eta pribatu-etxearen arteko bereizketa, azkena ez-politikaren arloan bihurtzen duena) ahalbidetzen dute erantzukizun hori gauzatzen den eremuak eztabaida politiko eta kolektibotik desagertzea eta, beraz, hortik taldea zalantzan jartzetik, gatazka sortzerik eta abar ez egotea.

c) **Feminizaturik eta ezegonkortasun- eta esplotazio-baldintzetan gauzaturik**, zentzu bikoitzean: sinbolikoan, bizitza iraunkor egitea emetasunarekin lotzen delako eta baliorik gabe uzten delako androzentrikoa den balorazio- eta pentsamendu-sistema batean; materialean, bizitza iraunkor egiteko lan gehienak emakumeek burutzen dituztelako, ezegonkortasun- eta esplotazio-baldintzetan. *Zainketaren etika erreakzionarioa*<sup>3</sup> funtsezko mekanismoa da emakumeak bizitza iraunkor mantentzeaz ardura daitezen, erantzukizun hori zigortzen duen sistema batean.

---

2 Silvia L. Gil (2011), Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el estado español, Traficantes de sueños, 37. Helbide honetan eskura daiteke: [http://traficantes.net/index.php/content/download/28063/260518/file/mov\\_11\\_FINAL.pdf](http://traficantes.net/index.php/content/download/28063/260518/file/mov_11_FINAL.pdf)

3 “Zainketaren etika atzerakoa” terminoaz emakumeei ezarri nahi zaien etika adierazi nahi dugu, emetasuna erabateko altruismoarekin eta sakrifizio-espirituarekin identifikatzen duena, emakumeek naturaz hurkoak zaintzeko joera dutelako ideia ezarrita, baita beren burua eta beren desio eta beharrak ahaztuta ere. Etika hori funtsezko tresna izan da emakumei ordaindu gabeko lanak, ikusezinak eta gutxietsiak egiteko ardura ezartzeko, eta estu lotuta dago familia naturalaren ideari (bikote monogamo heterosexuala, seme-alaba biologikoak dituena); era berean, emakumeek besteren ongizatearekin duten konpromiso-sentipena esplotatzen du, eta eragozten du zaintzeko gaitasunaren esentzializazioa emakumeek jaiotzetik duten ezaugarri bezala –emetasuna bera definitzen duena– gainditzea.

Logika horren barruan, badira bizitzaren alderdi batzuk inoiz errentagarriak izango ez direnak, edo bizitza osoak, merkatuaren esanetara jartzerik ez daukaten neurrian, ez ordaindutako langile bezala, ez merkatu horren kontsumitzaile bezala.

Beraz, sistema horrek bere-berea du hierarkia: desberdintasunaren eta ikusezin diren subjektu, esparru eta lanen beharra du, **bizitzaren iraunkortasunaren eta kapitala metatzeko prozesuaren arteko gatazka konponezinaren** ondorioa den tentsioa xurgatzeko.

Bizitza lehentasunezkoa ez den gizarte bat (bizitza mehatxatuta dago) zilegi egiteko modua da gatazka hori ikusgarri ez egitea, gizabanakoaren eta ez taldearen arazo bezala ikusaraztea. Ezarritako ideala nor bere burua aski izatea eta zaurgarritasunik eza da, bizitza zaurgarria eta elkar mendekotasuneko delak ukatzen duena. Nor bere burua aski izatearen kimera hori errealitate bihurtzeko modu bakarra da subjektuen mendekotasuna (elkar zaintzea) ebazteko esparruak ezkutatzea. Hau da, elkar mendekotasuna esplotazio moduan kudeatzea.

Egoera horretan, "krisiari" buruzko azalpen hegemonikoari begirada kritiko eta feminista botatzeak argi uzten digu krisian dagoena, berez, **proiektu modernizatzailea** dela: kapitalismoa ekonomia-egitura nagusi duen proiektua, demokrazia liberal ordezkatzaila antolaketa politikoaren oinarri, heteropatriarkatua pertsonen bizitzako alderdi guztiak betetzen dituen sexu-genero-desioa arautzeko sistema bezala, proiektu (post)kolonialista munduko harremanak arautzeko modu; alegia, izatearen proiektu pribatizatzailea, partekatua dena bizitzako ikuspegitik eta gizarte-egituratik desagerturik daukana.

*Benetako  
krisia:  
proiektu  
modernizatzaile  
-arena*

### 3. Bizitzaren iraunkortasuna erdiguneko ardatz bezala

Metaketaren logika kapitalistaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko gatazka konponezina bada, baieztatu den bezala, aukeratu egin behar da. Krisiari emandako erantzun politikoek erakusten dute lehentasuna, gaur egun, kapital-metaketaren zirkuituak berreskuratzea dela.

Garrantzia ematen zaio irabazi-tasak lehengoratzeari, bizi-baldintzei eraso zuzen eta guztiz gogorra eginda: kapitalaren arriskuak sozializatzen dira eta, aldi berean, bizitzaren arriskuak banakotu egiten dira. “Doikuntza” ekonomikoen politikei aurre egiteko abian jarritako biziraupen-estrategiek erakusten dute osotasuna berriz bat etortzeko erantzukizunaren pribatizazio eta feminizazio hori. Era horretan, etxeak, eta horien barruan emakumeak batez ere, krisia xurgatzeko azken koltxoi bihurtzen dira, familiaren ongizatearen eta, azken buruan, gizarte osoaren ongizatearen erantzule nagusi eta/edo azken bihurtzen dituen genero-aginduarekin bat. Horrek gizarte-birsorkuntzaren krisia areagotu besterik ez du egiten, ezegonkortasun- eta bazterketa-egoerak eta gizarte-desberdintasunak oro har gehiagotu egiten baitira.

Horiek horrela, metaketaren logikaren aurrean, II. Planaren proposamena da **bitziza eta bizitzaren zainketa ekonomia- eta gizarte-antolaketaren ereduaren erdiguneko kokatzea**. Badakigu ezinezkoa dela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea hain zuzen ere gizarte- eta genero-desberdintasunen sorkuntzari eta birsorkuntzari esker mantentzen den gizarte- eta ekonomia-eredu batean.

Ikuspegi hori kontuan hartuta, Plana tresna bat izan behar da bizitzen zainketan erantzukizuna duen talde-, gizarte- eta ekonomia-antolaketaren eredu bat eraikitzeko, bitziza izan dadin, eta ez onura ekonomikoen lorpena, gizarte osoaren garapen ekonomiko eta soziala gidatzen duena. Horrek berekin du bizitzen zainketan erakunde publiko-merkatu-etxeek osatutako hirukotearen eginkizuna berriz definitzen eta, egokia bada, helburu hori lortzeko bestelako egitura sozioekonomikoak eraikitzen laguntzea.

Laburbilduz, bitziza erdiguneko kokatu eta egungo sistemaren oinarriak zalantzan jartzean, II. Planaren bidez proposatu nahi dugu **biziera ona**<sup>4</sup> lortzeko bidean aurrera egitea. **Biziera ona** erronka bat da, alegia: gaur egun **unibertsaltasunaren eta singularitasunaren** baldintzetan, hau da, pertsona guztientzat baldintza onargarrietan (bitziza ona ezin da ona izan beste batzuen bitziza kaskarraren kontura) eta gizarte-errealitate bakoitzaren aniztasuna errespetatuz, bitziza merezi duen bitziza zer izan daitekeen galderari erantzuten laguntzea<sup>5</sup>.

Labur esanda, Berdintasunerako II. Foru Planaren bidez, Gipuzkoan biziera ona definitzen eta eraikitzen lagundu nahi dugu, egungo proiektu modernizatzailearen berrazterketa kritiko batean oinarrituta, eta zer errealitateetatik abiatzen garen ahaztu gabe. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela egoerari orain eta hemen, dagoen eredu sozioekonomikoaren ingurunean, premiazko erantzunak ematea; era horretan, eraldaketei ekin ahal izango diegu, eta eraldaketa horiek bizitzen zainketa erdigune duen eredu hau –biziera ona– berehala, osorik eta guztiz era desiragarrian definitzen ez badute ere, ahalbidetu dezakete norabide horretan aurrera eginez eraikitzea, gaur egun nagusitu diren bitziza-zentzuak baztertzeko dituzten beste batzuk aterata.

4 “Biziera ona” kontzeptua herri indigenen bazterketa-esperientziaren ondorioz sortu da, eta Ekuador zein Boliviako gobernuak kontzeptua jaso dute Estatu bakoitzeko Konstituzioan.

5 Bitziza ona guztiz desberdinak diren inguruneetan definitzeko ahaleginak egin dira, eta, hala, horrek eragotzi du hasiera batean jarraibide berak ezartzea; ingurune jakin batean, erantzun desberdinak behar dituzten hainbat errealitate egon daitezke; eta beti daude gutxiengoaren errealitateak, gehiengoaren araura egokitu ezin direnak.

#### 4. Arauen eta eskumenen ingurunea

Jarraian, II. plan honen lege- eta eskumen-oinarrien ingurunea osatzen duten Autonomia, Estatu, Europa eta nazioarteko legezko arauak azalduko ditugu.

#### Autonomia-esparrua

*Emakume eta  
Gizonen  
Berdintasun-  
erako Euskal  
Legea*

GFaren Berdintasunerako II. Foru Plana Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean definitutako eskumen-ingurunearen barruan garatu da.

Aipatutako legearen I. Tituluan, "Eskumenak eta Eginkizunak" izenburuko I. Ataleko 6. artikuluan, foru-administrazioei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean dagozkien eginkizunak zeintzuk diren definitzen da:

#### **6. Artikulua - Foru-administrazioen eginkizunak**

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bakoitzak bere lurralde historikoaren eremuan diharduela, ondokoak dira foruadministrazioei dagozkien eginkizunak:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero ikuspegia integratze aldera.

b) Bakoitzak bere lurralde-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.

c) Bakoitzak bere lurralde-eremuan programak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan.

d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez foru-eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonak bizi dituzten ezberdintasunegoerak ezagutu ahal izateko.

e) Bakoitzak bere lurralde-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.

f) Bakoitzak bere lurralde-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio jarduerak burutzea.

g) Foru-legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

h) Sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko.

i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarriko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programa edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udalez gainetik eman beharrekoak direnean.

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko helburua duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udalez gainetik eman beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Bakoitzaren lurralde-eremuan sexu-aren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

Era berean, 4/2005 Legearen I. Tituluan, "Euskal Herri Administrazioen arteko Erakunde Antolaketa eta Koordinazioa" izenburuko II. Kapituluko I. Atalaren 10 artikuluan, foru-organismoek berdintasunaren alorrean bete beharreko funtzioak zehazten dira:

<p><b>10. Artikulua - Foru- eta toki-administrazioak</b></p> <p>1. Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasunpolitikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.</p> <p>2. Erakunde, organo edo administrazio unitate horiek, bakoitzak bere lurralde eremuan, gutxienez ondoko eginkizunak beteko dituzte:</p> <p>a. Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.</p> <p>b. Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.</p> <p>c. Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.</p> <p>d. Bakoitzak bere administrazio-sailei eta beren mendean dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.</p> <p>e. Bakoitzari dagokion lurralde eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.</p>	<p>f. Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.</p> <p>g. Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezten proposamenak eta sustapen-lana egitea.</p> <p>h. Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.</p> <p>i. Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.</p> <p>j. Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza-hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea.</p> <p>k. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetzan izatea.</p> <p>l. Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.</p>
---	--

Halaber, Legeak, II. Tituluko plangintzari buruzko I. Kapituluako 15. artikuluan, hiru eta lau puntuetan, adierazten da foru- eta toki-administrazioek berdintasunaren aldeko planak prestatu eta onartu behar dituztela, eta plan horiek ezartzeko behar diren baliabideez hornitu behar dituztela.

<p><b>15. Artikulua - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak</b></p> <p>3. Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute.</p>	<p>4. Aurreko bi paragrafoetan aipatutako planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txostena eman behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin.</p>
---	---

## Estatuko, Europako eta nazioarteko esparrua

Plan honen arau-ingurunea nagusiki EAEko berdintasunaren aldeko politiken ibilbideak eta legeen alorrean egindako aurrerapenak definituta badago ere, beharrezkoa da nabarmentzea horiek, era berean, berdintasun-politikei dagokienez azken urteetan garatu den Estatuko, Europako eta nazioarteko legeria dutela erreferentzia.

**Estatuan**, gizonen eta emakumeen berdintasun-politiken inguruan azken hamarkadan onartu diren lege nagusiak jaso ditugu hemen:

- Urriaren 13ko 30/2003 Legea, Gobernuak egiten dituen arau-xedapenetan genero-eraginaren balioespina jasotzeko neurriei buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-oso babesa emateko neurriei buruzkoa.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako, administrazio publiko eta enpresak barnean hartzen dituenak.

*Estatuko markoa*

*Europako markoa*

**Europar Batasunean**, azpimarratu behar da, hasiera batean, Giza Eskubideen Europako Ituna (1950, 1979an berretsia). Ondoren, zuzenean heldu zitzaion berdintasunerako politika publikoak garatzeari. Berdintasunaren inguruko politika horiek hasiera batean eta bereziki enplegu eta lan-merkatuaren esparruari lotuta zeuden direktibak onartzera bideratzen baziren ere (Europar Batasuna eratzeko Itunaren 119. artikuluan oinarrituta, bertan, gizonen eta emakumeen berdintasuna mugatzen baita soldata bera jasotzera, lan bera egiten dutenean), 1997an Amsterdamgo Ituna onartu eta gero, berdintasunaren alorreko lana indartu egin zen erkidegoaren mailako zuzenbidezko arauak eta ekintza-planak garatuta, eta horiek zabaldu dira honelako alderdiak barnean hartuta: ordainketa-berdintasuna, berdintasuna hezkuntzan, erabakitzeke espazioetako parekotasuna eta Europako



Egiturazko Funtsak eskuratzeko aukera-berdintasunaren sustapena.

Gaur egun, Europako Batasuna Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategia garatzen ari da, Europako Batzordearen lan-programa osatzen duena 2010-2015 aldirako, berdintasunaren alorrean. Batasunaren barruan, Europako Batzordeak konpromisoa hartu du bultzatzen dituen politika guztietan genero-berdintasuna sustatzeko, lehentasunezko gai hauetan oinarrituta:

- Independentzia ekonomiko baliokidea emakume eta gizonentzat.
- Ordainketa bera, balio bera duen lana eginez gero.
- Berdintasuna erabakiak hartzeko orduan.
- Duintasuna, osotasuna eta genero-indarkeriaren amaiera.
- Genero-berdintasuna sustatzea EBtik kanpo.
- Gai horizontalak (sexuei esleitutako eginkizunak, legeria eta gobernantzarako tresnak).

### Nazioarteko markoa

Azkenik, **nazioarteko esparruan**, berdintasunaren aldeko politiken arau-ingurunea NBEk onartutako adierazpen eta erabakietan kokatuta dago. Nazio Batuen Gutuna eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eman eta gero, erakundeak hainbat erabaki hartu ditu; haien bidez, estatu kideak premiatzen ditu, berdintasuna eta sexua dela eta diskriminaziorik ezaren printzipioa berma ditzaten. Jarraian, Estatu espainiarreko esparruan botere publikoentzat erreferentziakoak direnak jaso ditugu:

- Emakumeen eskubide politikoei buruzko konbentzioa (1952an onetsi zen, eta Espainiako Estatuak 1974ko apirilaren 14an sinatu zuen).
- Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko konbentzioa (1979ko abenduaren 18an berretsi eta 1981eko irailaren 3an indarrean sartu zen. Estatu espainiarrak Konbentzioa 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen), eta Konbentzioaren Hautazko Protokoloa (1999ko urriaren 6an onartua).
- Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena (1993ko abenduaren 20an onartua).
- Beijing-go Adierazpena eta Emakumeei buruzko Nazio Batuen IV. Munduko Konferentziako Ekintza Plataforma (Beijing, 1995), eta gerora egindako bilkurak: Beijing+5 (New York, 2000), Beijing+10 (New York, 2005), eta Beijing+15 (New York 2010).
- Eskubide Zibilei eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna (1966, 1977an berretsia).
- Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Ituna (1966, 1977an berretsia).
- Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren (1994) Ekintza Programa, sexu eta ugalketa eskubideei buruzkoa.

## 5. GFAk berdintasunaren alde egindako politiken ibilbidea

II. plan honen bidez, 2008-2011 legealdian eta I. Foru Planaren esparruan abian jarri ziren prozesuak, plan honetakoen norabide bera dutenak, finkatu eta indartu nahi ditugu. Hala bada, agiri honetan balioan jarri nahi dugu orain arte egindako lana, eta lan horretan oinarrituta bildutako jakintzaz eta esperientziaz elikatu.

Jarraian, joan den legealdian erdietsi diren eta II. Foru Plana abian jartzeko oinarria eratzen duten aurrerapen garrantzitsuenetako batzuk azalduko ditugu.

### Berdintasunaren aldeko foru-politikak sustatzeko organoa

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politikak sustatzeko lehenengo foru-organoa 2007an sortu zen. Hain zuzen ere, Lankidetzaz, Berdintasun eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia zen, Kirol eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren barruan. Handik aurrera egindako lehenengo urratsak Zuzendaritza gutxienerako egitura batez hornitzea eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Foru Plana 2008-2011 prestatzea izan ziren. Horrekin batera, Plana gauzatzeko foru-egiturak arautu egin ziren, 68/2008 Foru Dekretuaren bidez. Geroago, 2009an, Zuzendaritzan zerbitzuko agintaritza sortu zen, eta horri esker Berdintasunerako I. Foru Plana abian jartzeko lanari ekin ahal izan zitzaion.

Legealdi berria (2011-2015) hastearekin batera, aurreko organoa berariazko zuzendaritza bihurtu zen, berdintasunaren aldeko politikak soilik bultzatzeko. Hain esanguratsua izan den aurrerapen hori indartu egin da zuzendaritza hori Diputatu Nagusiaren alorrari atxikitzean, era horretan maila sinboliko eta funtzional handiagoa eman baitzaio GFaren barruan. Aldaketa hori jauzi kualitatibo bat izan da, genero-ikuspegia politika publikoetan azpimarratu eta eraginkor eta zeharkako egiteko orduan.

Antolaketan egindako aldaketa horrekin bat, lehenengo ekitaldirako (2012) egindako aurrekontu-aurreikuspenak islatzen du berdintasunaren aldeko foru-politikak sustatzeko organoa behar bezala berrantolatzearen konpromisoa. Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiari esleitutako aurrekontua 1.679.702 eurokoa da, hau da, % 192ko igoera aurreko urtearekin alderatuta, eta GFA kudeatzeko guztizko aurrekontuaren % 0,24 da (2011n, aldiz, % 0,07 zen).

GFaren asmoa da berdintasun-politikekiko konpromisoari eusten eta sendotzen jarraitzea. Konpromiso hau, beharbada, adierazgarriagoa da krisiune ekonomiko larri honen testuinguruan.

### Genero-ikuspegia foru-politika publikoetan zeharkako bihurtzeko foru-egiturak

Erakundeetan, hainbat neurrik ahalbidetu dute genero-ikuspegia zeharkako bihurtzeko ibilbideari hasiera ematea:

- Aurreko legealdian bi egitura tekniko sortzea: Departamentu arteko Talde Teknikoa eta berdintasuneko departamentu barruko unitateak. Departamentu arteko Talde Teknikoaren ardura da lan-metodologia bateratua ezartzea, prozedura partekatuak gauzatzeko; eta departamentu barruko unitateak, aldiz, arloko politiken garapena gidatzen dute. Bi egituren eginkizuna indartu egingo da II. Plana gauzatzen den bitartean.<sup>6</sup>

<sup>6</sup> Era berean, 18/2012 Foru Dekretuak departamentu barruko berdintasuneko unitateak indartu ditu,

- Koordinazio-ahalmen orokorra finkatzea, Departamentu arteko Batzorde Politikoaren bidez; batzorde hori departamentuetan egiten diren berdintasun-politiken garapena negoziatzeko eta adosteko azken arduraduna da.
- Foru-arauek generoan duten eragina ebaluatzeko gidalerroak definitzea eta ezartzea; lan horri esker, gainera, berdintasuneko egiturak eratzen dituzten langile teknikoak sentikortzeko eta gaitzeko prozesua sustatu ahal izan da. Ildo horretan, gaitzeko prozesuan gidari izan dugu “eginez ikastea” araua.
- 2011-2015 legealdi berriaren barruan, gainera, arloko lan-batzordeak sortu dira, jarduteko lehentasunak elkarrekin koordinatu eta definitzeko. Horren adibide dugu indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko duela gutxi eratu den batzorde politiko-teknikoa (Gizarte Politikako Departamentuaren eta Berdintasuneko Zuzendaritzaren partaidetzarekin), eta, horrez gain, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuarekin batera, gazteen arteko berdintasuneko balioak sustatzeko sortu den lan-espazioa, nahiz Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Berdintasuneko Zuzendaritzaren artean sortu den batzorde politiko-tekniko bat, foru-aurrekontuak generoaren ikuspegitik sakonago aztertzeko.

### **Erakundeen arteko koordinazioa eta berdintasunaren aldeko tokiko politikak sustatzea**

Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak parte hartzen du erakunde arteko batzordeetan, alderdi politikotik zein teknikitik; batzorde horietako gehienetan parte hartu zuen, halaber, joan den legealdian. Hona hemen batzorde horietako batzuk: *Beldur barik!* indarkeria matxista prebenitzeko programa betetzeko erakunde arteko batzordea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko erakunde arteko batzordea eta erakunde arteko talde teknikoa, genero-eragina edo berdintasun-klausulak ebaluatzeko erakunde arteko lan-talde teknikoak, etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren segimendua egiteko batzordea, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren Euskal Behatokia.

Toki-esparruan, Foru Aldundiaren jarduera hainbat programa edo lan-ildoren ingurukoa izan da:

- 2010. urtean, Berdinlagun Zerbitzua abian jarri zen –2012an Berdinbidean Gipuzkoa izendatu dena–, 10.000 biztanletik beherako Gipuzkoako udalerrietan berdintasunari buruzko aholkularitza emateko. Zerbitzu horren bidez helburu orokor hauek lortu nahi dira: Gipuzkoan, tamaina txikiagoko udalerrietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak abian jarri edo finkatzen laguntzea; udalerrien artean edo eskualdeetan, berdintasunaren alorrean, hurbildu, esperientziak trukatu eta jarduerak egitea bultzatzea; udalerrietako edo eskualdeetako jarduerak Gipuzkoako Aldundian garatutako berdintasun-politikekin koordinatzea, tokiko esparruan antzemandako beharrei erantzun ahal izateko. Berdinbidean Gipuzkoa Zerbitzua legealdi honetan indartu da, aurrekontuko zuzkiduran egindako igoera handiaren bidez.
- Beste alde batetik, **tokiko administrazioei zuzendutako diru-laguntzen ildo**a indartu da, 2012an 175.000 euro esleituta, hau da, % 16 baino gehiagoko igoera eginda, aurreko urteko kopuruarekin alderatuta. Era berean, udalerrietan berdintasun-egitura egonkorak sortzen laguntzeko beharra

---

horien osaeraren barruan zerbitzuetako buruzagitzak gehituta.

aurreikusita, Aldundiak laguntza-ildo bat abian jarri du, hitzarmenen bidez, **berdintasuneko teknikariak kontratatzeko** interesa dutenentzat.

- Azkenik, Berdintasuneko Zuzendaritza berriak **tokiko berdintasun-teknikariak osatutako sare gipuzkoar** bat sortzeko oinarriak ezarri ditu; helburua hausnartu, ikasi, trukatu eta lan partekatua egiteko espazio bat sortzea da, udalerrietako berdintasun-politikak Lurraldekoekin koordinatuta gidatu ahal izateko.

## **Emakumeen mugimendu feminista eta elkarte-mugimendua babestea**

**Emakumeen elkarteekin** lan egiteko Planean (2009-2011) zehaztutako helburu orokorrak hauek ziren: jabeakuntza-prozesuak sustatzea, emakumeen gizarte-partaidetza finkatzea, prestakuntza-jarduerak burutzea eta emakumeen elkarte-sareak indartzea. Horiek horrela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroa sortu zen Gipuzkoan, gaur egun topaketa- eta truke-espazio moduan mantentzen dena; hala ere, partaideekin batera, lan egiteko lehentasunak berraztertu behar dira.

Nolanahi ere, Zuzendaritzak lurraldeko elkarte-ehunaren finkapenarekin zuen konpromisoa islatuta dago **elkarteei zuzendutako diru-laguntzen ildoaren** igoera nabarmenean. % 33ko gehikuntzarekin, aurrekontu-saila 200.000 eurotara iritsi da, 2021. urterako.

Hala ere, legealdi honetako helburu nagusietako bat mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarte-mugimenduarekin solasaldi politikoa egiteko egiazko espazio bat sortzea da, hau da, Berdintasuneko Foru Kontseilua. II. plan hau egiteko urratsetan zehar, hainbat bilera egin ditugu Gipuzkoako emakumeen talde eta elkarteekin, espazio hori elkarrekin definitzen hasteko.

## **Sentikortzea eta kontzientziatzea:**

Aurreko legegaldian, azterlanak, diagnosiak eta gizartea sentikortzeko kanpainak egitea sustatu zen, haien artean, *Gipuzkoako jaien azterketa genero-ikuspegitik* izenburuko azterlana, *Berdintasuna enpresetan* izenburuko azterlana, *Berdintasuna* aldizkako barne edizioa, *Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako gida* eta *Rol aldaketa* eta *Parez-parez* baterako hezkuntzako programak.

Egungo Zuzendaritzaren helburua, ildo horretan, desberdintasunak ikusgarri egiten jarraitzea da, eta, halaber, beste eragile batzuekin batera, eztabaida publikoa eta gizarte-eztabaida sustatzen laguntzea, antolatzen diren lan-prozesuen aldeko iritzi-joera bat indartze aldera. Horretarako, komunikazio eta harremanetarako kanal berri bat asmatu dugu: [www.berdintasuna.tv](http://www.berdintasuna.tv); horren bidez, eztabaida sortu eta jokabide-aldaketak sustatu nahi ditugu, eta, era horretan, Gipuzkoako gizartera ingurune berdintasunezkoago bat hurbiltzeko baldintzak sortu.

## 6. Berdintasunerako II. Plana prestatzeko prozesua

II. Foru Plana prestatzeko lanaren diseinua oinarrituta dago uste sendo batean, alegia: politika publikoen alorrean egiten dena egiten den modua bezain garrantzitsua izan behar dela. Beraz, helburua ez da soilik izan agiri politiko eta tekniko bat prestatzea, aitzitik, **esku-hartze zuzenari jadanik hasiera ematen dion lan-prozesu bat** sortzea ere izan dugu xede; lan-prozesu hori, halaber, ahalbidetuko digu aldatu nahi dugun errealitatea eraldatzen hastea, prozesua bera garatzen den neurrian.

Agiri hau prestatzen eman ditugun hilabete guztietan, Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak hainbat eragilerekin egindako esku-hartzeak agiria aberasten lagundu duten edukiez eta ekarpenez bete ditu.

Prozesua zenbait alderdi kontuan izanda burutu da. Hona hemen alderdi horiek:

Lehendabizi, lehentasunak identifikatzeko eta II. Plana burutzeko funtsezkoak diren eragile nagusien **parte-hartzea antolatzeak** berekin du elkarreragineko estrategia eta formatu desberdinak pentsatzea, dela Foru Aldundiko eta udaletako berdintasun-alorreko politikari edota teknikariengana dela Lurraldeko mugimendu feministako eta emakumeen mugimendu antolatuko ordezkariengana iritsi ahal izateko. Partaidetza askotarikoa lortzeko ahalbidetu digu errealitate bati buruzko ezagutzak, eztabaidak eta diagnostikoak elkarri trukatzeko, betiere xedea parte-hartzaileak erakundearen helburuak lortzeko informazio-iturri huts moduan erabiltzea ez dela jakinda. Hain zuzen ere, subjektu aktiboak diren aldetik gonbidatu ditugu parte hartzera, eta beren ekarpenak jaso ditugu jarduteko lehentasunak zehazteko.

Plan bat prestatzeko orduan era askotako partaidetza sustatzea erabakitzen denean, nolabaiteko tentsioa sortzen da plangintza egiteko ahalegina lehenbailehen gauzatzeko (agiria esku artean edukitzeko) desioaren eta esku hartzea onartzen duten pertsonen **denborak eta prestasuna errespetatzeko** garrantziaren artean, batez ere jakinda elkarte-mugimenduko emakumeek eta mugimendu feministako ordezkariak erakunde askotatik iristen zaizkien parte hartzeko eskaera ugari eta, askotan, koordinatu gabekoei erantzuteko zer zailtasun dituzten. Hala eta guztiz ere, prestatzeko prozesua esku-hartze zuzenetik banatzen ez dela ulertzeko, ikuspegia aldatu beharra dago. Alde batetik, konfiantza sortzen duten eta etorkizunean jarraipena daukaten lan-prozesuak abian jartzen denbora nahikoa emateko garrantzia dago. Ildo horretan, saihestu nahi izan dugu II. Planaren prestaketa erakunde-kontsulta egiteko "une" bat besterik ez izatea. Bestaldetik, Plana antolatzeako prozesua ez da amaitzen agiri hau ematen dugunean, aitzitik, urtero eman nahi baitzaio jarraipena, urteko plan operatiboen definizioarekin.

Lan-espazioei dagokienez, lehentasuna eman diogu lehendik dauden egiturak erabiltzeari, baina, halaber, berriazko espazioak sortu ditugu hori beharrezkotzat jo izan dugunean, aurrerago birmoldatu eta eztabaida, kontsulta edota solas egiteko espazio egonkor bihur daitezzen. Hona hemen kontsultatutako pertsona eta erakundeekin elkarreraginerako erabilitako edo sortutako espazioak, bai erakundetik kanporantz, bai barrurantzkoak.

- **Lurraldeko berdintasun-teknikariekin** egindako lana bi helburu nagusitan oinarrituta garatu da: alde batetik, lurraldeko berdintasun-politikek Berdintasunerako II. Planaren barruan izan behar duten norabidea era bateratuan eztabaidatu, ezagutu eta definitzea; eta bestaldetik, teknikarien artean eta teknikarientzat, **hausnartzeko, ikasteko, topaketak egiteko eta esperientziak trukatzeko espazio bat sortzea**. Horretarako, lanerako sei lantegi burutu ziren, **Elkarrizketak** izendatuak, plan honetan jasotako jardun-ildo bakoitzaren edukiei buruz eztabaidatu eta horietan sakontzeko.

*Esku hartzea  
abian jarri  
nahi duen  
prozesu bat*

*Partaidetza  
anizkoitza bat  
ahalbidetu*

*Denbora  
zaindu*

*Ezspazioak  
aniztu*

- Emakumeen elkarte-mugimenduarekin egindako lana Gipuzkoako emakume eta gizonen berdintasunerako Foroaren VI. Topaketaren bidez antolatu zen; bertan, Lurraldeko emakumeen elkarte ugarik parte hartu zuten. Topaketa horretan, II. Planaren prestaketarako filosofia eta lan-plangintza aurkezteaz gain, bizitzen zainketari heldu eta horren inguruan lan egin zen, eta krisiari buruzko hausnarketa egin zen ikuspegi feministatik.
- Mugimendu feministaren eta GFaren arteko elkarrizketa politiko egonkorra egiteko espazio baten oinarriak sortzen hasteko helburuaz, Lurraldean garrantzitsuak diren zenbait elkarte feministarekin topaketa bat egin zen; topaketa horretan, Plana prestatzeko prozesua egiaztatu eta jardun-esparruei buruz eztabaidatu eta horietan sakondu zen, parte hartu zuten erakundeekin aldeztutako programa baten arabera.
- GFaren esparruan, II. Plana egiteko prozesua bertan diren zeharkako egiturak kontuan hartuz gauzatu da<sup>7</sup>. Hala bilera bat egin zen politikari eta teknikariek, Departamentu arteko Berdintasuneko Batzorde Politikoko zuzendariei, idazkaritza teknikoei eta Enpresako Batzordeko kideei osatutako Departamentu arteko Talde Teknikoko kideei GFako departamentuetako zerbitzuko buruzagitzeari dei egin eta gero, departamentu barruko unitateak osatzen baituzte horiek. Bilkuran, plana prestatzeko prozesua aurkeztu genuen eta bertan jasotako ikuspegi nagusiak garatu ziren, datozen urteetako berdintasun-politikak markatuko dituzten lan-ildoak ezagutzera eman eta horiei buruzko ekarpenak eta iritziak jasotze aldera. Geroago, Planaren helburu orokorrak eta estrategikoak aurkeztu eta adosteko helburuaz, alderaketa egiteko 8 bilera antolatu ziren (bilera bat departamentu bakoitzarekin), eta dei egin zitzaion idazkaritza tekniko eta zerbitzuko buruzagitzeari.
- II. Plana itzuli eta hedatzeko fasean, oro har herritarrei, bereziki elkarte-mugimenduari eta udaletako berdintasuneko teknikariei, eta baita Gipuzkoako Batzar Nagusiei zein Foru Gobernuako kontrol-ganberari ere zuzendutako ekintzak kontuan hartu dira.
- Ingurune horretan, ikus-entzunezko agiri bat prestatu dugu, helburu bikoitza erdiesteko: II. Planaren ikuspegi politikoa eta prestaketa-prozesua erakustea; eta berdintasun-politikak herritarrengana hurbiltzeko eta politika horiek gizarte bidezkoagoa lortzeko duten garrantziaren aurrean sentikortzeko tresna bat dela ikusaraztea.

---

<sup>7</sup> Egitura horien funtzio eta osaerari buruzko informazio gehiago aurki daiteke Kudeaketa-eredua atalean.

# II. ZATIA

## ERALDAKETARAKO ILDOAK

*Gobernu ona*

*Sare eta praktika  
feministak*

*Zainketa duinak  
eta guztiontzat*

*Bizitzaren  
iraunkortasunerak  
o ekonomia*

*Ingurune  
iraunkorra*

*Indarkeria  
matxistarik  
gabeko bizitzak*





•

---

# Gobernu Ona

*Bizitzaren iraunkortasunaren alde  
jarduteko eta erabakitzeko modu berriak*

---

*I. Kapitulu*

*Sarrera*

*Begirada  
zabaltzea*

*Politika publikoak  
eraldatzea*

*Kudeaketa-  
eredua eraldatzea*

*Koordinatzeko eta  
parte hartzeko  
mekanismoak  
eraldatzea*

*Helburuen  
matrizea*



## 1. Sarrera

Plan honen bidez erdietsi nahi dugun helburua bizitzaren iraunkortasuna –hau da, pertsonen bizitzaren zainketa– politika publikoen erdigunean kokatzea da. Horregatik, inflexio-puntu batek bezala funtzionatzen du, eta zubi moduan erabil dezakegu, berdintasunaren garapena eta berdintasunaren aldeko politikak ulertzeko modu hegemonikoa eta ikuspegi alternatiboa elkartzeko. Ikuspegi alternatibo horren azken xedea, hain zuzen ere, biziera ona unibertsaltasun eta singularitasunean oinarrituta ahalbidetzen duten baldintzak sortzea da.

Ikuspegi horretatik, beraz, **Gobernu Ona** foru-erakundearen baldintza egokiak sortzeko tresna da, hau da, biziera ona eta, hortaz, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzera bideratutako politika publikoak diseinatu eta garatzea ahalbidetzen duen modua, **NOLA** alegia.

Horiek horrela, foru-erakundearen eta egiten dituen politika publikoen azken xedea aldatzeko, beharrezkoa da kontzeptu berriei heltzea edo lehendik dauden norabide horretako kontzeptuak beste esanahi batez janztea, hala nola *gobernu onaren*<sup>8</sup> kontzeptua.

Aldaketa hori gauzatzeko, hala ere, politika publikoen edukietan eraldaketak egin ez ezik, foru-erakundearen bertan erabakitzeko eta jarduteko modu demokratikoagoak diseinatu ere egin behar dira. Hau da, lehenetsun politikoak definitzerakoan aldaketak egin behar dira, baina baita jarduteko eta lan egiteko prozeduretan, erabakiak hartzeko egituretan eta sinismen-sisteman ere. Laburbilduta, gobernagarritasun-ereduan.

Gobernagarritasun-ereduaren aldaketa hori –politika publikoen edukiak eta foru-erakundearen bertan erabakitzeko eta jarduteko modu demokratikoagoak– lotuta dago ezin utzizkoak diren bi estrategiaren garapenari: gobernantza eta herritarren parte-hartzea, eta genero-mainstreaminga. Estrategia horiek bi zeharkako elementu kontuan hartuta gauzatu behar dira: alde batetik, ikuspegi feminista eta parte hartzeko prozesuetan pertsonak egitura sozioekonomikoan dituzten kokalekuen aniztasuna onartzea, eta bestaldekik, euskararen erabilera eta euskaraz sortzea sustatzea.

Oro har, **governantza** kontzeptuaz gobernatzeko forma berri bat adierazi nahi da; forma horren erdigunean erabakiak hartzea eta erabakiak abian jartzeko geroagoko prozesua daude, erakunde publiko, merkatu eta gobernu kanpoko eragileen arteko elkarreragin eta lankidetzak handiagoak diren ingurune batean.

Hala eta guztiz ere, beste ikuspegi politikoetan ez bezala<sup>9</sup>, II. plan honen barruan, gobernantza demokratikoaren kontzepturantz abiatzea proposatzen dugu. Ikuspegi horretatik abiatuta, gobernantzak demokrazia parte-hartzailearen kontzepturantz

*Governantza  
eta  
herritarren  
partaidetza*

---

Gobernu ona kontzeptua ez da berria. Oso zabaldua dago garapenari buruzko azterlanen literaturan 90eko hamarkadaren hasieratik; hasieran, oso lotuta egon zen nazioarteko laguntza emateko politikei, laguntza emateko baldintza bezala. Estatu emaileen ikuspegitik, gobernu ona hazkunde ekonomikoa, alderdi anitzeko demokrazia, merkatu-ekonomia, giza eskubideen errespetua eta, zenbaitetan, gastu militarren murrizketa eta berdintasun sozioekonomikoa bermatzen dituen da. Kontzeptua nork erabiltzen duen, garrantzi handiagoa edo txikiagoa ematen zaie gizarte-irabaziak maximizatzeko, eta gizarte-kohesioa, herritarren gizarteratzea eta ongizatea sustatzeko irizpideei. (HEGOA-Hiztegia). II. Planari dagokionez, hala ere, proposatzen den gobernu onaren formulazioa argi eta garbi zuzenduta dago bizitzaren iraunkortasuna bermatzera eta aurreko atalean deskribatu den metaketaren logikaren ondorio okerrenak geldiaraztera.

9 Gobernantza terminoa 80ko hamarkadan sortu zen, nazioarteko ekonomia-erakundeei lotuta, eta bereziki garapen ekonomikoa sustatzearekin zerikusia zuten erakundeei lotuta (adibidez, Munduko Bankua). Horregatik, ikuspegi kritikoek paradigma bezala salatu dute, batez ere gizarte-zerbitzuen eraginkortasunean, herritarren ordezkotza bezere-estatusaren erabileran, espazio publiko-politikoaren desagertzean, eta merkatua ekonomia eta gizarte arautzeko instantzia bezala onartzean oinarritutako esku hartzeko irizpideek erakundearen bermea eduki dezaten pentsatuta.

gidatzen gaitu. Hau da, herritarrek “ondasun erkidea” definitzeko eta taldeko ondasun edo interes horri erantzuna emateko egokiena zer den erabakitzeko orduan parte hartzerantz.

Ingurune horretan, ez dugu bat egiten herritarrek parte hartzea sustatzearekin, baldin eta helburu hauek lortzeko bada:

- Erabaki publikoen eraginkortasuna hobetzea. Hala bada, herritarren desio eta kezken errealitateari buruzko informazio handiagoa daukagun neurrian, disfuntzio gutxiago gertatuko dira erabaki politikoen errendimenduan.
- Ordezkeri eta erakunde politikoen legitimazio handiagoa lortzea. Ikuspegi horretatik uste da parte hartzeko mekanismoak antolatzen diren eta “governatutakoek” beren ahotsa ozenagotu, eta kexak eta aldarrikapenak azaltzen dituzten neurrian, eta erakundeek nolabait horiek jasotzen dituzten neurrian, herritarrek kasu egiten dietela sentituko dutela eta erakunde publikoetan jarritako konfiantza berrituko dutela.
- Demokrazia ordezkatzailerak hobetzea, herritarrek partaidetzazko mekanismo demokratikoetan parte-hartze handiagoa izanda.

Aitzitik, uste dugu herritarrek parte-hartzean lortu behar duguna demokrazia ordezkatzailerak beste demokrazia baten bidez osatzea dela, hau da, demokrazia parte-hartzailearen bidez. Horiek horrela, botere politikoan jarduteko banaketari buruzko eztabaida gehitu egingo da, hau da, nork erabaki behar duen eta noraino, informazio eta kontsultatik hasi eta erabaki eta kudeaketa partekaturaino doan continuum baten barruan.

Ingurune horren barruan, demokrazia ordezkatzaileraren eremuan zalantzan jartzen dira egungo botere politikoan jarduteko moduak, eta gizartearen errealitatea boterearen eraldaketaren bidez itxuraldatzea erdiesteko helburuak zehazten dira. Beste eredu honetan, pertsonen publikoa denaren inguruan dituzten kezkek adierazi eta eztabaidatzeaz gain, gai publikoei buruz erabaki ere egiten dute taldeka. Alegia, pertsonen baieztatu egiten dute beraiengan –komunitatearen beste elementu bat izanik– subiranotasuna dagoela, baina, gainera, subiranotasuna gauzatu egiten dute.

**Genero-mainstreaminga** gobernagarritasun-eredua –hots, gobernu ona– definitzen duen bigarren funtsezko estrategia da. Kontzeptua 1995ean adostu, finkatu eta zabaldu zen nazioartean, Beijing-go Emakumeei buruzko Nazio Batuen IV. Munduko Konferentziako Ekintza Plataforma onartu zenean.

Kontzeptu horren definizioak hainbat adiera baditu ere –azpimarratzen diren elementuen arabera–, mainstreaminga estrategia dual moduan ikusten da, elementu hauek barnean dituen: genero-ikuspegia ekintza, alor eta programa guztietan sartzea, eta emakumeentzat jabetze-prozesuak sustatzea.

Berdintasunaren aldeko politikak izandako bilakaerari lotuta sortu da, emakumeen arazoak konpontzeko esku-hartze sozialean arreta jartzen zuten eta jartzen duten<sup>10</sup> eta, ondorioz, berriazko ekintza konpentsatzaileen beharra zuten ikuspegietatik hasi eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna demokraziaren gabezia eta, beraz, arazo politiko eta taldeko erantzukizun publiko bezala onartu arte.

Beraz, genero-mainstreamingak berekin du ikuspegi politikoaren aldaketa dakarren estrategia bat. Jomugan ez daude jadanik emakumeak, emakumeen desabantaila eta desberdintasun-egoera sortzen dituzten gizarte-dinamikak baizik. Horrez gain, aldaketa operatiboa ere badakar, izan ere, lehen "emakumeen arloak" deituriko

---

<sup>10</sup> Berdintasunaren eta zeharkakotasunaren aldeko politikaren alorrean ezin da bilakaeraz argi eta garbi hitz egin, izan ere, politikei eta estrategiari heltzeko modu desberdinak erabiltzen dira batera, eta gainjari egiten dira.

berariazko egituren eginkizuna emakumeen beharrei erantzutea zen modu berean, mainstreamingaren bidez, estrategia bezala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna “korrante nagusiaren” osagarrietako bat izatea lortu nahi da, hau da, lehentasun-estatusa bereganatzea. Horretarako ezinbestekoa da antolaketa-erantzukizun partekatua nozioa, emakumeen arloak lehen zuen erantzukizun eskusiboa ordezkatzeko duena, gauzatzea. Arlo horiek genero- edo berdintasun-unitate bihurtu ziren mainstreamingaren barruan, eta strategiaren garapena administratiboa erakundearen alderdi eta departamentu guztietan sustatu, lagundu, koordinatu eta haien segimendua egitea izan ziren bete beharreko eginkizunak.

Mainstreaming-estrategia zabaltzean, arazo bat sortu da, alegia, ea erakundeek estrategia hori antolatu eta abian jar ditzaketen, erakundeak berak zalantzan jarri gabe. Horren arabera –hau da, zalantzan jarri edo ez–, bi mainstreaming mota bereiz daitezke:

- **Integratzailea:** emakumeek arlo desberdinetan dituzten behar eta interesak kontuan hartzen dira, genero-desberdintasunak sortu eta birsortzen dituen eredu sozioekonomikoa eztabaidatu gabe.
- **Eraldatzailea:** erakunde publikoen eginkizuna berraztertzea dakar, eta, kasu honetan, genero-desberdintasunak suntsitzea, desberdintasun horiek komuna dena antolatzeko eredu bat indartzen laguntzen dutelakoan, hain zuzen ere desberdintasunak betikotzen dituen eredu. Erakunde publikoen eginkizuna berrinterpretatze horrek berekin du lehentasun politiko berriak definitzea, eta baita funtsezko aldaketak ere baliabideak birbanatzeko eta erantzukizunak esleitzeko orduan.

Genero-mainstreaming mota hori da, zehazki –genero-ekitatearen aldeko antolaketa-aldaketa izenekoari lotuta–, II. plan honen bidez zabaltzea nahi duguna, hor eredu sozioekonomikoaren aldaketa ezinbesteko baldintza baita genero-desberdintasunak ezabatzeke, eta, aldi berean, ahalbidetzen baitu egiaz bermatzea beste garapen sozioekonomiko batean emakumeak eta gizonak kontuan hartuko direla, garapen horretan lagunduko dutela eta garapenaren ahaleginen onura berdina aterako dutela. Garapen sozioekonomiko hori, hain zuzen ere, pertsonen bizitzaren zainketa eta taldearen ongizatea gizarte- eta ekonomia-ereduaren lehentasunen erdigunean kokatzen dituen da.

Hala bada, foru-erakundearen barruan baldintza egokiak sortu behar dira, antolaketan, orokorrean, aldaketa garrantzitsuak sustatzea ahalbidetzeko: balioak, egiturak, lan-sistemak, taldeen kudeaketarako prozedurak, ikuspegi teknikitik (baliabideak nola elkartzen diren ekitatea lortzearen), politikotik (botereek erakundearen nola mugatzen duten baliabideen eta erantzukizunen esleipena, eta lehentasunen agenda) eta kulturaletik (sinismen partekatuek) begiratuta<sup>11</sup>.

*Ikuspegi  
feministaren  
integrazioa  
aniztasun-  
aren  
errekonoziti-  
mendua*

Bi estrategia horiek zabaltzean –governantza eta herritarren parte-hartzea, eta genero-mainstreaminga–, atal honen hasieran azaldu dugun bezala, beharrezkoa da zeharka kontuan hartzea ikuspegi feminista gehitu behar dela, eta foru-erakundeak sustatzen dituen parte hartzeko prozesu eta espazioetan pertsonak egitura sozioekonomikoan hartzen dituzten lekuen aniztasuna onartu behar dela, eta baita euskararen erabilera eta euskarazko ekoizpena sustatu behar direla ere.

Lehenengo alderdiak –ikuspegi feminista gehitu eta foru-erakundeak sustatzen dituen parte hartzeko prozesu eta espazioetan pertsonak egitura sozioekonomikoan hartzen dituzten lekuen aniztasuna onartzea– berekin dakar, alde batetik, herritarren parte-

---

11 Mainstreaming de género y Cambio Organizacional pro Equidad de Género. Natalia Navarro

hartzea emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak aldatu behar dituen prozesu politiko moduan ikustea eta, bestaldetik, mugimendu feminista erakunde publikoetan sustatutako espazio eta prozesuetako funtsezko solaskide bezala onartzea.

Baina, horrez gain, parte hartzeko prozesu horietan pertsonak egitura sozioekonomikoan hartzen dituzten lekuen aniztasuna onartzeak berekin du sexu-generoa elementu batzuek zeharkatuta dagoela kontuan hartzea, hala nola: erosteko ahalmena, genero-identitatea eta migrazio-estatusa. Eta, halaber, horiek guztiak gurutzatzean desberdintasun-adierazpen berri eta askotarikoak sortzen direla. Ildo horretan, parte hartzeko prozesu eta espazioak sustatzeko orduan aniztasunaz ez baliatzeak kontuan hartu ez diren errealitateak baztertu eta ikusezin bihurtzeko dinamikak sor ditzake, eta ez du kontuan izango bestela ezkutaturik geratuko liratekeen borroka-esperientzien aberastasuna.

*Euskararen erabilera eta sustapena*

- Beste alde batetik, II. plan honen barruan, euskararen erabilera eta euskarazko ekoizpena bermatzeko hartu dugun konpromisoaren abiagunea da hizkuntza-eskubideak –emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako eskubideak bezala– talde-eskubideak direla, eta taldean soilik eraginkor bihur daitezkeela. Gainera, emakumeek eta euskarak jasaten duten egiturazko desberdintasunari aurre egiteko, beharrezkoa da egoera hori zuzentzen duten ekintza positiboak abian jartzea.

Laburbilduta, gobernu onaren kontzeptua berritu da adierazitako estrategia eta elementuez baliatuta, eta horiek beheko irudian irudikatuta daude, ekuazio moduan:



Horiek horrela, gobernu onaren ildoaren bidez, azken finean, honakoa lortu nahi dugu: foru-erakundeetan, egiazko berdintasunean aurrerapausoak egiten dituen eta bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatzen laguntzen duen gobernagarritasun-eredu bat eraikitzeko laguntza ematea.

Horretarako, ildo honetan aurkezten ditugu aipatutako estrategiak garatzea ahalbidetzen duten baldintzak foru-erakundeetan sortu eta, ondorioz, azken helburu hori lortzearekin batera II. plan honetan eraldaketarako ildoetan jasotako gainerako helburuak erdiesteko eraldatu behar diren esku hartzeko esparruak –politika publikoak, kudeaketa-eredua eta koordinatzeko eta parte hartzeko mekanismoak–. Horiei jarraituz, ildo honetako helburuak lau esku hartzeko esparrutan egituratuta daude, hauetan, zehazki:

- **Begirada zabaltzea:** Gobernagarritasunaren eredua gobernantza demokratikoagoa duten formak erdietsi arte eraldatzeko –herritarren parte-hartzea ikuspegi feministatik sustatuta eta pentsamendu feminista politika publikoetan gehituta–, beharrezkoa da taldeko eztabaida eta hausnarketa

egiteko espazioak sortzea, heldu gabeko erronkei ekiteko eta II. plan honetan jasotako aldaketak ahalbidetzen dituen gobernagarritasun-ereduaren etengabeko hobekuntza errazteko.

- **Politika publikoak eraldatzea.** Politika publikoak eraldatuko badira, alderdi hauek landu behar ditugu lehenago:
  - Erakunde osoan genero-mainstreamingaren estrategia garatzea ahalbidetzen duten baldintza politiko eta egiturazkoak sortzea. Ildo horretan, beharrezkoa da politikaren ikuspegitik alderdi hauei heltzea: lehentasun politikoen agenda, berdintasunaren aldeko foru-politikak garatzeko baliabideak esleitzea, eta departamentuek politika horien garapenean dituzten erantzukizunak definitzea. Eta kulturaren ikuspegitik, berriz: foru-erakundearen antolaketa-kultura betetzen duten sinismen eta balioen sistema, erakundearen diharduten pertsonen berdintasunaren eta bizitzaren iraunkortasunaren aurrean aldeko jarrera sustatzeko helburuaz. Eta, aldi berean, bi elementuak GFAko kulturaren balio nagusi bihurtu ahal izateko.
  - Tokiko berdintasun-politikak garatzea ahalbidetzen duten baldintzak indartzea, plan honen barruan proposatzen diren aldaketak Gipuzkoako Lurralde osoan orokortzeko mekanismo bezala.
- **Kudeaketa publikoaren eredia eraldatuz:** Esku hartzeko esparru honetan, administrazio-jardunbideak eta lan egiteko prozedurak aldatu nahi ditugu, jardunbide horietan guztietan genero-ikuspegia erabiltzeko xedez. Hau da, foru-erakundearen egitekoan genero-ikuspegia sartzea ahalbidetzen duten arlo teknikoko antolaketa-baldintzak sortu nahi ditugu.

Horretarako, GFAko langileei zuzendutako berdintasunaren arloko trebakuntza teknikoa indartzeko beharra ikusten da. Trebakuntza hori errealitateko generoaren azterketa egiteko eta errealitate horretan esku hartzeko informazio sistematikoa sortzera bideratu behar da, genero-desberdintasunik birsor ez dezan eta pertsonen bizitzaren zainketa erdigunean jar dezan. Baina, era berean, dagoeneko sustatu diren jardun eta esperientzietan metatutako ezagutzaren kudeaketa egokia egiteko beharra ikusi dugu, jardun eta esperientzia horiek erakunde eta etorkizunean egingo dituen jarduerak elikatzeke.

- **Koordinatzeko eta parte hartzeko mekanismoak eraldatuz:** Esku hartzeko esparru honen bidez, plana garatzeko egiturak sendotu nahi dira, hiru elementu sustatzen dituen begiradaz: erakunde arteko koordinazioa, foru-departamentu guztien lankidetzeta eta erantzukizun partekatua, eta foru-erakundearen eta mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren arteko elkarrizketa politikoa. Era honetan, foru-erakundearen demokratizazio-maila handitu nahi dugu, bestelako erakunde- eta gizarte-eragileek berdintasunaren aldeko foru-politiken plangintzan, gauzatze eta segimenduan parte hartzea ahalbidetzeko baldintzak sortzearekin batera.

## 2. Begirada zabaltzea

**BG.1. helburu orokorra:** Politika publikoen definizioaren barruan pentsamendu feminista sartu eta herritarren partaidetza ikuspegi feministatik sustatzen duen antolaketa politikoaren eredu bat sustatzea.

Proposatutako gobernagarritasun-ereduan oinarrituta –jarduteko ingurune nagusi bezala–, esku hartzeko esparru honen helburu orokorrak nabarmentzen du ingurunea hobekuntzarantz eramateko baldintzen sorrera, funtsezko bi elementu kontuan hartuta: herritarrek parte hartzeko prozesuetan ikuspegi feminista sartzea, eta pentsamendu feminista foru-politika publikoetan gehitzea.

Horretarako, topaketa-espazio birtualak eta errealak sortzea aurreikusten da, ezagutza sortu eta politika publikoetara iristeko, eztabaidaren bidez, esperientzia-trukeen bidez, eta erakunde publikoen, akademiaren eta emakumeen mugimendu feminista eta elkarte-mugimenduaren artean abian jarritako ekimen partekatuen bidez.

Atal honetan zein plan honetan jasotako *eraldaketarako ildo bakoitzaren begirada zabaltzea* azaltzen duen atal bakoitzean zehaztu diren helburuak garatzeko, "gela" espezifikoak eratuko dira, behatoki feminista bat sortzera bideratuta; behatoki horren bidez, politika publikoak diseinatu eta abiaraziko dira, eta programazioa lurralde-deszentralizazioaren irizpideei jarraituz antolatu eta parte hartzeko interesa duten pertsona eta erakundeekin adostea aurreikusten da.

Hala bada, helburu orokor hau bi helburu espezifikoren inguruan egituratuta egongo da:

**BG.1.1. helburu espezifikoa:** pentsamendu feministaren egituraketa politika publikoen esparruan bermatzea, eta erakundeen eta gizarte-mugimenduen arteko esperientzien trukea ere bermatzea.

**BG.1.2. helburu espezifikoa:** Begirada feminista kokatzea lurraldeko parte hartzeko teoriaren eta praktikaren gainean, eta ordezkari politiko eta sozialaren krisiari buruzko eztabaidak bultzatzea.



### 3. Politika publikoak eraldatzea

Esku hartzeko esparru honen barruan daude foru-erakunde osoan genero-mainstreamingaren estrategia garatzea ahalbidetzen duten baldintza politiko eta egiturazkoak sortzeko helburuak.

Estrategiaren garapena ez da berez helburua, bitarteko bat baizik. Politika publikoek lehenetasunen erdigunean pertsonen bizitzen zainketa eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna jartzen lagun dezaten erabiliko den tresnetako bat.

Horrek berekin du foru-erakundearen lehenetasun politikak, politika publikoak diseinatzean dagoen ikuspegia eta foru-erakundearen beraren antolaketa-kultura (erakundeetan finkatu diren genero-estereotipoak eta sinismen- eta balorazio-sistemak) aldatzeko prozesu estrategiko bat sustatzea.

Lan hori burutzeko, besteak beste, berdintasunaren aldeko politikak sustatzen dituen erakundearen jarrera funtzional eta sinbolikoa hobetu behar da, erakunde hori genero-mainstreamingaren estrategia garatzeko baliabide ekonomiko eta giza baliabide egokiez hornitu behar da, eta foru-erakundeko departamentuei atxikitako zuzendaritzako lanpostu guztietan berdintasuna sustatzeko erantzukizunak definitu behar dira.

Hain zuzen ere horixe da, beraz, eraldaketa eragiten duen genero-mainstreamingaren estrategia zabaltzeko erronketako bat, ekitatearen aldeko antolaketaren aldaketari lotuta dagoena. Azken hamarkadetan estrategia ezartzeko esperientziak agerian jarri du erakundeek errazago onartzen eta sustatzen dituztela aldaketa mota batzuk beste batzuk baino, eta nahiago dituztela ezarrita dauzkaten erabakitzeko eta jarduteko moduei arazo gutxien sortzen dizkietenak, bereziki izaera politikoko jardueri lotuta daudenak.

Beste alde batetik, esku hartzeko esparru honen barruan, tokiko berdintasun-politikak garatzea ahalbidetzen duten baldintzak indartzeko helburuak ere definitu dira, plan honen barruan proposatzen diren aldaketak Gipuzkoako Lurralde osoan orokortzeko mekanismo bezala.

**BG.2. helburu orokorra:** Foru-politika publikoetan, genero-mainstreamingaren estrategia eraldaketaren ikuspegitik garatzeko baldintza politiko eta egiturazkoak sortzea.

**BG.2.1. helburu espezifiko:** Ikuspegi feminista duten foru-politiken plangintza eta ebaluazioa egiteko proposamen politiko bat adostea, eta erantzukizuna erakundearen artean partekatzen dela eta hasitako aldaketak iraunkorrak direla bermatzea.

**BG.2.2. helburu espezifiko:** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko eta pertsonen bizitzaren zainketa-errekiko konpromisoa antolaketa-kulturaren balioen erdigunean kokatzea, eta konpromisoa egiaz betetzeko behar diren baliabideez hornitzea erakundearen.

**BG.3. helburu orokorra:** Berdintasunaren aldeko tokiko politikak finkatzen laguntzea, Lurraldean dagoen dibertsitatea kontuan hartuta.

**BG.3.1. helburu espezifikoak:** GFAk Gipuzkoan berdintasunaren aldeko politikak antolatzeko eta planifikatzeko ematen duen laguntza indartzea.

Laguntza hori hainbat neurriren bidez gauzatuko da, eta haien artean hauek nabarmendu behar dira:

- **Berdinbidean-Gipuzkoa,** berdintasunaren aldeko politikak gauzatzean dinamizatzeko eta aholkua emateko 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietara zuzendutako programa finkatzea<sup>12</sup>. Proiektu horri esker, lan-prozesuei ekin ahal izan zaie orain arte hogeitaka udalerritan. Toki-esparruan izandako eraginaz gain, Berdinbidean programak lankidetzan aritzeko aukerak sortzen ditu Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren eta GFAko beste departamentu batzuen artean (adibidez, Kultura, Gazteria eta Kiroleko Departamentua)<sup>13</sup>.

Gipuzkoako berdintasuneko tekniken sarea sortu eta abian jartzea, Lurraldeko tokiko administrazioen artean hausnartzeko, ikasteko, trukea egiteko eta estrategiaren plangintza egiteko espazio bezala, EAEn dagoeneko dauden tokiko sareen osagarria izan dadin. Halaber, sare horrek ahalbidetuko du Lurraldean berdintasunaren alorrean dugun errealitatea diagnostikatzen jarraitzea, jarduera partekatuen lehentasunak zehaztu eta jarduera horiek abian jarri eta udalerrietan dauden eskaerak modu egokiagoan babesteaz gain.

**BG.3.2. helburu espezifikoak:** Toki-esparruan, berdintasunerako egiturak indartzea.

Berdintasunaren alorrean egituraketa eta plangintza egiteko laguntzaz gain, II. Planean bultzatu dugu tokiko berdintasun-politikak abian jartzeko egiturazko baldintzen hobekuntza, hainbat neurri baliatuta:

- Berdintasuneko langile teknikoak toki-esparruan kontratatzen laguntzea.
- Berdintasunaren alorrean tokiko proiektu estrategikoak sustatzeko laguntza-ildoak indartzea.

---

12 Zerbitzu hori GFAk eta EUDELeK bultzatu zuten 2010ean. 2011tik aurrera, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ekimenarekin bat egin zuten, baliabide ekonomiko osagarriak ekarrita.

13 Lekuan bertan esku hartzean trebakuntza emateko eta genero-ikuspegia finkatzeko zeharkako lanari ekin zaio, Gaztematika programaren barruan, eta hor, berdintasuna lanaren zeharkako ardatza da. Hauek dira elkarrekin lan egiteko lehentasunezko bezala identifikatu diren bi ildoak: alde batetik, trebakuntza-prozesu bati hasiera ematea, tokiko esparruan jende gaztearekin lan egiten duten eragileei zuzenduta; eta bestetik, koordinazioari ekitea, jende gaztearen parte-hartzea sustatuta prozesuetan ikuspegi feminista erabiltzen duten jardun eta esku-hartzeak sendotzeko.

#### 4. Kudeaketa-eredua eraldatzea

Esku hartzeko esparru honetan, jarduteko moduak –jardunbideak eta lan egiteko prozedurak– aldatu nahi ditugu, jarduteko modu horietan guztietan genero-ikuspegia erabiltzeko, eta, hortaz, genero-mainstreamingaren estrategia garatzeko orduan aurrera egiteko xedez. Hau da, foru-erakundearen egitekoan genero-ikuspegia sartzea ahalbidetzen duten arlo teknikoko antolaketa-baldintzak sortu nahi ditugu.

Horretarako, jardunbide eta lan-prozeduren barruan, bi tipologia aipa ditzakegu:

- **Inklusiboak edo integrazionistak:** Jardunbide horiei egiten zaizkien kritika ohikoenek zerikusia dute erakundearen prozeduretara gehiegi egokitzeko eta, beraz, azkenean administrazio-prozedurak zenbaitetan pentsatu eta egiteko erabiltzen diren inertzia, ohikeria eta konpromiso eskasa jartzeko joerarekin.
- **Eraldatzaileak:** jardunbide “inklusibo eta integrazionistetan” lortutako emaitzak baloratzearen ondorio dira: jardunbide horietan agerian jartzen da proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen arteko distantzia. Hau da, gehiegizko arreta jartzen dute asmoan, eta ez hainbestekoa emaitzetan<sup>14</sup>. Jardunbide mota honetan, funtsezko alderdiak lotuta daude proposamena politikaren aldetik estrategikoki lotzeko moduarekin, politikak diseinatzeko moduarekin, eta horretarako dagoen jendearekin. Genero-mainstreamingaren ideia prozesuen osoko estrategia bezala berreskuratzen da, jardunbideak egiteko modua, neurri handian, politika publikoak ikuspegi feministatik egiaz eraldatzearen baitan dagoela dakigun heinean.

Jardunbideen eta lan egiteko prozeduren eredu horretara bideratu nahi dugu, plan honen eta foru-erakunde honen barruan, genero-mainstreamingaren strategiaren garapena. Horretarako, halaber, ezagutza berriak geureganatu, trebetasunak garatu eta egiten jakin behar dugu.

Behin eta berriz heldu zaion gaia da hori, urteetan "hezur gogortzat" hartu dena; izan ere, ezinbesteko elementua dela onartu arren –bera gabe genero-ikuspegia politika publikoetan gehitzea ia ezinezkoa dela pentsatzen baita–, oso gutxi dira langileentzat prestakuntza nahitaezkoa dela uste duten erakundeak. Eta gutxi dira, halaber, zentzu zabaleko ikaskuntza-prozesuak –hausnartzeko, eztabaidatzeko, estereotipoak puskatzeko eta, gaitasun eta trebetasun teknikoak bereganatzearekin batera, jabetzeko denbora eskaintzen dutenak–.

Horregatik, garrantzitsua da prestakuntza-ekintza prozesuak lanpostuko eginkizunei lotuta egotea eta lanbidean hazkuntza eta hobekuntza etengabeak sustatzea. Banakako prestakuntzez gaindikoa da, eta ahalegin handiak egitea eskatzen du. Alde

---

14 Aipatutako bi jardunbide motak –inklusiboak eta eraldatzaileak– argien bereizten dituzten elementuetako bat, hain zuzen ere, dituzten emaitzak izango dira. Emaitzak oso desberdinak dira, egin nahi denaren arabera, alegia: asmoa sexuaren araberako datuak banakatzea edo baita genero-ikuspegia administrazio-prozedura batzuetan erabiltzea den, edo datuak erakundearen eta politika publikoaren aldaketa nabarmenak egiteko tresnetako elementu bezala interpretatzen diren. Emaitzei dagokienez, beste alderdi garrantzitsu bat da emaitza horiek ulertzeko logika. Hau da, datuen erabilgarritasuna. Zein den datuen erabilera. Kontrolaren logika zorrotzetik begiratuta, plangintzan jasotakoa burutu den eta horretarako jarritako baliabideak erabili diren besterik ez da identifikatuko; eraldaketaren logikatik begiratuta, aldiz, hori noraino bete den aztertzeaz gain, abian jarriko dira lortutako emaitzei, eragina izan duten alderdiei eta abarri buruz hausnartzeko prozesuak, emaitzen lorpenean zerikusia izan duten eragileekin batera. Ondorioz, erronka izango da emaitzetara eta esku hartzen duten alderdiekin hausnarketa prozesuak irekitzera bideratutako plangintza, eta, horrela, emaitzen analisia, berez, prestakuntzakoa izango da; era horretan, etengabeko berrelikadura-prozesuak sortu eta politika-prozesuak jardunbidea multzoaren eta emaitzen arteko elkarreragina nabarmenduko da.

batetik, errealitateko genero-azterketa egiteko behar den informazioa era sistematikoan ekoizteko orduan. Eta bestaldetik, ezagutzaren kudeaketa egiteko orduan, antolaketa-jardunbideak emakume eta gizonen esperientzia askotarikoez elika daitezten, eta berdintasuna sustatzeko proiektuetan zein barne-antolaketan dagoeneko metatu direnak "lurrundu" ez daitezten.

Ildo horretan, joan den legealdian (2008-2011), hainbat jarduera burutu ziren, genero-ikuspegia administrazio-prozeduretan gehitzea abian jarri, finkatu eta horren segimenduan aurrera egitea errazteko, hala nola:

- Berdintasuna sustatzeko foru-egituretako langileak trebatzea. Hainbat trebakuntza-jarduera burutu ziren; horietan sakondu behar da, egitura horietan jardungo duten langile teknikari berriak gehituta, eta jarduera horien sistematizazioarekin jarraitu behar da.
- Aurrerapenak egin ziren alderdi hauetan: hizkuntzaren erabilera ez sexista bultzatzeko orientazio, gida eta jarraibideen prestaketara zuzendutako **egiteko moduen eta lan-prozeduren** eraldaketa; kontratazio eta dirulaguntza publikoen prozesuetan berdintasuna gehitzea; eta araudiaren genero-eraginari buruzko txostenen prestaketa.
- Aurrera egin zen, halaber, I. Planean jasotako jarduera guztien urteko programazioa egiteko **metodologia partekatua** ezartzeko orduan (departamentuen arteko eta departamentu bakoitzeko jarduerak), eta, era horretan, **sistematizazio, koordinazio eta departamentu arteko segimenduaren** hasierako maila sortu zen, planeko ekintzei heldu eta pixkanaka garatzeko.
- Foru-erakundearen barruko hedapena duen Berdintasuna buletinaren aldizkako argitalpena egiten hasi zen, foru-departamentuek abian jarritako jardunbideak ikusgarri bihurtu eta balioa emateko, eta baita jardunbide horien bidez ezagutza eskuratzeko ere.

Ingurunea eratu eta gero, hauek dira esku hartzeko esparru honetan lortu nahi diren helburuak:

**BG.4. helburu orokorra:** Genero-ikuspegia erabiltzea errazten duen kudeaketa publikoaren eredu bat ezartzea, emakumeak desberdintasun-egoeretan kokatzen dituzten alderdiei eraginda.

**BG.4.1. helburu espezifiko:** Genero-ikuspegia administrazio-prozesuetan ezarri, finkatu eta horren segimenduan aurrera egitea.

**BG.4.2. helburu espezifiko:** GFAko langileek berdintasunaren alorrean eta genero-ikuspegia gehitzeko orduan aurrera jarraitzeko eraldaketa-ildoetatik ondorioztatzen diren edukietan prestakuntza tekniko handiagoa izan dezaten lortzea.

## 5. Koordinatzeko eta parte hartzeko mekanismoak eraldatzea

Gobernu-esparru desberdinen artean –Europa, Estatu espainiarra, autonomi erkidegoak, aldundiak, udalak– eskumenak eta politikak banatzeak, kudeaketa publikoaren eremuan zeharkakotasuna gehitzeko beharrak, eta elkarbizitzan eragina duten alderdiak formulatzeko eta horiei buruzko erabakiak hartzeko orduan herritarren parte-hartzea sustatzeko beharrak sorrarazi duten egoera horretan, egile publiko eta pribatuak gero eta konprometituago daude politika publikoen formulazioan eta ezarpenean. Errealitate horrek behartzen gaitu erakunde-mailen eta eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren eta laguntzaren beharra aurreneko mailan kokatzera.

Eta horretarako, errealitate horrek aldaketak eskatzen ditu erakunde publikoen erabakitze moduetan, erakundeen demokratizazio-maila handitzearen.

Helburu orokor hori erdiesteko, alderdi hauek jorratu behar ditugu: erakunde arteko koordinaziorako mekanismoak hobetzea, koordinazioa eta elkarrekin erabakitzea errazten dituen barneko lan-sistema bat garatzea, eta foru-erakundearen eta emakumeen mugimendu feminista eta elkarte-mugimenduaren arteko elkarriketarako egiturak eta mekanismo errealak sortzea.

**BG.5. helburu orokorra:** Erakundeetako demokratizazio-maila handitzea, demokrazia parte-hartzailearen printzipioak gehituta.

**BG.5.1. helburu espezifikoak:** Erakunde arteko koordinazioa (udal-, foru-, autonomia-esparrua eta mugaz gaindikoa) berdintasun-politikak garatzeko, jardunbide egokiak transferitzeko eta kudeaketa publikoa hobetzeko funtsezko elementu bezala sustatzen duen lan-eremuan aurrera egitea.

Funtsezkotzat jotzen dugu erakunde arteko lan-eredu batean aurrera egitea, jarduera koordinatu eta eraginkorra berdintasun-politikak garatzeko, jardunbide egokiak transferitzeko eta kudeaketa publikoa hobetzeko oinarriko elementu bezala sustatzearen. Hala bada, II. Planean aurreikusi dugu hainbat espazio sortzea, tokiko administrazioen politikarien eta teknikarien arteko elkartrukea egiteko, eta lehendik dauden espazioetan, Autonomiako eta mugaz gaindiko administrazioen parte aktiboa sustatzea, denak batera ekintzak antolatze eta estrategia partekatua prestatzeko.

**BG.5.2. helburu espezifikoak:** Barneko lan-sistema bat garatzea (politiko-teknikoa), departamentu eta alor arteko koordinazioa egiteko eta elkarrekin erabakiak hartzeko, berdintasunaren gaian.

Erakundearen esku hartzen duten eragileen parte-hartze aktiboa antolatzea ezinbesteko baldintzetako bat da genero-mainstreamingean. Prozesu hori, erakundearen barruan, alderdi teknikoan ezarri behar da alde batetik, horretarako beharrezkoak direlako errealitatearen azterketa, ezagutza berriak eta egiten jakitea; eta, bestaldetik, alderdi politikoan ere bai, erakundearen eraldatzeko prozesuak sustatzeko beharrezkoak direlako konpromiso sendoak eta negoziaketak konplexuak.

Hala bada, koordinazio-egiturak definitu eta sortu beharko dira, zeharkakotzea garatzeko euskarri administratibo moduan balio izango direnak. Estrategia hori sendotasun nahiz ahultasuntzat hartu da. Sendotasuntzat erantzukizun partekatua

gauzatzea ahalbidetzen duelako, lankidetzeta eta koordinaziorako mekanismoak antolatuta, horiek gabe ezinezkoa balitzateke osoko jarduera sistematikoa bermatzea berdintasuna esku-hartze publikoaren printzipio horizontal bihurtzeko. Ahultasuntzat egiturak sortzea, askotan, formazko esparruan gelditzen delako, berdintasun-planak onartzeko edo horien segimendua egiteko esparruan alegia, eta horrek ez duelako aldaketarik sortzen erakundearen jarduteko moduetan eta, beraz, arlokako politikak diseinatzeko erabiltzen den begiradan.

Erronka, beraz, babes politikoa emateko egiazko konpromisoa hartzea da, egiturekin egiten den lanak erakundearen eginkizunean, helburuetan eta lan-prozesuetan eraldaketa zuzena eragin dezan<sup>15</sup>.

**BG.5.3. helburu espezifikoak:** Mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren ordezkariak foru-politiken diseinuan, erabakietan eta segimenduan parte hartzea, eta elkarrizketa politikorako espazioak sortzea.

Foru-erakundearen eta mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren arteko elkarrizketa politikorako organo bat sortzea historikoki tirabirak izan dituen elementu bat izan da, izan ere, erakundeak eragozpenak jarri ditu elkarrizketarako mekanismoak ezartzeko, eta, ondorioz, erakunde feministen aldarrikapenak lehentasun politikoaren eta erabakien agendan sartzeko.

Eta herritarrei, eta bereziki mugimendu feministari eta emakumeen elkarte-mugimenduari foru-politiken diseinuan, horiei buruzko erabakietan, eta segimenduan parte hartzeko aukera emateko beharrak, II. plan honen esparruan, elkarrizketa politikoa egiteko foru-organoa bat sortzea bultzatu du.

Espazio hori antolatu behar da Lurraldeko mugimendu feministaren jardun-proposamenek foru-erakundearen hornitzeko moduan. Aldi berean, organo horretan parte hartzea lagungarria izan behar da parte hartzen duten erakundearen ekintza indartzeko, eta ez ahultzeko. Horretarako, beharrezkoa da diseinuaren funtsezko alderdi batzuk kontuan hartzea:

- Berdintasunerako Foru Kontseilua sortzea Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren aldarrikapen historiko bati emandako erantzuna da. Jarrera batzuetan, organo formal batean era aktiboan parte hartzeko joera dago, elkarrizketa onartzeko neurri sinboliko eta estrategiko bezala, baina, batez ere, mugimenduak foru-politika publikoaren definizioan parte hartzeko mekanismo bezala eta argitutako gobernu-proposamenak betetzen direla kontrolatzeko mekanismo bezala, proposamen horiek organo horren barruan egin ala ez.
- Beste jarrera batzuetan, aldiz, ez dute nahi –edo ezin dute– mota horretako mekanismo batean parte-hartze jarraitua konprometitu, arrazoi hauetakoren bat dela medio: parte hartzean izandako esperientzia ez da beti gogobetegarria izaten beste kontseilu batzuetan (berdintasunekoak edo arlokakoak), eta, ondorioz, nolabaiteko mesfidantza dago erakundeetan antolatzen diren espazioetan parte hartzeko orduan; lan egiteko lehentasun politikoak beste batzuk direla uste izatea; edo parte-hartze jarraitua ziurtatzeko denbora falta eta baliabide nahikorik ez izatea. Horrelakoetan, komenigarria da aztertzea laneko talde edo batzorde aholku-emaileak antolatzeko aukera, aipatutako kontseiluan era formalean ez dauden

---

15 II. Plana abian jartzeko eta haren segimendua eta ebaluazioa egiteko barneko lan-sistemaren antolaketa kudeaketa-ereduari buruzko atalean jasota dago (dokumentu honetako azken atala).

erakundeentzat irekiak direnak. Gai jakin batzuk aztertzeko unean-unean egiten diren itun mota horiek bidea izan daitezke Lurraldean aldarrikapenak egiten dituzten ahotsen aniztasun handiagoa elkartzeko.

- Egiten den lanean tokiko berdintasun-kontseiluen lehentasunak eta ekarpenak kontuan hartzeko modua pentsatu behar da, era horretan, esperientziak trukatu, elkarrekin hausnartu eta Lurraldeko leku desberdinetan adostutako lehentasunak antolatzea susta daiteke.
- Foru Kontseiluak balio behar du mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimenduan jadanik sortu diren edo etorkizunean, parte hartzeko aldarrikapen-esperientzietan oinarrituta, sor daitezkeen erabakitzeko espazio autonomoak (formalizatuak edo formalizatu gabeak) indartzeko (eta ez ahultzeko).<sup>16</sup> GFAn elkarrizketarako edozein egitura formal sortzeko orduan, pentsatu behar da zeintzuk izan daitezkeen espazio horiekin komunikatzeko bideak antolatzeko moduak, hala nahi duten neurrian, eta ez espazio horiek ordezkatzeko era.

---

<sup>16</sup> Halakoetan, parte hartzeko prozesu autonomoek hitz egiten da, hau da, gizarte-mugimenduen eta herritarren mugimenduen ekimenez bultzatuta, gonbidapenezko prozesuetatik bereizteko, hau da, erakundeek bultzatuetatik, eta azken horien adibide dira berdintasun-kontseiluak.





## 6. Helburuen matrizea

GOBERNU ONA					
Helburua: Foru Erakundearen, egiazko berdintasunean aurrerapausoak egiten dituen eta bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatzen laguntzen duen gobernagarritasun-eredu bat eraikitzeko laguntza ematea.					
ESKU HARTZEKO ESPARRUA	HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	DEPARTAMENTUAK	
				ERANTZULEAK	PARTE HARTZEN DUTENAK
<b>Begirada zabaltea</b>	BG.1.: Politika publikoen definizioaren barruan pentsamendu feminista sartu eta herritarren partaidetza ikuspegi feministatik feministatik sustatzen duen antolaketa politikoaren eredu bat sustatzea.	BG.1.1.: pentsamendu feministaren egituraketa politika publikoen esparruan bermatzea, eta erakundearen eta gizarte-mugimenduen arteko esperientzien trukea ere bermatzea.	Pentsamendu feminista politika publikoetan txertatzeko landutako proposamen teorikoen kopurua.  Proposamenak politika publikoetan noraino sartu diren  Parte hartu duten gizarte-mugimenduen kopurua  Parte hartu duten gizarte-mugimenduen motak	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak
		BG.1.2.: Begirada feminista kokatzea lurraldeko parte hartzeko teoriaren eta praktikaren gainean, eta ordezkartza politiko eta sozialaren krisiari	Demokrazia parte-hartzaileari, ordezkartzaaren krisiari eta feminismoari buruz antolatutako hausnarketa- eta eztabaida-prozesuen kopurua.  Hausnarketa-prozesuetan landutako	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Partaidetzarako Zuzendaritza  Berdintasun	Guztiak

		buruzko eztabaidak bultzatzea.	<p>edukien kopurua.</p> <p>Hausnarketa-prozesuetan landutako edukien tipologia.</p> <p>Ikuspegi feminista duten parte-hartzeko prozesuen portzentajea.</p>	Zuzendaritza	
<b>Politika publikoak eraldatzea</b>	BG.2.: Genero-mainstreamingaren estrategia eraldaketaren ikuspegitik garatzeko baldintza politiko eta egiturazkoak sortzea.	BG.2.1.: Ikuspegi feminista duten foru-politiken plangintza eta ebaluazioa egiteko proposamen politiko bat adostea, eta erantzukizuna erakundeen artean partekatzen dela eta hasitako aldaketak iraunkorrak direla bermatzea.	<p>Foru Aldundiak ikuspegi feministaren integrazioerantz doazen aldaketak sartuz egindako esku-hartze kopuruaren aldaketa.</p> <p>Foru politikatan generoaren ikuspegia sartzeari buruz hartu diren erabaki politiko kopuruaren aldaketa.</p> <p>Foru Aldundiaren funtzionamenduan eta kudeaketan, nahiz esku-hartzeen plangintzan eragina duten aldaketen portzentajea.</p> <p>Proposamenaren prestaketan parte hartzen duten departamentuen kopurua.</p> <p>Departamentuek proposamenaren prestaketan norainoko konpromisoa duten (bileretan parte hartzea, langileen prestasuna...)</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Kabinetea</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>	Guztiak
		BG.2.2.: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko eta pertsonen bizitzaren zainketarekiko konpromisoa antolaketakulturaren balioen erdigunean kokatzea, eta konpromisoa egiaz betetzeko behar diren baliabideez hornitzea	<p>Foru Aldundiko departamentuen inplikazio maila (N<sup>a</sup>/%),</p> <p>Erakundeak genero berdintasunarekin eta bizitzaren zainketarekin duen konpromisoa zehazten duten araudi eta dokumentu programatiko berrikusien kopurua</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza Nagusiarekin eta planarekin</p>	Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.	

		erakundea.	inplikaturako giza baliabideen bariazioa (N <sup>a</sup> %)		
	<b>BG.3.:</b> Berdintasunaren aldeko tokiko politikak finkatzen laguntzea, Lurraldean dagoen dibertsitatea kontuan hartuta.	<b>BG.3.1.:</b> GFAk Gipuzkoan berdintasunaren aldeko politikak antolatzeko eta planifikatzeko ematen duen laguntza indartzea.	GFAk II. Plana abian jarri denetik egindako laguntza esku-hartzeen kopurua  Abian jarritako laguntza-mekanismoen kopurua  Abian jarritako laguntza-mekanismo motak  II. Plana abian jarri denetik parte hartzen duten tokiko entitateen kopurua	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	
		<b>BG.3.2.:</b> Toki-esparruan, berdintasunerako egiturak indartzea.	Konpromiso politikoaren bariazioa, berdintasunari dagokionez (berdintasun egitura sortu berrien portzentajea, aurrekontu hornidura, berdintasunak balio gisa duen lekua,...).  Toki-esparruan, berdintasuneko teknikarien zuzkiduran izandako bariazioa.	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	

<p><b>Kudeaketa-eredua eraldatzea</b></p>	<p><b>BG.4.:</b> Genero-ikuspegia erabiltzea errazten duen kudeaketa publikoaren eredu bat ezartzea, emakumeak desberdintasun-egoeretan kokatzen dituzten alderdiei eraginda.</p>	<p><b>BG.4.1.:</b> Genero-ikuspegia administrazio-prozesuetan ezarri, finkatu eta horren segimenduan aurrera egitea.</p>	<p>Sistematikoki genero ikuspegia txertatzen duten prozedura administratiboen %, prozedura administratibo guztien aldean</p> <p>Prozedura bakoitzak zein mailatan txertatzen duen genero ikuspegia</p> <p>Aldaketak noraino transferitu daitezkeen kudeaketa publikoaren eredura</p>	<p>Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.</p>	<p>Guztiak</p>
		<p><b>BG.4.2.:</b> GFako langileek berdintasunaren alorrean eta genero-ikuspegia gehitzeko orduan aurrera jarraitzeko eraldaketa-ildoetatik ondorioztatzen diren edukietan prestakuntza tekniko handiagoa izan dezaten lortzea.</p>	<p>Berdintasunean eskainitako prestakuntza-ekintzen %, guztizkoarekin alderatuta.</p> <p>Hasierako prestakuntza ekintzak, %/kop.</p> <p>Hasierako prestakuntzan parte hartzen duten langileak dituzten departamentuen kop.</p> <p>Prestakuntza espezializatuko ekintzen %/kop.</p> <p>Prestakuntza espezializatuan parte hartzen duten langileak dituzten departamentuen kop.</p> <p>Prestakuntza jarraituko ekintzen %/kop.</p> <p>Prestakuntza jarraituan parte hartzen duten langileak dituzten departamentuen kop.</p> <p>Sektoreko prestakuntza espezifikoko ekintzen %/kop.</p> <p>Sektoreko prestakuntza</p>	<p>Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.</p>	<p>Guztiak</p>

			espezifikotan parte hartzen duten langileak dituzten departamentuen kop.		
<b>Koordinatzeko eta parte hartzeko mekanismoak eraldatzea</b>	<b>BG.5.:</b> Erakundeetako demokratizazio-maila handitzea, demokrazia parte-hartzailearen printzipioak gehituta.	<b>BG.5.1.:</b> Erakunde arteko koordinazioa (udal-, foru-, autonomia-esparrua eta mugaz gaindikoa) berdintasun-politikak garatzeko, jardunbide egokiak transferitzeko eta kudeaketa publikoa hobetzeko funtsezko elementu bezala sustatzen duen lan-ereduan aurrera egitea.	Sortu diren koordinazioko espazio/egitura kopuruaren bariazioa  Koordinazio egitiretan parte hartzen duten departamentuen kopuruaren bariazioa  Inplikaturako eragileen %/kop.  Inplikaturako eragile motak eta horien egitekoak.  Identifikatu diren jardunbide egokien kopurua.  Identifikatu diren praktikak noraino transferitu daitezkeen  Kudeaketa publikoan sartu diren hobekuntzak (sistematizazioa, premietara egokitzea, berdintasunean eta bizitzaren iraunkortasunean duen eragina,...)	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak
		<b>BG.5.2.:</b> Barneko lan-sistema bat garatzea (politiko-teknikoa), departamentu eta alor arteko koordinazioa egiteko eta elkarrekin erabakiak hartzeko, berdintasunaren gaian.	Eztabaidarako eta hausnarketarako artikulatu diren espazioen kop.  Hausnarketa eta eztabaida espazioetan parte hartzen duten departamentuen %/kop.  Planteatu diren esku-hartze proposamenen kop.  Koordinazio iraunkorra sortu den (Bai=1; Ez=0)	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza  Partaidetzarako Zuzendaritza	Guztiak

			Koordinazio egituran inplikatutako departamentuen %/kop.		
		<b>BG.5.3.:</b> Mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren ordezkariak foru-politiken diseinuan, erabakietan eta segimenduan parte hartzea, eta elkarrizketa politikorako espazioak sortzea.	<p>Elkarte eta mugimendu feministek zenbateraino parte hartzen duten foru politiketan</p> <p>Abian jarri diren partaidetzarako mekanismo/espazio kopurua.</p> <p>Parte hartzen duten emakume elkartearen kopurua.</p> <p>Berdintasuneko Foru Kontseilua sortu den (Bai=1;Ez=0)</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p> <p>Partaidetzarako Zuzendaritza</p>	Guztiak

---

# *Sare eta praktika feministak*

---

*II. Kapitulua*

*Sarrera*

*Begirada  
zabaltzea*

*Emakumeek  
gizartean eta  
politikan parte  
hartzeko  
baldintzak  
hobetzea*

*Gizartean eta  
politikan parte  
hartzeko  
prozesuak eta  
espazioak  
aintzakotzat  
hartzea*

*Helburuen  
matrizea*





## 1. Sarrera

Erakunde publikoek eta haien baliabideek –politika publikoak– elkarbizitzako arazoei irtenbide eman behar dietela da abiagunean dagoen ideia.

Hala eta guztiz ere, emakumeak betidanik espazio eta gai publikoetatik baztertuta egoteak erakusten digu zergatik definitzen diren gai publiko, eta beraz guztion intereseko gai bezala, gizonek soilik dituzten premia eta interesei erantzuten dietenak. Hala bada, ditugun erakundeek behin eta berriro erreproduzitzen dituzte genero-desberdintasunak, beren politika publikoetan kontuan hartzen ez dituztelako emakumeen premia eta interesak, eta emakumeek eta gizonen egungo antolaketa-eredu sozioekonomikoan dituzten botere-kokaleku desberdinak alde batera uzten dituztelako.

Zail egiten da egungo egoera ulertzea emakumeek espazio publikoan parte hartzeari dagokionez, emakumeek mendeetan jasan dituzten hiritartasun-defizitak aipatu gabe. Emakumeak herritartzat hartzea funtsean feminismoari zor diogun aintzatespena da. Talde-ekintzak bultzatzen dituen gizarte-mugimendu horrek, nazioarteko antolaketa duenak, emakumeak gizonen mende eta herritartasun-eskubideez gabetuta egotea salatu du.

Mendekotasun hori finkatuta dago “lana sexuaren arabera banatzea” bezala definitu denari esker, eta horretan oinarrituta definitu da nolakoak izan behar garen emakumeok eta gizonok, eta zer egin dezaketen eta egin behar duten batzuek eta besteek. Emakumeak gizarte-birsorkuntzan eta baliabide, denbora eta afektuen hornikuntzan aritzen dira, gizonak espazio publikoan izan eta bertan lehiatu ahal izateko. Paradigma horretan, gizarte-birsorkuntza, zainketak eta etxeetako espazioa dira “pribatua denaren esparrua” eratzen dutenak eta, beraz, esku-hartze politiko eta publikoak ez du espazio horietako gertakizunetan esku hartu behar. Denboran gertatutako aldaketak gorabehera, hori da mantentzen den gakoetako bat; alde batetik emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna behin eta berriro sortzea ahalbidetzen du, baina baita emakumeen arteko desberdintasuna ere, eta bestaldetik, emakumeek espazio publikoetan parte hartzean duten defizita ulertzea<sup>17</sup>.

Horiek horrela, plan honen bidez elkarbizitza eraikitzeke berdintasunezkoa den eredu bat eraikitzen lagundu behar dugu, eta emakumeek espazio publikoan gizarte eta politikaren esparruetatik parte hartzea sustatu eta indartu behar dugu, funtsezko bi alderdi kontuan hartuta:

- Emakumeek pertsonen bizitzan eragina duten erabakiak hartzeko espazio eta prozesuetan –erakundeetan edo komunitatean, oro har– parte hartzeko duten eskubidea bermatzea.
- Mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua nahiz burutzen dituzten ekintzak indartzeko baldintzak sortzea, haien bidez frogatu baita badirela elkarrekin bizitzeko beste modu batzuk, berdintasunezkoagoak. Eta, halaber, emakumeen herritartasun-eskubideak lortzeko eta eurek bultzatuta gizartea aldatzeko orduan emakumeen lehengo eta oraingo gidaritza onartzeko modu bat baita.

---

17 Esparru publikora iristen diren emakumeek ari gara, familiako emakumeek osatutako gizarte-sare bat dutelako, edo, bestela, herrialde pobretutako emakumeen zerbitzuak kontratatzen dituztelako –eta emakume horiek beste emakume batzuen ardurapean uzten dituzte beren familiak–. Hau da, Europa mendebaldean, emakumeen ustezko berdintasun handiagoa, gizonekin alderatuta, beste emakume batzuen ezegonkortasun eta biziera txarrean oinarrituta lortu da.

Hala ere, emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea erakunde eta politika publikoetan sustatzean, erronka bati aurre egin behar diogu, alegia, subjektu politiko baten aniztasuna onartzea, gizartean berdintasunaren alde izandako aldaketetako protagonista eta aitzindari aktibo bezala. Subjektu hori ez dago emakumeez soilik osaturik eta ez da homogenea izan dituzten zapalkuntza- eta bereizkeria-bizipenen aldetik:

- Mota guztietako elkarteetan edo banaka era aktiboan parte hartzea aukeratu duten pertsonen multzo batez osaturik dagoen subjektua da, eta pertsona horiek, banakako zein taldeko ekintzen bidez, berdintasunaren aldekoagoa den gizarte-eredu bat lortzen laguntzen dute. Ordena heteropatriarkalarekin hausten duten pertsona eta gorputz guztiez osaturiko subjektua da, askotan gizarte-estigmatizazioa eta bazterketa soziopolitikoa jasan behar badituzte ere.
- Hortaz, gizarte eta politikan parte hartzea eta gizarte-aldaketak eragiteko borroka- eta erresistentzia-ekintza homogeenok ere burutzen ez dituen subjektu bat, ez ikuspegi politikoei ez lehentasuna duten edukiei dagokienez, ezta ekintzarako estrategiei dagokienez ere.
- Aniztasun konplexu hori egon arren, subjektu aniztuna, itunetan oinarrituta eratuta eta ez identitateetan oinarrituta, antolatze beharrari buruz hausnartzen da. Era horretan, espazioak sortu dira pixkanaka, topaketak eta sareko lana bultzatzeko, eta horrek ahalbidetu du gutxieneko agenda politiko partekatatu bat eraiki eta, horrekin batera, talde-ekintza indartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, ildo honen azken helburua emakumeen partaidetza soziopolitikoa indartzea da, subjektu feminista askotarikoa dela onartuta eta sarean jardutea sustatuta. Hala bada, esku hartzeko lehentasunezkoak diren hiru esparru definitu dira:

- Lehenengoan –begirada zabaltzea–, **hausnartzeko eta talde-lana egiteko espazioak sortzea proposatzen dugu**; espazio horietatik erantzungo diogu politika publikoei subjektu feminista zabalduaren kontzeptualizazio hori –era askotako jardunbideak sortzen dituen– politika publikoetan gehitzeko erronkari. Aniztasun horrek konplexu bilakatzen du gizarte-errealitatearen azterketa, eta, ondorioz, errealitate horretan esku hartzeko premiazko erronkei heldu behar zaie, desberdintasun- eta bazterkeria-egoerak birsortzen ez jarraitzeko.
- Bigarrenean, emakumeek eta ordena heteropatriarkalaren urratzaile diren beste pertsona batzuek gizarte eta politikan parte hartzeko baldintzak hobetzea bultzatu nahi da. Horretarako, beharrezkoa da balioen aldaketa sustatzea, pertsona horiek guztiek gizarte eta politikan parte hartzeari eragozpenak jartzen dizkieten aurreiritziak gainditu ahal izateko, genero-estereotipoak ezabatzen laguntzeko eta genero-agindu arauzkoak urratzen dituzten pertsonak ikusgarri bihurtu eta pertsona horiek parte hartzea errazteko; lurraldeko erakunde feministak eta emakumezkoen elkarteak sendotzen laguntzea eta horien sareko lana bultzatzea; eta botere eta eragin esparruetara emakumezkoen irismena gehitzea.
- Azkenik, esku hartzeko hirugarren esparruan, **emakumeen jabeakuntza sustatzen duten parte hartzeko espazio eta prozesuak** sortu eta finkatzea babesteko beharra agerian jartzen da, espazio eta prozesu horiek mugimendu feministakoak izan zein mugimenduaren eta erakundearen arteko ekimen moduan bultzatu.

## 2. Begirada zabaltzea

“Begirada zabaltzea” esparruan **helburu orokor** hau ezarri dugu:

**R.1. helburu orokorra:** Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea bermatzeko orduan, berdintasunaren aldeko foru-politikek subjektu feministaren aniztasuna kontuan har dezaten sustatzea.

Helburu honen bidez, kontuan hartu nahi ditugu ekarpen teoriko feministak, barneratzaileagoak diren politika publikoen diseinu eta plangintza egiteko aukera berriak sortzen baitituzte. Horretarako, ikuspegien arteko tentsioei heldu behar diegu, ikuspegi batzuek talde-subjektu kohesionatua izateko beharra dagoela adierazten baitute, eta beste batzuek, aldiz, subjektu aniztun eta barneratzailea eratzea lortzeko ahalmena nabarmentzen baitute. Beste alde batetik, praktika feministak nola bilakatzen diren eta mobilizatzeko forma askotarikoak zeintzuk diren aztertzeko eta ulertzeko beharra jasotzen da, erakunde publikoetan emakumeen eta genero-aginduek urratzen dituzten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko eta indartzeko moduei buruz hausnartzeko.

**R.1.1. helburu espezifikoak:** begirada feminista jartzea emakumeek eta identitate-eredu hegemonikoen aurka egiten dutenek gizartean eta politikan parte hartzeko dauden eragozpen nagusien gainean.

Desberdintasunaz eta sexua dela-eta egiten den bazterkeriaz gain, beste inguruabar batzuk ere badaude (klasea, adina, dibertsitate funtzionala, arraza, etab.), era askotako diskriminazioak sor ditzaketenak. Helburua ez da soilik genero-itsukeria ezabatzea, era berean identifikatu behar baitugu gainerako zapalkuntza-faktoreak nola gurutzatzen diren eta nola sor dezaketen proposatzen dugun berdintasun handiagorantz joateko aurrerapauso desberdin bat. Laburbilduta, helburua gizarte-errealitatearen gaineko begirada konplexu bihurtu eta foru-politika publikoetan esku hartzeko baliabideak diseinatzea da, dauden era askotako harremanak kontuan hartu eta diskriminazio aniztuneko egoerak birsortzea saihesteko.

Aurrean dugun erronka norainokoa den ulertzeko, komenigarria da mugimendu feministak oso neurri handian eraten lagundu duen eta pentsamenduaren historian eztabaida gehien sortu duen kontzeptuetako bati buruz arretaz hausnartzea: identitatea. Geure burua pertsona bezala definitzen dugu ustez garena eraten duten ezaugarri jakin batzuk adierazita. Eta hori egitean ezaugarri horiek funtsezkoa edo naturala dena kontuan hartuta aipatzen baditugu ere, ez da daukaten funtsezko izaera ezaugarri horiek identitatearen zati bihurtzen dituen, hala izan dadin dugun borondatea baizik. Hau da, elementu subjektibo bat, giza talde moduan pentsatzen denean pertsona bezala eta komunitate bezala garena eta izan nahi duguna koherentziaz eta esanahiz betetzen duen balio-sistema bat.

Era berean, gizarte- edo politika-ekimen bat subjektu feministaren osagai bihurtzen duena honakoa da, ororen gainera: gizarte ireki eta askotarikoan, emakumeen berdintasunaren aldeko borroka historikoan laguntzeko aukera jakitun izanda hautatua eta antolatua izatea. Borroka hori luzea eta konplexua da, eta ez da egin beste gizarte-borroka emantzipatzaile batzuetatik bereizirik. Mugimendu eta pentsamolde feministaren esparruan, subjektuaren arazoa funtsezkoa izan da hasiera-hasieratik, nahiz eta horren eraikuntza, definizioa eta eraketa ez burutu era ordenatu edo

linealean.

EAEEn eta Estatu espainiarrean, emakumeek frankismoaren garaian eta trantsizioaren lehen urteetan pairatu zuten lege-eskubideen bazterkeria argia dela kausa, borroka lehen zapalduta zeuden lege-eskubideak eskuratzera bideratu zen. Horregatik, eta bigarren mailara baztertua izateko arriskua zuen ingurune politikoan, mugimendu feminista aipatzean emakumez ari gara, subjektu komun bezala, helburu bateratuetan oinarritutako aldarrikapenak defendatzen dituzten emakumez. Ondorioz, eta jarrera eta joera desberdinak egon arren, mugimendu feminista, garai horretan, **emakumeen talde-subjektu indartsu eta kohesionatua zen**, emakumeek emakume izateagatik partekatzen zituzten zapalkuntza-esperientziak azpimarratuta. Ingurune horretan, agenda politiko partekatu bat egiteko beharra hauteman zen, jardun politikoa aurrera eraman ahal izateko.

Hala ere, 60ko hamarkadaz geroztik, herrialde anglo-saxoietan, **subjektu feminista homogeneo eta orokorra zalantzan jartzeko** eta ustezko subjektu bateratu horretan oinarrituta sortzen diren bazterkeria-dinamikak ikusgarri egiteko beharra agerian jarri zuten lehenengo ahots kementsuak entzuten hasi ziren. Agerian geratu zen bezala, lortutako herritartasun-eskubideak erabiltzetik emakume guztiak baztertuak izan badira ere, emakume guztiek ez dute baztertze hori bizi izaten gizarteko eta ekonomiako leku beretik. Langile-klaseko emakumeak industria-lanean era masiboan sartu ziren bitartean, eskulan merkeago bezala, burgesiako eta goi-klaseetako emakumeak gero eta nabarmenago gizonetzkoen estatusaren eta lan- eta gizarte-arrakastaren sinbolo zen etxearen barruan mantendu ziren.

Hainbat hamarkada geroago, Estatu Batuetan, Angela Davis eta beste aktibista afro-amerikar batzuek salatu zuten feminismo nagusiak (zuria, klase ertainekoa) ez duela emakume beltzen errealitatea islatzen. Ildo horretan, adierazten dute beharrezkoa dela diskriminazioak era gurutzatuan eta elkarrekikotasuna kontuan hartuta ulertzea. Beste batzuek uste dute, halaber, emakumeari buruzko kontzeptua bera heterosexualitateetik abiatuta eratu dela, eta zalantzan jartzen dute emakume lesbianek bizi duten errealitate diskriminatzailea islatu ote dezakeen. Laburbilduta, periferietara eta bazterretara begiratzeko garrantzia nabarmentzen dute, eta beharrezkotzat jotzen dute subjektua emakume-zuri-heterosexual ardatz nagusietatik askatzea.

**R.1.2. helburu espezifiko:** Emakumeek eta ordena heteropatriarkala urratzen duten pertsonen parte hartzeko forma guztiek gizartean eta politikan duten balioa ikusgarri egin eta onartzea, eta bereziki kontuan hartzea ikuspegi horretatik ikusezin bihurtutakoak eta gutxietsitakoak.

Bigarren helburu espezifiko honetan, Lurraldean egiten diren praktika feministak zeintzuk diren aztertzeko beharri heldu diogu. Onartu behar dugu emakume guztiek ezin izango dituztela estrategia berak erabili —edo ez dituztela erabili nahi izango—, emakumeen eta ordena heteropatriarkala urratzen duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak sustatzeko. Eta, eragina bultzatzeko baliabide ezagunenez gain, mobilizatzeko eta aldarrikapena egiteko modu berriak ere garatzen ari direla, hain zuzen ere, emakumeen talde desberdinak edo erakunde publikoekin ia zerikusirik izan ez duten belaunaldiko emakumeak, baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeko eta kontrolatzeko ahalmen txikiagoa dutenak. Garrantzitsua da mugimenduen ertzetan dauden beste errealitate eta identitate-forma batzuk kontuan hartzea, ustezko subjektu homogeenotzat harturik erakunde publikoentzat ikusezin mantentzeko arriskua duten erresistentzia-estrategiak sortzen dituztelako.

*Erresistentzia  
politikorako  
modu eta  
estrategia  
berriak*

Ildo horretan, eta ikuspegi transfeministetatik bultzatuta<sup>18</sup>, emakume-subjektu estandarrean oinarritutako politikak egiteko arriskua salatzen ari da. Joera horiek bereziki nabarmentzen dute itunak sortu behar direla zapalkuntza-modu desberdinetatik eta, halaber, subjektuak identitateen inguruan eratzeari uko egin behar zaiola. Itun eta sare mota horiek taldeko estrategiak sortzen dituzte, eta subjektu aniztun bati esker, ahalbidetzen dute oso desberdinak diren gorputzekin lan egitea, sistema konplexu eta alderdi anitzekoak gorputz horiek nola baztertzen dituen, zer den partekatzen dutena eta zer estrategia parteka daitezkeen ulertu ahal izateko.

Erronketako bat praktika horiek, diskurtso horiek ikusgarri egitea eta indartzea da. Izan ere, gorputzen arteko harremanak ulertzeko, sexua, generoa eta desioa beste modu batez ulertzeko beste aukera batzuk eskaintzeak errealitatean du eragina, izateko eta existitzeko beste modu batzuk eskaintzen dituelako. Ikusgarri egiteak begirada zabaldu ez ezik, indarkeria handia jasaten duten gorputzei bizitza bizigarriagoak bizitzeko aukera ere eskaintzen die.

---

18 Transfeminismoa: Feminismoaren barruan dagoen pentsamolde- eta aktibismo-joera, aktibismo queer, transgenero, lesbiko eta feministaren arteko nahasketatik sortua. Joera honetan, hainbat gai aldarrikatzen dira, hala nola, transexualitatea patologia-izaeraz gabetzea, lesbianen ikusgarritasuna edo sexu-langileen estigma haustea. Eta, horrez gain, subjektu feminista aniztun eta estrategikoa eratzea proposatzen da, sistema heterosexista eta kapitalistaren adierazpen guztien kontra borrokatzeko.

### 3. Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzeko baldintzak hobetzea

Plan honen barruan, emakumeek eta ordena heteropatriarkala urratzen duten pertsonen gizarte eta politikan parte hartzeko baldintzen hobekuntza estu lotuta dago ekintza hauei:

- Emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea mugatzen duten genero-estereotipoen ezabatzea sustatzea.
- Emakumeak, oro har, erabakiak hartzen diren eta eragina duten espazioetara iristea ahalbidetzea.
- Mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua indartzeko baldintzak sortzea.
- Mugimendu horren barruan ez dauden baina hainbat espaziotan norabide berean lan egiten duten pertsonen –besteak beste jabeakuntza-prozesu eta -espazioak sortu eta sustatzea babestuz– gizarte eta politikan parte hartzea erraztea.

Mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua funtsezko pieza da kontzientzia kritikoak sortzeko eta hautabideak eraikitzeko, era horretan frogatu ahal izango baita elkarbizitza antolatzeke beste eredu baterantz abiatzea dagoela, genero-desberdintasunak eta -bazterkeriak ez birsortzeko.

Hala ere, mugimendu horrek gizarte eta politikan parte hartzeko baldintzak hobetzeko erakunde publikoetan laguntza eskaintzea ez da inoiz izan tentsiorik eta tentaziorik gabeko jarduera: klientelismoa, tutoretza, ideologiaren jabe egitea, etab. Horren jakitun izanda, historikoki mugimendu feministak eta emakumeen elkarte-mugimenduak abiarazitako prozesuei laguntzeko bideak bilatu nahi ditugu, erabakitzeko, proposatzeko eta jarduteko duten autonomia errespetaturik.

#### **R.2. helburu orokorra: Balioen aldaketa sustatzea eta emakumeek zein ordena heteropatriarkalaren urratzaileek gizartean eta politikan parte hartzea eragozten duten aurreiritziei aurka egitea.**

Helburu orokor honen barruan, hiru helburu espezifiko zehaztu dira:

**R.2.1. helburu espezifikoa:** Generoaren araberako gizarte-eginkizunak eta estereotipoak ezabatzen laguntzea.

Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren finkatzeko, beharrezkoa da diskriminazioak birsortzen dituzten eta espazio publiko eta pribatuetan sexuei esleitutako eginkizunak jakinaren gainean edo oharu gabe onartzearen ondorio diren balio, jokabide eta usteak aldatzen laguntzea.

**R.2.2. helburu espezifikoa:** transfobia, lesbofobia, bifobia eta homofobia direla kausa gizartean estigmatizatu eta gizarte eta politikan baztertuak diren pertsonen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzea ikuspegi transfeministatik.

Helburu honen bidez, Planean adierazi nahi dugu lehentasun politikoa dela eredu heteropatriarkaletik kanpo bizi den sexualitateak gaur egun ere sortzen duen eta pertsonentzat nahiz gizarte inklusibo eta berdintasunezko batean guztiz kaltegarria den arbuioaren aurka borrokatzeko neurriak sustatzea. Homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobiaren jatorri sakona, zalantzarik gabe, heterosexismoan bilatu behar dugu, ikuspegi horretatik heterosexualitatea baita zilegi den, eduki daitekeen eta baita pentsa ere egin daitekeen sexu-bizipen bakarra. Lan, gizarte edo familian erakusten den arbuio horren ondorioz pertsonak egun ere jasaten dituzten era guztietako zailtasunak ugari dira, eta horrek bultzatzen ditu pertsona horiek beren identitatearen alderdi garrantzitsu bat ezkutuan mantentzera. Helburu honen bidez, pertsona horien parte-hartze soziopolitikoa hobetu nahi dugu. II. Planean aldarrikatzen dugu generoa banaka eta taldeka eraiki behar dela, aukeratze askean oinarrituta. Horretarako, funtsezkoa da gizartearen birsortzeaz hausnartzea ingurune zabalean, eta ez soilik eredu heterosexualetik begiratuta.

**R.2.3. helburu espezifikoak:** Sexu-langileen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzea, gizartean horiek estigmatizatu eta gizarte eta politikan baztertzearen aurka borrokatzen duten taldeei lagunduta.

Ikuspegi feminista eta sozial batetik, gai hau erabat aurrez aurre dauden bi jokabide desberdinen artean eztabaida eta aurkakotasun nabarmenenak sortu dituzten gaietako bat da, hau da: alde batetik, sexualitatea emakumeen zapalkuntzan elementu nagusi bat dela eta prostituzioa –patriarkatuaren euskarrietako bat bezala ulertuta– errotik ezabatu behar dela uste dutenak daude<sup>19</sup>, eta, bestaldetik, sexu-lana gainerako lanbideak bezala arautzeko beharra ikusten dutenen ikuspegia dugu, lan hori legearen barruko edo legetik kanpoko baldintzetan burutzearen ondorioz sexu-langileen egoera are ezegonkorrago bihurtu ez dadin eta beren lan- eta bizitza-baldintzak oker ez daitezken. Argudiatu da sexu-lana oso errealitate konplexu bezala ulertu behar dela, eta gorputz desberdinak zeharkatzen dituela, oso feminizatuta dagoen lanbide bat izan arren, lanbide horretan ari diren gizonezkoak ere badauden neurrian. Era berean, askotarikoak dira lanbide horretan jarduteko baldintzak eta lekuak, eta horiek xedatzen dute, neurri handian, zer baldintza materialetan burutzen den.

Sexu-lanean ari diren pertsonen errealitatea ikusezin ez bihurtzeaz gain, arrazoitu egin dugu prostituzioa eta emakumezkoen salerosketa ez nahasteko beharra, izan ere, sexu-lana askatasunez eta modu kontsekuentean aukeratzen duten emakumeek gehiengoa osatzen dute (beste aukera ekonomikorik ezagatik izan ala ez). Beraz, subjektu aktibo bezala onartu behar ditugu, dituzten beharrak eta aldarrikapenak eurek definitzeko gaitasuna barne<sup>20</sup>.

Ikuspegi horrekin bat, uste dugu plan honen barruan babestu behar dugula sexu-langileen eta zuzenean laguntzen dieten erakundeen ekintza, egiten dituzten aldarrikapenak gizartearen aurrean azaltzeko. Egungo egoeran, ezinbestekoa da sexu-lanean ari diren migratzaile edo bertakoen kriminalizazio eta estigmatizazioa murriztea, are gehiago langabezia gero eta handiago denean, horrek eragiten baitu gero eta emakume gehiago lanbide horretan berriz sartzea edo hastea, eta are egoera

---

19 Patriarkatuaz honakoa ulertzen da: gizonek emakumeak menderatzea instituzionalizatzea ahalbidetu duten eta elkarlotuta dauden gizarte-egituren sistema.

20 Dolores Juliano, Cristina Garaizabal, Montse Neira, 2009: *Nosotras, las malas mujeres. Debates feministas sobre la prostitución*. Granada, treinta años después: Aquí y ahora. Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas. Asamblea de Mujeres de Granada "Mariana Pineda".

ezeonkorra ere<sup>21</sup>.

### **R.3. helburu orokorra:** Gipuzkoako Lurraldeko erakunde feministak eta emakumeen elkarteak indartzen laguntzea.

Helburu hori betetzeko, bi helburu espezifiko hauek zehaztu dira:

**R.3.1. helburu espezifikoa:** Elkartegintza feminista eta emakumeenari laguntzeko foru-baliabideak gehitzea, eta bereziki kontuan hartzea lurraldean dagoen dibertsitatea.

**R.3.2. helburu espezifikoa:** Mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren artean eta horien eta beste gizarte-mugimendu batzuen artean unean-uneko hitzarmenak sortu edota indartzen laguntzeko foru-baliabideak gehitzea.

Elkarteen erregistroari buruz Eustatek emandako datuen arabera, “emakumeen sustapena” kategorian 320 elkarte baino gehiago jaso dira, eta horietatik 90 bat Gipuzkoan daude. “Talde feministak” kategoriari dagokionez, Gipuzkoakoak 17 dira, EAEn erregistratutako 54 taldeen artean. Beraz, elkarte-sare aberats baten aurrean gaude, eta sare horren barruan daude, halaber, beste talde batzuk; talde horiek legez eratuta edo erregistratuta ez egon arren, oso garrantzitsuak dira gizarte-dinamizazioan. Egoera orokor horretan, komenigarria da udalerrri txikienetan dauden erakundeen egoera gertutik jarraitzea, izan ditzaketen zailtasun zehatzak identifikatzeko.

Beste alde batetik, emakumeen parte-hartze soziopolitiko mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua indartuta sustatzeko esku hartu nahi dugunean, ez gara etiketen tirania moduko batean erori behar, horren ondorioa baita beren burua feministatzat duten eta beren burua feministatzat ez duten baina talde moduan pentsatzen duten eta askotan zein noizean behin aldarrikapenezko ekintzak bultzatzeko lankidetzan ari izaten diren emakume taldeen arteko harremani buruzko ikuspegi murriztailea izatea.

Beren burua feministatzat definitzen ez duten taldeen artean, adibidez, emakume migratzaileen talde batzuk daude, hainbat ekimen gidatu dituztenak, gizarte-sare berriak sortu eta premia-koak diren oinarrizko beharrei erantzuteko desioak bultzatuta. Hasierako jarrera edozein dela ere, kide bakoitzak bazterkerian ez erortzeko edo ezegonkortasunetik irteteko egunero egin behar izaten duen borrokak "interpretatzen jakin behar dugun asaldatze bat"<sup>22</sup> du berekin, eta asaldatze hori interpretatu behar dugu babes eta baliabideak eskaintzen dizkieten erakundeetan nahiz eurekin elkarrizketan hasi eta itunak sortzeko interesa duten erakundeetan. Parte-hartze soziopolitiko indartzeko orduan, garrantzitsua da gidatzat ez hartzea “nor den” edo “nor ez den” galdera, “nork egiten duen” galdera baizik. Hau da, nork ematen dien lehentasuna unean-uneko ekintzen inguruko lan-prozesuei, nork bilatzen dituen sinergiak, nork eraikitzen dituen zubiak bere tokiko errealitatei, gizartean

21 Krisi-garaian bezeroak galtzeko beldurrak eraginda, gainera, tarifak jaitsi edo babesik gabeko sexu-harremanak dituzte; era horretan, osasun-arrikuak gehitzen dira, sexu-langileekin harreman zuzenetan dauden gizarte-erakundeek adierazten duten bezala.

22 Ana Murcia, “Garaipen” Taldea, 2009: Del feminismo multicultural a la resistencia transfeminista. In: Granada, treinta años después. Aquí y ahora. Arg.: Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas. Madrid.



berdintasunezko aldaketak sortzeko xedez. Aniztasun horretatik, eta helburu honen bidez, azken urteetan Lurraldean berdintasunaren alde lanean aritu diren erakundeek sustatzen dituzten antolakunde eta proiektuak indartzeko erabili diren babes-neurriak jarraipena eman nahi diegu, eta modu nabarmenean indartu nahi ditugu; horretarako, baliabide hauek erabili nahi ditugu batik bat:

- Lurraldean proiektu estrategikoak garatzeko laguntza ekonomikoen ildoak.
- Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foroari laguntza ematea; foro honetatik lan-edukien programazioa indartzen jarraituko da –bai prestakuntzako edukiak, bai esperientzien trukea Gipuzkoako emakumeen elkarte-mugimenduan–.
- Mugimendu feministak eta emakumeen mugimendu antolatuak gidatutako topaketa-ekimenei laguntzea, unean-uneko itunak edo itun egonkorrak sustatu eta bakartze geografikoa haustea errazteko.
- Talde ekintza askotarikoak burutzen dituzten erakundeetan (GKEak, bakearen aldeko mugimendua, mugimendu ekologista, sindikalista, etab.) ari diren eta “iraultza feminista izango da edo ez da iraultzarik egongo” ideia sinetsita gizartea aldatzeko proposamenetan ikuspegi feminista gehitzen duten emakume eta gizonekin lankidetzan aritzea eta koordinazioa babestea.

#### **R.4. helburu orokorra: Emakumeak erabakiak hartzen diren eta eragina duten espazioetara iristea ahalbidetzea.**

Horretarako, hiru helburu espezifiko hauek definitu ditugu:

**R.4.1. helburu espezifikoa:** Erabakiak hartzen diren eta eragina duten GFaren mendeko espazioetan eta erakunde publikoetan, erakundearekin kontratuak sinatu dituzten edo GFak laguntza ekonomikoa eskaintzen dien gizarte- edo ekonomia-erakundeetan emakumeen presentzia sustatzea.

**R.4.2. helburu espezifikoa:** Kirol-elkarte edo -erakundeetan segregazio bertikal eta horizontala<sup>23</sup> murrizten laguntzea, funtzionamenduan eta jardueretan genero-ikuspegia gehituta.

**R.4.3. helburu espezifikoa:** Arte eta kulturaren esparruan generoari lotutako arazoetan lan egitera bideratuta dauden erabakitzeko espazioetan eta kultura eta artea ekoizteko espazioetan emakumeek parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea.

Emakumeak **erabakiak hartzen diren eta eragina duten esparruetara iristeari dagokionez** –esparru politiko zein gizarte-espazioak–, ezin uka daiteke azken urteetan nabarmen handitu dela ardurako postuetan ari diren emakumeen portzentajea. Hala

---

23 “Segregazio bertikala” lanbide-kategorietan dagoen emakume eta gizonen proportzio desberdina da. Esapidearen bidez adierazi nahi da gizonek hartzen dituztela lanbide-kategoria goreneko lanpostuak, eta emakumeek batez ere beheagoko kategoriako lanpostuak izaten dituztela; ondorioz, soldata eta gizarte-onespen txikiagoak dituzte emakumeek.

“Segregazio horizontala” gertatzen da emakume ugariaren presentzia dagoenean arlo eta jarduera jakin batzuetan (hezkuntza, gizarte eta laguntza, zerbitzuak orokorrean). Multzo honetako lanbideek ezaugarri hauek dituzte: etxeko lan edo birsortze-lanaren eduki tradizionalak transmititzea, berreskuratzea eta birlantzea, eta familiaren barruko eginkizunak, emakumeen ekoizpen-lanetan ohikoak diren egitekoak argi eta garbi islatzea: erizainak, irakasleak, jostunak, familia-laguntzaileak, etab.

ere, berdintasunaren aldeko erakundeek eta mugimendu feministak ohartarazten jarraitzen dute emakumeen ordezkapena egiaz erabakiak hartzen diren eta eragina duten espazioetan gutxiegiak dela.

Botere-harreman desberdinen ondorioz lana sexuaren arabera banatzeak mugatu egiten ditu emakumeek espazio publikoetan eta era askotako gizarte-, politika- edo ekonomia-erakundeetan erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko denborak aurkitu eta trebetasunak eskuratzeko dituzten aukerak.

Ukaezina da EAEko Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako parekotasun-neurriek eragin positiboak izan dituztela duela gutxiko hauteskunde-prozesuetan eta, horrekin batera, parekotasun handiagoko demokrazia eraikitzen lagundu dutela. “Demokrazia paritarioa” kontzeptua premisa honetan oinarrituta dago: gizartea gizonek eta emakumeek osatuta dago eta, beraz, herritartasun-eskubideak osotasunez erabiltzea erabaki publikoak hartzeko orduan bien ordezkapen bidezkoaren baitan dago.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da ohartaraztea egiazko parekotasuna ez dela soilik bidezko presentzia izatea, aitzitik, eta bereziki, kalitatea izatea, hau da, batik bat emakumeen interesak eta beharrak onartuta egotea eta agenda politikoetako espazio estrategikoetan kokatuta egotea.

Horiek horrela, ildo honen barruan definitutako helburuen bidez, erabakiak hartzen diren eta eragina duten esparruetara, eta zehazki, kultura edo kirolaren alorretan, GFaren eskuduntza zuzenak direlako, emakume gehiago iristea lortu nahi dugu; horietan, gainera, lan interesgarria burutu da dagoeneko norabide horretan.

Alabaina, era berean, iriste hori erraztu nahi dugu, emakumeak GFaren mendeko erakunde publikoetan eta gizarte- eta enpresa-erakundeetan –GFarekin dituzten harremanen esparruan– egotea sustatu eta bultzatzen duten neurriak abian jarrita.

#### 4. Gizartean eta politikan parte hartzeko prozesuak eta espazioak aintzakotzat hartzea

Emakumeen jabeakuntza lortzeko espazio eta prozesuak sustatzea funtsezko estrategia da emakumeen parte-hartze soziopolitiko indartzeko. Estrategia ahaltua, jabeakuntza era honetan definitzen den neurrian: “pertsonak bizitzan eragina duten baliabide eta erabakien gainean dituen ahalmena eta boterea areagotzea”. Azken batean, horren bidez zera adierazi nahi da “emakumeek beren mendekotasunaren jakitun izateko prozesua, banakakoa eta kolektiboa, jakitun izate horrek ahalbidetzen duen emakume gehiagok parte hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea erabili zein eragiteko ahalmena eskuratzeko prozesuetan”<sup>24</sup>.

Hala eta guztiz ere, erakunde publikoek jabeakuntza-prozesuak sustatzeak gogoratu beharreko hainbat paradoxa ditu:

- Lehenengoa, erakundeek noraino parte har dezaketen botere nozioaren dekonstrukzioan.

*Botere nozioaren des-erakuntza*

Banakako aldaketaren zein talde-ekintzaren ikuspegia baztertu gabe, kontuan izan behar dugu jabeakuntzak berekin duela, baita ere, emakumeek genero bezala okupatu duten mendeko lekua birstortzen duten prozesu eta egituren erroto aldaketa. Hau da, alferrikakoa litzateke berez desberdintasun-mekanismo ugarien erroak dituen botere bat gauzatzeko modu bat bilatu, eskuratu eta partekatzea.

Ikuspegi horretatik, emakumeen jabeakuntzak berekin du hiru botere mota berriz definitzea: a) Emakumeek beren mendekotasunaz jabetzea eta beren buruan konfiantza handiagoa izatea (“berezko boterea”); b) Era autonomoan antolatzea, beren bizitzari eta nahi duten garapenera buruz erabakitzeke (“boterea besterekin”); c) Mobilizatzea, beren interesak identifikatzeko eta mugatu eta beren mendekotasuna betikotzen duten harreman, egitura eta erakundeak eraldatzeko (“boterea zerbait lortzeko”).

Horiek horrela, boterea identifikatzea ez da batzuek besteak azpiratzea: xedea ez da “zero emaitzako botere-batuketara” sustatzea, hau da, pertsona edo talde batek boterea izateak beste pertsona edo talde batzuen boterea galtzea ekartzea. Aitzitik, adierazitako hiru alderdiak landu behar dira harreman simetrikoagoak sortzeko eta “batuketara positiboko” boterea antolatzeko, hau da: pertsona edo talde batek bere boterea handitzearekin batera, guztion boterea eta gizarte-aldaketa egiteko eskura dauden baliabideak ere handitzen dira.

Boterearen kontzeptuari, botere menderatzaile bezala, lotuta dauden esanahien dekonstrukzioa egiteko kezka horrek joera feminista batzuk bultzatzen ditu “boterea” hitza zalantzan jartzera “jabeakuntza” kontzeptuaren barruan, eta lehentasunez beste termino batzuk erabiltzera, hala nola “agentzia”; era horretan, “boterearen” ideiatik deslotuta eta autonomiatik zein pertsonak bere aukerak eta erabakiak kontrolatzeko duen gaitasunetik hurbilago dauden nozioak eskain ditzakete eta.

- Eztabaida horiek **bigarren paradoxa** jartzen digute aurrez aurre:

*Emakumeen jabeakuntza: bitarteko, ez xede*

Agentziaz, autonomiaz, berez erabakitzeke gaitasunez hitz egiteak aditzera ematen du erakunde publikoek ezin dietela emakumeei jabeakuntza ezarri. Jabeakuntza ez da eman litekeen ondasun bat, prozesu dinamiko bat baizik, eta emakumeek dira horren protagonista, banaka eta kolektiboan egiten dituzten ahaleginen bidez. Ildo horretan, erakundeak errazteke eginkizuna bete besterik ez du egin behar, jakinda ez dela nahikoa berarekin elkarlanean ari diren pertsonen entzun eta haien pertzepzio eta

24 EMAKUNDE, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana, 80. or.

helburuak bere egitea, pertsona horiei protagonismoa uzten ere jakin behar da-eta, tutoretza eta usurpazioa egiteko tentaldian ez erortzeko. Hala bada, berriro ere jo behar dugu esku hartzeko eta laguntzeko ikuspegi parte-hartzaileak sustatzeko beharrera.

- Azkenik, garrantzitsua da **hirugarren paradoxan** ez erortzea:

izan ere, paradoxa horrek, zenbaitetan, erakunde publikoei jabekuntzaz pentsarazi die jabekuntza berez helburu bat dela, eta ez xede jakin batzuk –nagusitu den gizarte-ordena eraldatzea, alegia– erdiestea ahalbidetzen duen estrategia bat. Berdintasunik eza abiagunea da, jabekuntza-beharra sentitzeko. Eta alderdi anitzeko prozesu bezala ulertu behar da, politika, ekonomia eta gizartearen esparruak barnean hartzen dituen eta emakume, talde, erakunde eta gizarte-elkarteei eragiten diena. Jabekuntza egoera horiek zuzendu eta oreka berriak lortzera bideratutako tresna bat da. Beraz, hasiera batean, denbora horizonte mugatua du: helburua lortzeko beharrezkoa dena, alegia. Ezin da berez xede bat dela pentsatu, baliabide edo estrategia bat baizik, demokratizatzen eta herritartasuna osotasunez gauzatzen laguntzen duena. Eta, gizarte-aldaketa bat lortzeko egiten diren prozesu guztiekin gertatzen den bezala, erakunde publikoek argi izan behar dute prozesu horietatik ateratzen diren aldatzeko eskaerek talka egin dezaketela, aurrez aurre, erakundearen egiteko eta erabakitzeko moduekin, eta boterea banatzeko beste modu batzuk eskatzeko erarekin.

Paradoxa horien jakitun izanda, esku hartzeko esparru honetan, bi helburu espezifiko barnean dituen helburu orokor bat zehaztu dugu.

## **R.5. helburu orokorra: Emakumeen jabekuntza sustatzen duten espazio eta prozesuen sorrera eta finkapena sustatzea.**

**R.5.1. helburu espezifikoa:** Emakumeen etxeak, emakumeentzako jabekuntza-eskolak eta emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea sustatzeko eta sarean antolatzeko bestelako espazio komunitarioak sortu eta indartzeko ekimenak babestea.

Duela denbora luze jadanik, berdintasuneko udal-arloek eta mugimendu feministak indarrak batu dituzte “emakumeek norberaren gela”<sup>25</sup> izatea eskatzeko. Eskaera hori **emakumeen etxeen** eta **Jabekuntza Eskolen** sorreran gauzatu da, eta horiek erreferentziako proiektu bilakatu dira<sup>26</sup>, ez soilik Gipuzkoako Lurraldean, baita EAE osoan ere. Etxe eta eskola horiek Latino Amerikako mugimendu feministak abiarazitako jabekuntza-praktika eta -prozesuetan oinarritutakoak dira.<sup>27</sup>

25 1927an, emakumezkoen literaturari buruzko hitzaldi bat ematera gonbidatu zuten Virginia Woolf idazlea; Woolfek baieztatu zuen ez zegoela emakumezkoen literaturarik, emakumei idazte-lanetan aritzea galarazten zieten baldintzatzaile ugari baizik. Hitzaldia, “Norberaren gela” izenburukoa, saiakeralan ospetsu bilakatu zen geroago, eta bertan adierazi zuen emakumeek nork bere gela eta hileroko dirukopuru bat behar zituztela, idatzi ahal izateko. Hau da, baldintzatzaile materialak eta norberaren espazio bat, lan egin eta sortu ahal izateko.

26 Gipuzkoako jabetze-eskolen sarea, gaur egun Arrasate, Azpeitia, Eibar eta Hernaniko udalerriek osatua, aitzindaria izan zen Gipuzkoan. Beste udalerrri eta eskualde batzuetan, gauza bera egin dute. Era berean, Urola Garaiko Mankomunitatean eta Tolosako Udalean beste lankidetzaren sare bat antolatzen ari dira, sinergiak sortu, baliabideak batu, pentsamoldea sortu eta estrategia partekatutakoak finkatzeko asmoz.

27 El Salvadorreko Las Dignas Eztatbaida Eskola Feministaren adibidea inspirazio-iturri garrantzitsua izan da Bizkaian nahiz Gipuzkoan sortutako eskola-sareetan. Eskolari buruzko informazio gehiago hemen: [www.lasdignas.org](http://www.lasdignas.org)

Ekintza estrategikoa da horiek babestea, emakumeen arteko prestakuntza, eztabaida, hausnarketa, topaketa eta talde-ekintzarako espazioak diren neurrian. Eta espazio horiek ahalbidetzen dute tokiko esparruan, eta baita udalerrri artean ere, topaketa egitea, emakumeen elkarte, talde feminista eta elkarteetan ez dauden edota beste gizarte-talde batzuetako kide diren emakumeen artean (arrazismoaren kontrakoak, ekologistak, etab.).

Beste alde batetik, beharrezkoa da bereziki kontuan hartzea Gipuzkoako udalerrri txiki ugarietako egoera, ezin izaten baita beti berariazko espazioak sustatu, emakumeen jabeak bultzatzeko. Hala ere, komunitatean antolatzen beste espazio batzuk egoten dira; espazio horietan emakume gazteek edo zaharragoek parte hartzen dute, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako ekimen zehatzak garatzeko interesak bultzatuta. Ildo horretan, laguntzeko estrategiak eta mekanismo zehatzak garatuko dira, errealitate horretara egokituta, Berdinbidean foru-programarekin koordinazio eta lankidetzan estuan.

Azkenik, ikusi dugu Lurraldean dauden espazio horien arteko sare-lana bultzatzeko beharra dagoela, elkar ezagutzeko errazteko, hausnarketak, esperientziak, proiektuak eta jarduerak trukatzeko eta, era horretan, talde-ekintza Lurralde osoan indartzeko.

**R.5.2. helburu espezifikoak:** Emakume gazte eta migratzaileen jabeak berariaz sustatzen duten prozesu parte-hartzaileak abian jartzen eta indartzen laguntzea.

Jabeak hainbat **espazioen** garapenean arreta handia jartzearekin batera, GFAk **lan-prozesuak** sortu eta indartzen lagundu ere egiten du, jabeak ikuspegitik erantzun diezaieten emakumeen behar eta interesei, emakume horiek bizi dituzten bizitza-, administrazio- edo ekonomia-egoerak direla kausa edo betidanik erakunde publikoetatik urrun egon direlako –emakume gazteak, adibidez– adierazitako espazioetan parte hartzeko zailtasunak dituztenean.

Ez dago soberan gogoraraztea parte hartzea prozesu konplexua dela, eta prozesu horretan, parte-hartzaileen arteko baliabide- eta botere-desberdintasunak pertsona horiek hor egotea ziurtatzeko berariazko mekanismo eta estrategiak aurkitzera behartzen duela.

Emakume migratzaileei dagokienez, ezegonkortasun ekonomiko eta sozialak, egoera administratiboari lotutako zailtasunekin batera, areago oztopatzen du talde-zentzua sortzeko funtsezkoak diren prozesu irekietan modu iraunkorrean parte hartzea. Euren hitzetan: “geldirik egoteko ideia baztertzeko dugu, berresten dugu mundua aldatu nahi dugula, gu geure aldaketaren subjektu izanik. [...] Gutako bakoitzaren prozesua zaintzeko eta errespetatzeko behar etengabea errepikatzen diogu geure buruari, [...] pertsona eta talde bezala finkatzeko beharra. Gure ideia da pixkanaka joatea da, baina hondoraino”.<sup>28</sup>

Emakumeen belaunaldi berriei dagokienez, berdintasunari buruzko diskurtso gehiena onartu dute eta erdietsitako lorpenen onura atera dute. Hala ere, lorpen horiek prozesu historikoaren berezko elementu bezala ikusteko joera dute, eta ez borroka feministaren prozesu baten emaitza historiko bezala. Elementu horiek, aldi berean, zailtasun bat dute berekin, alegia, beren eguneroko bizitzetan eta bizi diren gizarteko esparru guztietan modu lausoagoan edo argiagoan iraun duten diskriminazioez jakitun izateko zailtasun bat.

---

28 Ana Murcia, “Garaipen” Taldea, 2009: Del feminismo multicultural a la resistencia transfeminista. In: Granada, treinta años después. Aquí y ahora. Arg.: Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas.



## 5. Helburuen matrizea

SARE ETA PRAKTIKA FEMINISTAK					
Helburua: Emakumeen partaidetza soziopolitikoa indartzea, subjektu feminista askotarikoa dela onartuta eta sarean jardutea sustatuta					
ESKU HARTZEKO ESPARRUA	HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	DEPARTAMETUAK	
				ERANTZULEAK	PARTE HARTZEN DUTENAK
<b>Begirada zabaltea</b>	R.1. Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea bermatzeko orduan, berdintasunaren aldeko foru-politikek subjektu feministaren aniztasuna kontuan har dezaten sustatzea.	R.1.1. Begirada feminista jartzea emakumeek eta genero identitate-eredu hegemonikoen aurka daudenez gizartean eta politikan parte hartzeko dauden eragozpen nagusien gainean.	Hausnartzeko eta aztertze antolatutako prozesuen kopurua. Hausnarketa- eta azterketa-prozesuetan landutako edukien tipologia. Planteatutako hausnarketa prozesuetan inplikaturako departamentuen kop/% Aldatutako parte-hartze prozesuen/espazioen kop. Parte hartzeko prozesuetan eta espazioetan sartutako aldaketen egokitasuna	Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza Partaidetzarako Zuzendaritza	Guztiak
		R.1.2. Emakumeek eta ordena heteropatriarkala urratzen duten pertsonen parte hartzeko forma guztiek gizartean eta politikan duten balioa ikusgarri egin eta onartzea, eta bereziki kontuan	Hausnartzeko eta aztertze antolatutako prozesuen kopurua. Hausnarketa- eta azterketa-prozesuetan landutako edukien tipologia. Planteatutako hausnarketa prozesuetan inplikaturako	Diputatu Nagusiaren Alorra: Partaidetzarako Zuzendaritza Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak

		hartzea ikuspegi horretatik ikusezin bihurtutakoak eta gutxietsitakoak.	departamentuen kop/% Hausnarketa prozesuen ondorioz martxan jarri beharreko proposamenen/lan-ildoen kop. GFAREN proposamenaren edukiak eta bideragarritasuna		
<b>Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzeko baldintzak hobetzea</b>	R.2.: Balioen aldaketa sustatzea eta emakumeek zein ordena heteropatriarkalaren urratzaileek gizartean eta politikan parte hartzea eragozten duten aurreiritziei aurka egitea.	R.2.1.: Generoaren araberako gizarte-eginkizunak eta estereotipoak ezabatzen laguntzea.	Abian jarri diren sentsibilizazio ekintzen kop. Hausnarketa sustatzeko abian jarritako jarduketan kop (espazioak, lan prozesuak,...). Inplikaturako erakundeen kop.	Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza Kultura, Gazteria eta Kirol Departameta	Guztiak
		R.2.2. Transfobia, lesbofobia, bifobia eta homofobia direla kausa gizartean estigmatizatu eta gizarte eta politikan baztertuak diren pertsonen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzea ikuspegi transfeministatik.	Garatutako sentsibilizazio ekintzen kop. GFAk sustatutako kanpainetan landutako edukien tipologia. Parte hartu duten gizarte-eragileen kopurua Parte hartu duten gizarte-eragileen tipologia	Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren Zuzendaritza	Guztiak
		R.2.3. Sexu-langileen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzea, gizartean horiek estigmatizatu eta gizarte eta politikan baztertzearen aurka borrokatzen duten taldeei lagunduta.	Garatutako sentsibilizazio kanpainen kop. Gauzatutako indartze eta laguntza ekintzen kop. Inplikaturako eragile sozialen kop.	Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza	Gizarte Politika Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa



	R.3. Gipuzkoako Lurraldeko erakunde feministak eta emakumeen elkarteak indartzen laguntzea.	R.3.1.: Elkartegintza feminista eta emakumeenari laguntzeko foru-baliabideak gehitzea, eta bereziki kontuan hartzea lurraldean dagoen dibertsitatea.	Lurraldeko elkarte feministei eta emakumeen elkarteei zuzendutako dirulaguntzetarako dauden kopuruen bilakaera, Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak duen aurrekontu osoarekin alderatuta.  10.000 biztanletik beherako udalerrietako elkarte feminista eta emakumeen elkarteei GFAk emandako dirulaguntzen portzentajea/kopurua.  Elkartegintza feminista eta emakumeen elkarte-mugimenduari laguntzeko GFAk sustatutako ekimen-kopurua.  Emakumeen elkarte mugimenduaren lanak duen balio soziala ikuskarazteko ekintzen kopurua.	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	
		R.3.2. Mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren artean eta horien eta beste gizarte-mugimendu batzuen artean unean-uneko hitzarmenak sortu edota indartzen laguntzeko foru-baliabideak gehitzea.	Lortutako alientzen kopurua.  Parte hartu duten gizarte-eragileen kopurua  Parte hartu duten emakume elkarteen eta elkarte feministen kop.  Parte hartzen duten mugimendu sozialen tipologia	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	
	R.4. Emakumeak erabakiak hartzen diren eta eragina duten espazioetara iristea ahalbidetzea.	R.4.1. Erabakiak hartzen diren eta eragina duten GFAREN mendeko espazioetan eta erakunde publikoetan, erakundearekin kontratuak sinatu dituzten edo GFAk	GFAren berdintasun klausulak txertatzen dituzten diru-laguntza eta kontratazio kop./%  Egindako azterketen kop.  Inplementatutako eragin eta	Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.	Guztiak

		laguntza ekonomikoa eskaintzen dien gizarte-edo ekonomia-erakundeetan emakumeen presentzia sustatzea.	erabakimen esparruetan emakumezkoen presentzia sustatzeko neurrien kopurua.		
		R.4.2.: Kirol-elkarte edo -erakundeetan segregazio bertikal eta horizontala murrizten laguntzea, funtzionamenduan eta jardueretan genero-ikuspegia gehitzea sustatuz.	<p>Kirol jardunean segregazio horizontala murrizteko abian jarritako jarduketan kop.</p> <p>Ekintza motak eta eragina kirol parte-hartzean.</p> <p>Kirol erakundeetan segregazio bertikala murrizteko abian jarritako jarduketan kop.</p> <p>Ekintza motak eta eragina emakumeen kirol erakundeetan duten posizioan.</p> <p>GFAn ekintzetan parte hartzen duten kirol erakundeen kop.</p> <p>GFAn kirolaren arloko diru laguntzak, berdintasun klausulak txertatuta dituztenak.</p> <p>Diru laguntza horiek jasotzen dituzten erakundeen kop.</p>	Kultura, Gazteria eta Kirol Departameta	
		R.4.3. Arte eta kulturaren esparruan generoari lotutako arazoetan lan egitera bideratuta dauden erabakitze espazioetan eta kultura eta artea ekoizteko espazioetan emakumeek parte-hartze handiagoa izan dezaten	<p>GFAn, kultuaren arloan, berdintasun klausulak txertatzen dituzten diru-laguntza eta kontratazio kopuruaren bilakaera</p> <p>Diru laguntza horiek jasotzen dituzten kutlru erakundeen kop.</p> <p>GFAn izendatutako epaimahai paritarioen portzentajea</p>	Kultura, Gazteria eta Kirol Departameta	

		sustatzea.			
<b>Gizartean eta politikan parte hartzeko prozesuak eta espazioak aintzakotzat hartzen</b>	R.5. Emakumeen jabeakuntza sustatzen duten espazio eta prozesuen sorrera eta finkapena sustatzea.	R.5.1. Emakumeen etxeak, emakumeentzako jabeakuntza-eskolak eta emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea sustatzeko eta sarean antolatzeko bestelako espazio komunitarioak sortu eta indartzeko ekimenak babestea.	GFAREN laguntza ekonomikoa jasotzen duten emakumeen etxeen edo jabeakuntzako eskolen kopurua.  GFAK lagundutako ekimen eta proiektu kopurua, lurraldean jabeakuntza sustatzen duten entitate desberdinen arteko sareko lanari buruzkoak  Plataforma informatiboa abian jartzeko garatu diren jarduketaren kopurua.  Plataforma abian jartzeko ekintzetan parte hartzen duten entitateen kopurua.	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza  Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.	Ingurumena eta Lurralde Antolaketa
		R.5.2. Emakume gazte eta migratzaileen jabeakuntza berariaz sustatzen duten prozesu parte-hartzaileak abian jartzen eta indartzen laguntzea.	Garatu diren laguntza eta lankidetzaren ekintzen kopurua.  Emakume gazte eta migratzaileen elkarte mugimendutik inplikaturik dauden entitateen kopurua  Inplikaturik eragile sozialen kopurua.  Emandako laguntzen kopurua.  Ikusarazteko garatu diren ekintzen kopurua.	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza  Partaidetzarako Zuzendaritza  Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza	



---

# *Zainketa duinak eta guztientzak*

---

*II. Kapitulua*

*Sarrera*

*Begirada  
zabaltzea*

*Zainketa  
jasotzeko  
eskubidea  
bermatzea*

*Zainketa  
profesionalaren  
baldintzak  
hobetzea*

*Helburuen  
matrizea*



## 1. Sarrera

*Zainketa  
duinak:  
unibertsalak  
eta  
berriazkoak*

Zainketak GFaren II. Berdintasun Planaren azken helburua den bizitzaren iraunkortasunari buruz eztabaidatzeko erdiguneko alderdia dira. Ikuspegi estrategikoa dira bizitza iraunkor nola egiten den eta iraunaraztea/zaintzea merezi duen bizitza zer den eztabaidatzeko orduan. Zainketetan, beti, politika publikoen esparrura mugatu ezin den gehiegitasuna dagoela kontuan hartuta –harremanak, afektuak, komunikazioa, lan zenbakaitza–, II. Planaren bidez erdietsi nahi dugu ikuspegi, helburu eta neurri zehatzei buruz eztabaidatzea, iradokizunak egitea eta horiek abian jartzea, Gipuzkoako ingurunean zainketei ekiteko, unibertsaltasun- eta singularitasun-baldintzetan, zainketa duinak bermatzen laguntzea gure azken helburua dela. Horretarako, II. Plan honen bidez, eginbehar publikoan egokiak diren aldaketak egin nahi ditugu eta, hortik abiatuta, guztientzako zainketaren eskubidea eta alorrean duinak diren lan-baldintzak bermatzen dituzten zainketen eredu eta antolaketa sustatu, bizitza zaintzeko ardura taldeko ardura dela oinarritzat hartuta.

Gaur egungo krisi-egoeran, zainketen gaia hainbat aukera eta galdera kontuan izanda lantzea proposatzen dugu, hala nola: noraino okertuko da zainketak zerbitzu publikotik kendu eta etxera aldatzerakoan dagoeneko ikusgarri bihurtu zen zainketa horien krisia? Enplegua aurkitzeko gero eta handiagoak diren zailtasunek noraino bultzatuko dute emakumeak etxera itzultzea? Osasunak orokorrean okerrera egiteak (bizi-baldintza badaezpadaoagoak direla medio, eta osasun-zerbitzua eskuratzea zailagoa delako) noraino ekarriko du gainkarga bat etxeetara eta, zehazkiago, emakumeentzat? Krisi orokor honen ingurunean, familia tradizionala eta haren baitan dauden genero-eginkizun desberdinak indartzeko arriskua oso larria da, emakumeak direlako gauzak benetan gaizki daudenean erantzuten duten bakarrak –zainketaren etika atzerakoiaren pean<sup>29</sup>–.

Zainketen barruan, bizitza eta osasuna kudeatzeko eta egunero mantentzeko eginkizunak daude, pertsonen gorputzen ongizate fisikoaren eta emozionalaren eguneroko berritzea alegia, bai norberaren gorputzarena, bai besteren gorputzarena. Horien barruan sartzen dira, halaber, afektuek eta afekturik ezek zeharkatuta dauden sexudun gorputzez arduratzeko hartzen ditugun zeregin askotarikoak. Zainketen ezaugarria da nola haragizko alderdi material bat (gorputzak zaintzea) hala afektuzko alderdi immaterial bat (emozioak zaintzea) izatea. Jarduera bat eratzen dute, eta jarduera horren emaitza kontsumitu egiten da, egiten den aldi berean; horretan, garrantzitsuena prozesua da, berez, eta baita sortzen den pertsonen arteko harremana ere.

Zainketak elkarren mendekotasunezko errealtate dira, eta ezin dira ulertu norabide bakarraz egiten den jarduera bezala, hau da: ustez autonomoak diren pertsonengandik ustez mendekotasuna duten pertsonengana. Zainketak ikuspegi zabal batetik ulertu behar dira, eta ez dira mendekotasunera mugatu behar. Pertsona guztiek bizitzaren momentu guztietan behar dituzte zainketak, hainbat motatakoak eta intentsitate desberdinetakoak. Autonomia eta mendekotasuneko egoeren artean continuum bat dago, eta horretan pertsonak beren burua zaintzeko eta elkar zaintzeko harremanak

<sup>29</sup> “Zainketaren etika atzerakoa” terminoaz emakumeei ezarri nahi zaien etika adierazi nahi dugu, emetasuna erabateko altruismoarekin eta sakrifizio-espirituarekin identifikatzen duena, emakumeek naturaz hurkoak zaintzeko joera dutelako ideia ezarrita, baita beren burua eta beren desio eta beharrak ahaztuta ere. Etika hori funtsezko tresna izan da emakumei ordaindu gabeko lanak, ikusezinak eta gutxietsiak egiteko ardura ezartzeko, eta estu lotuta dago familia naturalaren ideari (bikote monogamo heterosexuala, seme-alaba biologikoak dituen); era berean, emakumeek besteren ongizatearekin duten konpromiso-sentipena esplotatzen du, eta eragozten du zaintzeko gaitasunaren esentzializazioa emakumeek jaiotzetik duten ezaugarri bezala –emetasuna bera definitzen duena– gainditzea.

izateko gaitasun handiagoa edo txikiagoa dute. Gaitasun desberdin hori osasun- eta gizarte-alderdi ukiezinek zehaztuta dago. Are gehiago, zainketak biziaren zaurgarritasuna eta zerizan komuna kontuan hartzen dituzten jardueren moduan pentsatu behar dira, eta hortik abiatuta, pertsonak autonomo izatea ahalbidetzen duten jardueren moduan.

Zainketa duinak eskuratzea alderdi askoren baitan dago: horiez arduratzeko modu kolektiborik badagoen edo bakar-bakarrak familien erantzukizun bezala uzten diren (era horretan, gizarte-sareen eta erosteko ahalmen desberdinen baitan egongo da), balioesten diren edo ez, pertsona guztien beharrak zuzentasunez onartzen diren edo ez, edo batzuen beharrak lehentasun handiagoko bezala ikusten diren, etab.

“Duintasuna” aipatzen dugunean, hau adierazi nahi dugu: eskainitako eta jasotako zainketak nahikoak izatea kopuruari dagokionez (dauden beharrei erantzuten dietenak), eta kalitatezkoak izatea, alegia: askatasunez aukeratuak izatea (bakoitzak erabakitze ahalmena izatea, bere burua nola zaindu nahi duen edo beste batzuek bera nola zaintzea nahi duen; edo nola, noraino eta nor zaindu nahi duen), eta betegarriak izatea (norberaren “transzendentzia-zentzuei” erantzutea). Ifrentzua zainketa eskasak dira: nahikoak ez direnak, askatasunez aukeratu ez direnak edota betegarriak ez direnak.

Gipuzkoako inguruneko egungo zainketen eremuan, gurpil zoro bat eratu da zainketen, desberdintasunaren eta ezegonkortasun/bazterketaren artean, eta, hala, zainketak desberdintasunaren bektore bihurtu dira: hau da, zainketa duinak edo eskasak eskuratzea gizarte-bereizketarako funtsezko elementu bat da eta, aldi berean, desberdintasuna birsortzen duen elementu bat.

Unibertsaltasunaren irizpidez adierazi nahi dugu zainketa duinak pertsona guztientzat izan behar direla, inoiz ez bakar batzuentzat, eta ezin direla zainketa duinak eskuratu beste batzuentzako zainketa eskasen kontura, aitzitik, orokor izateko joera izan behar dute eta. Ildo horretan, desberdintasunaren adibide garbi bat da bertako herritarrei zainketa duinak ziurtatzen laguntzen duten zainketa orokorren kateen barruan gauzatzen dena, nazioz haraindiko familiaren estutasunaren kontura. Singulartasuna aipatzean, adierazi nahi dugu gizarte-errealitate bakoitzaren desberdintasunak errespetatu behar direla, unibertsaltasuna ez dela bihurtu behar errealitate askotarikoaren ukazio. Geure buruari zainketei buruzko galdera egiten diogun ingurunea, Gipuzkoa alegia, oso bestelakoa da beste ingurune batzuekin alderatuta, eta, hasiera batean, ezinezkoa da jarraibide berak ezartzea. Era berean, gure ingurunean elkarren ondoan bizi diren errealitateek era askotako erantzunak behar dituzte; eta gutxienez errealitateak daude beti, gehiengoaren arauari egokitu ezinak direnak. Hori horrela, ezin da aukera bakarra inposatu nola zaindu behar den aukeratzeko orduan.



## 2. Begirada zabaltzea

II. Planean proposatzen dugu begirada zinketen hiru funtsezko alderditara zuzentzea, helburu hauekin:

**C.1. helburu orokorra:** Zinketa antolatuen eredu bat sustatzea, bizitzaren iraunkortasunari egindako ekarpenean oinarrituta, biziaren zaugarritasuna eta elkarren mendetasuna kontuan hartuta.

Alde batetik, Gipuzkoako inguruneke zinketen gizarte-antolaketa dago; horrek zehazten du zer zinketa-behar dauden eta nola banatzen diren erantzukizunak, eragile bakoitza zertaz arduratzen den, zer eremutan eta zeren truke (etxeak, enpresak, estatua, etxeko enplegua, emakumeak edo gizonak). GFAn ulertzen dugu gaur egungo zinketen gizarte-antolaketa bidegabekoa dela: zinketak gizarte- eta ekonomia-sistemaren oinarri ikusezina dira. Ziurtzat ematen da hor daudela eta mugarik gabeko malgutasuna dutela. Ez dago erantzukizun orokorra zinketen zuzkiduran. Erantzukizun hori pribatizatuta dago etxeetan, emakumeen eskutan; eta horren oinarri dira ordaindu gabeko lana eta etxeko enplegua. Zinketak eztabaida publikoaren esparrura agertzen dira, bakar-bakarrik, falta direnean, eta emakumeei errua leporatzeko. Merkatuaren ikuspegitik irakurtzen dira, eta ez eskubideen ikuspegitik. Ildo horretan, administrazio publikoaren eginkizuna guztiz txikia da, eta enpresek probetxua ateratzen diete musu-truk eskulana berreskuratzen duten zinketei, eta zinketetan negozioa egiteko txoko berri bat aurkitu dute.

Beste alde batetik, lurralde honetan dauden **zinketaren kulturak** kontuan izan behar ditugu, horiek definitzen baitute zen den zinketa ona, eta arauzko irizpideak ezartzen baitituzte, nork nor zaindu behar duen, non eta zeren truke zehazteko. Gauzak horrela, ulertzen da egungo proposamenek –zinketaren etika idealizatu eta zinketaren etika atzerakoiaren ingurunean nahiz zinketen arau-esparrua familiara mugatzen duen ikusmoldearen ingurunean sustatzen duten, eta emakumeak familiararen ongizateaz arduratuta sentitzea esplotatzen dutenek– ez digute uzten zaintzeko gaitasuna funtsean emakumeek jaiotzetik duten ezaugarri bezala –emetasuna bera definitzen duena– esentzializatzea gainditzen. Era berean, zalantzan jarri behar ditugu elkar mendekotasuna ukatzen duten eta mendekotasunaren eta autonomiaren nozio geldi eta kontrajarriak indartzen dituzten proposamenak. Ingurune horretan, zinketa kontrolatzeko eta eusteko jardura bezala ulertzen da, eta horrek berekin du, ongizatea nola (bir)sortzen den azertzeaz gain, zinketez hitz egitean indarkeriaz hitz egiteko beharra. GFAn, gizarte-iruditeria horien aurrean, zinketei elkarrekikotasunaren ikuspegitik begiratzea proposatzen dugu, ikuspegi horrek ahalbidetzen baitigu zinketez berriz hausnartzea.

Azkenik, begiratu behar dugu zinketek **gizarte eta ekonomiaren egituran duten lekura**, lehenetasuna eta zentraltasuna ematen zaizkien ala ez, eta nola gurutzatzen diren politika guztiekin, zinketen inguruko politikez harago. Bestela esateko, gizarte-multzoaren oinarri bezala ulertzen diren zinketen alderdi material eta sinbolikoa kontuan izan behar da.

Bizitzaren iraunkortasuna lortzeko zinketen eredu hau sustatuko badugu, aintzakotzat izan behar ditugu biziaren zaugarritasuna eta elkar mendekotasuna. Hala bada, II. Planean, helburu hauek ere proposatzen ditugu:

**C.1.1. helburu espezifikoa:** Eztabaida feministak bultzatzea zainketa duinei buruz, zainketen era askotako ikuspegiak errespetatuz; baita zainketen birbalorizazioari buruz ere; eta, halaber, esplotazio-baldintzak betiketzen dituzten gizarte-iruditeriei buruz.

Funtsezkoa da eztabaidetan mota guztietako pertsonak parte hartzea (adingabeak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, emakumeak, gizonak, trans pertsonak, elkarteak, akademia, etab.), eta protagonismo berezia izatea zainketa eskaseko egoeretan bizi direnek. Elkar mendekotasuna, autonomia eta zainketarako eskubidea berreskuratzen dituen begirada feminista batetik, funtsezkoak diren eta eskuarki bigarren mailan gelditzen diren gaiei helduko diegu: autozainketa; heriotza duina izateko eskubidea, zer-nolako zainketak jaso nahi ditugun erabakitzeo eskubidean oinarrituta; etxe mota berriak, eta etxeak gatazka-gune bezala, ez soilik harmonia-gune bezala; emetasunaren eta artasunaren eraikuntza; autonomia/mendekotasunaren inguruko eztabaida, etab.

Eztabaida horiek zainketak birbaloratzen lagunduko dute, idealizaziotan erori gabe, zainketek alderdi atsegingarri bat eta beste alderdi korapilatsu eta ahulgarri bat dituztela onartuta, ekintza errepikagarri eta desatseginak egin behar direla jakinda, nahitaez egin behar direnak, bizitzaren birsorkuntzarako ezinbestekoak direlako. Horrez gain, onartu behar dugu zainketen ingurunean botere-harreman perbertsoak gertatzen direla (subjektibotasunen eraikuntza heterosexistan oinarrituta, gizonak buruaskitzat eta emakumeak emantzat hartuta).

Azkenik, herritarren artean eta erakundeetan eztabaidak sustatzeaz gain, GFak berak zainketen gaineko begirada feminista bultzatu behar du. GFatik zainketak elkarrekikotasun-, onarpen- eta birbanaketa-irizpideez ziurtatzeko helburuz, zainketen gainean mugimendu feministetan egin diren eztabaidetan oinarrituta, helburu hau ere proposatzen dugu:

**C.1.2. helburu espezifikoa:** Zainketen gaineko begirada feminista bat kokatzea GFAn.

### 3. Zainketa jasotzeko eskubidea bermatzea

Zainketak unibertsaltasun eta singularitasunaren irizpideetan oinarrituta dauden pertsona guztien funtsezko eskubide moduan ikusten ez diren neurrian, zainketa duinak eskuratzea ez da ulertuko gizarte-antolaketaren eta politika publikoen garrantzizko alderdi bezala. Alderdi anitzeko eskubide bat da, berekin duelako pertsona guztiak onartzea zaintzeko eskubidea duten subjektu bezala (pertsona guztiek zaintzen dutelako eta zainduak direlako), zainketaren alderdi guztiak aldi berean kontuan hartuta. Horren barnean, hauek egongo lirateke:

*Zaindua  
izateko  
eskubidea:  
oinarrizko  
eskubidea*

- zaindu nahi den edo ez eta nor zaindu erabakitzeko eskubidea, eta baldintza duinetan zaindu ahal izatea
- egokiak diren zainketak jasotzeko eskubidea, bizitza-zikloaren egoera eta une desberdinetan; eta nola zaindu behar gaituzten erabakitzeko eskubidea, zaintzaile kaltegarriei uko egiteko eskubidea bermaturik.

Zainketarako eskubideak funtzio anizkoitza betetzen du, izan ere errealitate ikusezin bat eskubide-estatusera goratzen du, zainketa (ona) zuzenbideko helburu berri moduan berreginda; era berean, zainketarako eskubidea urratzeko moduak hautematen ditu egungo alderdi anitzeko krisi metatuaren ingurunean, eta zainketak bizitzaren zati bezala –eta ez bizitzaren salbuespen bezala– ulertzetik bereizi ezin den gizarte-erantzukizun bezala nabarmentzen ditu; eta azkenik, eragina baitu zainketak eskuratzeak duen alderdi unibertsalean, murrizketarik gabe.

Zainketarako eskubidea gizarte eta ekonomiaren egitura orientatzen duen printzipio bat bezala ikusi behar da. Hemen, galdera hau agertzen da, alegia, nola gurutzatzen diren zainketak beste politika batzuekin. Horri dagokionez, gakoa litzateke une oro aintzakotzat hartzea politika publiko guztietan eta GFaren antolaketa-ereduan, erakundeak, GFA bezala, bere gain hartzea zainketaren konponketak errazteko zeharkako helburua, horiek oztopatu edo, besterik gabe, norbaitek lekuren batean irtenbidea emango diela ziurtzat eman beharrean.

Lehenengo maila horretatik abiatuta, identifikatu behar da zer eskubide espezifiko sartzen diren zainketak jasotzeko ekintzan eta zainketen zuzkidura ordaindu gabe; eta, azkenik, ekintza hori zer neurriren bidez gauza daitekeen eztabaidatu behar da.

Pertsona guztiak ahulak direla eta bizitzaren une jakin batzuetan zainketen beharra dutela onartu arren, beharrezkoa da arreta politika publikoetan mendekotasuna duten taldetzat hartzen diren horien egoeran jartzea –hau da, adineko pertsonak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta haurrak–, eta onartu behar da talde horiek zainketa-behar handiak edota espezializatuak izan ditzaketela, eta, ondorioz, arreta berezia eman behar zaiela.

Mendekotasun-egoeran egonda zainketak jasotzeko eskubideari dagokionez, ez da neurri nahikorik jartzen onartutako eskubideak benetan gauzatu ahal izateko; zailtasun handia dago maila formaletik maila errealerara igarotzeko. Eta horrek zerikusia du, lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuen 2008ko euskal legearen benetako betetze ezarekin (gizarte zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzen zuen) eta, bigarrenik, benetan autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 29/2006 Legeak (Mendekotasun Legea izendatzen dena) dituen gabeziekin. Eta, azken buruan, zainketarako eskubidea onartu egiten da, baina segmentuka, eskubideak gizarte-talde batzuentzat onartzen direlako, eta beste batzuentzat ez. Adibidez, mendekotasunaren nozio hertsia legearen ezarpen-esparrutik kanpo uzten ditu zainketak behar dituzten herritar ugari.

Mendekotasun Legea 2007ko urtarrilean indarrean sartu arren, Gipuzkoako Lurralde

Historikoa ez zitzaion prestazio ekonomikoen izapidetzeari hasiera eman 2008ko urtarrilera arte.

Ordura arte, indarrean mantendu ziren gaur egun Mendekotasun Legean aurreikusten diren laguntzen baliokide batzuk, baina izaera murriztuagokoak:

- **Ingurune Familiarrean zaintzeagatik Dirulaguntza (IZD)** Gipuzkoan 1996. urteaz geroztik "Sendian" programaren barruan zegoen dirulaguntzaren ordezkia da.
- **Laguntza Pertsonalerako Dirulaguntza (LPD)**, gaur egun, 2004. urtean hasi eta "Bizimodu independentea desgaitasuna duten pertsonentzat" izendatzen den programarekin batera eskaintzen da. Egoera pertsonalari buruzko azterketa osatu batean oinarrituta, programan laguntza ekonomiko bat zehazten da, zentro espezializatu batera joan ahal izateko edo gurasoengandik independente izateko laguntza hartzeko (ostatu-gastuak, lekualdaketak, laguntzaileak, etab.).
- **Zerbitzuari lotutako dirulaguntza (ZLD):** Laguntza honek badu aurrekari bat: 2005etik beste laguntza batzuk ematen ziren lurraldeko bi eskualdetan (Bidasoaldea eta Oarsoaldea), adineko pertsonal egoitza pribatuetan sartzeko. Laguntza horiek desagertu egin dira 2012an.

*Mendekotasun  
Legearen  
prestazioa*

2012ko urriaren 31n, hiru prestazio horien hileko ordainketa, guztira, 3.887.900,05 eurokoa zen, era honetan banakatuta: IZD, 10.023 pertsona; LPD, 1.181 pertsona; eta ZLD, 141 pertsona. Guztira, 11.345 pertsonak jaso zituzten dirulaguntza horiek. Laguntza ekonomikoa jasotzen zuten eta mendekotasuna zuten edo zaintzaileak ziren pertsonak Lurralde Historikoko biztanleria osoaren % 1,6 ziren. Eta hau zen eskatzailearen profila: IZDn % 70,4k 70 urte baino gehiago zituen; LPDn % 93,31k; eta ZLDn % 95,75ek zituen 70 urte baino gehiago. Nabarmendu daiteke, halaber, zaintzaileen bi herenetik gora emakumeak direla, 41 eta 80 urte bitartekoak (zaintzaile guztien % 81,50). Emakume zaintzaile guztietatik % 82 ezkontideak, amak edo alabak dira. Aldi berean, eta diruzko laguntzen baztertzaila izan gabe, GFAn hainbat zerbitzu eskaintzen dira mendekotasuna dutenentzat:

- **Egoitzak:** Egoitza-sarea, mendekotasuna duten adineko pertsonentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat; sektoreko berariazko erakundeak lankidetzan aritzen dira, kudeaketa foru-hitzarmen, -finantzazio eta -plangintzan oinarrituta egiteko.
- **Etxeko Laguntza Zerbitzua:** Udal eskumeneko zerbitzu bat izan arren, Foru Aldundiak finantzatzen du mendekotasuna duten pertsonen zuzentzen zaien zatia. Mendekotasun egoeran dauden edo mendekotasun arriskuan dauden herritarrentzako laguntza eta prebentzio zerbitzu bat da; arreta pertsonala eta etxeko arreta ematen zaie, ingurunean bertan jarrai dezaten ahalbidetuz eta isolamendu egoerak saihestuz. Zerbitzua ordainketa partekatua erregimenean egiten da, eta ordainketa kalkulatu da mendekotasuna duen pertsonaren diru-sarreraren eta ondarearen arabera. Zerbitzuaren kostu orokorra handitu eta koordainketaren arautze ekonomikoaren ondorioz, onuradun diren pertsona askok jasotako zerbitzuari balorazio ona ematen badiote ere, baja eman dute, edo ez dute zerbitzua eskatzen ordaindu beharko luketen prezio handia dela eta. Era berean, horretan eragina du IZDK % 20ko murrizketa izateak, zaindutako pertsonak etxeko laguntza zerbitzua erabiltzen badu. Etxeko laguntza zerbitzuaren onuradunen igoera egiaztatu zen 2007. urtetik 2008.era bitartean (urte batetik bestera, igoera % 8,37koa eta % 14,08koa izan zen, hurrenez hurren), Mendekotasun Legea ezartzeari emandako erantzun moduan. Hala ere, 2009tik aurrera, geldialdi nabarmen bat gertatu da

*Mendekotasun  
Legearen  
zerbitzuak*

erregistratutako eskaeren kopuruan.

- **Telelaguntza Zerbitzua:** Pertsona Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin etengabe harremanetan mantentzen du, telefono bidezko gailu baten bidez. 2010eko ekainaren 30ean, 5.956 ziren telelaguntza zerbitzuaz gozaten zuten pertsonak, eta horietatik % 17,52k (1.044 pertsona) mendekotasuneko dirulaguntza bat ere jasotzen zuten.
- **Aldi baterako egonaldiak egoitzetan:** Denboraldi laburretan, hilabete bat edo bitan eta asteburuetan, zaintzaileak atsedean hartzeko edo egoera berezietan. 2011n bildutako datuen arabera, aldi baterako egonaldi bat (zaintzaileak atsedean hartzea helburu nagusiarekin) egin zuten pertsonen % 40,27k zeukaten mendekotasuneko dirulaguntza bat. Egonaldi gehienak udako hilabeteetan ematen dira, zaintzaileek atsedean hartzen dutenean. Urteko gainerako hilabeteetan ere egiten dira egonaldiak, baina kasu horietan helburua, oro har, adinekoen ospitaleko altei erantzuna ematea izaten da, ahultasun-egoerak etxera itzultzea galarazten dienean.
- **Eguneko zentroak.** Eguneko arreta eskaintzen da, banan-banako zainketak zentro egokitu batean, langile eta programa bereziekin. Izaera orokorrez, lanegunetan eskaintzen dira, nahiz eta GFAk jarraitzen duen sustatzen asteko zazpi egunetara zabaltzea.
- **Sendian programa.** Laguntzeko baliabideak eskaintzen dizkie zaintzaileei (aldi baterako egonaldiak egoitzetan, eguneko zentroa asteburuetan –zaintzaileak oporrez gozatu edo atsedenaldira hartzeko–, prestakuntza, laguntza-taldeak eta laguntza psikologikoa).
- **Laguntza teknikoak.** Ingurunea egokitzeko, mugikortasunerako eta irisgarritasunerako laguntzak, obra eta ekipamenduen bidez, zaintzaren baldintzak hobetzeko.
- **Oporretako programak;** opor egokituak, desgaitasuna duten pertsonentzat eta familiako kideentzat.
- **Laguntza planak:** Lurraldea gizarte-zerbitzuen esparruan antzemandako beharren arabera azpiegitura egokiaz hornitzea ahalbidetzen dute, bai eskualdeetako banaketari, bai dauden zentroetan araudia betetzeari dagokienez. Era berean, irabazteko asmorik gabeko erakunde jakin batzuek, Departamentuko arreta-alderdien barruan, ordezkaturako taldeen aldeko elkartetako jarduera garatzea ahalbidetzen du.

Garrantzitsua da adieraztea Gipuzkoan, mendekotasuneko prestazio ekonomikoak bateragarriak direla zerbitzuen erabilerarekin (hori ez da oso ohikoa), nahiz eta kasu horietan murrizketak egiten zaizkien ordaindu beharreko zenbatekoetan. Hala bada, pertsona bat eguneko zentro edo lantegi okupazionalera joaten bada, IZDa % 50ean murrizten zaio; % 20ko murrizketa egiten da Etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen bada; eta bi zerbitzuak izanez gero, murrizketa % 60koa da. Hala ere, IZDa ez da murrizten mendekotasuna duten pertsonak laguntza tekniko, telelaguntza edo gehienez ere 2 hilabete irautean duten aldi baterako egonaldiez onuradun direnean. IZDa murriztu daiteke, halaber, eskatzailearen diru-sarreraren arabera.

Gipuzkoan, 2011ko ekainaren 30ean IZDa jasotzen zuten etxe guztietatik % 27,2k laguntza tekniko publikoak ere jasotzen zituen; % 14k Etxeko Laguntza Zerbitzua ere erabiltzen zuen; % 14,3k eguneko zentro bat erabiltzen zuen (alde batera utzita zentro hori adineko pertsonentzat, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, buruko osasuneko edo babestutako tailerra den). Azkenik, % 10,3k telelaguntza zerbitzua zuten.

Nabarmendu behar dugu IZDak egoitzakoak ez diren zerbitzuekin bat egitea (etxeko laguntza, eguneko zentroa, telelaguntza) ez dela % 20ra iristen; horrek aditzera ematen du mendekotasuneko egoeran dauden pertsona gehienek eta beren senideek prestazio ekonomikoaren ahalik eta zenbatekorik handiena jasotzea aukeratzen dutela, onuragarri izan litezkeen (eta nolahi ere halako koordainketaren portzentaje bat ere beharko duten) zerbitzuei uko egin behar badiete ere.

Gipuzkoako demografian azken 30 urteetan gertatu diren aldaketek berekin ekarri dituzte nahitaezko aldaketak zainketen edukian:

- **Adinekoen eskaera handitu egin da:** adin-talde handien arabera banaketaren bilakaerak erakusten digu adin helduenean igoera gertatu dela. Gipuzkoako gizartearen zahartze-tasa EAEko gizarte osoaren antzekoa da (% 18,5) eta Estatukoa nahiz Europakoa baino handiagoa (% 16,7 eta % 17, hurrenez hurren). 2007. urtean Eustatek Gipuzkoarako egin zituen proiektioek erakutsi zuten zahartze-tasak handitzen jarraituko zuela pixkanaka 2012. urterako, biztanleriaren % 20,6ra iritsi arte. Adierazgarria da, halaber, Gipuzkoan dagoen 80 urtetik gorako biztanleria-tasa. 2008. urtean, % 5,37koa zen (65 urtetik gorako biztanleen % 28,8), eta 2009an % 5,57koa (65 urtetik gorakoen % 29,36koa)
- **Adingabeen eskaera murriztu da:** 65 urtetik gorako biztanleen portzentajearen hazkundearekin paraleloan, jaitsiera gertatu da adingabeen portzentajearen. Udal-errola azken aldiz eguneratzean lortutako datuen arabera, 2007an 109.480 adingabe bizi ziren Gipuzkoan, hau da, biztanleria osoaren % 15,8, eta horietatik % 37,2 haurrak ziren, 0-5 urte bitartekoak; antzeko proportzio bat, % 37,5, 6-12 urte bitartekoa zen, eta % 25,4 nerabeak ziren, 13-17 urte bitartekoak.
- **Dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskaera handitu da:** kopuruaren erabateko igoera gertatu da, besteak beste ziur aski biztanleen zahartzearekin zerikusia duten arrazoiengatik. Igoera sexuaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke berez kopurua jaitsi egin dela gizonen artean (% 8,5etik 8,2ra) eta puntu bat igo dela emakumeen artean (% 7,5etik 8,5era); igoera handiena "prestakuntzarik gabeko emakume langileen" artean gertatu da, % 9,9tik % 11,5eraino igo baita.

Hala bada, etxeek osaera berri horri, inguruabar berri horiei erantzun behar diete... Gipuzkoan, adinekoak, adingabeak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak zaintzeko eskaerei EAEko gainontzeko lurraldeetan eta Estatuan bezala erantzuten zaie, hau da, zerbitzu publikoen erabilera minoritarioarekin, eta oro har laguntza familiarra erabiliz, hainbat estrategiaz baliatuta, eta estrategia horiek iraunkorrak izan daitezke (lan-merkatuan lan egiteari uztea), aldi baterako (lan-utzialdiak), espazialak (adibidez, aitona-amonengandik gertu bizitzea), zeharkakoak (amatasuna atzeratzea), eta abar, eta hautatutako aukerak ez dira ezinbestez onenak izan behar zainzaileentzat edo zaindutako pertsonentzat. Kasu guztietan, famili sareak dira gehien erabiltzen den baliabidea. Adinekoei eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen dagokienez, zainketen antolaketa, lanen banaketa eta lana burutzeko desioa konplexuagoak dira, pertsonen pairatzen duten narriadura dela kausa. Horrelakoetan, emakumeek zaintzen dituzte pertsona horiek oso portzentaje handian, haien generoari esleitu zaion hurkoa zaintzeko eginkizunagatik.

Errealitate horren aurrean, politika publikoak berraztertu eta egokitu behar dira, eta

abian jarri behar dira egoera berriei erantzuten dieten neurriak, helburu honekin:

**C.2. helburu orokorra:** zaintzeko eskubidea antolatzeko eta gozatzeko aurrerapausoak egitea, bizitza-zikloaren egoera desberdinetan zainketa egokiak jasotzea eta, elkar mendekotasunean oinarrituta, zainketak ematea edo ez ematea erabakitzeko eskubidea barne.

Ildo horretan, hauek dira GFAk dituen helburu espezifikoak:

**C.2.1. helburu espezifikoa:** Pertsona guztiak zainketak jasotzeko duten eskubidea sustatzea, zainketak jasotzen dituzten pertsonen autonomia bultzatuko dela eta familietako zaintzaile ez profesionalak –emakumeak, batik bat– esplotatuko ez direla bermatuta.

Helburu honen barruan, mendekotasun-egoerak sartzen dira (eta ez haurren arloa, adibidez), esparru horretan gertatzen direlako aldaketa handiak eskaeran, eta GFAk esparru horretan dituelako eskumen handienak. Uste dugu gakoa Gizarte Zerbitzuen Legearen eta Mendekotasun Legearen garapena dela, bi arau horien bidez antolatzen ari delako gizarte-segmentu jakin batek zainketak jasotzeko eskubide hori.

Ildo horretakoa da famili ingurunean zaintzeko prestazioa, betiko familia-zaintzaileek askotan eskatzen dutena –batez ere adineko emakumeek, lan-merkatutik kanpo daudenek–; hala ere, horrek ez du berekin egiten duten lana aintzakotzat hartzea, aitzitik, lan-merkatutik kanpo egote hori betikotu egiten du, edo oso baldintza txarretan dagoen etxeko enpleguaren kontratazioa bultzatzen du. Zerbitzu pribatuak direnean, kontratazioa lan-baldintza txarretan egin ohi da, hori baita negozioa egiteko modua, eta joera nagusia mendekotasunari arreta ematea da, autonomia sustatzea baztertuta. Egia da, halaber, Gipuzkoan laguntza pertsonaleko prestazioa beste edozein lurraldetan baino zabalduago dagoela (adineko pertsonak ere eskuratu dezaketelako), eta garrantzitsua da hori finkatzea.

Beraz, gaur egun eskubide hori antolatzeko modu zehatza hau da: mendekotasuna babestea, autonomia sustatu gabe eta senideek nahiz etxeko enplegatuek ia doan egiten duten lanean oinarrituta, zainketarako baldintza eskasak sustatuta; era horretan, azkenean nahiago da etxeko enplegua erostea, bereziki koordainketari eta prestazioen osagarritasunik ezari lotuta dagoen adierazitako arazoarengatik.

**C.2.2. helburu espezifikoa:** Zainketa lanak egiten dituzten zaintzaile ez formalen baldintzak duinagoak izan daitezen ahalbidetzea eta erraztea, familiako kide zaintzaileen ongizate eta eskaeretan zein etxeen barruan zainketen banaketa bidezkoagoaren sustapenean.

Helburu honen barruan daude pertsona guztiak zerikusia duten zainketak, bizitzako etapa eta une guztietan eta hainbat intentsitate-mailatan beharrezko izan ditzakegun zainketak, eta, ildo horretan, aldatu egin behar da zainketa horiek ulertzeko modua; hau da, esplotazio-harremanen naturalizazioa eten egin behar da, eta kontuan izan

behar dira zainketak errazteko moduko bizi-baldintzak eta ingurumen-baldintzak (ildo horretan, proposamenak egin dira II. Berdintasun Plan honetan bizitzaren iraunkortasunerako ingurune bezala aipatu den aldaketa-ildoan, eta aldaketa horiek lotuta daude bizimodu komunitarioa egiteko espazioak sustatzearekin, adibidez).

Funtsezkoa da famili zainzaileei bereziki arreta ematea, hau da, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeaz arduratzen direnei. Gaur egun, laguntza- eta atsedeen-programak dituzte (adibidez, aldi baterako egonaldiak, zainzaileek atsedeen-egun batzuk izan ditzaten). Hala bada, oso garrantzitsutzat jotzen dugu programa horien edukia berraztertzea, esplotaziorik gabe zaintzearekin, ez zaintzearekin, zer-nolako zainketak nahi diren eta abarrekin lotuta dauden alderdiak kontuan hartzen direla ziurtatzeko. Proposamen horiek guztiak dagoeneko jasota daude agiri honetan, eta mugimendu feministak egindako azterlanen ondorio dira.

Aldi berean, beste neurri batzuk abian jar daitezke horretarako, zainzaileen beharrak kontuan hartzen dituztenak, zainketen banaketa etxe barruan, familiako beste kide batzuekin negoziatu behar dutela eta modu konbentzigarriagoan egin dezaketela ere kontuan hartzen dutena, errurik sentitu gabe edo amore eman gabe, eta benetako gogobetetasuna eska dezaketela, era horretan eten egingo baitute zainketen esentzializazioarekin eta etika atzerakoiarekin.

Zainketen banaketarekin lotuta dauden beste ingurune batzuk bilatzerakoan, hainbat kontzeptu berreskuratzen ari dira, hala nola elkartasuna eta elkarrekikotasuna. Hala bada, mugimendu feministetatik elkarren arteko zainketak honela definitu dira: elkarrekikotasunez (ematea/jasotzea/itzultzea) eman eta jasotzen direnak. Arazoa da emakumeek ez dutela zainketen truke ezer jasotzen, edo ez dutela jasotzen ematen duten neurri berean.

Halaber, galdera bikoitza sortzen da, alegia, nola ezarri elkar mendekotasuna elkarrekikotasun moduan eta ez asimetria moduan, eta nola lortu autonomia aldi berean. Elkarrekikotasunaz hitz egin beharko litzateke egungo famili harreman eta ideologiengatik mugak gaindituz, eta pentsatuz “afektuak, maitasuna giza harremanen osagarrietako bat besterik ez direla. Beste osagarri bat, era berean oinarritzekoak eta funtsezkoak diren beste batzuen artean: elkarrekiko errespetua, justizia, elkartasuna, autonomia edo askatasuna...”.<sup>30</sup> Horretarako, beharrezkoa da zainketen eta emetasunaren arazko eraikuntzaren arteko lotura zalantzan jartzea eta haustea.

**C.2.3. helburu espezifikoak:** Zainketak "emakume zintzoek" jaiotzetik duten berezko gaitasuna eta haien eginkizuna delako ustea baztertzea, eta GFaren esku-hartzeak estereotiporik –hau da, nork zaindu behar eta ahal duen eta nork ez– errepikatzen ez dutela ziurtatzea.

Zainketen alderdi emozional eta afektiboa hipertrofiatu eta idealizatzeko joerak arazoak sortzen ditu, izan ere, hizkuntza afektibo horrek –emozionala dena lan horren ezaugarri nagusia edo definitzen duena dela pentsarazten baitu– esparru hau “emakumezkoen” nolakotasunarekin lotzera eramaten gaitu. Eta pentsarazten digu zainketarik hoberena dela sentimenduak agertzen diren zainketa dela (famiariaren barruan eta emakumeek egiten dutena), eta hori kontraesanetan egongo litzateke zerbitzu publiko nahiko eta kalitatezkoen beharra defendatzearekin.

<sup>30</sup> Esteban, Mari Luz (2011), *Crítica del pensamiento amoroso*, Edicions Bellaterra.



Zainketek, ustez, emakumeak bateratzen dituzte, haien generoaren funtsezko nolakotasuna balitz bezala, baina, halaber, emakumeen arteko desberdintasunak sortzen dituzte. Izan ere, emakume guztiak ez dira berdin kokatzen zainketa-lanak egiteko orduan. Emakume batzuk bidezko zaintzaile bezala onartzen dira, eta beste batzuei zaintzeko eskubidea ukatzen zaie: Sexu-langileak, lesbianak, transexualak, transgeneroak, eta dibertsitate funtzionala dutenak, besteak beste. Emakume horiek

araua hausten dute, eta horrek eragiten du emakume horien zaintzeko zilegitasuna berdina ez izatea. Eta horrek zerikusia du zaintzaile-eginkizunari lotutako emetasunarekin.

Adibidez, laguntza bidezko ugalketa-teknika jasotzeko edo adoptatzeko talde eta pertsona lesbianek egiten dituzten aldarrikapenek aditzera ematen digute ez zaiela onartzen ama edo zaintzaile izateko zilegitasunik. Eta gauza bera gertatzen da dibertsitate funtzionala duten emakumeekin edo sexu-langileei egozten zaien “ama txarra” izatearen gizarte-sinbologiarekin. Beharrezkoa da ikuspegi feministatik hainbat gai berraztertu eta horien analisi bat egitea -tutoretzak, gizarte-laguntzak, etab.–, estereotipo horiek ez zabaltzeko eta ez betikotzeko.

Gaur egun, zalantzan jarri dira nagusi diren maskulinitate eta feminitatearen ereduak. Ildo horretan, GFAn bi eredu horiek zalantzan jarri eta gainditu nahi ditugu, biak kaltegarriak direlakoan (nork bere burua aski izatea kimera kaltegarria da, eta emakumeen artean sustatu den immolazioa erokeria da), eta zainketetan eta ekonomian parte hartzeko modu berria eta taldearen biziera onaren aurrean arduratsuagoa eraiki behar delakoan, norberaren biziera ona baztertu gabe, hala ere.

#### **C.2.4. helburu espezifikoak: GFaren barruan, erantzukizunik ez duen eta zainketaren beharrik ez duen langile estandarren irudia hausten laguntzea.**

II. plan honetan zalantzan jarri dugu politika ekonomikoa existitzen ez den eta indibiduala den eta bere burua aski duen subjektu bati zuzenduta egotea eta subjektu hori erdigune izatea, hau da: bere enplegukoez gain, beste erantzukizunik ez duen subjektua, eta beraren bidez ez bada erantzuterik ez dagoen beharrik ez duena.

Baieztatzen dugu subjektu hori existitzen dela, bakar-bakarrik, bere ahultasunak estaltzen dituen eta elkar mendekotasunezko errealitate batetik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzen dituen neurrian. Eremu publiko guztietatik eta lan-merkatutik *ezkutatu den beste hori*, zehazki, etxea da, langile horren zainketa-behar guztiei erantzuten zaien eta berak burutzen ez dituen lan guztiak xurgatzen dituen lekua. Era horretan ere ulertzen da GFaren II. berdintasun-plan honetan, bizitzaren iraunkortasuna bultzatzen duen ekonomiaren eraldaketaren ildotik.

Baieztatzen da, baita ere, itxuraz bere sexuaz markatuta ez dagoen subjektu hori, egiaz, irudi maskulinizatu bat dela, generoaren bidez bereizitako eginkizun ekonomikoen barruan (maskulinitatean, ordaindutako lanaren bidez berezko eraikuntzaren prozesu bat dago; feminitatea norbera besteentzat eraikitzea da, ongizateaz gozatzeko beharrezkoak diren gainerako lanen bitartez –eta ez soilik ordaindu gabeko lanen bitartez–). Bere burua aski duen langilea izan beharreko eskakizun hori bete gabe lan-merkatuan sartzeak arazo handiak ditu berekin, adibidez, nork bere kabuz arazoak konpontzea eta bizitza-esparruak bateratzea, eta arazo horiek emakumeek dituzte bereziki, haiek direlako, batez ere, zainketez arduratzen direnak. Emakumeak dira sistema ekonomikoa doitzen duen etxeetako koltxoi ikusezina.

Ildo horretan, lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzeari buruz Eustatek 2010ean egin zuen inkestaren arabera, Gipuzkoak EAEko mailarik baxuena du poztasunari dagokionez, 6,0; Bizkaiak, berriz, 6,2 puntu ditu, eta Arabak 6,9. Gipuzkoako biztanleria okupatuak ordaindutako lana eta bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko duen batez besteko zailtasun-maila 3,8 puntukoa da, gehienez ere 10 puntu arteko eskalan –10 bateratzeko erabateko ezintasuna litzateke–, eta EAEn, berriz, 3,3 puntukoa.

Biztanleria okupatuaren zailtasunik handiena duen eta bateratasunarekin lotuta dagoen elementua mendekotasuna duten pertsonak zaintzea da (4,6 puntu), eta horren segidan seme-alaba adingabeak zaintzea (4 puntu). Azken hori zailtasun handiagokoa da gizonentzat emakumeentzat baino (4,2 eta 3,8, hurrenez hurren).

Bateratasunaren ondorio izan daitezkeen kalteei bagagozkie, enplegua duten lau pertsonatetik batek uste du familia dela kausa lan-utzialdi bat edo lanaldi murriztu bat eskatzeak eragin larria izango litzatekeela bere lanbide-ibilbidean. Beldur horren maila antzekoa da gizonen eta emakumeen artean, baina nabarmenagoa gazteen artean. Aitzitik, emakumeei dagokienez, amatasunak sustapen-desberdintasunak sor ditzake okupatuta dauden bost emakumetatik baten iritziz, eta gizonezkoen % 6,4k soilik uste du aitatasunak eragin nabarmena izan lezakeela. Hala eta guztiz ere, zazpi gizon okupatutatik batek uste du oso negatiboa izango litzatekeela beretzat aitatasun-baimena eskatzea. Ildo horretan, Gipuzkoan neurtu da kalterik txikiena, 1,9 punturekin.

#### 4. Zainketa profesionalaren baldintzak hobetzea

Zainketak kolektibizatzearen beste alderdi bat zaintzeko lanak profesionalizatzea da. Mugimendu feministetan, zalantzan jarri izan da zainketen barruan sartzen diren eginkizun guztiak profesionalizatu eta, ondorioz, kontratatu ote daitezkeen. Baina, egungo errealitatean, zainketak esentzializazioaz eta feminizazioaz gabetzea eragozten duen zainketaren etika atzerakoia esplotatuz errentagarri bihurtzen den lanbide-txoko bat bezala egiten da zainketa profesionala. Zainketak merkatuaren logikaren barruan sartzen direnean, desberdintasunak sortzen dituen makina bihurtzen dira. Zainketa profesionalen lan sektorea guztiz konplexua da, bertan nahasten direlako merkataritza eta alderdi pribatua, eta ikuspegi familistaren ondorengoa izaten jarraitzen duelako. Talde-arazoei emandako irtenbide pribatua da.

Eta, ildo horretan, funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna nabarmentzea lana sexuaren arabera banatzeari dagokionez; baina, era berean, azpimarratu behar dugu zainketak oso modu desberdinean banatzen direla, gizarte-klasearen eta migrazio-estatusaren arabera. Zainketa duinak eskuratzeko baliabideak oso desberdin banatuta daude; eta zainketak gizarte-talde batzuek aukeratu ezin duten beste batzuei merke erosten dizkieten lanak dira.

Ikerketa guztiek agerian uzten dute mendekotasuna duten pertsonen arretarako iturri nagusia, askogatik, familia eta laguntza sare informala direla. Horien barruan, emakumeak dira kasu gehienetan familia barruko zainketen arduradun. Lan hori geroz eta gehiago indartzen da, kontratupeko zaintzaileen kolektiboari esker –etxeo langileen kategorian egoten dira-. Kontratupeko zaintzaileen artean, gizonezkoen presentzia anekdotikoa da. Izan ere, % 3 besterik ez dira gizonak.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)<sup>31</sup>, etxeo enpleguaren sektorean emakumeek gehiegizko ordezkapena dute; emakumeen bosgarren okupazioa da, merkataritza, ostalaritza, hezkuntza eta osasungintzaren ondoren. Gainera, emakume migratzaileentzat lan merkatura sartzeko bide nagusia da sektore hori, zaintzaileen guztizkotik % 40 emakume migratzaileak baitira. Soldata-baldintzak oso prekarioak dira, EAEko batez besteko soldaten % 44ra iristen baitira (sektoreko batez bestekoa 570 €/hilabete da), eta langileen % 82k irabazten duena ez baita iristen lanbide arteko gutxieneko soldatara.

Beraz, familiako zaintzaileen arretarekin batera, eta zainketetarako zerbitzu publikoak egon badauden arren, modu pribatuan edo partikularrean kontratatutako arreta formala oso esanguratsua da gure ingurunean, batez ere etxeo arreta pertsonalaren kontratazioari dagokionez. Hala ere, kalkulatzen da horietatik % 73 modu irregularrean daudela kontratatuta, lan kontraturik gabe, eta kontratutik ondorioztatzen diren eskubideez gozatzeko aukerarik gabe.

Horri dagokionez, funtsezkoa da nabarmentzea egoera bereziki zaugarrian daudela etxeo enplegatu migratzaile emakumeak, batez ere administrazio egoera irregularrean daudenak.

Hala ere, emakume migratzaileek zainketa profesionaletan duten parte hartzearen pisua aldatzen egon daiteke; izan ere, prestazio ekonomikoak Mendekotasunaren Legearen esparruan ematen dira, eta laguntza horiek jasotzeko lanerako baimena duten pertsonak kontratatu behar dira, eta hori geroz eta oztopo handiagoa da egoera administratibo irregularrean dauden migratzaileentzat.

---

<sup>31</sup> “Condiciones de trabajo en el ámbito de los servicios sociales en la CAPV”, SIIS, Centro de documentación y Estudios, 2012.

Beraz, esan daiteke zaintzaile profesionalen lan baldintzak, eta bereziki Euskadiko emakume migratzaileenak, prekarioak direla.

Bestalde, zainketarako zerbitzu publiko gehienak titularitate publikokoak dira, baina kudeaketa pribatukoak. Horietan, gehienbat emakumeak diren langileen lan baldintzak hitzarmen kolektiboen bidez arautzen dira.

Sektoreko profesionalen batez besteko ordainsaria euskal ekonomia osorako erregistratzen den batez besteko ordainsaria baino % 11 txikiagoa da. Ordainsarian ematen diren desberdintasunak, gainera, handiak dira entitate kontratatzailearen titularitatearen arabera. Izan ere, oro har, entitate publikoetako langileen batez besteko ordainsaria entitate pribatuetako langileenaren bikoitza izaten da.

Esparru honetan, lan-baldintzen ezaugarri nagusiak hauek dira: batetik, sektore honetan lanaldi partzialak euskal ekonomiako gainerako esparruetan baino presentzia handiagoa du; bestetik, ohikoak dira zenbait arrisku psikosozial; eta, azkenik, lan-istripuak ugariagoak dira.

Ildo horretan, zainketen sektorea zigortuta dago, soldata- eta lan-baldintzei dagokienean, ekonomiako beste sektore batzuekin alderatuta, eta horren ondorioa da sistemarentzat lan horiek ikusezin izatea eta bizitzaren iraunkortasunerako funtsezko eginkizun bezala inolako aitorpenik ez izatea.

Testuiguru horretan, eta GFAk arlo honetan dituen eskumenen barruan, zainketen sektorean lan baldintza duinak egon daitezen lagundu behar da, ekintza hauen bidez:

- Laguntza pertsonalerako dirulaguntza (LPD) gehiago garatzea, beste prestazio sozialen aurretik, hala nola ingurune familiarrean zaintzeagatiko dirulaguntza (IZD), eta mendekotasunaren eta desgaitasunaren esparruko laguntza pertsonalean aritu behar duenarentzako lan-baldintza duinak arautzea.
- Entitate publikoen zerbitzuak hitzartzeko eta kontratatzeke eredu bat garatzea, lan-baldintza duinak ahalbidetzeko, kontrataziorako baldintza agirien bidez edo hitzarmenak garatuz, irizpidetzat hartuta enpresen errentagarritasuna ezin dela lortu zerbitzuaren kalitatea eta lan-baldintzak degradatzearen kontura.

Horregatik, II. Berdintasun Planean, helburu hau ere proposatu dugu:

### **C.3. helburu orokorra: Zainketen sektorean, lan-baldintza duinak sortzen laguntzea.**

Eta horretarako, bi helburu espezifiko zehaztu ditugu:

**C.3.1. helburu espezifikoa:** Zainketen sektorean, mendekotasunaren eta desgaitasunaren esparruan aritzen diren zaintzaile pertsonalenzako lan-baldintza duinak sortzea.

Helburu honen xedea da bermatzea zainketa pertsonaletan lan egiten duten emakumeen lan eskubideak betetzen direla, eta guztiek lan baldintza duinak dituztela, emakume horien jatorria, egoera administratiboa edota erakunde kontratatzailea edozein direla ere.

**C.3.2. helburu espezifiko:** Sustatzea enpresaren errentagarritasuna zerbitzuaren kalitatea eta lan baldintzak degradatzearen kontura ez dela lortzen bermatzen duten entitateak izatea zainketa zerbitzuak kudeatuko dituztenak.

Bi helburu espezifiko horiek azpimarratzen dute zainketa-lanak zer baldintzatan egiten diren funtsezkoa dela zerbitzu ona bermatzeko eta, beraz, autonomiatik zainketa duinak jasotzeko.



## 5. Helburuen matrizea

ZAINKETA DUINAK ETA GUZTIONTZAT					
Helburua: Zainketa duinak, unibertsaltasun eta singularitasunaren baldintzetan, bermatzen laguntzea					
ESKU HARTZEKO ESPARRUA	HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	DEPARTAMENTUAK	
				ERANTZULEAK	PARTE HARTZEN DUTENAK
<b>Begirada zabaltzea</b>	C.1.: Zainketa antolatuen eredu bat sustatzea, bizitzaren iraunkortasunari egindako ekarpenean oinarrituta, bizitzaren zaurgarritasuna eta elkarren mendetasuna kontuan hartuta.	C.1.1.: Eztabaida feministak bultzatzea zainketa duinei buruz, zainketen era askotako ikuspegiak errespetatuz; baita zainketen birbalorizazioari buruz ere; eta, halaber, esplotazio-baldintzak betikotzen dituzten gizarte-iruditeriei buruz.	Zainketei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko zenbat prozesu antolatu diren.  Hausnarketa-prozesuetan landutako edukien tipologia.  Ikerketarako eta hausnarketarako ikasgelan parte hartu duten gizarte mugimenduen kop.  Ikerketarako eta hausnarketarako ikasgelan parte hartu duten gizarte mugimendu motak	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak
		C.1.2.: GFAn, zainketetan begirada feminista bat kokatzea.	Zainketen inguruko pentsamendu feminista politika publikoetan txertatzeko landutako proposamen teorikoen kopurua.  Proposamenak politika	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak

			<p>publikoetan noraino sartu diren</p> <p>Prozesuan inplikaturik dauden gizarte partaidetzako entitate kop.</p> <p>GFAn zainketen inguruan abian jarri diren prestakuntza ekintzen kop.</p> <p>Ekintza horietan ordezkari izan duten departamentuen kop.</p>		
<b>Zainketa jasotzeko eskubidea bermatzea</b>	<b>C.2.:</b> Zaintzeko eskubidea antolatze eta gozatzeko aurrerapausuak egitea, bizitza-zikloaren egoera desberdinetan zainketa egokiak jasotzea eta, elkar mendekotasunean oinarrituta, zainketak ematea edo ez ematea erabakitze eskubidea barne	<b>C.2.1.</b> Pertsona guztiek zainketak jasotzeko duten eskubidea sustatzea, zainketak jasotzen dituzten pertsonen autonomia bultzatuko dela eta familietako zaintzaile ez profesionalak –emakumeak, batik bat– esplotatuko ez direla bermatuta.	<p>Jaso beharreko zainketen eta zainketa horiek jasotzeko moduaren nahiz emateko aukeraren inguruan aholku kontseiluetatik ateratako proposamenen kop.</p> <p>Parte hartu duten kolektibo kop.</p> <p>Parte hartu duten kolektibo motak eta horien ezaugarriak.</p> <p>Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoen gehikuntza, %</p>	Gizarte Politika	
		<b>C.2.2.:</b> Zainketa lanak egiten dituzten zaintzaile ez formalek baldintzak duinagoak izan daitezkeen ahalbidetzea, familiako kide zaintzaileen ongizate eta eskaeretan zein etxeen barruan zainketen banaketa bidezkoagoaren sustapenean.	<p>Familien barruan zainketen banaketa aldatzea ahalbidetzeko garatutako ekintza kop.</p> <p>Etxeen barruko zainketen banaketan egindako aldaketa motak</p> <p>Pertsona zaintzaileei zuzendutako programen eta zerbitzuen estalduraren</p>	Gizarte Politika	



			gehikuntza, %		
		<p><b>C.2.3.:</b> Zainketak "emakume zintzoek" jaiotzetik duten berezko gaitasuna eta haien eginkizuna delako ustea baztertzea, eta GFaren esku-hartzeek estereotiporik –hau da, nork zaindu behar eta ahal duen eta nork ez– errepikatzen ez dutela ziurtatzea.</p>	<p>GFAn zainketei buruzko edukiak dituzten prestakuntza ekintzen kop.</p> <p>Zainketen arloan garatutako sentsibilizazio ekintzen kop.</p> <p>Zaintzaileen parte-hartzea sustatzen duten neurri zuzentzaileak dituzten GFaren esku-hartze kopuruaren bilakaera.</p> <p>Zainketari lotutako estereotipoekin haustea berariaz aipatzen duten kontrataziorako baldintza agirien kopuruaren bilakaera</p> <p>Feminitateari eta zainketei buruzko estereotipoak gainditzeko berrikusi diren agirien %, barruko nahiz kanpoko komunikazio agirien kopuru osotik.</p> <p>Zainketen arloan hurrekin eta gazteekin lan egiten duten eragileei zuzendutako ekintza kop.</p> <p>Jorratutako eduki motak eta parte hartu duten eragile motak</p>	<p>Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.</p> <p>Kultura, Gazteria eta Kirola</p> <p>Gizarte Politika</p> <p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Komunikazio Zuzendaritza</p>	
		<p><b>C.2.4.:</b> GFaren barruan, erantzukizunik ez duen eta zainketaren beharrik ez duen langile estandarren</p>	<p>Lana eta bizitza pertsonala bateratzeko, GFAn abian jarritako neurrien kop.</p> <p>Lana eta bizitza pertsonala</p>	<p>Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.</p>	

		irudia hausten laguntzea.	<p>bateratzeko abian jarritako neurri motak eta horien egokitasuna, langileen beharrei begira.</p> <p>Erantzukizun partekatuaren inguruko sentsibilizazio ekintzen kop.</p> <p>Egin den esperientzia pilotuan inplikaturako departamentuen kop./%.</p>		
<b>Zainketa profesionalaren baldintzak hobetzea</b>	<b>C.3.:</b> Zainketa sektorean, lan-baldintza duinak sortzen laguntzea.	<b>C.3.1.:</b> Mendekotasunaren eta desgaitasunaren esparruan aritzen diren zainzaile pertsonalenzako lan-baldintza duinak sortzea.	<p>GFAk laguntzaile pertsonalen eskubideak bermatuta sustatu dituen kontratazioen kop./%</p> <p>Laguntzaile pertsonalei aholkua eta laguntza emateko jarduketan kop./%</p> <p>Laguntzaile pertsonalen ordainsarian sartutako aldaketa motak</p>	Gizarte Politika	
		<b>C.3.2.:</b> Sustatzea enpresaren errentagarritasuna zerbitzuaren kalitatea eta lan baldintzak degradatzearen kontura ez dela lortzen bermatzen duten entitateak izatea zainketa zerbitzuak kudeatuko dituztenak.	<p>Lan-baldintza duinekiko konpromisoa jasotzen duten baldintza agirien kop.</p> <p>Lan-baldintza duinekiko konpromisoa jasotzen duten hitzarmen kop.</p> <p>Egindako ekintza kop.</p>	Gizarte Politika	

---

# *Bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia*

---

## *II. Kapitulua*

*Sarrera*

*Begirada  
zabaltzea*

*Baliabideak  
eskuratzea  
bermatzea*

*Baliabideak  
ekonomia-eremu  
guztietan  
birbanatzea*

*Helburuen  
matrizea*



## 1. Sarrera

Ekonomia beti izan da garrantzi handieneko esparrua berdintasun-politiketan, lanak eta baliabideak bidegabe banatuta daudelako emakumeen eta gizonen artean. Egungo krisi-ingurunean are ildo egokiagoa da, ahal bada.

Premiazko politika publikoak egin behar dira, gertatzen ari den eta emakumeei gogortasun handiagoz eraso egiten dien bizi-baldintzen hondaketa berehala geldiarazteko. Hemen, hain zuzen ere, zentzua hartzen du “baliabideak eskuratzea” jardun-eremuak, egungo ekonomia-sistemaren mekanismoetan oinarrituta sortu denak. Baina, epe ertainean, aldaketa sakonak egin behar dira ekonomiaren egituran, guztion biziera onaren zerbitzura dagoen sistema ekonomiko bat lortzearren, bitzira iraunkor egiteko erantzukizuna partekatze modukoa. Hor, hain zuzen ere, kokatzen dira “Begirada zabaltzea” eta “Hainbat ekonomia-eremu” jardun-esparruak.

Feminismoak ekonomiari buruz hausnartzeko egin duen funtsezko proposamena da pertsonen bizi-itxaropenei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak sortu eta banatzeko prozesu guztien inguruko galdera egitea. Galdera ez da soilik zer genero-alderdik eragiten duten merkataritzako prozesuen funtzionamenduan, baita gaur egun dugun ekonomiak bizia zer neurritan iraunarazten duen edo ez, eta zer botere-harreman sortu eta birsortzen dituen ere. Hori izan daiteke proposamen bultzatzailea, krisiaz aukera moduan baliatu ahal izateko eta, era horretan, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura dagoen ekonomiarantz abiatzeko.

Oro har marrazten den pertsonen jarduera ekonomikoaren inguruko ikuspegia kontuan hartuta, esan genezake sei gizonetatik ia lau eta hamar emakumetatik bost lanik gabe daudela (% 60,6ko eta % 50,1eko jarduera-tasak hurrenez hurren, Gipuzkoan, 2012ko bigarren sei hilekoan). Beharrei erantzutea ahalbidetzen duten eginkizun guztiak –ez soilik ordainketaren truke egiten direnak– berreskuratzen dituen begirada eginez gero, ikus dezakegu biztanle gehienek lan-jarduera bat edo beste egiten dutela: zehazki, gipuzkoar emakumezkoen % 96,7k eta gipuzkoar gizonezkoen % 77,2k<sup>32</sup>. Gizartea merkatuan dagoen sektorearen mende dagoela –saiatua eta nahiko txikia– zabaldua dagoen ideia da, baina, berez, ikus dezakegu ekonomia **elkar mendekotasunezko errealitate bat dela**, eta hor pertsona guztiek lagun dezaketela beharrei erantzuteko ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituen zirkuitu integratuko hainbat lekutan. Hala ere, arazoa da leku batzuk ikusi eta baloratzen direla (ordaindutako lanak), eta beste batzuk aintzakotzat hartu gabe erabiltzen direla (ordaindu gabeko lanak). Eta gizarte osoaren artean egiten den **zereginen banaketa ez da bidezkoa**.

II. Planaren bidez, ekonomiak bitzira iraunkor egiteko helburuari erantzun diezaion eta kapitala metatzeko prozesuak ardatz gidaria izateari utz diezaion beharrezkoak diren eraldaketetan aurrera egin nahi dugu. Horrek bakarrik ahalbidetuko digu lana sexuen arabera banatzea eta baliabideak eskuratzeko orduan dagoen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna higatuz joatea. II. Planaren bitartez, hautsi egin nahi dugu egun egiten ari diren politika ekonomikoetan dagoen joera, hau da, metatzeko eta bitzira iraunkor egiteko prozesuen arteko egiturazko gatazka areagotzea eta bitzira iraunkor egiteko erantzukizun publikoa alde batera uztea (kapitalaren arriskuak gizartekotzen dituzten eta bizitzako arriskuak banakotzen dituzten politikak; eta irabazien tasak bizi-baldintzei eraso larriak eginda berreskuratzea ahalbidetzen dutenak). Biziera ona unibertsaltasun- eta singularitasun-baldintzetan zer neurritan lortzen den ala ez izan behar da GFAk eginkizun ekonomiko ebaluatze erabili

32 Lan-merkatuari buruzko datu guztiak hemendik hartuak dira, beste iturri bat adierazi ezean: EUSTAT, Biztanleriaren inkesta jardueraren arabera. Lan guztiei buruzkoak iturri honetatik atereak dira: EUSTAT, Denbora-aurrekontuen inkesta (2008).

behar duen irizpidea, eta ez eraginkortasuna, aurrekontuaren oreka, enplegu-tasen igoera, per capita errenta, eta abar. Era berean, saihestu behar dugu politika ekonomikoak gainerako esku hartzeko alderdietan irizpide ekonomizistak ezartzea, eta, aitzitik, bermatu behar dugu politika hori *gizarte-irizpideen* arabera ebaluatzea. Azkenik, ekonomiaren alorrean jarduteko gida orokorraren irizpide bat izan behar da **dagoenaren birbanaketari lehentasuna ematea hazkuntzaren aurretik**, Planean zehaztu den ingurunean biziera ona bermatzen duten baliabideak dagoeneko badaudela ulertuta. Hazkundera bilatzea metaketaren inposizio logiko bat besterik ez da, eta baita bizitza mota jakin bat mantentzera bideratutako ekonomia bat eraikitzeke aukera baztertzea ere, hau da desberdintasunak desagerrarazi eta gizarte- eta ekonomia-egoera okerragoan dauden subjektuen bizi-kalitatea hobetzeko moduko bizitza.

Amaitzeko, geure buruari galde diezaiokegu zer zentzu eman nahi diogun II. Berdintasun Planari. Egungo ekonomia desberdintasunak sortzen diren eta desberdintasun horiek edukiz betetzen diren esparru bat da. Are gehiago, ekonomiak desberdintasunaren beharra du, iraungo badu. II. Plan honetan, kezka berezi bat azaldu dugu, alegia, nola daitekeen biztanleriaren zati baten gain uztea bizitza mantentzeko erantzukizuna eta, aldi berean, merkatuak bizitzaz baliatzea irabaziaz lortzeko. Ez da nahikoa zuzentasunik eza sortzen duen egitura horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortu nahi izatea, egitura bera eraldatu ere egin behar baita. Bukatzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu ahal izateko, kontuan izan behar dugu genero-desberdintasuna beste botere-ardatz batzuekin ere gurutzatzen dela.

## 2. Begirada zabaltzea

Bai krisiari berehalako erantzun bat emateko, bai biziera onaren zerbitzura dagoen ekonomian aurrera egiteko, beharrezkoa da ekonomiari begiratzea merkatuek gaur egun okupatzen duten erdigune pribilegiatutik urrunduta eta bizitza iraunkor egiteko prozesuak politikaren, gizartearen eta ekonomiaren zeregin eta pentsamenduaren erdigunean kokatzea; horregatik, II. plan honen bidez, helburu hauek erdietsi nahi ditugu:

**Ec.1. helburu orokorra:** Egungo gizarte- eta ekonomia-sisteman egokiak diren eraldaketak identifikatzea, unibertsaltasunez eta singularitasunez bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura dagoela bermatzeko.

II. Planean proposatzen dugu ezkutaturik mantendu ohi diren ekonomia-prozesu eta -arazoak ikustea: ordaindu gabeko lanak, desberdintasuna lanaren banaketan eta, horri lotuta, diru-sarreretan eta eskubideetan; metaketaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko gatazka eta gatazka hori ezkutatzea, ekonomiaren eremuak eta eragileak ikusezin bihurtuta (hau da, desberdintasunean oinarrituta). Eta, batez ere, gaur egun dauden mekanismoetara mugatuta egon behar ez diren esku-hartzeak eta irtenbideak bilatzea proposatzen dugu. Beste modu batez esanda, merkatu kapitalistak baliabideen sorrera antolatzeko historian xedatuta dagoen modu bat badira, zalantzan jarri behar dugu noraino betetzen duten zeregin hori herritar guztientzat. Merkatuak *desnaturalizatu* behar ditugu, eta *desnaturalizatu* behar dugu irabazteko asmoaren nagusitasunak sorrarazitako nahasketak konpontzeko lan ezinezkoa historian ikusezin bihurtu eta feminizatu izana.

### Lanaren banaketa sexuala

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren oinarritzko elementua ekonomian lana sexuaren arabera desberdintzea da, hau da, gizoni eta emakumeei eginkizun desberdinak ematea, eta batzuek zein besteek egiten dituzten lanak desberdin baloratzea. Lana sexuaren arabera banatzeak ahalbidetzen du metatzeko eta bizitza iraunkor egiteko prozesuen arteko gatazka etxeetan xurgatu eta ezkutatzea. Hau da, bizitzaren ikuspegitik iraunkorra ez den sistema ekonomiko batek irautea, bizitza irabazteko asmoaren zerbitzura jartzen baita (eta asmo horrek bizitza erabili, esplotatu eta, zenbaitetan, deuseztatu egiten du).

Gipuzkoan, emakumeek burutzen dute gizartea aurrera ateratzeko behar den lan-denboraren erdia baino gehiago, baina egiten duten lan gehiena ez da ordaintzen; gizonen lan gehiena, aitzitik, ordaindu egiten da. 2008an<sup>33</sup>, emakume gipuzkoarren ordubete eta 12 minutu gehiagoko lana egiten zuten gizon gipuzkoarren lan-denborarekin alderatuta (6 ordu eta 56 minutu eta 5 ordu eta 44 minutu, hurrenez hurren); hala ere, 2 ordu eta 43 minutu bakarrik zen ordaindutako lan-denbora. Gizoni, aldiz, 3 ordu eta 56 minutu ordaindu egiten zitzaizkien. 1993tik 2008ra arte aldaketak gertatu dira. Emakumeei dagokienez, enpleguan emandako denbora gehitu egin da, eta hein berean gutxitu da ordaindu gabeko lanean emandako denbora. Gizonek kontrako prozesua egin dute. Desberdintasuna zertxobait murriztu da lan-karga orokorraren osaketan, baina karga hori handiagoa da oraindik ere emakumeentzat.

Denboraren erabilerari buruzko datuek erakusten dute aldaketak gertatu badira ere, sexuaren arabera betetzen diren ekonomi eginkizun desberdinak mantendu egiten

33 EUSTAT, Denbora-aurrekontuen inkesta (2008).

direla. Gizonak enpleguari atxikita daude nagusiki (eta hori ikus daiteke, adibidez, merkataritzako gainokupazioaren fenomenoaren maskulinizazioan). Gizon askotarako hori eginkizun nagusia ez ezik, bakarra ere bada oraindik ere. Merkatu-lanik egiten ez dutenean (langabezia edo erretiratuta daudelako), gizonetako askok ordaindu gabeko lanik ere ez dute egiten. Aitzitik, hori oso jarduera ezohikoa da emakumeen artean. Emakumeak familiaren ongizatearen lehenengo eta azken arduradunak dira, eta horretarako, ordaindutako lanekin batera, ordaindu gabeko lanak egiten dituzte. Emakumeen presentzia merkatuan bizi-ziklo osoan euren gain hartutako zainketa-ardurek oso baldintzatuta mantentzen da, eta hori ez da gertatzen gizonen artean.

Bestela esanda, **ekonomiak funtzionatzeko azken erantzukizuna** (hau da, bitzta iraunkor izatea, pertsona jakin batzuentzat ongizatea sortzea) **feminizatuta** dago. Eta, gainera, **pribatizatuta** dago: espazio pribatu-etxeari lotuta eta merkatuko kontsumoaren mendekotasun nabarmena izanda ez dago erantzukizun partekatu eta orokorrik. Eta ikusezin bihurtu da: bitzta, azken buruan, ikusten ez diren ekonomia-eremuetan xedatzen da, eta eremu horiek ez dira ikusten dirurik mugitzen ez dutelako eta horien funtzionamenduari buruzko eztabaida politikorik egiten ez delako.

Politika publikoek, askotan, ziurtzat jotzen dute etxeak ekonomiaren gainerako alderdietako shockak xurgatzeko malgutasun eskerga (mugagabea ez bada) duten lekuak direla, *gerrikoa estutzeko*. Onartutzat ematen dute lana sexuaren arabera banatuta egotea. Eta, aitzitik, politika publikoek norabide bikoitza azpimarratu behar dute. Alde batetik, ordaindutako lanak eta ordaindu gabeko lanak egun banatuta dauden modua hobetu behar dute. Bestaldetik, lan desberdin horiek ez direla berdin baloratzen nabarmendu behar dute (lan feminizatuak gutxiesten dira), eta lan horiei bizitzaren iraunkortasun-prozesuan betetzen duten eginkizunean oinarrituta, berriro balioa emateko neurriak proposatu behar dituzte.

Galdetu egin behar dute gizartean zer lan diren beharrezkoak bitzta mantentzeko, nola banatu behar diren, eta horiek egokitasunez baloratu behar dira, horrek funtsezko arazoaren aurrean ipiniko gaitu eta. Amaitzeko, lana sexuaren arabera banatzeari ezin zaio konponketarik eman egungo sistemaren barruan, kapitalaren metaketaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko egiturazko gatazka ezkututzen baitu. Sexuaren araberako banaketa horri irtenbidea emateko beharrezkoa da beste ekonomia-sistema baterantz abiatzea, eta sistema horretan biziera ona izateko baliabideen sorrera lehentasun eta erantzukizun orokor bihurtzea.

### **Begirada GFAtik kanpora zabaltzea**

Erdigunean bizitzaren iraunkortasuna ipinita ekonomiaz pentsatzeak berekin behar du eztabaida demokratiko bati hasiera ematea, iraunaraztea merezi duen bitzta zein den eta hori ahalbidetzen duen antolaketa sozioekonomikoa zein den erabakitzeko: Zer eginkizun izan behar dute irabazteko asmoa duten enpresek? Merkatuak berriz antolatu behar dira trukearen eta ez metaketaren espazio moduan? Zein da erakunde publikoen eginkizuna? Sortu al daitezke publikoa dena kudeatzeko moduak, egungo administrazio-egitura burokratikoek bestelakoak? Zer eginkizun dute etxeek eta nola demokratizatu daiteke horien funtzionamendua? Eta zein da komunitateko beste sare batzuen eginkizuna? Nola lortu sare horiek lana sexuaren arabera banatzea ez birsortzea?

Alderdi askotako krisi-uneak galdera horiei aurre ematera behartzen gaitu eta zeregin hori premia-azkoago bihurtzen du, bizi-baldintzen hondatzea normalizatzeko eta biztanle batzuk bazterketa-baldintzetan sartzea ahalbidetzeko arriskua egiazkoa da eta. II. Planaren bidez, eztabaida horiei ekin nahi diegu, eta lehentasuna eman nahi diegu ekonomian eragina duten genero-alderdiei, hau da: lanak desberdin baloratuta egotea,

*La desigualdad como base del sistema económico actual*

*Erakunde publikoak, zerbitzuez baliatzeko berme gisa*



ongizatea birsortzearekin zuzenago lotuta dauden eremuei garrantzia ukatzea, eta merkatuetan desberdintasunak birsortzea.

Horretarako, beharrezkoa da herritarren esparru batzuen arteko elkarguneak sortzea. Ekonomiari ikuspegi feministaz begiratzea finkatzeko, beharrezkoa da mugimendu feminista, berdintasuna bultzatzen duten erakundeak eta akademiako feministak elkarren artean antolatzea. Esparru horietan guztietan, ekonomia *feminista* arian-arian finkatzen duten pentsamendua eta proposamenak era kritikoan jorratzen dira. Antolatze horretarako, prestakuntza-espazioak behar dira, emakumeak ekonomiaren alorrean hainbat alderdiz jabearazteko: iritzia emateko, proposatzeko eta eraikitzeo gaitasuna eta zilegitasuna sentitzea. Eta talde feministen eta emakumeen arteko elkargunea behar da, generoaren barruko desberdintasunak konpontzeko eta lanaren eta baliabideen banaketari buruzko kritikak desberdintasunaren beste alderdi batzuei buruzko kritikaren bidez aberasteko (indarkeria matxista, nor bere gorputzari buruz erabakitzeo ahalmena ukatzea, binarismo heteronormatiboa...).

Aldi berean, ekonomia feminista beste ikuspegi batzuetara ireki da, zehazki ekologismora eta deshazkundearen aldeko mugimendura, ongizatea gaur egun ulertzeko modua noraino den iraunkorra zalantzan jartzen duten eta unibertsaltasunaren zein singularitasunaren irizpideak errespetatzen dituzten ikuspegietara. Halaber, begiraden elkargune horretatik, ekonomia eraldatzeko bideak proposatu dira: publikoa dena kudeatzeko modu batzuk identifikatzea, egungo erakundeez bestelakoak, zeintzuk diren gizartearen ikuspegitik beharrezkoak diren lanak, zein izango litzatekeen horien balioa biziera onari egindako ekarpenaren arabera, eta zein izango litzatekeen lan horien bidezko antolaketa; baita ere, nola demokratizatu bizitza iraunkor egiteko erantzukizuna, gaur egungo eginkizun ekonomikoak baztertuta (maskulinitasuna eraikitzea norberarentzat den ordaindutako lanaren inguruan; eta feminitasuna eraikitzea besteren ongizatearen bermean oinarrituta).

Espazio horiek ahalbidetu behar digute aurrera egitea hainbat alderdi ulertzeko orduan –ordaindu gabeko lanek duten garrantzia, krisiari aurre egiteko biziraupen-estrategia bezala–, eta txatalen ekonomiaren moldeak abian jartzeko orduan –hau da, baliabideak kudeatzeko eta eskuratzeko modu kolektibizatuak, banakako kontsumoaren bidea merkatuan nahikoa ez denean pertsonen bizi-itxaropenei eta beharrei erantzuteko–. Ildo horretan, hau proposatzen dugu:

**Ec.1.1. helburu espezifikoak:** Egungo sistema sozioekonomikoaren egokitasunari buruzko eztabaida bati hasiera ematea, bizitzaren iraunkortasunari dagokionez, eta ikuspegi feministatik, bizi-baldintzen hondaketaren normalizazioa saihestuta eta ekonomiaren nozio merkantilista –monetarizatutako eremuetara mugatua– gaindituta.

### **Begirada GFaren barrura zabaltzea**

Politika ekonomikoa ez da inoiz neutrala, generoari bagagozkio. Genero-harremanek baldintzatzen dute politikoki izan daitekeena, eta politikek genero-harremanak aldatzen dituzte. Politika ekonomikoan antzeman dira generoan eragin perbertsoak izan dituzten hainbat joera. Saihestu beharreko joerak hauek dira: deflazioa edo atzeraldia (enpleguaren hazkundearen mailak beren ahalmenaren azpitik mantentzea), pribatizatzea (ongizate-estatua higatzea), gizona ogia irabazten duena izatea (normaltasun ekonomikoaren eredu gizonak enpleguaren bidez hornitzaileak izatea eta emakumeak ordaindu gabeko lan arduratzea dela onartzea), arriskua (zahartzaro, gaixotasun, mendekotasun, langabezia eta abarren arriskuen sozializazio-

maila murrizten duten politikak), eta sinesgarritasuna (emakumeak finantza-merkatuetan desabantailuz sartzea).

Neutraltasuna ez da existitzen, baina itsutasuna bai, hau da, joan-etorriko bide hori ez onartzea. Ildo horretan, ekonomia-sisteman eta lan-merkatuan eragina duten politiken helburua berdintasunean aurrera egitea izan behar da, eta politika horien eta berdintasun-politiken arteko koordinaziorik gorena bermatu behar da.

Erakundeen dinamiketan ere, ekonomiari buruz duten ikuspegia islatzen da, hau da, merkatuei garrantzia ematea eta generoaren aurrean itsu izatea. Hala bada, askotan, abian jarritako politikak **etxea guztiz malgua den koltxoi bat bezala erabiltzeko** joera dute, merkatuen arazoak edota defizit publikoaren arazoak xurgatzeko (adibidez, etxez etxeko laguntza emateko orduak murriztea ez da aurrezte, besterik gabe, kostuak desbideratzea baizik, izan ere, lehen erakundeak ordaintzen zuena emakumeek egingo dute gero doan etxeetan; zerbitzu publiko gehienak ezinbestekoak dira, eta egiten jarraitzen diren gauzak sartzen dira barruan; galdera da, nork egiten dituen gauza horiek). Egon daitezkeen beste arazo batzuen oinarrian dago pertsonen ekonomiaren inguruko erabakiak etxeetan hartzen dituztela ez onartzea, hala nola etxe horietan gatazkak daudela eta elkarlanean aritzen dela, eta, hortaz, ez ulertzea politikaren subjektua harremanetan dauden pertsonak direla, eta pertsona horiek ez direla bakartuak diren eta bere buruarekin aski duten gizaki bezala tratatu behar, edo ez dela jardun behar familiak harmoniazko unitateak balira bezala, ika-mikarik gabe, edo haietan boterea gauzatuko ez balitz bezala. Hori, askotan, emakumeak bitarteko bezala erabiltzeari lotzen da, familien edo erkidegoen ongizatearekin zerikusia duten beste helburu batzuk erdiestearren, baita emakumeen ongizatearen gainetik ere (adibidez, emakumeen lan-karga handituz).

Erakundeen dinamikek, era berean, balio bereko lanei ordainketa bera eskatzen duen oinarritzko printzipioa urra dezakete (soldata-eskalen, sustapen-mekanismoen eta osagarri eta abarren bitartez), era horretan feminizatutako lanen gutxiespena betikotuz. Orobat, bizitzaren iraunkortasunaren gainetik metaketaren logika lehenetsi dezakete (adibidez, ekimenen iraunkortasuna edota gizarte-balioaren gainetik hazkundeari lehentasuna ematen dioten enpresei dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak emateko irizpideak). Edo ongizateari buruzko ikuspegi murriztailea izan dezakete, laneko diru-sarrerak berehala eskuratzeko modu bezala, enplegu horrek sortzen duen babes edota gizarteari egiten dion ekarpena alde batera utzita (adibidez, autoenplegua sustatzeko programak, onuradunak lan-merkatuan egoera ahuletan kokatzen dituztenak, eta bereziki emakumeak onuradun nagusi dituzten programak).

Bizitzaren iraunkortasunari lotuta dagoen eta gaur egun bizitzari lehentasuna ematen ez dion sistema zutik mantentzeko orduan, genero-desberdintasunek betetzen duten eginkizunaren aurrean sentikorra den ekonomiaren nozioarekin bat egiten duten politikak eraldatzeko irizpideak identifikatu ahal izateko, Plan honetan ezinbestekotzat jo dugu helburu hau:

**Ec.1.2. helburu espezifikoak:** Ekonomiaren gaineko begirada feminista bat kokatzea GFAn.

### 3. Baliabideak eskuratzea bermatzea

Emakumeek eta gizonak ez dute beren bizitza ekonomikoa banaka eta modu bakartuan antolatzen, sareen inguruan baizik, sare horien arteko lotura nagusiak etxeak direla; eta etxeak, halaber, familiaren ikuspegi tradizionala baino askoz ere errealitate zabalagoa eta askotarikoa dira. Etxe horiek ez dira unitate harmoniatsuak, **kooperaziorako** lekuak baizik, antolaketa partekatua egiten baita helburu partekatuta batzuk lortzeko; eta **gatazkako** lekuak ere bai, lanak eta baliabideak modu desberdinez banatzen dituzten **botere-harremanak** daudelako. Etxeetara merkaturaren erositako edo sektore publikoak eskaintako ondasunak eta zerbitzuak iristen dira, eta horiei ordaindu gabeko lan-kopuru handia gehitu behar zaie; horri esker, ongizatea zabaldu egiten da, kanpotik iristen diren baliabideak aldatu, egokitu eta mantenduta, baliabide osagarriak ekoizita, eta bizitzaren alderdi afektibo eta emozionalari arreta emanda.

Beste hitz batzuek esateko, bizi-kalitatearen eta erosteko ahalmenaren artean lotura estua dagoela egia bada ere, lotura hori ez da zuzena, aitzitik, tartean erakunde publikoen eginkizunak eta ordaindu gabeko lanak daude eta. Eta lotura hori ez da berdina gizarte-talde guztientzat, merkaturaren mendekotasun desberdina dutelako: erosteko ahalmen handiagoa dutenak kontsumoaren mendekoagoak dira, erosteko ahalmen txikiagoa dutenek doaneko lanarekin konpentsatzen dute. Erakunde publikoen jarduerak berdintzeko eginkizuna bete behar du. Krisia dagoen garaian, desberdintasunak areagotu egiten dira, ez soilik diru-sarrerak eskuratzeko orduan, baita ordaindu gabeko lan-kopuruaren aldetik ere. Etxe askotan, diru-sarrerarik ez dagoelako merkaturaren erosi ezin dena eta estatuak gastu publikoaren murrizketa dela-eta eskaintzen ez duena merkataritzaz kanpoko ekoizpena handituta berdindu ohi da. Lan hori ez da berdina banatzen emakumeen eta gizonen artean.

Politika publikoak egitean, etxeetako ongizate-mailan eta baliabideak eskuratzeko pentsatzerakoan, osotasun hori kontuan hartu behar da, diru-sarrerak bermatzeko bideari soilik heldu beharrean. Halaber, politikak etxeetara zuzentzen direnean, ikusi egin behar da zer eragin izango duten ordaindutako lanen eta ordaindu gabeko lanen barneko antolaketan eta genero-desberdintasunetan. Hiru bide nagusi daude, erakunde publikoek bizitzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko modua edota eskuratuko direla berma dezaten:

- kontsumo-ahalmena hobetzea diruzko prestazioen bidez; guztientzat (hiritartasunaren oinarriko errenta, kasu), ordaindutakoaren arabekoak edo laguntzakoak izan daitezke.
- kontsumo-ahalmena hobetzea soldata bat eskuratzeko sustatuta, lanpostuen kopurua handituta edota dauden enpleguak berriz banatuta; edo lan-baldintzak hobetuta eta lanaren behin-behinekotasunaren prozesua geldiarazita.
- baliabideak zuzeneko bidetik eskuratzeko modua sustatzea, gizarte-zerbitzu eta baliabideen kudeaketa orokorra egiteko beste modu batzuen bitartez.

Azterketa hori egin eta gero, helburu orokor hau identifikatu dugu Berdintasunerako II. Foru Planean:

**Ec.2. helburu orokorra:** Ezegonkortasun eta bazterketako egoeran dauden pertsonen kopurua murrizten laguntzea, genero-alderdiei arreta berezia emanda.

*Las  
instituciones  
públicas como  
garantes del  
acceso a  
recursos*

Baliabideak eskuratzeak zehazten du subjektuek bizitzea merezi duten bizitzak aurrera eramateko duten gaitasuna. **Ziurgabetasunak bizi-ezegontasuneko egoerak sortzen ditu:** segurtasunik eza baliabideetan sartzeko, zainketa nahiko eta egokiak jasotzeko, espazio bizigarria izateko eta osasungintza eta hezkuntza eskuratzeko orduan, besteak beste. Ziurgabetasun hori bizitzako arriskuak gizartekotzeko mekanismorik ezaren ondorioa da. Bizitzako beharrei erantzun eta bizitzeko arriskuei aurre egitea etxe bakoitzeko erantzukizuna da, eta hobeto edo okerrago egingo da, subjektu bakoitzak gizarte eta ekonomian duen lekuaren arabera. Baliabideak eskuratzeko segurtasunik ezak eragozten du nork bere bizi-itxaropenei erantzuteko modua planifikatzea. Bazterkeria baliabideak eskuratzetik ez dagoen egoerekin lotuta dago. Ezegonkortasunaren eta bazterkeriaren artean ez dago bat-bateko etenik, jarraitutasun-lerro bat baizik. Ezegonkortasuna ahultasuna da: mekanismoren batek huts egiten duenean, bazterkeria sortzen da. Gipuzkoan, gainerako lurraldeetan bezala, gizarte-birsorkuntzaren krisi baten hasiera gertatzen ari da, eta, hala, 2007ko finantza-eztanda gertatu zenean, aurretiaz zeuden gizarte eta ekonomiako arazoak areagotu egin dira: bizitza-ezegonkortasuneko egoerak orokortu eta areagotu dira, bazterkeriako egoerak gehiagotu egin dira eta ustez salbu zeuden esparruetara eta subjektuengana iritsi dira, eta gizarte-desberdintasunak gehitu egin dira. Horren aurrean, II. Planaren bidez, helburu hauek lortu nahi ditugu:

**Ec.2.1. helburu espezifikoak:** genero-ikuspegitik, gizarte-birsorkuntzaren hasierako krisia identifikatzea eta horren segimendua egitea, pertsona gehiagori eragingo baitie eta ezegonkortasun-egoera okerragoetan, eta halaber, bazterkeria-egoerak gehiagotu eta gizarte-desberdintasuna areagotu egingo baitira.

Egoera sakontasunez ezagutzen dela pentsa badaiteke ere, diagnostiko gehienak ekonomiaren begirada estutik egin dira. Zer gertatzen ari den zehaztasunez ezagutzeko, ordaindu gabeko lanek betetzen duten koltxoi-eginkizuna ulertu behar da, eta ekonomiaren ikuspegitik ez, baizik eta batez ere gizarte-ikuspegitik begiratu ohi diren egoerak kontuan hartu (adibidez, zer gertatzen den indarkeria matxista jasaten duten emakumeen ekonomiarekin, edo familia elkartu ezin izan duten eta distantzian hornitzen jarraitzeko konpromisoa duten emakume migratzaileen ekonomiarekin, eta abarrekin).

Ezagutza handiagoa izateko, beharrezkoa da GFAn hainbat departamentuk batzuetan banandutzat ematen diren gaiak buruz duten informazioa partekatzea: lan-merkatuaren egoera, etxebizitza eskuratzeko, gizarte-babesa, migratzaileen egoera administratiboa, indarkeria matxista, etab., eta baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden herritarrekin lan egiten duten erakundeekin elkartzeko topaguneak eratzea, GFAn egoerari buruzko datuak eman eta egoerari aurre egiteko neurriak proposatzeko.

**Ec.2.2. helburu espezifikoak:** Premiazko neurriak abian jartzea, ezegonkortasunetik bazterkeriara bitarteko urratsa saihesteko, eta bereziki kontuan hartzea emakumeen egoerak.

Behin premiak identifikatu direnean, beharrezkoa da neurriak hartzea, bizitzako ezegonkortasuna ezabatzeke eta bazterkeria-egoerak saihesteko. Horretarako, ezinbestekoa da etxeek eta subjektuek erabiltzen dituzten baliabideak eskuratzeko

bideetan esku hartzea: **merkatuko kontsumoa, ondasun eta zerbitzu publikoak eskuratzea eta ekoizpen ez monetizatua.**

Gaur egun, baliabideak eskuratzeko orduan, desberdintasun sakona dago emakumeen eta gizonen artean. Egun, Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 11.857 €-koa da, eta gizonezkoena 23.224 €-koa ( % 48,9ko tartea)<sup>34</sup>. Errentan, sexuaren arabera desberdintasun handienak transferentzietan daude, % 58,9ra iristen baitira (2.517 € emakumezkoak eta 4.275 € gizonezkoak; horiek islatzen du bizitzan zehar egindako ekarpenen balorazio diferentziala). Lanaren errentetan, desberdintasuna % 47koa da (7.194 € eta 15.320 €, hurrenez hurren, erplegua eskuratzeko aukera murriztagoak eta lan-diskriminazioa direla medio).

Abiaguneko egoera desberdin hori izanda, areagotu egiten dira **langabeziaren** arazoa eta horren ondorioa den laneko diru-sarrera egonkor eta nahikoen iturriak galtzea. Kriaren hasieratik, langabezia handitu egin da gizonezko zein emakumezkoentzat, baina are gehiago gizonen artean; hortaz, generoaren tarte historikoa alderantzikatu egin da, eta gaur egun puntu erdi handiagoa da gizonen artean (% 8,3 emakumeen artean eta % 8,8 gizonen artean). Nolanahi ere, espero behar dugu emakumezkoen langabezia erritmo handiagoan haztea, kriaren eragina maskulinizatuta dagoen industriaren arlotik (oraingoz eragin handiena pairatzen duena da, enplegua erregulatzeko espedienteak direla eta) zerbitzuen sektorerara lekualdatzen den heinean. Era berean, igoera nabarmena gertatu da iraupen luzeko langabezian (urtebete baino gehiagokoa), EAEn (gizonen artean, 2007an langabezian zeuden guztien % 24tik gaur egungo % 52,6ra; emakumeen artean, 2007an zegoen % 31,3tik gaur egungo % 50,6ra).

Langabeziak benetan gogor jotzen ditu Europako Batasunetik kanpoko **biztanle migratzaileak** batez ere. EAE osoan, generoen barneko desberdintasuna generoen artekoa baino handiagoa da<sup>35</sup>:

- EAEn bizi diren emakumeen eta gizonen artean, langabezia-tasaren aldea 14 puntukoa da gizonen alde (gizonen langabezia-tasa % 13,9koa da, eta emakumeena % 15,3koa).
- Emakumeen artean, 21 puntuko aldea dago bertako emakumeen eta Europako Batasunetik kanpoko emakumeen artean (bertakoen langabezia-tasa % 14,1ekoa da, eta Europako Batasunetik kanpoko emakume atzerritarrena % 32,2koa).
- Gizonen artean, 37,3 puntukoa da, bertako gizonen alde (bertako gizonen langabezia-tasa % 12,3koa da, eta Europako Batasunetik kanpoko gizon atzerritarrena % 49,6koa).

Berez, EAE bertako gizonen eta gizon atzerritarren arteko alderik handiena duen autonomi erkidegoa da, eta laugarrena emakumeen kasuan (bertakoen eta Europako Batasunetik kanpoko atzerritarren arteko aldea handiagoa da, bakar-bakarrik, Errioxan, Nafarroan eta Extremaduran). Datu hori benetan kezagarria da, eta ezin da beste datu batzuetatik bereizi, hala nola: EAEn, 2005ean, etxerik gabeko bi pertsonatatik ia bat atzerritarra zen (% 53,4 etxerik gabeko emakumeen artean<sup>36</sup>). Hori urte horretan hala zen, baina kriaren ondorioz egoera okerragotu egin da ezinbestez, are gehiago kontuan hartzen badugu familiarren koltxoirik ez dagoela, hori baita langabezian dauden herritar gehienek aurrera ateratzeko daukaten modua. Gainera, kontuan hartu

---

34 Euskal Urtekari Estatistikoa, 2010

35 Biztanleria aktiboaren inkestaren datuak, 2012ko II. hiruhilekoa, Estatistika Institutu Nazionala.

36 EUSTAT, Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta, 2005.

behar da langabezia bat-bateko irregulartasun-egoerei lotuta dagoela (gertagarriagoa emakumeen artean, etxeko enplegua oso zabaldua baitago haien artean, eta sektore horrek ez zuen ahalbidetzen langabezia-saria kobratzea, ezta kotizatuta ere). Oro har, baliabideak eskuratzeko sexuaren arabera dauden desberdintasunak kontuan hartzea oso garrantzitsua bada ere, hori bezain garrantzitsua da, edo are garrantzitsuagoa, bazterkeriaren beste ardatz batzuk ez ahaztea, eta migrazioa garrantzitsuenetako bat da.

**Ec.2.3. helburu espezifikoak:** Bizitza autonomoa egiteko nahikoak diren diru-sarrerak eskuratzetik ez duten pertsonen kopuru osoa eta emakumeen kopuru erlatiboa murrizteko neurriak abian jartzea.

Gipuzkoan, emakumeen heren batek (% 32,77) ez du urtean 1.500 euro ere irabazten; gizonen artean, % 12,85 da horien portzentajea. Emakumeen erdiek (% 53,3) urtean 9.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzte, eta berdin gizonen % 21,97<sup>37</sup>. Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestak (2012) erakusten du pobrezia arriskua % 4,1etik % 7,3ra igo dela 2008 eta 2012 artean, ongizate gabeziaren arriskua % 14,6tik % 19,9ra igoz. Etxeak kontuan hartzen baditugu, pobrezia erreala hiru aldiz gehiago ematen da emakume bat buru duten etxeetan (% 11,1), gizonak buru dituztenetan baino (% 3,7) Ongizate gabezia egoerak desoreka bera islatzen du; izan ere, emakumeak buru dituzten etxeetatik % 20 daude egoera horretan, eta gizonak buru dituzten etxeetatik, berriz, % 7,4 dira egoera horretan daudenak. Datu horiek nabarmentzen dute zer garrantzitsua den enpleguaz gain, kalitatezko enplegua ere eskuratzeko bermatzea.

Hala ere, prestazioak eta beste transferentzia batzuk kontuan hartuz gero, ingurunea nabarmen hobetzen da. 2008an, Gipuzkoan, transferentziak kontuan hartuta, emakume bat *irudi nagusi* duten etxeen % 8,2 pobrezia arriskuan zegoen, eta % 28,1 ongizaterik ezaren arriskuan (horren aurrean, % 3,3 eta % 12 ziren, hurrenez hurren, gizon bat *irudi nagusi* duten etxeak)<sup>38</sup>. Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen 2012ko Inkestaren arabera, prestazioak eta bestelako transferentziak kontuan hartuta, pobrezia arriskuan dagoen biztanleria % 38 murrizten da. Hala bada, ikus daiteke prestazioak oinarritzeko direla ongizatea hobetzeko; alabaina, ez dute generoen arteko tartea murrizten (gizonei emandako erretiro-pentsioa eta bizirauteko pensioa handiagoak dira). Eta, gainera, eragin handiagoa dute pobrezian ongizaterik ezan baino.

Arazoa da prestazioak, zenbaitetan, etxeetara zuzentzen direla bertan baliabideak bidezketasunez banatzen direla onartuta. GFA ez da esku hartzeko maila horretan geratu behar eta, aitzitik, banakakoen esparrura jaitsi behar da; hala bada, lehenetsuna eman behar die banakako izaera duten formulazioei, ziurtatuz pertsona guztiek eskuratzeko dituztela bizitza autonomoa egiteko adina diru-sarrera, bizikidetzamodu jakin batzuk mantentzeko beharrik gabe. EAEko emakumeen % 47,1ek ezin du eskuratu bakarrik bizitzeko adinako diru-sarrerarik (mendekotasunaren pobrezia mota da, lau aldiz handiagoa gizonen artean baino).

Hainbat sektore feminizatuk *babesleku* edo larrialdiko lanbide-txoko izateko joera dute krisi-garaian. Horien artean, hauek nabarmendu behar dira: etxeko enplegua, sexulana, eta etxez etxeko lan-molde batzuk. Esparru horien ezaugarriak dira ahultasuna,

<sup>37</sup> Euskal Urtekari Estatistikoa, 2010

<sup>38</sup> Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, 2008

lan-baldintzen behin-behinekotasuna eta informaltasunaren mugan egotea (edo informaltasun betean), eta hautatzeko aukera gutxien dutenek okupatzen dituzte. Merkataritzaren zabalkuntza-garaian, emakume migratzaileak nagusi izan ziren sektore horietan. Orain, oso litekeena da bertako emakumeen presentzia areagotzea. Haien artean, 45 urtetik gorako emakumeak egon daitezke, lan-merkatuan sartzen ari baitira gizonezkoen langabezia konpentsatzeko (merkataritza-jardueraren tasa handitzen ari da), baina zailtasun handiak topatzen baitituzte enplegu formala aurkitzeko.

**Ec.2.4. helburu espezifiko:** GFAn eta erakundeak egiten dituen kontratazioetan lan-baldintza duinak eta ez baztertzailak bermatzea, eta gainerako lan-merkatuan erreferente bezala jardutea.

Emakumeek gutxiagotan eskuratzen dute enplegua eta, horrez gain, baldintza okerragoetan eskuratzen dute. EAEn, lanaldi partzialeko enplegua oso feminizatuta dagoen errealitatea da dagoeneko (beste autonomi erkidego batzuetan baino areago), eta emakumeen proportzioa handituz doa. Behin-behinekotasuna ere handiagoa da emakumeen artean, eta generoaren tartea kontratu mota horietan (ia 6 puntukoa: % 25,9 emakumeak, % 19,8 gizonak) Estatu espainiarrekoa baino handiagoa da (horren irakurketa positiboa egin dezakegu, EAEn enpleguaren suntsiketa txikiagoa izan den neurrian, zalantzarik gabe aldi baterako kontratuen artean nagusi baita). Informaltasunak sexuaren arabera ere erasotzen du modu diferentzian. EAEn, 2009an, kontraturik gabeko soldatapeko 10 pertsonatatik 9 emakumeak ziren.

GFAk gai honetan jarduteko duen ahalmena mugatua izan arren, GFAREN beraren barruan lan-baldintzak hobetzeko neurriak har daitezke, eta GFAREkin harremanetan dauden erakundeetako lan-baldintzetan eragiteko aukera dago (erosketak, kontratazioak, dirulaguntzak). Aldi berean, ez dugu ahaztu behar sektore publikoa beti dela erreferentzia-puntua sektore pribatuarentzat, lan-baldintzei dagokienez.

#### 4. Baliabideak ekonomia-eremu guztietan birbanatzea

**Ec.3. helburu orokorra:** Baliabideak ekonomia-eremu guztietan birbanatzea, ordaindu gabeko lana –eta ez irabazteko asmoa– aintzakotzat hartu eta kooperazioa gizarte eta ekonomiaren sistema gidari nagusi moduan ipinita.

Baliabideak eskuratzeko orduan hobekuntza sustatzeaz gain, II. Planean proposatzen dugu beste ekonomia-sistema bat pixkanaka eraikitzen laguntzea. Ekonomia hainbat eremu dituen zirkuitu integratu bat da: alor publikoa, irabazteko asmoa duen alor pribatua, etxeak, ekonomia sozial eta solidarioa, eta lanaren antolaketa komunitario eta ez merkataritzakoa egiteko beste modu batzuk. Krisia geure buruari ikuspegi zabaldu batetik ikus daitezkeen eremu horiek guztiek betetzen duten eginkizunaz galdetzeko unea da. II. Planean adierazten dugu esku-hartze publikoa funtsezkoa dela, kapitala metatzearen eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko gatazkan artekari aritzeko; eta, halaber, esku-hartze hori bigarren prozesura lerratu behar dela. Beste era batez esanda, ekonomiak ez du bermatzen guztion biziera ona, eta, beraz, esku-hartze publikoa premiazkoa da.

II. Planaren bidez, baliabideak ekonomiaren eremuen artean banatu nahi dira, funtzionamenduaren logikaren arabera. Horrek berekin du, lehenik eta behin, finantzazko, espazio eta lurraldeko, naturako, denborazko eta bestelako baliabideak metaketaren logikari kentzea. Horretarako, hainbat tresna identifikatu dira, baina GFAk dituen eskumenen artean ahaltsuena fiskalitatea da. Bigarrenez, baliabideak sortzeko eta banatzeko beste espazio batzuk eraiki edo indartuz joatea; espazio horiek irabazteko asmoaz bestelako ekonomia-logikek bultzatuta mugitu behar dira, eta elkar mendekotasun ekonomikoa elkarrekikotasunez gertatzea ahalbidetu behar dute, eragile eta eremu guztiei bizitzeko beharrezkoak diren baliabideak sortzeko erantzukizun bera egotzita. Hori lortzeko mekanismoetako bat da merkatu kapitalistei kendutako baliabideak berbideratzea irabazteko asmoz jarduten ez den eremuetara, edota espazio horietan jarduteko baldintzak ezartzea. Horrez gain, GFAk emandako zerbitzu eta prestazioak indartu behar dira horretarako, eta horrek berekin du erakundeak bere burua erantzuleztat hartzea biziera onaren alderdi batzuen aurrean. Horretarako, helburu hauek proposatzen ditugu:

**Ec.3.1. helburu espezifikoak:** Zergak pixkanaka erreformatzea, progresibotasunaren definizioa egiteko genero-irizpideak erabilita.

Defizita kontrolatuko bada, diru-sarrerak handitu egin behar dira, eta gastua berbideratu, bizitzaren iraunkortasunean eta berdintasunerako aurrerapenean erantzukizun publikoa hartzea berekin duten jardueretarantz. Inolaz ere ez dira joera neoliberaletako politikak egin behar, politika horiek goian aipatutako alderdiak –deflazioa, pribatizazioa eta arriskua– berekin daramatzate eta.

Alderdi horiek eragina dute emakumeengan hainbat modutan: langile bezala (enplegua orokorrean murrizten bada, emakumeak dira lehendabizi kaleratzen direnak; eta enplegu publikoa murrizten bada, enplegu-txoko hori galtzen da alor pribatuan bezain diskriminatzaileak ez diren baldintzetan); prestazioen onuradun bezala, emakumeak gizonak baino gehiagotan baliatzen direlako zerbitzu publikoez (neurri handian, familiaren ongizatearen bermatzaile bezala dituzten erantzukizunetan oinarrituta); eta, ordaindu gabeko lanaren bidez, Estatuaren ordezkatzeko arduradun bezala, Estatuak zerbitzuak eta merkaturaren dagoeneko erosi ezin dena emateari uzten dionean. Aldi



berean, ongizate-maila merkatuan izandako lekuaren baitan dago gero eta nabarmenago (adibidez, pentsioak eskuratzea eta horien zenbatekoa gizarte-aseguruan kotizatutakoaren baitan daude batez ere, eta hainbat babes ezabatzen dira). Emakumeek merkatuan okupatzen duten lekua ahulagoa da, eta, beraz, ondorio txarrenak jasaten dituzte (desberdinak, hala ere, gizarte-mailaren arabera). Pobrezia-arriskua, oro har, handitu egiten da, eta pobrezia feminizatu egiten da.

Aldi berean, erreforma progresiboa ezartzeko, progresibotasunaren definizioari genero-irizpideak gehitu behar zaizkio. Beharrezkoa da zehaztasun handiagoz definitzea horrek zer izango lukeen berekin, baina ezaugarri hauek proposa daitezke alde zurretik:

- **Birbanaketa kapitaletik lanerantz,** kapital handienetatik txikienetara, metaketaren logikak bultzatutakoetatik elkartasunaren logikak bultzatutakoetara, eta errenta handienetatik txikienetara. Birbanaketaren eragin horiek positiboak dira bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, eta, era berean, positiboak dira birbanaketa emakumeak gainordezkatuta dauden gizarte-segmentuetara bideratuko litzatekeelako.
- **Zerga zuzenen aldeko apustua, zeharkakoen aurretik.**
- **Zerga-eskubideak banan-banakotzea:** Zerga-sistema harremanetako gizabanakoarengana zuzendu behar da, bizikidetzaren eredu batzuei lehentasuna emateko beste batzuen gainetik, eta lana sexuaren arabera banatzea ez sustatzeko. Hau da, “ogia irabazten duena” ikuspegia errepikatzea saihesteko. Bereziki garrantzitsua da PFEZa banakotuta ez egoteak dituen ondorioak, PFEZaren aitortpen bateratua egiteko aukera emanda.
- **Birsorkuntza-tasa bat ezartzea, irabazteko asmoa duten enpresei karga bat ezarrita, ordaindu gabeko zainketa-lanengatik,** lan horrek birsortu egiten baitu erabiltzen duten eskulana, eta diru-sarrera horiek zainketak gizartekotzera bideratutako gastuari lotzea (eragin sinbolikoari begira, birbanaketa-eraginari baino areago).
- **Ordaindu gabeko lanaren bidez emakumeek ordaintzen duten birsorkuntza-zerbaren zenbatekoa berdintzeko mekanismoak.**

GFAk, beraz, eginkizun nagusia bete behar du errentaren birbanaketan. Alabaina, egitura ekonomikoa ukitzen ez bada, desiragarria ez den hasierako banaketa betikotuko da, banaketa desberdina, merkatuetan lekurik hoberena duten eta irabazteko asmoak bultzatuta dauden sektoreen aldekoa, eta jarduera publikoa bigarren mailan geratuko da beti, hasieran gaizki banatuta zegoena birbanatuz. Banaketa hobea lortzeko, beharrezkoa da metaketaren bila ez dabilzan ekonomia-eremuak (monetizatuak eta monetizatu gabeak) sustatzea. Eremu horien artean, sektore publikoaz gain (zerga-erreforma progresiboa GFAREN beraren finantzazio nahikoari lotuz, bizitzaren iraunkortasunaren bermatzaile bezala), ekonomia sozial eta solidarioak ere garrantzi berezia du.

**Ec.3.2. helburu espezifikoak:** Bere definizioan genero-irizpideak gehitzen dituen ekonomia sozial eta solidarioa finkatzen laguntzea.

Ekonomia sozialak EAEn duen presentzia handia da, batez ere beste autonomi erkidego batzuekin alderatuz gero. Presentzia horrek egingarriago bihurtzen du alor honek eginkizun garrantzitsua bete ahal izatea biziera onaren zerbitzura dauden gizarte eta ekonomiaren egiturak, irabazteko asmoa duen sektore pribatuaren

ordezkoak, eraikitze orduan, baldin eta, besteak beste, Administrazioak berme egokia ematen badio. Nolanahi ere, irizpideak ezarri behar dira, erakunde horiek erakundeak definitzen dituzten elementuetan eta eguneroko funtzionamenduan benetan ikuspegi feminista erabiltzen dutela bermatzeko. Hori etorkizunean jorratu beharko balitz ere, jadanik adieraz dezakegu zeintzuk lirartekeen irizpide horietako batzuk: lanen bidezko banaketa eta balorazioa, sexuan eta migrazio-estatusen oinarritutako segmentazioa saihesturik; ekoizpen-erabakiak bizitza iraunkor egiteko baliabide-beharrei lotzea, emakumeen beharrei eta zainketen gizartekotzeari erantzuten dietela bermatuta; langileen tratamendua beren erantzukizunak eta zainketen beharra onartuta; eta erabakiak era demokratikoan hartzen direla eta emakume guztiek benetan parte hartzen dutela bermatzen duten baliabideak erabiltzea.

**Ec.3.3 helburu espezifikoak:** Merkatu kapitalistetan kontsumoaren mendekotasun txikiagoa ahalbidetzen duten eta funtzionatzeko genero-irizpideak gehitzen dituzten ekimenak sustatzea.

Beste alde batetik, ekonomia esparru jarraitua da eremu monetizatuen (irabazteko asmoa duen enpresa-sektorea, sektore publikoa eta ekonomia sozial eta solidarioa) eta ez monetizatuen artean. Azken eremu horietako protagonista garbiak etxeak dira, genero-gatazka nabarmenak gertatzen diren ekonomia-erakundeak. Eremu ez monetizatuen indarra da ekintzarako bultzatzailea, neurri handian, sortutako ongizatea dela. Ildo horretan, eremu horiek indartu behar dira, merkatuko eremuen aurretik. Arazo bat dago, ordea, alegia: antolatze beste modu batzuk sustatzen ez badira, ordaindu gabeko lanez hitz egitea, gehienbat, familiez hitz egitea da. Horregatik, dagoeneko dauden baina ez bairik gabe behar bezain zabaldua ez dauden formula kolektiboagoak sustatu behar dira: auzolana, denboraren bankuak, herritar-sare informalak, norbere kontsumoa egiteko ekoizpen eta banaketa ekologikoaren esperientziak, moneta sozialaren esperientziak, etab. Formula horien guztien sorrera zuzenean lotuta dago ingurumeneko beharrek, eta haien funtzionamenduak era nabarmenean murrizten du merkaturako kontsumoaren mendekotasuna. Baina, genero-alderdiak behar bezala aintzakotzat hartzen ez badira, abiagunean desberdintasunak sor ditzakete. Hala bada, ekonomia sozial eta solidarioari buruz adierazi dugun bezala, beharrezkoa litzateke horren funtzionamenduan elementu feministak gehitzea.

**Ec.3.4. helburu espezifikoak:** Ekonomia-jardueraren eta lan-jardueraren adierazleak berraztertzea, ekonomiaren funtzionamenduaren eta lanen banaketaren berri izateko bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, ordaindu gabeko lanak bereziki kontuan hartuta.

Baliabideen esleipenean eragina izateaz gain, garrantzi handikoak dira, baita ere, erabakiak hartzeko nahiz politiken arrakasta ebaluatzeke erabiltzen diren adierazleak. Gaur egungo adierazleek hainbat arazo dituzte. Alde batetik, merkataritza-prozesuak dira lehentasuna dutenak, ekonomiaren ikuspegitik aurrerapenak definitzeko orduan: BPGd, enplegu, per capita errenta, kontsumo eta abarren hazkundea. Hobekuntza hazkundearekin identifikatzen da (eta ez, adibidez, birbanaketarekin), eta eremu monetizatuez soilik hitz egiten da. Era horretan, ekonomia-prozesuen multzo handi bat kanpoan geratzen da (merkataritza-trukea ez diren prozesu guztiak), merkatuko prozesu guztiak positibotzat jotzen dira (baita bizitzaren sortzaile baino areago

suntsitzaileak direnak ere, adibidez, oso kutsagarriak diren ekoizpen-prozesuak), eta balorazio positiboagoa ematen zaio premiei erantzuteko era elitistagoari (luxuzko jatetxe batean jateak gastu handiagoa du berekin, eta, beraz, BPGdren hazkunde handiagoa, jatetxe apalago edo etxean jateak baino, logika horren arabera azken horrek ez baitu berekin inolako irabazi ekonomikorik), etab.

Beste alde batetik, gizarte-adierazleak ekonomia-adierazletik bereizita agertzen dira. Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, ekonomia-adierazleek ekonomia osoa hartu behar dute barnean, eta arrakasta neurtu behar dute gizarte-emaizen arabera: herritarrek lortu dituzten bizi-baldintzen arabera, alegia, eta desberdintasunak kontuan hartuta (hau da, neurriak besterik gabe ez onartzea: ez da oso baliotsua ongizateari buruzko datutzat ematea Gipuzkoako batez besteko errenta, 2009an eta EUSTATen arabera, 20.270 €-koa izan zela, baldin eta, horren atzean, herritartasun espainiarra duten gizonen 27.305 euroen eta herritartasun afrikarreko emakumeen 2.294 euroen artean dagoen hamar bider baino gehiagoko aldea ezkututzen bada).

Unibertsaltasunaren eta singularitasunaren irizpide bikoitzean oinarrituta, geure buruari galde diezaiokegu ea egokia den honako irizpide hau onartzea, eginkizun ekonomiko orokorra ebaluatzeko: gizarte- eta ekonomia-sistema jakin batek sortzen duen ongizate-maila ebaluatzea lekurik okerrenea duen pertsonak (kide ahulena) eskura dezakeen ongizate-mailaren arabera.

Eginkizun ekonomikoaren eta lan-eginkizunaren adierazleak berregitea proposatzen da. Lan-adierazleak nabarmen androzentrikoak dira, zentzu bikoitzean: historikoki emakumeek burutu dituzten etxeko jarduera ekonomikoak eta zainketak gaitzesten dituzte, eta pertsonen jarduera ordaindua gizonen esperientzian oinarrituta atzitzeko metodologiak garatu dituzte; hortaz, akatsak izaten dituzte, emakumeak eta biztanleriaren proportzio gero eta handiagoa merkatura erakartzeko orduan, lanaren feminizazio izenekoa (lanaren behin-behinekotasuna barnean hartu, baina gainditzen duena) kontuan hartuta.

Eskura ditugun adierazleen ahultasunak berekin du, adibidez, esternalizazio- eta merkantilizazio-prozesuak gizarte-mailaren arabera duen desberdintasuna neurtzerik ez izatea. Espero izatekoa da alde horiek krisiaren ondorioz areagotzea, hau da: gizarte-talde batzuek merkataritzatik kanpoko ekoizpenaren mendekotasun gero eta handiagoa izatea, eta beste batzuek, aitzitik, diru-sarrerak handitu eta gero eta bizitza-esparru handiagoak merkantilizatzea. Nolanahi ere, besteak beste gizarte-mailaren arabera bereizitako denboraren erabilerari buruzko daturik ez edukitzeak galarazi egiten digu kopuruei buruzko datuak ematea.

Nabarmendu behar dugu daturik ez dagoela lan-merkatuko sexu-joeraren eta genero-identitatearen arabera gertatzen den diskriminazioa ulertzeko; eta, oro har, sexuaren eragina diskriminazioaren beste aldagai batzuekin bateratzeko.

Helburua ez da soilik adierazle berriak sortzea, daudenak berregin eta dagoeneko eskura ditugun datu gehiago ustiatzea ere baita gure helburua. Hala bada, denboraren erabilerari buruzko inkestek (EAEn egindako azkena 2008koa da) informazio-aberastasun handia dute, behar bezala ustiatu ez dena (sexu kategoria eta beste desberdintasun-ardatz batzuk bateratzea, lurraldearen araberrako bereizketa, ordaindu gabeko lanaren adierazleak eta beste merkatu-adierazle batzuk bateratzea, banakako datuak etxe motekin elkartzeko, etab.).



## 5. Helburuen matrizea

BIZITZAREN IRAUNKORTASUNERAKO EKONOMIA					
Helburua: Biziera ona egiteko behar diren baliabideak unibertsaltasun eta singularitasunean oinarrituta eskaintzen dituen sistema sozioekonomikoaren eraikuntzan laguntzea					
ESKU HARTZEKO ESPARRUA	HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	DEPARTAMENTUAK	
				ERANTZULEAK	PARTE HARTZEN DUTENAK
<b>Begirada zabaltzea</b>	<b>Ec.1.:</b> Egungo gizarte- eta ekonomia-sisteman egokiak diren eraldaketak identifikatzea, unibertsaltasunez eta singularitasunez bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura dagoela bermatzeko.	<b>Ec.1.1.:</b> Egungo sistema sozioekonomikoaren egokitasunari buruzko eztabaida bati hasiera ematea, bizitzaren iraunkortasunari dagokionez, eta ikuspegi feministatik, bizi-baldintzen hondaketaren normalizazioa saihestuta eta ekonomiaren nozio merkantilista – monetarizatutako mailetara mugatua– gaindituta.	<p>Egungo sistema sozioekonomikoari buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko antolatutako prozesu-kopurua.</p> <p>Hausnarketa prozesuetan landutako edukien tipologia eta trukaturako esperientzia motak</p> <p>Parte hartu duten gizarte-mugimenduen kopurua</p> <p>Parte hartu duten gizarte mugimendu motak</p> <p>Abian jarri diren sentsibilizazio eta zabalkunde ekintzen kop.</p> <p>Garatu diren prestakuntza ekintzen kop.</p> <p>Prestakuntzan parte hartu duten entitateen kop.</p>	Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak

		<p><b>Ec.1.2.:</b> GFAn, zainketetan begirada feminista bat kokatzea.</p>	<p>Pentsamendu feminista politika publikoetan txertatzeko landutako proposamen teorikoen kop/%.</p> <p>Planteatutako proposamenen egokitasuna eta bideragarritasuna</p> <p>Ireki diren hausnarketa prozesuetan inplikaturako entitateen kop.</p> <p>Hausnarketa prozesuan inplikaturako entitate motak</p> <p>Ekonomia feministari buruz garatu diren prestakuntza ekintzen kop.</p> <p>Prestakuntza ekintzetan ordezkariak duten departamentu kop.</p> <p>Proposamenak politika publikoetan noraino sartu diren</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>	<p>Guztiak</p>
<p><b>Baliabideak eskuratzea bermatzea</b></p>	<p><b>Ec.2.:</b> Ezegonkortasun eta bazterketako egoeran dauden pertsonen kopurua murrizten laguntzea, genero-alderdiei arreta berezia emanda.</p>	<p><b>Ec.2.1.:</b> genero-ikuspegitik, gizarte-birsorkuntzaren hasierako krisia identifikatzea eta horren segimendua egitea, pertsona gehiagori eragingo baitie eta ezegonkortasun-egoera okerragoetan, eta halaber, bazterkeria-egoerak gehiagotu eta gizarte-desberdintasuna areagotu egingo baitira.</p>	<p>Egungo testuingurua ezagutzeko (diagnosia) ekintzen kop.</p> <p>Ezegonkortasun, bazterketa eta gizarte-desberdintasunaren eraginaren segimendua egiteko ezarritako mekanismo kop.</p>	<p>Gizarte Politika</p>	

		<p><b>Ec.2.2.:</b> Premiazko neurriak abian jartzea, ezegonkortasunetik bazterkeriara bitarteko urratsa saihesteko, eta bereziki kontuan hartzea emakumeen egoerak.</p>	<p>Ezegonkortasunetik bazterketara igarotzea saihesteko abian jarri diren neurri kop.</p> <p>Abian jarritako neurri motak eta horien egokitasuna</p>	Gizarte Politika	
		<p><b>Ec.2.3.:</b> Bizitza autonomoa egiteko nahikoak diren diru-sarrerak eskuratzetik ez duten pertsonen kopuru osoa eta emakumeen kopuru erlatiboa murrizteko neurriak abian jartzea.</p>	<p>Bizitza autonomoa egiteko nahikoak diren diru-sarrerak eskuratzetik ez duten pertsonen kopuru osoa eta emakumeen kopuru erlatiboa murrizteko abian jarritako neurri kop.</p> <p>Abian jarritako neurri motak eta horien egokitasuna</p>	Gizarte Politika Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	
		<p><b>Ec.2.4.:</b> GFAn eta erakundeak egiten dituen kontratazioetan lan-baldintza duinak eta ez baztertzailak bermatzea, eta gainerako lan-merkatuan erreferente bezala jardutea.</p>	<p>Proiektuak/zerbitzuak gauzatzean, lan-baldintzak hobetzeko klausulak dituzten GFaren kanpoko kontratazioak kopuruaren bilakaera.</p> <p>GFAn antzeman den ordainsari diferentzia gainditzeko abian jarri diren neurri zuzentzaileen kop.</p> <p>Hautapen eta kontratazio prozesuetan berdintasun irizpideak sartzen dituzten araudi kop.</p> <p>Emakumeek ordezkartza gutxien duten sektoreetan emakumeak kontratatzeke abian jarritako pizgarrien kop.</p>	Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.	Guztiak

			Ekonomia sozialeko enpresetan emakumeak langile bazkide gisa kontratatzeko pizgarri kop.		
<b>Baliabideak ekonomia-eremu guztietan birbanatzea</b>	<b>Ec.3:</b> Baliabideak ekonomia-eremu guztietan birbanatzea, ordaindu gabeko lana –eta ez irabazteko asmoa– aintzakotzat hartu eta kooperazioa gizarte eta ekonomiaren sistema gidari nagusi moduan ipinita.	<b>Ec.3.1.:</b> Zergak pixkanaka erreformatzea, progresibotasunaren definizioa egiteko genero-irizpideak erabilita.	Zerga arloan egin den azterlan kop.  Zerga erreforma progresiboa sustatzeko abian jarritako jarduketa kop.  Jarduera motak eta horien egokitasuna	Ogasuna eta Finantzak	
		<b>Ec.3.2.:</b> Bere definizioan genero-irizpideak gehitzen dituen ekonomia sozial eta solidarioa finkatzen laguntzea.	Genero irizpideak dituzten gizarte-ekonomiako enpresei puntuazio gehigarria ematen dieten baldintza agirien kop.  Genero irizpideak dituzten gizarte-ekonomiako enpresei puntuazio gehigarria ematen dieten GFAko erosketa publikoen kop.  GFAk homologatutako gizarte-ekonomiako enpresa kopurua.  Gizarte-ekonomiako enpresek genero irizpideak txerta ditzaten butzatzeko ekintzen kop.	Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	



		<p><b>Ec.3.3:</b> Merkatu kapitalistetan kontsumoaren mendekotasun txikiagoa ahalbidetzen duten eta funtzionatzeko genero-irizpideak gehitzen dituzten ekimenak sustatzea.</p>	<p>Merkatu kapitalistetan kontsumoaren mendekotasun txikiagoa ahalbidetzen duten eta funtzionatzeko genero-irizpideak gehitzen dituzten ekimenak sustatzeko neurri kop.</p> <p>Laguntza zerbitzuak baliatzen dituzten ekimenen kop.</p> <p>Berdintasun irizpideak txertatzen dituzten ekimenen kop.</p>	<p>Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa</p>	<p>Gizarte Politika</p>
		<p><b>Ec.3.4.:</b> Ekonomia-jardueraren eta lan-jardueraren adierazleak berraztertzea, ekonomiaren funtzionamenduaren eta lanen banaketaren berri izateko bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, ordaindu gabeko lanak bereziki kontuan hartuta.</p>	<p>Berrikusi diren kudeaketa sistema eta tresnen kop./%</p> <p>Genero adierazleak txertatuta dituzten azterlan sozioekonomikoen kop./%</p> <p>Ekonomiari eta lan-banaketari buruzko informazioa bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik emateko sortu diren adierazle kop.</p>	<p>Ogasuna eta Finantzak</p> <p>Gizarte Politika</p>	<p>Guztiak</p>



---

# *Ingurune iraunkorra*

---

*II. Kapitula*

*Sarrera*

*Begirada  
zabaltzea*

*Hiri- eta landa-  
ingurunea,  
harremanetarako  
ingurunea eta  
ingurumena  
eraldatzen*

*Helburuen  
matrizea*



## 1. Sarrera

Ildo honen bidez lortu nahi dugun helburua da unibertsaltasunaren eta singularitasunaren ikuspegitik bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetzen duen hiri- eta landa-ingurunea, harremanetakoa eta ingurumenekoa bultzatzen laguntzea.

**Ingurunea bizitza garatzen den espazioa da.** Inguratzen gaituena da. Naturaz gain, ingurunearen barruan herriak eta bertan dagoen guztia sartzen da, hainbeste ikuspegiatik begiratuta (azpiegiturak, eraikinak, mugikortasun-bideak, gizarte-giroa, bizi-estiloa). Ildo horretan, natur inguruneaz, ingurumenaz, hirigintzako inguruneaz eta landa-inguruneaz hitz egin dezakegu. Helburua gizakiak ingurune horiekin duen harremana aztertzea izanik, ez dugu ekosistema terminoa erabili, termino horren barruan aipatutako harremana ez delako hain garrantzitsua, ikuspegia ingurune fisikoan bizi diren izaki bizidun guztiak deskribatzera zuzenduta dago eta.

**Gaur egun, ingurumenarekin dugun harremana iraunezina da, hainbat arrazoirengatik.** Lehenengoa da harreman horretan metaketa kapitalistaren logika islatzen dela. Logika hori ez da bateragarria bizitzari lehentasuna ematen dioten inguruneak zaindu eta sortzearekin. Hiriak eta landa-inguruneak kontsumo eta produktibitatera begira diseinatzen badira, zaila izango da horietan beste era bateko harremanak bultzatzea. Aire, ur, elikagai edo egunero erabiltzen ditugun produktuen kutsadura errentagarritasunari beste irizpide etiko batzuen aurretik –osasan edo epe luzeko gizarte-onura zein onura ekologikoa– eman zaion lehentasunaren ondorioa da. Bigarrena da ingurumenarekin harreman instrumentala mantentzeko ingurumenetik distantzia batera kokatu behar garela. Ez dago ingurumenak gizakion bizi-kalitatean duen eragin-mailaren kontzientziarik: nola hirigune eta landaguneetako harremanen hondaketan, hala osasunean. Hirugarrenez, natur ingurunea baliabideen iturri agorrezintzat hartzen da. Naturala dena mugagabea dela pentsatzeko era oker horren ondorioz, baliabideak agortu arteko ustiaketak egiten dira, edo kutsadura geldiarazteko neurri gutxi hartzen dira. Azken buruan, horrek zalantzan jartzen du etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea, ez soilik bermerik ez dagoelako, baita gero eta ingurumen-gaixotasun gehiago egotea saihestezina delako.<sup>39</sup>

**Deshazkundetik** egindako proposamenak ildo horretakoak dira, hau da: hiriek ingurumena errespetatu behar dute, tokiko ekonomiak indartu egin behar dira, elikadura-burujabetza sustatu behar da, ingurune osasuntsu eta kutsadurarik gabeak sortu behar dira, mugitzeko hautabidezko bitartekoak erabili behar dira, eta ahal den neurrian berreskuratu behar dira hirietan lehendik dauden eraikinak eta espazioak, periferiako zabalkunde mugagabearen ideiaaren aurka. Funtsezkoa da alderdi horiek begirada feministaz ikustea, gerora egiten diren garapen alternatiboetan genero-desberdintasunak ez errepikatzeke.

---

39 Gaur egungo eragin toxikoen mailak egonda, gizarteek aurre egin behar diote kutsatzaile kimikoek eragindako osasun-arazoaren pandemia bati (Berta Chulvik Bartzelonako Hospital Cliniceko Neke Kronikoaren Diziiplina Anitzeko Unitateko koordinatzailea den Joaquín Fernández Solá doktoreari egindako elkarrizketa. Istanburuko aldizkaria, 2011ko uztaila: <http://www.istas.net/pe/articulo.asp?num=53&pag=10&titulo=Joaquim-Fernandez-Sol%E0-medico-Con-los-actuales-niveles-de-exposicion-a-toxicos-nos-enfrentamos-a-una-pandemia>).

Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariorde INMA "Haurtzaroa eta Ingurumena" Proiektura gehitu zen 2006an. INMA ikerkuntzan ari diren taldeen sare bat da, eta, metodologia partekatu baten bidez, elkarlotu nahi ditu jaio aurretik eta ondoren jasaten den aire, ur eta elikagaietako ingurumen-kutsatzaileen eragina eta haurren osasunean izan ditzakeen efektuak, hazkuntza eta garapena barne. Informazio gehiagorako, ikus: <http://www.proyectoinma.org/presentacion-inma/index.html>

Gizaki bakoitzaren errealitatea gainerako pertsonen elkar mendekotasunekoa dela baieztatzen den modu berean –eta hori bizitzako alderdi guztietan gertatzen diren zainketa-beharretan ikus daiteke–, argi dago gizakia inguratzen duenaren elkar mendekotasunekoa ere badela. Hala bada, gizakiak **norabide bikoitzeko** lotura du ingurunearekin: gizakiak ingurune hori itxuraldatzen du, eta, aldi berean, inguruneak pertsonen bizi-kalitatea eta bizimodua baldintzatzen ditu. Horregatik, bizitza-maila egokiak erdiesteko, ezinbestekoa da ingurumen iraunkorra izatea, eta gizakia, azken buruan, horren erantzulea da.

Ildo horretan, beharrezkoa da bizitza iraunkorra **zer ingurunek bermatzen duen** jakitea ahalbidetzen diguten eztabaidak bultzatzea. Beste esparru batzuetan abiaguneak zein egon litezkeen hautabidezko ereduak neurri handiagoan garatu badira ere, lan-ildo honetan eztabaidak garrantzi handiagoa du, ingurumenari genero-ikuspegitik begiratzeko dimentsio anitzeko alderdiak falta direlako. Oraindik hastapenetan dagoen teoriako ingurune egokia eraikitzeke eta horretan sakontzeko, funtsezkoa da begirada zabaltzea. Era horretan, honakoa ahalbidetuko dugu: 1) **funtsezkoak diren baina berehala neurri bihurtzen zailak diren alderdiak gehitzea** (adibidez, ingurumenean eragina duten harreman psikosozialak –bizi-estiloak–); eta 2) **edukietan sakontzea** (adibidez, genero-alderdia mantentzen duten hiri- eta landa-inguruneak diseinatzeak edo kutsatzaileek emakumeen gorputzean duten eragina ikusezin izateak duten garrantzia). Horri buruzko hausnarketarik ez egotea (edo zabalkunde eskasa edo ez ezagutzea) ez da eztabaida bultzatzeko oztoporik, arrazoia baizik. Gainera, GFAko Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak ingurumen iraunkorrari buruzko hausnarketaren ondorio diren gai batzuk jorratzeko behar diren eskumenak ez dituenez gero, eztabaidak sustatu eta zabaltzea nahi izan ditugu, etorkizunean ardura duten arloek eduki berriak gehitu ditzaten. Hori ez da eragozpenik esparru horren oinarriak jartzeko, eta baita politika publikoak sustatzeko funtsezko ardatzak ere.

Ingurumenarekiko harremanei dagokienez, II. Planean bi funtsezko alderdiri eman zaie lehentasuna, generoaren ikuspegitik daukaten garrantzia dela medio. Lehendabizikoa **lurralde-berrantolaketa** da: hirigintza- eta landa-ereduak bizitza iraunkor egiteko baldintzak bermatzeko edo ez bermatzeko modua. Hainbat elementuren antolaketa –eraikinen diseinua, mugikortasuna, etxebizitzaren kokalekua, merkataritza-guneak, espazio publikoak, aisialdiko eta jolaserako lekuak, erakundeen eraikinak, gizarte-zerbitzuak edo industriaren kokalekua– lotuta dago ezaugarri hauek dituzten egiturei: genero-desberdintasunak errepikatzen dituzte, ez dituzte aniztasuna beti errespetatzen, eta haietan, lehentasuna ematen zaio norberaren ibilgailuari taldeko garraioaren aurretik, kontsumoa espazio publikoen aurretik lehenesten da, edo segurtasuna bizitza komunitarioaren aurretik. Era berean, feminismitik adierazi da berrantolaketa horretan, genero-desberdintasunak errepikatu daitezkeela publiko eta pribatua denaren arteko bereizketaren bitartez. Bigarrena ingurumenak gorputzean duen eragina da, eta zehazki emakumeen osasunean. Errealitate horri buruz dagoen ezjakintasuna harrigarria da, gaur egun duen eragin handia kontuan izanda. Eragin hori onartzea da ildo horretako helburuetako bat.

Bi kasuetan, alderdi horietako bakoitzari ikuspegi feministatik begiratu eta emakumeengan daukaten eragin desberdinak ulertzea lortu nahi dugu; halaber, genero-arauaren bidez antolatzea; eta ingurumenari buruzko eztabaidak eta neurriak sustatzeko egokitasuna, bizitza unibertsaltasun eta singularitasunaren baldintzetan iraunkor egitea abiagunetzat hartuta.

*Biziaren  
eta  
ingurunearen  
arteko  
harremana:  
norabide  
bikoitzeko  
ibilbidea*

## 2. Begirada zabaltzea

GFAREN Berdintasunerako II. Planaren bidez, hau lortu nahi dugu:

**En.1. helburu nagusia:** Generoaren ikuspegitik iraunkorra den hiri- eta landa-eredu eta harreman- eta ingurumen-ereduari buruzko eztabaidak sustatzea.

Horretarako, bi helburu espezifiko ezarri ditugu; lehenengoa GFAtik kanpora begira, eta bigarrena erakundearen barnera begira:

**En.1.1. helburu espezifikoa:** Begirada kritiko feministatik aztertzea hiri- eta landa-ereduak, bizi-estiloek eta ingurumenak bizitzaren iraunkortasunean duten eragina.

**En.1.2. helburu espezifikoa:** Ikuspegi feminista jartzea hiri- eta landa-ingurunean eta harremanetako eta ingurumenekoan, foru-politika publikoetan.

### ***Lurraldearen antolamendua: Hiri- eta landa-eredua, genero-ikuspegitik***

Genero-ikuspegia funtsezko alderdia da hiri iraunkorrak diseinatzerakoan, zerbitzu publikoak eskuratzeko eta hiri- eta landa-inguruneaz gozatzeko orduan bidezkotasuna ahalbidetzeko. Garrantzitsua ez da soilik hiri- eta landa-ingurunearen konfigurazioak gizon eta emakumeengan duen eragin desberdina ulertzea, aurretiaz zehaztutako genero-harremanak lurraldearen antolamenduaren osagarri zer neurritan diren ere ulertu behar da eta. Edo, beste modu batez esanda: **zer neurritan ageri den alderdi androzentrikoa hiri- eta landa-inguruneari buruzko ikuspegian**. Adierazi beha dugu alderdi horri buruzko kritikarik ez egotea arrazoia izan daitekeela genero-desberdintasunak birsortzeko.

Hiri klasiko modernoa hiri zatikatua da: alde batetik, esparru pribatua, etxekoa, birsortze-lanak burutzen diren lekua; eta, bestaldetik, esparru publikoa, ekoizpena eta kontsumoa egiten diren lekua. Hirietan, azken esparru horri ematen zaio lehentasuna: diseinatuta daude lan egiteko eta ez bizitzeko; ekoizpen eta kontsumoko lekuak nagusitzen dira; eginkizunak eta espazioak bereizten dituzte; ibilgailu pribatuari begirako irizpideez antolatzen dira; eta, azken buruan, hirigintza mugatua interes pribatu eta espekulatiboaren zerbitzura dago. Eredu horrek modu hertsian birsortzen du zainketa-lana baliorik gabe uzten duen eta emakumeei –lan horien arduradun nagusiak– mugikortasun, bateragarritasun eta autonomian zailtasunak jartzen dizkien eremu publiko eta pribatuaren arteko zatiketa. Genero-eginkizunak finkatu egiten dira, eta zainketaren kultura kolektiboagoak agertzea galarazten da.

Mugikortasunerako irisgarritasuna funtsezkoa da zatiketa hori hausteko. Horregatik, beharrezkoa da lekualdatzeko behar eta funtzio bereziak kontuan hartzen dituen begirada bat. Segurtasuna beste funtsezko alderdi bat da. Emakumeentzat arriskutsuak direlako ez ibiltzeko moduko espazioak dauden neurrian, mugikortasuna, espazio publikoak gozatzeko eta baita ordaindutako lana ere baldintzatu egiten dira, argiztapen eskasa duten lekuetan –industri-guneak, leku bakartiak– edo gaueko ordutegietan. Landa-inguruneetan, segurtasunik eza izateko sentipena bide bakartiek

edo argiztapenik ez dutenek sorraraz dezakete.<sup>40</sup> Beste alde batetik, hirian eta landa-ingurunean metatzen diren hizkerek eremu publiko eta pribatuaren arteko bereizketa sexuatuan ainguratuta dagoen sinbologia sortzen laguntzen dute (kale, plaza, eraikin publikoen izenak). Emakumeek espazio publikoan erreferentziak aurkitzea funtsezkoa da identifikazioa eta aitortzea sortzeko. Sinbolikoa dena okupatzea hiriaren alderdi ikusezin bat da, baina ez da neutroa, genero-ikuspegitik begiratuta. Garrantzitsua da espazio sinboliko horrek zer neurritan birsortzen dituen desberdintasunak.

Hala ere, azken finean, ez dugu ahaztu behar hiri-inguruneak joera orokorren katalizatzaile garrantzitsuak direla: informazioaren teknologia berriak agertzea, dibertsifikazio etniko eta kulturala, edo nazioz gaindiko dinamikak. Ildo horretan, garrantzitsua da ulertzea hiri- eta landa-ingurunearen itxuraldaketa, agian, publikoa eta pribatua denaren arteko bereizketa zorrotza aldatzen ari dela, eta ekoizpen-leku klasikoak ere lausotzen ari dela. Emakume askok etxean egiten dute ordaindutako lana, edo hainbat lan eskas egiten dituzte aldi berean. Mapa berrian, emakumeak ez dira inoren mendeko, protagonistak baitira bizitza sozioekonomiko eta politikoko esparru askotan. Horregatik, lurralde berriak ez dira emakumeentzat mugak dituzten lekuak soilik, haien artean aukerak ere badituzten lekuak dira eta.

Horrekin guztiarekin, Berdintasunerako II. Planean proposatzen den bezala, ezinbestekoa da eztabaidak sustatzea, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko zatiketa Gipuzkoako Lurraldean eta bertako hirietan zein landa-eremuan zer neurritan birsortzen den edo ez ulertu ahal izateko. Edo, beste modu batez esanda: lurraldearen berrantolamendua eta lurralde- nahiz hirigintza-plangintza gidatzen dituzten irizpideak genero-ikuspegitik begiratuta berraztertzea.<sup>41</sup>

### ***Ingurunean eragina duten harreman psikosozialak***

Ingurunean materialak ez diren alderdiek eragina dute; alderdi horiek psikosozialak izenda ditzakegu. Hirietan eta landa-guneetan dauden egungo bizi-estiloak eta orain dela hamarkada batzuetakoak oso desberdinak dira. Teknologia berriak agertzeak, kontsumoak, lan-moduen aldaketak, mugikortasunak, kultur aniztasunak eta hiri handietako bizimoduak gizarte-jokaera aldatu dute. Emakumezkoen identitateak eta genero-eginkizunek ere aldaketak pairatu dituzte. Emakume gazteek aurrean dituzten arazoak ez dira aurreko belaunaldiek zituzten arazo berak.

Bizi-estilo berriak emakumeengan eragina duten hiru fenomenok egituratuta daude:

**Kontsumoa:** azken hamarkadetan, salatu egin da munduko iparraldeko herrialdeetako kontsumo-mailak neurritzat kanpokoak izan direla munduko beste zati batzuekin alderatuta. Emakumeak kontsumitzaile handiak dira. Eguneroko bizitzari eusteko erantzukizuna nagusiki euren gain egonda, egunero erosi behar izaten dituzte premia biziko produktuak. Hala ere, premia ez da datu itxi eta egonkorra, eraiki egiten baita. Erosketak egitean ez da guztiz beharrezkoa dena erosten, era guztietako produktuak gehitzen baitira, emakumeek berek

---

40 Erandioko hiri-diagnostikoa, 2009. Cristina Cordeirok eta Amaia Herrerok jasoa. "Kaleek generoa dute" Hirigintza Mintegi Inklusiboan egindako aurkezpena (2011ko azaroaren 9-11, Vitoria-Gasteiz, Europa Biltzar Jauregia).

<sup>41</sup>Gipuzkoako Lurraldean, diagnosiak egiteko esperientziak badaude, hala nola Hiri analisirako manuala: Generoa eta eguneroko bizitza izenburuko argitalpena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuak 2010ean argitaratua. Horren oinarriak Hernaniko Udalaren eta Berdintasun Kontseiluaren arteko proiektu bat eta 1995ean Donostian sortu eta geroago Euskadiko hainbat udalerritan –Gipuzkoako Lurraldean, zehazki, Donostian (2006) eta Irunen (2011), Udaleko Ongizate Sailak sustatua– garatu den "Hiri Debekatuaren Mapak" izenburuko proiektua dira. Mapa horiek prestatzean, emakumeentzat ibiltzeko moduko hiriak eraiki eta parte hartzeko prozesuak irekitzea lortu nahi da.



eskaten dituztenak edo beren zaintzapean dauden pertsonak eskatuak. Beste alde batetik, emakumeak kontsumitzaile nagusiak dira moda, estetika eta kosmetikoen merkatuan. Estatu espainiarra aitzindaria da Europako kirurgia estetikoaren merkatuan: 900 pertsona ingururi kirurgia estetiko pribatua egiten zaie egunero klinika pribatuetan; % 85 emakumeak dira, eta % 15 gizonak.<sup>42</sup> Alderdi horretan ez da lan handirik egin feminismotik, gorputzaren eta kontsumoaren arteko loturari dagokionez. Hala ere, horri buruzko genero-ikuspegia funtsezkoa da: Emakumeak gorputzaren balorazioaren bidez eta gizonezkoen onespeneraren bilaketaren bidez gizartekotzeak harreman konplexu bat sorrarazten du gorputzarekin, eredu helezinak jartzen direlako. Publizitatetik egiten den presio etengabeak eta merkatuan irudi ideala mantentzeko egiten diren eskakizunek egonezin-maila handiak sortzen dituzte, batez ere emakume gazteen artean. Gaixotasun larri batzuk –bulimia eta anorexia, kasu– estu lotuta daude fenomeno horri. Hiri- eta landa-ingurunea kontsumorako espazio bihurtzen den neurrian, ezinbesteko bihurtzen da horren irismena eta gizonen eta emakumeen artean duen eragin desberdina ezagutzea.

- **Merkatuan, ordaindutako lanari eman zaion lehentasunak** desberdintasun-egoeran kokatzen ditu emakumeak, zainketen arduradun nagusiak diren neurrian. Soldatapeko langile bezala emakumeak dituzten lanpostuak eskasak eta prestakuntza gutxienekoak dira. Baldin eta lana, bizitzaren iraunkortasuna sustatzen duen ekonomiaren ildoan adierazi dugun bezala, ez bada enpleguarekin nahastu behar, zerbait gehiago delako, geure buruari galde diezaiokegu zergatik gizarte-egiturak enpleguaren arabera antolatuta dauden, eta ez beste zerbaiten arabera. Premisa da aberastasuna kapitalak baloratzen dituen era askotan sortzen dela, baina era horiek ez direla aintzakotzat hartzen edo ordaintzen, hala nola, komunikazioa, gizarte-sareko lana, kultur arloko lana, jakintzen sorrera eta, jakina, zainketak. Irudi hori hiritarren oinarrizko errenta unibertsalari buruzko eztabaidaren barruan sartu behar da. Galdera da ea errenta horrek lagun lezakeen ordaindutako lanaren inguruko antolaketaren ardatza aldatzen eta emakumeak kokaleku hobean kokatzen.<sup>43</sup>

**Bizitza komunitarioa desagertzea:** kontsumoak eta merkaturaren nagusitasunak individualismoa areagotzen dute. Bizitza komunitarioa egiteko espaziorik ezak (zentzu zabalean, ongizatearen estatua, zerbitzu publikoak, gizarte-espazioak desagiteari dagokionez) eragin berezia du emakumeengan, zainketa kolektibizatzea eragozten duelako. Bizitzako egoera desberdinei talde-irtenbidea emateko mekanismorik ezaren ondorioa lan pribatizatua gehiagotzea da. Era berean, nozio individualistak bizitza kooperatiboaren moduen gainetik baloratuz gero, pertsonen arteko lehiakortasun-egoerak sortzen dira: “bestea” mehatxutzat hartzen da. Geure buruari galde diezaiokegu zer nahiago dugun: bizitzaren babeserako eredu bat (banan-banako irtenbideak lehenesten eta pertsonen arteko mugak sortzen dituen) edo gizarte-loturak indartzeko eredu bat. Ildo horretan, eztabaida honek bat egiten du elkar zaintzeko harremanak eta adierazitako baliabideak eskuratzeko merkataritzakoak ez diren moduak sustatzeko helburuekin –zainketa duinak eta guztientzat (C2.3. helburua) eta

---

42 Datuak argitalpen honetatik atera dira: Valls- Llobet, Carme, Mujeres, Salud y Poder, Cátedra, Valentzia, 2010. Eta datu gehiago eskaintzen dira bertan: urtean 330.000 esku-hartze inguru egiten dira, eta urteko hazkuntza % 15ekoa da, krisia gorabehera. Ez dakigu gaur egun hazkuntza hori gutxiagotu egin den.

43 Ez dago argi oinarrizko errentak, beste sozialtasun-modu batzuk eraiki gabe, eraldaketa motaren bat berma dezakeen. Zainketei dagokienez, behin-behinekotasunaren barruan paradigma izanik, eta onarpenik ez izanda, geure buruari galdetu behar diogu zein den erroka, zainketak ordaintzea lortzea edo, zabaldua dagoen beste iritzi baten arabera, sexu-, genero- eta maitasun-harremanak zalantzan jarri eta zainketaren beste kultura batzuk eraikitzea.

bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia (Ec.3.3. helburua)–.

Ikuspegi feministatik begiratuta, oso esperientzia garrantzitsuak daude besterekiko loturari eusteko orduan, baita polarizazio handia duten inguruneetan ere –gerrak, ekonomia-krisiak edo pobrezia-egoerak–. Hala bada, hemen egiten dugun ekarpenetako bat hausnarketa egiteko beharra da, gizartean beldurra eta segurtasunik eza benetan sortzen dituen zer den jakiteko; baliabiderik eza, egiturazko desberdintasunak edo ekonomiaren ezegonkortasuna zer neurritan diren funtsezko alderdiak. Segurtasunak garrantzi berezia du emakumeentzat, baina, hiri- eta landa-inguruneari buruz ere adierazi dugun bezala, segurtasuna izateko, zalantzan jarri behar dira lehentasun sozioekonomikoak eta genero-desberdintasunak.

Era horretan, ingurune iraunkorrak sortzeko, aurretiaz ezarritako abiaguneei buruz eztabaidatzen hasi behar da –harremanetako jokabidean eta emakumeengan eragina duten eta etorkizunean politika zehatzetan gauza daitezkeen alderdi psikosozialei dagokienez–.

### **Ingurumenaren gaineke eragina, genero-ikuspegitik**

XX. mendeko industrializazio-prozesuek eraldaketa eskerga eragin dute ingurumenean. Geure buruari galdetu behar diogu aldaketa horiek osasunarentzat ingurumen iraunkorra sustatu duten ala ez, eta horretarako aintzakotzat hartu behar dugu emakumeen osasunean beharbada duen eragin espezifikoak.

Azken hamarkadetan, **ingurumen-gaixotasunak** era esponontzian gehiago dira.<sup>44</sup> Ingurumen-medikuntzatik, bereziki azpimarratzen da Estatu espainiarreko gizartea gai toxikoen eraginpean dagoela eta odolean zein gorputzeko beste ehun batzuetan metatutako mailek ez dutela dagoeneko ahalbidetzen prebenitzeko politika soilik egitea<sup>45</sup>, nahiz eta, jakina, politika hori guztiz garrantzitsua izan. Ingurune horretan, ingurumen-medikuntza funtsezko bilakatzen da orain endogenoak diren substantzia toxikoak eraginkortasunez deuseztatzeko eta substantzia horien metaketak zein eraginak minimizatzen. Hori bereziki garrantzitsua da emakumeentzat, eragin handiena pairatzen duen taldea osatzen dutelako.<sup>46</sup>

Ingurumenarekin lotura duten gaixotasun berriez gain –fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, sentikortasun kimiko anizkoitza eta elektrosentikortasuna, besteak beste–, bestelako gaixotasunak ere aipatu behar ditugu, hala nola minbizia, gaixotasun hori gehiago izatea ingurumen-fenomenoekin lotzen ari baita.<sup>47</sup> Substantzia toxikoak

---

44 Ikerketek erakusten dute biztanleen portzentaje batek (% 35 arte), bere bizitzaren une batean, hipersentikortasun-fenomenoren bat pairatu duela, baina horrek ez duela gaixotasun iraunkorrik sortzen. Beste portzentaje batengan (% 2 eta 5 bitartean) sentikortasun kimiko anizkoitzaren irizpideak aurkitzen dira. Kasu larriak proportzio honetan aurkitzen dira: 1 kasu 2.000 pertsonako. Eta eragina zortzi aldiz handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino (Berta Chulvik Joaquín Fernández Solá doktoareari Iestas aldizkarian, 2011ko uztailean egindako elkarrizketatik. Elkarrizketa osoa irakur daiteke hemen: <http://www.istas.net/pe/articulo.asp?num=53&pag=10&titulo=Joaquim-Fernandez-Sol%E0-medico-Con-los-actuales-niveles-de-exposicion-a-toxicos-nos-enfrentamos-a-una-pandemia>)

45 2010eko ekainaren 1ean, 2an, eta 3an, Madrilgo Ramón y Cajal Ospitalean, Ingurumen Medikuntzaren inguruko VI. Biltzarra egin zen, “Aldaketa beharrezkoa da” lelopean; bertan, ingurumen-medikuntzaren alorreko mundu osoko adituak elkartu ziren, gaur egun garatu behar diren metodo aringarriei buruz eztabaidatzeko. (Informazio gehiago hemen: [http://www.vivosano.org/es\\_ES/Proyectos/CongresoMedicinaAmbiental/MedicinaAmbiental.aspx](http://www.vivosano.org/es_ES/Proyectos/CongresoMedicinaAmbiental/MedicinaAmbiental.aspx))

46 Emakumeen arteko nagusitasunaren arrazoia da substantzia horiek koipeetan kokatzen direla eta disuptore endokrino bezala jokatzen dutela, eta emakumezkoen hormonek, estrogenoek, garunean sentikortasuna indartzen dutela.

47 Zehazki, bularreko minbizia sortzeko arriskua dute xenoestrogenoek, organokloratuek eta parabeneek.

mantentzeak zerikusia du ekoizpen-kostuak merkatzearekin eta irabaziak bilatzearekin. Beste modu batez esanda: metaketaren logikari jarraituz, osasuna zaintzea ez da lehentasuna. Jan, edan eta arnasten duguna, eguneroko zereginetan erabiltzen ditugun materialak edo produktuak (kremak, kosmetikoak, xaboiak, sendagaiak) eta uhin elektromagnetikoak arrisku handiko alderdi bilakatzen ari dira. Fenomeno hori ulertzeko, beharrezkoa da teknologia, biologia, ekologia eta gizarte eta politikako sistemak bereizi ez, baizik eta beren elkarloturatik abiatzen den begirada bat garatzea.

Hemen egin beharreko galderak hauek dira: zer neurritan den iraunkorra biztanleria gaixotzen duen garapen-eredu bat; beharrezkoa al den begirada ez androzentrikoak bilatzea, medikuntzan genero-alderdia arrailtzea ahalbidetzeko; substantzia kimikoen ordezkorik badagoen, ekoizpen-kostua garestiagotu baliteke ere; eta kontsumo-ohiturak aldatu behar diren, horren ondorioz bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarrita, metaketaren logikaren aurrez aurre. Osasuna eraikitzen dugun ingurunearen baitan baldin badago, osasuna zaintzeko bizimodu osasuntsua egiteko baldintzak sortu behar dira. Hala bada, ingurunea funtsezko alderdi bilakatzen da hemen, bititza iraunkorraren eredia bermatzeko.

---

Konposatu horiek produktu hauetan aurki daitezke: pilula antikonzeptiboak, botikako prestakinak, plastikoaren produktu deribatuak, krema hidratatzaileak, xanpuak, kosmetikako produktuak, janariak kontserbagarriak, etab. Valls doktoreak argudiatzen duen bezala, lotura hori bermatzen duten azterlan garrantzitsuak daude. Eman dezagun datu bat adibide gisa: Kanariar Uharteetan, Penintsulako biztanleen artean baino DDTren (organokloratu bat) indize altuagoak aurkitu ziren, eta emakumeek intsektizida organokloratuen maila altuagoak zituzten, gizonek baino. Kanariar Uharteak, hain zuzen ere, bularretako minbiziaren eragin eta horren ondoriozko heriotza-tasa handienak dauden lekuetako bat da. Ikus: Valls-Llobet, Carmen, Mujeres, Salud y Poder, Cátedra, Valentzia, 2010, 225. or. eta hurrengoak. 225 eta hurrengoak

### 3. Hiri- eta landa-ingurunea, harremanetarako ingurunea eta ingurumena eraldatzea

Berdintasunerako II. Planaren bidez, aipatutako arazoen gaineko begirada zabaltzeaz gain, arazo horiei eragin ere egin nahi diegu, eta, horretarako, helburu orokor hau jarri dugu:

**En.2. helburu orokorra:** Baldintza egokiak sortzen laguntzea, hiri- eta landa-inguruneak, harremanetakoak eta ingurumenak bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetu dezaten.

#### *Hiri- eta landa-eredua, genero-ikuspegitik*

**En.2.1. helburu espezifiko:** Generoaren aurrean sentikorra den hiri- eta landa-eredu bat, bizitza komunitatean eta bizitzaren iraunkortasunaren autokudeaketa bultzatzen dituen, sustatzea.

Gipuzkoako Lurraldean, 88 udalerrri daude; handiena Donostia da, 188.510 biztanlerekin; ondoren, Irun (60.915), Errenteria (30.020) eta Zarautz (22.658). Gipuzkoako zona metropolitarrako udalerrriak (12 guztira) 5.000 eta 20.000 biztanleren artekoak dira. Biztanleen erdiak baino gehixeago zona metropolitarran bizi dira (444.152), gainerakoak landa-herrietan (365.455). 500 biztanletik beherako herriak gehiago dira biztanle gehiago dituztenak baino. Datu horiek erakusten digute landa-ingurunea guztiz garrantzitsua dela gure lurraldean. Eta horrek, ikusiko dugun bezala, guztiz garrantzitsu bihurtzen ditu irisgarritasun, mugikortasun, autonomia eta segurtasunari lotuta dauden alderdiak.

Lehenik eta behin, irisgarritasun terminoa zabaltzea behar da. Irisgarritasunaren bidez, arkitektura-oztopoak ezabatu nahi dira, baina, funtsean, hiri- eta landa-inguruneak askotariko irisgarritasun-irizpideak erabilita diseinatzea da helburua; hau da, horren ardatza era guztietako beharrak dira, ez soilik ekoizpenaren ondoriozkoak, baita eguneroko bizitzaren eta gorputzen kudeaketa eta zainketaren ondoriozkoak ere. Bide publikoan egiten diren lekualdaketa seguruak eta erosoak izan behar dira, eta funtsezkoa da eraikin publikoetara eta kontsumo- eta aisialdi-establezimenduetarako irisgarritasuna (erosketarako orgak, haurtxoen aulkiak, aulki gurgildunak edo mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen erraztasunak ematea). Arazo multzo zabalago horri buruzko daturik ez badago ere, aulki gurgildunetan ibiltzen diren pertsonen egindako galdekete ekoizpenaren ikuspegi bat eskaintzen dute. Gipuzkoan, iristeko modukoak diren udal-bulegoak<sup>48</sup> % 40,9 dira; irisgarritasun mugatua dutenak % 24,2; eta iristeko modurik ez dutenak % 34,9. Beste lurralde batzuekin alderatuta, esan

48 Udal-bulegoez hitz egiten dugunean, honi buruz ari gara: informazio orokorra, kontsumitzaileei informazioa ematea, oinarriko gizarte-zerbitzuak, jubilatuen etxeak, hirugarren adinekoentzako egoitzak, eguneko zentroak, pasadizokoen edo toxikomanoen etxeak, haurtzaindegia eta haur-eskolak, udal-eskolak, gazteentzako egoitzak eta aterpeak, lantegi-eskolak, ikas-ekinezko prestakuntzako ikastegiak eta prestakuntza okupazionalerako zentroak, enplegu-zerbitzuak, etxebizitza-zerbitzuak, kultur zentroak eta liburutegiak, musika-, dantza- eta antzerki-eskolak, biltzar-aretoak, museoak, merkatuak, bainuetxe eta komun publikoak, parte hartzeko kirol-zentroak, ikuskizuneko kirol-zentroak, zineak, antzokiak, udaltzaingoa, tasen eta zergen kobrantza, bilkura-aretoa, idazkaritza, euskaltegiak eta beste batzuk (Arartekok Eusko Jaurlaritzarentzat irisgarritasunari buruz egindako txostena).

dezakegu Bizkaian eta Araban egoera gogobetegarria lortu dela irisgarritasunaren alorrean (% 76 eta % 80, hurrenez hurren), eta Gipuzkoan, aldiz, aztertutako 71 bulegoetatik % 55 soilik dira irisgarriak. Gipuzkoako bulego gehienak irisgarritasun mugatukoak dira. Arartekok Eusko Jaurlaritzarentzat egindako txostenaren ondorioen arabera, Gipuzkoa egoera okerrean duen lurraldea da, irisgarriak ez diren eraikinen kopuru handia eta irisgarriak diren eraikinen proportzio txikia dituelako. Gipuzkoan, arlo iristezinenak hezkuntza eta osasungintza dira: Gipuzkoako osasun-zerbitzuetako irisgarritasuna % 42koa besterik ez da; Araban eta Bizkaian, aldiz, % 75ekoa da. Badira irisgarritasun eskasa edo irisgarritasunik ez duten osasun-zentroak eta adimen-osasuneko zentroak, eta bereziki nabarmendu behar da Gipuzkoako ospitale multzoaren egoera kaskarra. Hau da, Gipuzkoako Lurraldean zailtasun handienak topatzen dira espazio jakin batzuetara iristeko orduan. Oztopo horiek emakumeen bizitzan duten eragina ebaluatu beharrekoa da, baina, kontuan hartzen badugu emakumeak direla zainketen arduradun nagusiak, ondoriozta dezakegu hiri- eta landa-antolamenduak pisu espezifiko bat gehitzen duela, eta horrek bizitza iraunkor egiteko aukerak autokudeatzea mugatzen duela. Pisu horri landa-ingurunean ibilgailu pribatuaren erabilera inguruko herrietara lekualdatzeko beharrekoa dela gehitzen badiogu, gehitu egiten dira emakumeen zailtasunak, haiek direlako garraibide hori gutxien erabiltzen dutenak.

Azkenik, adierazi behar dugu Gipuzkoako Lurraldean desberdintasun handiak daudela herrien artean, berdegune, lorategi eta parkeetarako erabilitako hiri-lurren portzentajeari dagokionez. Donostian, 2009an, % 59,94 zegoen, eta Tolosan % 25,09; beste udalerrri batzuetan, aldiz, askoz ere gutxiago zegoen: Irunen % 2,26, Eibarren % 3,40, Oñatin % 10,02, eta Azpeitian % 11,45. Baina, esanguratsuena da Donostiaz aparte, udalerrri horietako bakar batean ez direla zona horiek zabaldu, eta Tolosan jaitsiera nabarmena ere gertatu dela, 2006-2008 urteetan igoera egon eta gero. Horrek erakusten du atzerapen aipagarria egon daitekeela alderdi horien zainketan eta zabalkuntzan. Hiriaz gozatzeko komunitateko espazio irekirik gabe, emakumeen gizarrekotzea murriztu egiten da. Besteak beste, elkarlanean aritzeko espazioak mugatu egiten dira.

Ildo horretan, espazio publikoak, oro har, seguruak izan behar dira emakumeentzat. Jende gutxi ibiltzen den lekuak, argiztapen gutxikoak, ikuspenik ez dutenak edo arriskuan egon daitekeen emakumeari (sexu-erasoa, batik bat) ezin entzuteko modukoak direnak eragozpen dira erabiliak izateko. Hiri-azterketarako eskuliburuan adierazten da irisgarritasun kontzeptua zabaldu egin behar dela segurtasun-sentipen subjektiboari lotuta.<sup>49</sup> Hasiera batean segurtasun-arazo objektiborik ez badago ere, gerta daiteke segurtasunean eragina duten alderdiak egotea, hala nola, ibilgailuak igarotzeko abiadura, espaloiak estuak izatea, edo argiztapen egokirik ez egotea.

Azkenik, hiri-azterketarako eskuliburuaren egileek hiri-inguruneetan erabiltzen diren hizkeren metaketari dagokionez adierazten duten bezala, gaur egun “gure kale-izenen % 10 baino gutxiago dira emakumeen izenak, eta dauden gehienak santuak edo ama birjinak dira”. Horren ondorioz, funtsezko gabezia sinboliko bat sortzen da, emakumezkoen presentzia esparru publikoan sustatzeko orduan.

Horregatik guztiagatik, Berdintasuneko II Planak xedetzat du generoaren aurrean sentikorra den hiri- eta landa-eredu bat sustatzea, bizitza komunitarioa eta bizitzaren iraunkortasunaren autokudeaketa bultzatzen dituena.

---

49 *Manual de análisis urbano. Generoa eta eguneroko bizitza, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. 2010, 30. or. 2010, 30. or.*

## Mugikortasuna genero-ikuspegitik begiratuta

**En.2.2. helburu espezifikoa:** Genero-ikuspegiarekin bat datorren mugikortasuna eskaintzea, emakumeek Lurraldean dituzten oztopo eta beharrak eta publikoa eta pribatua denaren errepikapena bultzatzen dezaketen elementuak bereziki kontuan hartuta.

Adierazi dugun bezala, gizonek eta emakumeek oso modu desberdinean erabiltzen dituzte hiriak eta landa-inguruneak. Hasteko, emakumeak gutxiagoan lekualdatzen dira lanarekin zerikusia duten arazoengatik, eta gehiagotan zaintzeko lanak direla eta. Erosketak egin, haurren bila joan, adinekoak edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak paseatzera atera, administrazio-kudeaketak edo bestelakoak egitea izaten dira lekualdatzeko arazoak. Emakumeak hainbat helmugatako bidaia labur gehiago egiten dituzte, enplegura emandako bizitza baten ezaugarri diren joan-etorriko bidaiekin alderatuta –etxetik lanera eta alderantziz–. Ibilbide mota hori garraio publikoan egiten da, batik bat.

Datuek halaxe adierazten dute: emakumeen % 33k erabiltzen du garraio pribatua, eta gizonen % 58k; hala ere, gizonen % 17k soilik erabiltzen du garraio publikoa, eta emakumeen artean, aitzitik, % 28k erabiltzen du. Aldea oinez egindako ibilbideetan ere ikus daiteke: emakumeen % 38, gizonen % 22ren aurrean.<sup>50</sup> Gipuzkoan, zehazki, biztanleen % 46,8k garraio pribatua erabiltzen du; % 26,5ek garraio publikoa; eta % 24,9 oinez edo bizikletaz ibiltzen da. Gizonen % 51,4k erabiltzen du garraio pribatua, eta emakumeen % 29,9k. Autobusa erabiltzen duten pertsonen % 12,5 gizonak dira, eta % 19,8 emakumeak; gizonen % 24,1 oinez edo bizikletaz joaten da, eta emakumeen % 35.<sup>51</sup>

Kontuan izan behar dugu mugikortasunera iristeko modu egokirik ez izateak bateratzeko, lan-merkatuan sartzeko, parte-hartze soziopolitikoak izateko edo gizarte-zerbitzu, ekipamendu eta espazio publikoak gozatzeko aukera muga dezakeela. Alderdi hori areagotu egiten da landa-ingurunean, bertan ibilgailurik ez izateak are gehiago mugatzen baitu mugikortasuna, ekipamenduak eta gizarte-zerbitzuak ondoko herrietan egon daitezkeela kontuan hartuta. Ildo horretan, aztertu behar da bestelako talde-garraioak edo bizikletaren erabilera sustatzen ari diren. Datuen arabera, ez dago aldaketa nabarmenik alor horretan: 2009. urtean, bizikleta-erreiak 11 kilometro baino gutxiagokoak ziren 10.000 biztanleko. Donostian, zehazki, 1,83 kilometro dago 10.000 biztanleko<sup>52</sup>, eta biztanleen kopurua kontuan hartuta, bizikleta-erreiak 34,49 kilometro ditu guztira, 305,7 kilometro koadroko azalera batean. Beste udalerrri batzuetan –Irun, Oñati, Tolosa edo Azpeitia–, sarea handitu dute, baina handitze hori ez da oso esanguratsua izan, Tolosan izan ezik, bertan zerotik hasi direla kontuan hartuz gero. Joera igoera da, 2008. urteaz geroztik, eta horrek gaia nolabait aintzakotzat hartzen dela erakusten du; baina, ez dago aldaketa handirik (Oñatin, 2005etik 2009ra, zerotik kilometroko bateko erreia izatera igaro zen 10.000 biztanleko; Eibar eta Azpeitian ez dago bizikleta-erreirik; Donostian, 1,43tik 1,83ra; Irunen 1,61etik 3,10era; Tolosan 3,58tik 5,64ra; eta Zarautzen, 2,20tik 2,43ra).<sup>53</sup> Datu horrek, Gipuzkoako errepide-kilometroaren kopuruarekin batera –EAEn aurrealdean kokatuta, eta Estatu

50 Etxe eta Ingurumenaren inkesta, 2009. INE.

51 Ingurumenari eta familiei buruzko inkesta, 2008. EUSTAT.

52 Udalmap-etik ateratako datuak.

53 Udalmap-etik ateratako datuak.

espainiarreko batez bestekoaren gainera, ahalbidetzen digu ibilgailu pribatuari emandako lehentasuna ikustea, eta dagoeneko adierazi dugun bezala, ez da emakumeek gehien erabiltzen duten garraioa. Aipagarria da Donostian igoera nabarmena gertatu dela errepideak egiteko azaleraren gehikuntzan, 2010. urtean % 2,63koa baitzen eta 2011n % 5,61ekoa. Era berean, kontuan hartu beharrekoa da EAEn biztanleen % 46,9 garraio pribatua murriztearen aldekoa dela.<sup>54</sup> Geure buruari galdetu beharko genioke ea politika publikoak lekualdatzeko bitartekoen erabilera askotarikoagoa ahalbidetuko lukeen eskaera horri erantzuten ari diren. Nolanahi ere, esanguratsua da gaur egungo daturik eza.

Azkenik, orgatxoak, aulkiak, mugikortasun murriztua duten gaixo eta abarren irisgarritasuna funtsezkoa da talde-garraioaren erabilera sustatzeko eta ahalbidetzeko. Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Berdintasunerako II. Planaren bidez, genero-ikuspegitik bat datorren mugikortasuna eskaini nahi dugu, emakumeek Lurraldean dituzten oztopo eta behar askotarikoak, eta publikoak denaren eta pribatua denaren arteko bereizketa errepikatzea bultzatzea elementuak bereziki kontuan hartuta.

### **Ingurumena genero-ikuspegitik begiratuta**

**En.2.3. helburu espezifikoak:** Emakumeen osasunean eragin negatiboa duten ingurumeneko fenomenoak ezagutzeko, horien aurreko sentikortasuna eta kontrola sustatzea.

Gaixotasun guztietan alderdi biologiko, sozial eta psikologikoen nahasketa badago ere, toxikoekin zerikusia duten gaixotasun berrien sorrerak behartu egiten gaitu gertatzen diren berariazko elkarreragin biologikoak aztertzea. Fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, sentikortasun kimiko anizkoitza eta elektro-sentikortasuna ez dira gaixotasun "arraroak", aitzitik, gizartean gorantz doan fenomeno bat eratu dute. Horregatik, are garrantzitsuagoa da gaur egun gaixotasun horiek ezagutzea. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, Estatu espainiarrean fibromialgiaren prebalentzia % 2,4koa zen 2006an, eta ohikoagoa emakumeen artean (% 4,2), gizonen artean baino (% 0,2); beraz, pentsa daiteke 50.000 pertsona inguruk jasaten dutela gaixotasun hori EAEn, eta horietatik % 90 emakumeak dira. Neke kronikoaren sindromeari dagokionez, Estatu espainiarrean ez dago prebalentzia-kopururik, baina Estatu Batuetako eta Australiako datuak estrapolatuz, gaixotasun horren prebalentzia 100.000 biztanleko 30 eta 40 kasu bitartekoa izan daiteke, hau da, gutxi gorabehera 600 eta 800 kasu bitartean EAEn<sup>55</sup>, eta 250etik 320ra artekoa Gipuzkoako Lurraldean. Sentikortasun kimiko anizkoitzaren prebalentzia biztanleen % 0,75ekoa da maila larrian, eta % 12 maila ertainean. Azkenik, elektrohipersentikortasunaren prebalentzia % 3 eta % 5 bitartekoa da dagoeneko, hau da, 13 milioi lagunek jasaten dute gaixotasun hori<sup>56</sup> Europan. Gipuzkoako Lurraldean 21.288 eta 35.480 artekoa izango litzateke kopurua. Datu horiek ikusita, osasunaren krisiaz hitz egin dezakegu, eta krisi horren irismena datozen urteetan ikusi ahal izango dugu.

54 El País egunkariaren datuak (2012ko maiatzaren 9a).

55 Eusko Jaurlaritzak fibromialgia eta neke kronikoaren sindromeari buruz argitaratutako gida klinikotik ateratako datuak. Osasun Saila, 2006.

56 Bizi Bide, Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromea Elkarteen datuak. (Informazio gehiago hemen: <http://www.bizi-bide.com>)

Dagoen arazoa da substantzia toxikoek gorputzean duten eraginari buruzko ezagutza zientziaren alorreko zirkuitu itxietan mantentzen dela. Ildo horretan, medikuntza-komunitateak lanean ari dira, ezagutza horiek zeharkakotzeko. Gorago aipatu dugun ingurumen-medikuntzari buruzko biltzarra antolatu duten erakundeek adierazten duten bezala, "beharrezkoa da sareetan dauden jakintza-taldeak elkartzea eta zientzialari, profesional, interes publikoko talde eta arduradun politikoen artean komunikazio hobea sustatzea".<sup>57</sup> Modu horretan soilik aurreratu ahal izango dugu fenomeno hori kontrolatzea ahalbidetzen duten politika publikoetan.

Ikuspegi feministatik begiratuta, beharrezkoa da jakitea emakumeak behar bezala diagnostikatu eta trataturik dauden. Horretarako, kontuan izan behar dugu gaixotzeko era desberdina dela gizonengan eta emakumeengan. Diagnosi egokiak egiteko zailtasunari diagnosi akastunak gehitu behar zaizkio. Fibromialgiaren kasua paradigmatikoa da: azkenean, medikuntza-zientzia androzentrikoak ezagutzen ez dituen gaixotasunen saski-naski bihurtu da. Fibromialgia eta beste 16 gaixotasun nahas daitezke<sup>58</sup>; gaixotasun horietako askotan, funtsezkoak dira ingurumen-alderdiak, baina ez ezagutu, parametro maskulinoak erabili eta genero-estereotipoen ondorioz, huts egin daiteke diagnosietan. Hala bada, emakume askoren bizia dago jokoan, medikuntza arruntean ez baita ezagutzen diagnostikatutako gaixotasun horietarako sendabiderik. Gipuzkoako Lurraldean gaixotasun horiek jasaten dituzten emakumeek zer bizi-kalitate duten jakin beharko litzateke, bai eta gaixotasun horien diagnosian genero-alderdiak zer neurritan errepikatzen ari diren ere. Ildo horretan, gaixotasunen aurrean sentikortzeak ahalbidetu dezake gizartea, senideak eta gertuko pertsonak ulerkorragoak izatea, bai eta emakumeen bizi-kalitatea gutxiagotzen duten edo zuzenean desgaitasuna sortzen duten patologiak beharbada psikologizatzen ari diren estereotipoak ezabatzeko bultzada bat egitea ere.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Berdintasunerako II. Planaren bidez, gai berri hau jorratu nahi dugu, GFAn bertan lan egiten duten emakumeen osasunean eragin negatiboa duten ingurumeneko fenomenoek ezagutza, horien aurreko sentikortasuna eta kontrola sustatuta, Foru Aldundiaren eskumen esparruan.

---

57 Informazio gehiagorako, ikus:

[http://www.vivosano.org/es\\_ES/Proyectos/ConferenciasobreRiesgosenSaludP%C3%BAblica.aspx](http://www.vivosano.org/es_ES/Proyectos/ConferenciasobreRiesgosenSaludP%C3%BAblica.aspx)

58 Datuak argitalpen honetatik atera dira: Valls- Llobet, Carme, Mujeres, Salud y Poder, Cátedra, Valentzia, 2010.



#### 4. Helburuen matrizea

INGURUNE IRAUNKORRA					
<b>Helburua:</b> Unibertsaltasunaren eta singulartasunaren ikuspegitik bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetzen duen hiri- eta landa-ingurunea, harremanetakoa, eta ingurumenekoa eraikitzen laguntzea.					
ESKU HARTZEKO ESPARRUA	HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	DEPARTAMENTUAK	
				ERANTZULEAK	PARTE HARTZEN DUTENAK
<b>Begirada zabaltzea</b>	<b>En.1.:</b> Generoaren ikuspegitik iraunkorra den hiri- eta landa-eredu eta harreman-eta ingurumen-ereduari buruzko eztabaidak sustatzea.	<b>En.1.1.:</b> Begirada kritiko feministatik aztertzea hiri- eta landa-ereduak, bizi-estiloek eta ingurumenak bizitzaren iraunkortasunean duten eragina.	Hiri- eta landa-ereduari, bizitza-estiloari eta ingurumenari buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko antolatutako prozesu-kopurua.  Hausnarketa-prozesuetan landutako edukien tipologia.  Parte hartu duten gizarte-mugimenduen kopurua  Parte hartu duten gizarte-mugimendu motak	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak

		<p><b>En.1.2.:</b> Ikuspegi feminista jartzea hiri- eta landa-ingurunean eta harremanetako eta ingurumenekoan, foru-politika publikoetan.</p>	<p>Pentsamendu feminista politika publikoetan txertatzeko landutako proposamen teorikoen kopurua.</p> <p>Proposamenak politika publikoetan noraino sartu diren (%)</p> <p>GFAn zainketen inguruan abian jarri diren prestakuntza ekintzen kop.</p> <p>Ekintza horietan ordezkariak izan duten departamentuen kop.</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>	<p>Guztiak</p>
<p><b>Hiri- eta landa-ingurunea, harremanetarako ingurunea eta ingurumena eraldatzen</b></p>	<p><b>En.2.:</b> Baldintza egokiak sortzen laguntzea, hiri- eta landa-inguruneak, harremanetakoak eta ingurumenak bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetu dezaten.</p>	<p><b>En.2.1.:</b> Generoaren aurrean sentikorra den hiri- eta landa-eredu bat, bizitza komunitatean eta bizitzaren iraunkortasunaren autokudeaketa bultzatzen dituen, sustatzea.</p>	<p>Bizitza komunitarioa eta bizitzaren iraunkortasunaren autokudeaketa sustatzeko egokituta dauden GFAko eraikin kop.</p> <p>Mugikortasun urria duren pertsonentzat irisgarriak diren, emakumeentzat seguruak diren eta zainketa guneak dituzten espazio publikoen sorkuntzan inplikaturako udalerrri kopurua.</p> <p>Udalei eman zaizkien eta alderdi hauen inguruko gizarte-klausulak dituzten diru-laguntzen kop.</p> <p>GFAk babestu eta genero irizpideak txertatuta dituzten hiri antolaketako planen bilakaera (kop/%)</p>	<p>Ingurumena eta Lurralde Antolaketa</p> <p>Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa</p>	

		<p><b>En.2.2.:</b> Genero-ikuspegiarekin bat datorren mugikortasuna eskaintzea, emakumeek Lurraldean dituzten oztopo eta beharrak eta publikoa eta pribatua denaren errepikapena bultza dezaketen elementuak bereziki kontuan hartuta.</p>	<p>Garatu diren mugikortasuneko azterlan kop.</p> <p>Egindako azterlanetan oinarrituta abian jarri diren neurrien kop.</p> <p>Neurri motak eta horien egokitasuna</p> <p>Neurri horiek abian jartzen parte hartu duten entitateen kop.</p> <p>Planifikazio eta erabaki prozesuetan herritarren partaidetzak, bereziki emakumeenak, duen garrantziari buruzko sentsibilizazio ekintzetan parte hartzen duten udal entitateen kop.</p>	<p>Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak</p>	
		<p><b>En.2.3.:</b> Emakumeen osasunean eragin negatiboa duten ingurumeneko fenomenoek ezagutza, horien aurreko sentikortasuna eta kontrola sustatzea.</p>	<p>Egindako azterketen kop.</p> <p>Egindako azterketen emaitzak ezagutarazteko ekintzen kop.</p> <p>GFAk zenbat jarduera jarri dituen abian, emakumeen osasunean eragina duten ingurumen-fenomenoak kontrolatzeko.</p> <p>Zabalkunde ekintzetan inplikaturako entitateen bilakaera (kop/%).</p>	<p>Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.</p>	



---

# *Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak*

---

*II. Kapitula*

*Sarrera*

*Begirada  
zabaltzea*

*Indarkeria  
matxistaren  
adierazpen  
zuzenen aurkako  
borrokan*

*Indarkeria  
matxistaren  
zeharkako  
adierazpenen  
aurkako borrokan  
–egiturazkoak eta  
kulturalak–.*

*Helburuen  
matrizea*



## 1. Sarrera

Emakumeen aurkako indarkeria matxista **GFaren kezka nagusietako bat da**. Azken hamarraldian gizartean sortu den alarma handia eta agenda politiko eta sozialean sartzeko lorpena egin den lanaren emaitza dira neurri handian, izan ere 70eko urteez geroztik mugimendu feministak indarkeria matxistaren kausak, adierazpenak eta ondorioak<sup>59</sup> aztertu eta indarkeria hori pairatzen duten emakumeak **indarkeria horretatik askatzeko helburuz esku hartzeko ereduak** proposatu ditu. Diktadura frankistan zapalduetako herritarren eskubide nagusiak berreskuratu eta abortuaren despenalizaziorako 9/1985 Lege Organikoa onartu eta gero, indarkeria matxistaren aurkako borroka da, ziur aski, emakumeen erakundeetan mobilizazio handiagoa ahalbidetu duen eta ekimen bateratu gehien eragin dituen ekintza. Aurretiazko lan hori oinarria izan da gaur egun indarkeria hori desagerraraztera bideratuta dauden politika publikoen diseinua egiteko. II. plan honetan, ondare horretaz jakitun, uste osoa dugu indarkeria matxistaren azken kausa emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak hainbat mekanismoren bidez sortzea eta birsortzea besterik ez dela.

“Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak”, hori da erdietsi nahi dugun helmuga. Urruti dagoen helmuga da, baina erakunde publiko guztiek, horretara iristeko betebeharra eta erantzukizuna dute, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, arrazoi hauengatik:

- Jardun-eremu horretan eskumen zuzenak ditu indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko.
- Azken urteetako legegintza-jardueraren ondorioz, euskal erakundeak tresna berriez hornitu dira, eta, hala, erantzukizun berriak sortu eta erakundeen artean koordinatzeko beharra handiagotu da.
- Eta azkenik, egungo ekonomia- eta finantza-krisiaren egoerak pentsarazten du indarkeria matxistaren eraginak ageriagoan jarriko direla, krisiak sortutako bizitza-desorekaren eta ziurgabetasunaren ondorioz tentsioak areagotu eta jokabide matxistak indartu daitezkeen neurrian, era horretan indarkeriaren forma gogorragoak sortuz. Gainera, ekonomiaren ezegonkortasunak areago zaildu dezake emakume batzuek indarkeriarik gabeko bizitza egitera igarotzea, eta, hala, nahitaezko bizikidetzako egoeretan mantentzera behartuta egongo dira, horrek segurtasun fisiko eta psikikoa izateko dituen arriskuak barne<sup>60</sup>.

Eraldaketaarako ildo honen helburu guztiak indarkeria moten sailkapen batean oinarrituta antolatu dira; feminismoarekin batera gai hau sakonen aztertu duen gizarte-

---

59 Plan honetan, “indarkeria matxista” terminoa erabiltzea erabaki dugu, termino horrek azaltzen duelako matxismoak barnean duen botere-desberdintasunaren harremana eta, aldi berean, ahalbidetzen digulako kontuan hartzea indarkeria matxista emakumeek batez ere jasaten badute ere, sistema heteropatriarkalak gizon eta emakumeei ezartzen dizkien eredu hegemonikoak emakumeek bezala hausten dituzten beste pertsona batzuek ere jasan dezaketela. Indarkeria horrek zigortu egiten ditu ereduak finkatzen dituen aginduak betetzen ez dituzten pertsona guztiak. Ildo horretan, lesbiana, gay, transexual eta bisexualak ere indarkeria matxistaren “xede” bilaka daitezke, egungo eredu heteronormatibotik irteten diren neurrian.

60 Botere Judizialaren 2011ko Etxeko eta Genero Indarkeriari buruzko urteko txostenean, hau azpimarratzen da: “arrazoi ekonomikoak direla eta egindako tratu txarren kasuak ugaritu egin dira, eta biktimek eraso horiek jasaten dituzten denbora luzatzen da, emakumeak salatu eta gero eurentzat eta seme-alabentzat laguntzarik ez aurkitzeko beldur direlako”. Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokia.

mugimendua, bakezaletasuna, izan da, hasiera batean, sailkapen hori egin duena. Bakearen inguruko ikerketa 60ko hamarkadan zehazten hasi zen esparrua feminismoaren azterketaz elikatu eta aberastu da. Azterketa horren bidez, hain zuzen ere, indarkeriaren "hiruki zoroa" izenda genezakeena deskribatzen da. Edozein indarkeria mota deskribatzeko erabili den eta indarkeria matxistaren kasuan ere erabilgarri dugun eskema da, modu grafikoan indarkeria horren konplexutasuna ulertzen laguntzen duen neurrian; eskemak, era berean, indarkeria matxista gerta dadin zerikusia duten esparruak ere ulertzen laguntzen ditu.



Hirukiaren goiko erpinean **indarkeria zuzena** dugu, errazen antzematen den indarkeria mota. Nahita egindako ekintza da, pertsona batek (egilea) beste bati (jasotzailea) eginda, eta forma desberdinak ditu (fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa). Kanpoko ageriko eragin (lesioak, adibidez) adina barneko eragin (autoestimua galtzea, kalte psikologiko sakonak, etab.) ditu. Muturreko adierazpenetan, jasotzailearen heriotza ekar dezake (erasotzaileak erailda, bere buruaz beste eginik, gaixotasunak larriagotzeagatik, etab.). Indarkeria matxistari dagokionez, bikotekideek edo bikotekide ohiek eraildako emakumeei buruzko estatistikak badaude ere, indarkeria zuzenaren beste forma batzuei buruzko datu gutxiago daude (indarkeria matxista pairatzen ari diren eta bere buruaz beste egitea erabakitzen duten emakumeak, edo sexu-erasoak jasan dituztenak...), eta, beraz, indarkeriaren formarik agerikoena izan arren, oso zaila da oraindik ere dituen eraginen zabaltasuna baloratzea.

Hiruki zoroaren oinarria bi zeharkako indarkeria motak osatuta dago; horietan, ez dago banakako egile eta jasotzailearik. Lehenengoa **egiturazko indarkeria** da, bidegabetasunean eta desberdintasunean islatuta dagoena, gizarte-egituraren beraren ondorioz.<sup>61</sup> Ildo horretan, ekonomia-ezegonkortasuna eta pobrezia feminizazioa, oro har, eragozpen nagusietakoak dira emakume asko pairatzen ari diren indarkeria matxistaren egoeratik irten ahal izateko, eta, hala, egiturazko indarkeria argia da.

Horrez gain, egiturazko indarkeriatzat har daiteke arreta emateko eta esku hartzeko prozesuetan, zerbitzu publikoen funtzionamenduan eta haien arteko koordinazioan dauden "akatsek" emakumeengan duten eragina. Bestela esanda, lan-egituren funtzionamendu kaskarrak edo eraginkortasunik ezak eragin dezakete emakume batzuek une jakin batean dituzten zailtasun zehatzek biktimazio bikoitza edo anizkuna sortzea.

61 Johan Galtung (2003): Paz por medios pacíficos. 20. or. Argitaratzailea: Gernika Gogoratzuz, Gernika-Lumo.



Bigarrena **indarkeria kulturala** edo **indarkeria sinbolikoa** da, hau da, plan honetan aztertu dugun hirugarren indarkeria mota. Indarkeria mota hau indarkeria zuzena eta egiturazko indarkeria egotea justifikatu, zilegitu eta ahalbidetzen duena da, indarkeria horiek, jakitun izanda edo ohartu gabe, bidezko, beharrezko edo ezinbestekotzat jotzen diren neurrian<sup>62</sup>. Hau da, indarkeriak funtziona dezan, beharrezkoa da indarkeria hori zuritzen duen gizarte bat. Ezin da kultura bat oso-osorik bortitz bezala sailkatu, baina kultura guztiak, neurri handiagoan edo txikiagoan, indarkeria kultural edo sinbolikoaren ondorio diren eta gizartekotzeko bektore desberdinen bidez –erlijioa, hizkuntza, komunikabideak, familia, hezkuntza, etab.– bideratzen diren elementuez osaturik daude.

Azterketa horretatik abiatuta, patriarkatua deskribatzen da indarkeriaren kulturaren euskarri moduan<sup>63</sup>: “Patriarkatuak indarkeria zuzena, egiturazkoa eta kulturala nahasten ditu hiruki zoro batean. Bakoitza gainerakoak indartzen ditu, hirukiaren edozein angelutan hasten diren zikloetan. Indarkeria zuzenak –bortxaketa, adibidez– kikildu eta zapaldu egiten du; egiturazko indarkeriak instituzionalizatu egiten du, eta indarkeria kulturalak harreman hori barneratzen du, batez ere biktimen artean, emakumeen artean, eta egiturak luze irautea eragiten du”.<sup>64</sup>

Indarkeria matxistaren hiruki zoro hori esku hartzeko esparruak definitzeko eta ildo honetan zehaztu diren helburuak egituratzeko oinarria izan da.

Lehendabizikoan, “**Begirada zabaltzea**” izenburukoan, indarkeria matxistaren alorrean politika publikoek heldu beharreko eta heldu gabe dauden erronkei buruz hausnartu eta horiek aztertzea proposatzen dugu, horretarako kontzeptualizazioa zabaldua; eta, gero, horretan oinarrituta, politikak berriz definitzea, eta baita politika horiek burutzeko dagoen antolaketa-eredua ere.

Lerro jarraitu bat dago esku hartzeko beste bi esparrurekin:

- **Indarkeria matxistaren adierazpen zuzenen** aurkako borroka.
- **Indarkeria matxistaren zeharkako adierazpenen aurkako borroka –egiturazkoak eta kulturalak–.**

Egitura hori beste banaketa klasikoago baten ordezkoa da, hau da, alde batetik sentikortzeko eta prebenitzeko politiken eta bestaldetik arreta eman eta esku hartzeko politiken arteko banaketaren ordezkoa. Hauek dira, bereziki, horretarako arrazoiak:

- Berdintasuneko erakundeetatik gidatutako esparruen eta gizarte-politikako alor edo departamentuetatik gidatutakoen artean (sentikortzea eta prebenitzea, eta arreta eta esku-hartzea, hurrenez hurren) eraketa-bereizketa tradizionalari ez jarraitzeko desioa, uste dugulako bereizketa hori oso mugatuta dagoela indarkeria matxistaren aurka ikuspegi konplexu eta global batetik borrokatzeko.
- Egiturazko indarkeriari erakunde publikoen erantzukizunaren ikuspegitik –kasu honetan GFA– heltzeko garrantzia nabarmentzeko desioa, biktimazio aniztunaren fenomenoak saihesteko.

---

62 Johan Galtung, *ibid.*, 261. or.

63 Olga Arisó Sinués eta Rafael M. Mérida Jiménez, 2010: Los géneros de la violencia. Una reflexión queer sobre la “violencia de género”, 42. or. Arg. Egales SL, Barcelona-Madrid.

64 Johan Galtung, *ibid.*, 70. or.

- Azkenik, indarkeria kultural eta sinbolikoaren aurkako borrokak foru-politiketan izan behar duen garrantzia argitzeko desioa; eta, halaber, indarkeria matxistatzat hartzen ez diren fenomeno soziokultural eta sinbolikoak halakotzat hartzeko borondatea, indarkeria matxista egiteari zilegitasun soziala ematen diotelako.

## 2. Begirada zabaltzea

“Begirada zabaltze” horretatik, eztabaidatu eta aztertzeke espazioak sortzeko beharra dagoela adierazten da, inguruneari buruzko ezagutza eskaini eta esperientzia zein estrategien ebaluazioak ikuspegi feministatik trukatzeko beharra, foru-politiken bidez egiten den esku-hartzearekin bat egin eta esku-hartze horiek hobetu ditzaten:

**V.1. helburu orokorra:** Pentsamendu feministaren joera guztien ekarpenak gehitzea indarkeria matxistaren kontrako politikak antolatzeke orduan, eta indarkeria horren oinarriari buruzko hausnarketa sakona sustatzea.

Helburu orokor hau lortzeko, indarkeria matxista berriz kontzeptualizatu behar dugu, eta hortik abiatuta, ikuspegi kritikoaz begiratu indarkeria horren aurkako politika publikoei, GFaren barruan berriz formula daitezen erraztuz.

**V.1.1. helburu espezifiko:** Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren kausa, adierazpen eta estrategien azterketa feminista sustatzea, gorputza era askotako indarkeria- eta bazterketa-ardatzek zeharkatutako unitatetzat hartuta.

Indarkeria matxista berriz kontzeptualizatzeko eta horri buruzko beste iruditeria eta narratiba batzuk eraikitzeke ahalegina egitean, alderdi hauek kontuan hartu behar ditugu:

### a) Indarkeria guztiez hitz egitea

Lehen aurkeztutako hiruki-formako eskeman argi eta garbi nabarmentzen da indarkeria zuzenaren ondorio agerikoenei soilik heltzen bazaie, izozmendiaren tontorrean soilik egingo dugula lana, eta indarkeria hori sortzen duten azken kausek ikusezin izaten jarraituko dutela. Horren ondorioz, tratu txarrak eta horien ondorio fisikoak, adibidez, emakumeen aurka dagoen indarkeria guztia edo ia guztia dela uste izaten da. Hau da, zatia guztizat hartu eta biak nahasten dira, jakinda, indarkeria matxista sortu eta birsortzea ahalbidetzen duten egiturazko baldintzak zein baldintza sinboliko eta soziokulturalak alde batera utzita. Eta jakinda egiten da, zeren indarkeria zuzen horren inguruan soilik lan egiten den neurrian, ereduari egiturazko berrikuntza egiteke eskakizuna ahuldu eta gizarte zein politikaren arloko multzo handi batek onartzea ahalbidetzen baita. Indarkeria horretan esku hartzea eta elkarbizitza antolatzeke egungo eredu, eta baita feminitate eta maskulinitatearen arauzko eraikuntza ere, batera egotea ahalbidetzen du zalantzan jarri gabe. Eta alde batera uzten da indarkeria matxista osatzen duten elementuak direla.

### b) Behartutako gorputz guztiez hitz egitea

Interesgarria da subjektu politiko feministaren eta indarkeriari buruzko ikusmoldeen inguruko eztabaiden arteko lotura zehaztea. Subjektu politiko feminista orokorraren

ideia hausteak ateak irekitzen ditu indarrean dauden indarkeria mota guztiak ulertu eta gehiengoaren ereduaren barruan "sartzen" ez diren pertsonen bizipenak eta beharrak –jatorria dela eta, dibertsitate funtzionala dela eta, bere burua gizona/emakumea bikotearen barruan onartzen ez dutelako...– kontuan hartzeko.

Azterketa-esparru hori kontuan izanda, indarkeria matxistak edozein emakumerengan izan dezake eragina, baina ez du eragin bera emakume guztiengan<sup>65</sup>. Eta, halaber, harreman heteropatriarkalen esparruan egiten den indarkeriaz harago joateko beharra dagoela ikusten dugu. Queer eta transfeminista mugimenduek irakurketa adierazgarri bat egiten dute eredu heteropatriarkalaren mugetan mugitzen diren gorputzei indarkeria atxikitzeke mekanismoei buruz. Homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia ere gizarte heterosexistaren ondorio zuzenak dira, feminitate- eta maskulinitate-eredu hegemonikoen arabera ez diren pertsona guztiak zigortzen baititu.

### **c) Indarkeria egiten den espazio guztiez hitz egitea**

Indarkeria matxistaren adierazpen gogorrenak espazio pribatuan gertatzen badira ere, ez ditugu ahaztu behar espazio publikoan egiten direnak: "intentsitate txikiko" indarkeria izendatzen dena, begirada edo adierazpen iraingarrien bidez aditzera ematen dena, adibidez; edo beldurraren sozializazioa, emakumeen kontrol-elementu bezala erabiltzen dena, leku eta ordu jakin batzuetan bakarrik ibiltzeko askatasuna murriztearren. Ildo horretan, indarkeria da, halaber, izaera sinboliko eta kulturalakoa, emakumeak jai-erritu eta aisialdi-espazio batzuetatik baztertzea.

### **d) Indarkeria egiten dutenei buruz hitz egitea**

Begirada zabaltzeak ezinbestez bultzatzen gaitu indarkeria jasaten duten subjektuak aztertzerara, baina baita indarkeria egiten duten subjektuak ere, erantzukizunaren ikuspegitik: "tratu txarren emaleez" hitz egiteak –hori nortasunaren ezaugarri bat balitz bezala– arrisku bat du, alegia, indarkeria batek nahi duelako egiten dela ezkutatzea. Beraz, ez da erasotzailearen nortasunaren ezaugarri bat, ez dauka zerikusirik "bortitza izatearekin", aitzitik, jokabide-aukera bat erakusten du, "kalte egin" nahi izatea. Erasotzailearen erantzukizuna argi eta garbi nabarmentzen denean, esku-hartzeak proposatzeko ikuspegiak are eraldatzaileagoak izan daitezke, "berez" bortitzak diren jokabideak batez ere aldatzeko ahalegina egiten denean baino.

GFAk arreta psikologikoa emateko programa bat du 1993. urteaz geroztik, indarkeria matxista egiten duten gizonei zuzenduta. Zerbitzu hori beren borondatez eskatzen duten gizonei zuzenduta dago. Programa mota hori 80ko hamarkadan sortu zen Estatu Batuetan eta Kanadan, jokabide erasokorra kontrolatzeko teknikez harago joatea eskatzen zuten ikuspegi feministek bultzatuta, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarrian dauden balio sexisten berrazterketa sakona egiteko. Hala ere, programa horiek erakundeetan sartzeak berekin izan du, gehienetan, edukia eman zieten ikusmolde feministak galtzea eta, horrekin batera, indarkeria matxistaren oinarriak beti kontuan hartzen ez dituzten ohizko psikoterapia-ereduen barruan

---

<sup>65</sup> Europako Erkidegotik kanpoko den, legez kanpoko administrazio-egoeran dagoen eta enplegu-emaleak egindako sexu-erasoa jasan duen behin-behineko zaintzaile batek ez ditu ezinbestez bertako emakume batek dituen maitasun-sareak eta baliabide ekonomikoak eskuratzeko modua. Mugikortasunik ez duen edo bestelako premia bereziak dituen emakume batek beste batzuek baino zailtasun praktiko eta ekonomiko gehiago aurki ditzake indarkeriaz tratatzen duen gizonarekin bizikidetzeta hausteko.

sartzea. GFAk edozein esku-hartze egiten duenean, beraz, dauden programak berraztertu eta estrategiak bilatu beharko ditu, esku-hartzeek duten eraldatzeko ahalmena ziurtatzeko.

### e) Indarkeriaren aurkako erresistentzia mota askotarikoez hitz egitea

Azkenik, indarkeria matxistaren birkontzeptualizazioak indarkeriaren kausak eta adierazpenak barnean hartu ez ezik, gorputzen bidez, gorputzei beste esanahi bat emanda, eta jardueren bidez, indarkeria horri aurka egiteko beste modu batzuk aztertzea eta horiei balioa ematea ere eskatzen du.

**V.1.2. helburu espezifikoak:** Erakundeek indarkeria matxistaren aurkako borroka tratatzeko moduari buruzko azterketa feministaren antolaketa bermatzea.

Orain arte, oro har, indarkeria matxistaren aurka borrokatzera bideratutako politika publikoak esku hartzeko eredu jakin baten arabera izan dira; eredu horretan, Administrazio Publikoan bereizita zeuden, antolaketa aldetik, prebentzio-jarduerak – berdintasunaren aldeko politiketatik bultzatu ohi direnak– eta arreta emateko eta esku hartzeko jarduerak –gizarte politikaren egituretatik gidatuak–.

Indarkeriaren alorrean erakundeek burututako jardueri buruzko azterketari esker, hauteman ahal izan dugu indarkeria matxistaren kontzeptualizazio partzialak nahiz prebentziotik bereizita dagoen eta indarkeria matxistaren kausa sakonekin loturarik ez duen arreta emateko eta esku hartzeko ereduak (genero-desberdintasunen emaitza) azaldu egiten dutela, nolabait, boterearen arazoa ezkutatuta egotea indarkeria horren ondorioei heltzeko erabilitako ikuspegi gehienetan. Ikuspegi horretatik, II. Planean adierazten dugu politika publikoek hainbat arazo dituztela, izan ere:

- Emakumeen **biktima-izaera** gehiegi nabarmentzen da laguntza ematen duten zerbitzu publikoetan egiten duten ibilbide osoan. Sinbolikoki, emakumez biktima bezala hitz egitean (lege, administrazio, gizartearen aldetik) argi geratzen da funtsean indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak direla, beren bizitzaren jabe berriro izan nahi duten eta indarkeriaren aurka altxatu diren emakumeak direla, ibilbide horretan bizi ditzaketen joan-etorriko prozesuak edozein direla ere.

Biktimaren papera naturalizatzek beste ondorio bat du: arreta-sistematik kanpo gera daitezke taldearen iruditerian eraikitako biktima motaren ereduaren arabera ez diren pertsonak.

- Arreta-mekanismoak diseinatu dira, batez ere, banan-banako arreta ematen duen eta emakumeak biktima bezala tratatuak diren ingurune batean; arreta-ingurune hori **asistentzia-izaerakoa da, eta emakumeen jabekuntza eskas bultzatzeaz gain, ez da ia eraldatzailea.**

Lehentasuna eman zaie salaketak jartzeari, eta guztiz ezinbestekoak diren baina askotan emakume salatzailentzat **desjabekuntza** bultzatzen duten erantzun **juridiko eta polizialei**. Horrez gain, oro har, ez da gizabanakoei eta taldeei zuzendutako espaziorik antolatuta, salaketa jarri aurrekorik, emakumeek beren erasotzailearekin eten eta horri aurre egitea, beren gaitasunei aurpegia

eman eta epai- eta zigor-prozesuari egoera pertsonal hobereanean aurre egitea ahalbidetzeko.

- Batik bat **bikote heterosexualaren baitan egiten den indarkeriari** (legerian “genero-indarkeria” bezala tipifikatua) heltzeko pentsatutako zerbitzuak eta baliabideak antolatu dira, bestelako indarkeria-egoeretan arreta eman eta esku hartzearen kalterako<sup>66</sup>.

Azkern batean, helburu espezifiko honen bidez, adierazitako arazoetan sakontzen duten ekimen eta ikerketak babestu nahi ditugu eta, era horretan, gaur egun erakundeen esku-hartzeetan dauden arazoei erantzun egokiak ematen lagundu.

---

66 Talde-iruditerian, “biktima” bat, funtsean, “emakume on” bat da, zorte txarra izan duena. Eta, beraz, baliteke “emakume txarrei” arreta eta baliabide publikoak eskaini nahi ez izatea -“prostitutei”, “drogazaleei”, “era probokatzailean janzten” direnei, transexualei, eta abarri-. Sexu erasoak, nola bizitzen diren, nola ulertzen diren eta nolako arreta ematen zaien izenburuko azterlanean, azpimarratu egiten da, adibidez, EAEn askoz ere gehiago ahalegindu dela genero-indarkeria ikusgarri bihurtzen eta, beraz, arreta ematen duten zerbitzu gehienak delitu horrekin identifikatzen direla. Horren ondorioz, bikotetik kanpoko sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeek ez dituzte zerbitzu horiek ikusten beren eskura dauden zerbitzu bezala, eta ez dira haietara hurbiltzen. Sortzen S.L.: Sexu erasoak, nola bizitzen diren, nola ulertzen diren, nolako arreta ematen zaien. Eusko Jaurlaritza, 2011.

### 3. Indarkeria matxistaren adierazpen zuzenen aurkako borrokan

Esku hartzeko esparru hau bi helburu orokorren inguruan egituratu da. Lehenengoa:

**V.2. helburu orokorra:** Indarkeria matxistaren alorrean, osoko arreta ematen duten foru-zerbitzu eta -baliabideen eraginkortasuna hobetzea, aurre egin behar dioten emakumeen banakako eta taldeko jabekuntzaren ikuspegitik.

Horretarako, honakoa proposatzen dugu:

**V.2.1. helburu espezifikoak:** Indarkeria matxistako egoerei aurre egin behar dioten emakumeei zuzendutako osoko arretako eta esku hartzeko foru-zerbitzuentzat egindako plangintza-, segimendu- eta etengabeko ebaluazio-mekanismo egonkorrak hobetzea.

**V.2.2. helburu espezifikoak:** Dauden zerbitzuen estaldura hobetzea, baliabideak berrantolatzea edo sortzea proposatuta, beharrezkoa denean.

Emakume askok, indarkeria-egoeretatik irteteko, “joan-etorriko” prozesuak bizi behar dituzte, euren bizitzetan gertatzen diren aldaketetara egokitzen diren bitartean. Igarotze hori laburtzeko, funtsezkoa da jabekuntza emakumeen bizitzan hainbat alderdi barnean hartzen dituen banakako zein taldeko prozesu bezala sustatzen duten neurriak antolatzea:

- Arlo subjektiboan hasi behar da, eta “emakume izateaz” ditugun ikusmoldeak eta usteak aldatzea sustatu behar da (jabekuntza subjektibo eta kulturala).
- Emakumeak autonomoak izatea bultzatu behar da, beren gorputzei buruz erabakitzeke eta beren sexualitatea eta ugaltzeko gaitasuna kontrolatzeko, eta baita beren gorputzak arriskurik eta indarkeriarik gabe bizitzeko ere (jabekuntza fisikoa).
- Emakumeek bizi nahi duten bizitza mota aukeratzea ahalbidetzen dieten baliabide ekonomikoak errazago eskuratu eta kontrolatzea erraztu behar da (jabekuntza ekonomikoa).
- Banakako aldaketa-prozesuekin batera, “gu emakumeok” bat eraiki behar da, talde-nortasun bat (antolaketa-jabekuntza eta jabekuntza soziala).
- Azkenik, emakumeak taldeka mobilizatzea ahalbidetu behar da, mugak jartzen dizkieten eta mendekotasun-egoera betikitzen duten harreman, egitura eta erakundeak aldatzeko (jabekuntza politikoa).

Proposatutako helburua lortzeko, beharrezkoa da jabekuntzaren ikuspegi hau dauden zerbitzu eta baliabideen azterketa zehatzean ezartzea eta, egokia bada, berriz definitzea ikuspegi horrez baliatuta, era honetan: estaldura zabalduz, berrantolaketa proposatuz edo, beharrezkoa bada, baliabide berriak sortzeko beharra proposatuz.

**V.2.3. helburu espezifikoa:** Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeak antzemateko eta horiei arreta emateko lanbide-gaitasunak hobetzea.

GFAko langileei indarkeria matxistaren alorrean prestakuntza hobea ematea ezinbesteko baldintza da indarkeria horren kausak alderdi guztietatik ulertzeko eta jabekuntzaren ikuspegia ezartzeko, indarkeria horren aurka borrokatzeko foru-politikek eskaintzen dituzten arretaren eta esku-hartzearen printzipio bezala.

**V.2.4. helburu espezifikoa:** Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeentzat talde-jabekuntzako prozesuak indartzea.

Helburu honen bidez, indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeen jabekuntza indartzen laguntzen duten neurriak abian jartzea bultzatu nahi dugu.

Ikuspegi horretatik, emakumeek izandako indarkeria-esperientziak elkartasunean eta indarkeriari aurre egiteko erabiltzen dituzten estrategiei balioa emanda sozializatzeko espazioak eratzea erraztu behar da.

Ildo horretan, proposatzen dugu eskainitako banakako arretari gehitzea talde-lana eta jabekuntzako talde-prozesuak burutzeko mekanismoak, foru-zerbitzuetatik bultzatuta. Eta, aldi berean, indarkeria matxistako egoera jakinetan egon diren emakumeen elkarte edo talde formalizatu gabekoen sorkuntza eta lana babestu behar dira. Berdinen taldeak izango dira, eta bertan, emakumeek harreman-molde berriak eraikitzeaz gain, ulertu ahal izango dute euren bizipena ez dela zorte txarraren edo berez dituzten gabezien emaitza, gizarte-arazo baten ondorioa baizik. Prozesu horiek emakumeen jabekuntza sozial eta politikoa erraztuko dute, emakume horiek, azken buruan, funtsezkoak izan baitaitezke erakunde publikoekiko solasaldietan, indarkeria matxistaren alorreko politika publikoak hobetzeko orduan.

Ikuspegi horretatik, halaber, beharrezko ikusten dugu **elkarte-sare eta mugimendu feministetan antolatutako jabekuntza-espazioak babestea**, horietan, indarkeria gai nagusia ez izan arren, indarkeriari lotutako egoerak, emozioak eta zailtasunak partekatu ohi dira eta. Espazio horietan, askotan ezegonkortasun-egoeran dauden emakumeak (erkidegotik kanpoko emakume migratzaileak, presoak edo preso ohiak, etab.) goiz detektatzeko eta emakume horiei laguntzeko lan garrantzitsua egiten da.

**V.3. helburu orokorra:** Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen ardurapean neurri handiagoan edo txikiagoan dauden senideen autonomia-maila handitzea.

Helburu orokor hau bi helburu espezifikoaren inguruan egituratu da:

**V.3.1. helburu espezifikoa:** Indarkeria matxistako egoerei aurre egiten dioten emakumeen ardurapean dauden seme-alaba eta beste pertsona batzuei zuzendutako banakako eta taldeko indartze-prozesuak bermatzea.



**V.3.2. helburu espezifikoa:** Indarkeria matxistako egoera batetik irteten ari den emakume bat hornitzaile nagusia den etxeetan mendekotasuna duten pertsonen komunitateko laguntza-zerbitzu publikoak eskuratu ahal izango dituztela bermatzea.

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei zuzendutako arreta ematean, kontuan izan behar dira emakume bakoitzaren egoera berezian elkartzen diren emakumezkoen eginkizun guztiak. Ildo horretan, emakumeek burutzen duten zaintzaile-eginkizunak garrantzi berezia hartzen du indarkeria-egoerei aurre egiteko orduan: zenbaitetan, seme-alaben onerako, bizimodua aldatzeko erabakia azkartzen du; beste batzuetan, aldiz, zainketa egiteko erantzukizunak erabakia atzeratzera bultzatzen du, emakumeek uste dutelako ez daudela urratsa egin eta, aldi berean, beren ardurapean dauden pertsonen ongizatea bermatzeko egokiak diren baldintza ekonomiko, praktiko edo emozionalak.

Horiek horrela, emakumeen ardurapeko senideez hitz egiteko, beharrezkoa da, baita ere, indarkeria matxistako egoerak ikusten eta batzuetan jasan ere egiten dituzten pertsonak eta batik bat seme-alabak oso kontuan hartzea.

URRATS<sup>67</sup> GFaren harrera-zentroko estatistiketan ikus daitekeen bezala, azken 3 urteetan (2010-2012), emakume erabiltzaile gehienak beren ardurapean dauden gero eta pertsona gehiagorekin batera sartu dira zentroan, eta pertsona horiek ia guztiak adingabeak ziren (seme-alabak). Beste alde batetik, 2011n<sup>68</sup>, laguntza psikologikoa eskaintzen duen GFako programaren erabiltzaileen % 75ek seme-alabak zituen, eta kasuen % 25ean baino gehiagotan identifikatu dira ingurune senide edo beste pertsona batzuk ere, indarkeria matxista zuzenean jasan duten edo horren lekuko izan direnak, eta pertsona horiengan erasotzaileak egindako indarkeriaren ondorio txar argiak hauteman dira.

Orain arte adierazitako guztia kontuan harturik, II. Planean aditzera ematen dugu bizikidetzaren gainerako pertsonen arreta emateko mekanismoak indartzeko beharra dagoela, bai pairatzen duten indarkeria etetea erabakitzen duten emakumeei laguntza bermatu ahal izateko, bai indarkeriak familia-ingurune hurbilenean duen eragin zuzena edo zeharkakoa arintzeko.

---

67 Adierazleen segimendua 2009-2011, URRATS, Emakumeen Harrera Zentroa, Gizargi Asistencia SL-ren txostena, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egina.

68 2011ko urteko memoria, GFako Laguntza Psikologikoko Zerbitzua.

#### 4. Indarkeria matxistaren zeharkako adierazpenen aurkako borrokan – egiturazkoak eta kulturalak–.

Indarkeriaren egiturazko adierazpenen aurkako borrokari heltzeko, II. Planaren bidez bi helburu orokor erdietsi nahi ditugu:

**V.4. helburu orokorra:** Erakunde publikoen koordinazio eskasari eta indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeen ezegonkortasun ekonomikoari lotuta dagoen egiturazko indarkeriaren ondorioak murriztea.

**V.4.1. helburu espezifiko:** Indarkeria matxistari heltzeko eginkizuna duten GFAko departamentuen arteko barne-koordinaziorako eta GFaren eta Autonomiako gainerako erakunde zein udal-erakundeen arteko koordinaziorako mekanismoak hobetzea.

Barne-mailan, indarkeria matxistari buruz egiten ari garen azterketaren barruan, plan honetan uste dugu indarkeriaren arloko foru-politikak koordinatzeko, berdintasun-egituren gidaritza onartu behar dela, esku hartzen duten gainerako departamentuekin erantzukizun partekatua printzipioan oinarrituta, eta metatu duten esperientzia eta jakintza onartuta. Ildo horretan, Berdintasuneko Zuzendaritzak eta Gizarte Politikako Departamentuak batera lan egingo dute, indarkeriari jabekuntzaren ikuspegitik aurre egiten dioten emakumeei arreta eman eta haiekin esku hartzeko politikak berraztertu eta, egokia bada, berbideratzeko.

Erakunde arteko mailan, azken urteetan egindako erakunde arteko koordinazio-ahaleginen ondorioz, hainbat espazio sortu eta abian jarri dira, Emakunde, Eusko Jaurlaritzako genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza edo Berdintasuna emakumeen berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea erakundeek gidatuta. GFAk era aktiboan parte hartzen du horietan, eta parte hartzen jarraituko du, erakundeen arteko koordinazioa irizpideak batzeko, zerbitzuak hobetzeko eta indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen biktimazio bikoitza eragin dezaketen elementu disfuntzionalak ezabatzeke funtsezkoa dela uste duen neurrian.

Beste alde batetik, beharrezkotzat jotzen dugu GFaren eta Lurraldeko udalerrien arteko lan-espazioak antolatzea, foru- eta toki-baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko eta udaletan gidatzen diren proiektu edo prozesuei behar bezalako laguntza emateko, Gipuzkoako 13 udalerrri partaide dituen Berdintasunarekin lankidetzan estuan.

**V.4.2. helburu espezifikoa:** Indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeen ezegonkortze ekonomikoari aurrea hartzeko eskura dauden prozesu eta baliabideak indartzea.

Berariazko neurriak aztertzea eta, egokia bada, neurri horiek garatzea proposatzen dugu, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen autonomia ekonomikoa handitzea foru-baliabideen bidez, eta baita emakumeen jabekuntza ekonomikoa bultzatzeko ekimenak bermatuta ere, ahalbidetzeko.

**V.5. helburu orokorra:** Indarkeria matxistaren adierazpen kultural eta sinbolikoen aurrean, gizartearen eta erakundearen arbuioa handitzea.

Helburu orokor hau hiru helburu espezifiko hauen bidez lortu nahi dugu:

**V.5.1. helburu espezifikoa:** Herritarrak, erakundeak eta komunikabideak mobilizatzea, jendaurrean indarkeria matxistari gaitzespena azaldu eta zero tolerantzia duen politika egiteko konpromisoa adierazi dezaten.

Helburu honen bidez, abian jarri nahi ditugu indarkeria matxistaren adierazpen askotarikoak –ikuspegi zabal batetik–, eta, halaber, adierazpen horien jatorri soziala ikusgarri bihurtzeko jarduerak; jarduera horiek gizarte-mobilizazioa ahalbidetuko dute, taldeko arazo bati taldeko irtenbideak eman ahal izateko.

**V.5.2. helburu espezifikoa:** Edertasunaren eta harreman afektiboen eredu heteropatriarkalen berrazterketa kritikoa sustatzea.

Edertasunaren eredu heteropatriarkala eta harreman afektiboen eredia indarkeria matxistari eusten dioten elementu bezala aztertzeak horien dekonstrukzioaren alde lan egitera bultzatzen gaitu ezinbestez.

Komunikabideek, musikaren industriak, bideo-jokoek edo gizarte-sareek, besteak beste, zabaldu dituzten edertasunaren eredu hegemonikoek ideal helezinak ezartzen dituzte, azkenean autonomia eta autoestimua gutxitzen dituztenak, batez ere –baina ez bakarrik– emakume gazteenenak, eta emakumeen gorputzak arautzen eta kontrolatzen dituzten elementu indartsuak eratzen dituzte. Sistema zapaltzaile bat indartzen dute, emakumeen gorputzak gizonen desioaren objektu huts bihurtu eta emakumeen gorputzean eragin suntsigarriak sortzen dituena.<sup>69</sup>

---

69 Ez da nahikoa emakumeenganako kontrolatze horren begi-bistako ondorioak aztertzea. Eraso zuzenik egin gabe emakumeen gorputzean eragina duten indarkeria matxistaren forma askotarikoak interpretatzen jakin behar dugu. Ildo horretan, kirurgia estetikorako berotasunak –osasunarentzat arriskutsua izan arren– edo elikadura-nahasmenduen ondorio suntsigarriek eredu heteropatriarkalaren mekanismoak mudatu eta antzaldatu egiten direla erakusten dute eta, ondorioz, horren aurka erabili behar diren salaketa- eta erresistentzia-formak ere aldatu egin behar dira.

Beste alde batetik, maitasunaren ustezko izaerari buruzko iruditeria partekatu bat sortzea funtsezko tresnetako bat da, baita ere, eredu heteropatriarkala mantentzeko. “Maitasun erromantikoaren” eredu bat da, bikotearen ideala definitzen duena, edo bikotearen barruan itxaropen, eginkizun eta jokabideen banaketa, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinak erreproduzitzen eta zilegitzen dituzten estereotipo eta sinismenetan oinarrituta.

Hala eta guztiz ere, begirada zabala egiteak eskatzen du harreman heteropatriarkalez harago joatea. Hala bada, gorputzei buruzko azterlan feministei jarraituz, indarkeriaren inskripzioa interpreta daiteke nagusitzen diren genero-ereduetara egokitzen diren zein eredu hori hausten duten gorputzetan. Ildo horretan, II. Planean proposatzen dugu indarkeria hori salatzeko eta berori aurre egiteko hainbat modu ikusgarri egin eta babestea.

**V.5.3. helburu espezifikoak:** Aisialdi- eta ospakizun-eredu baztertzailerei erakundeen laguntza kentzea.

Jaiak eta era askotako gizarte-espazioak kultur elementu bihurtzen dira, eta horiek gako batzuk identifikatu eta gizarte-antolaketaren ereduak –jai eta gizarte-espazioak horietan gauzaten dira– interpretatzea errazten dute. Ildo horretan, Lurraldeko jaiak, jaien erritualak eta aisialdi-ereduak funtsezko elementuak dira Gipuzkoako gizarte eratzten duten gizarte- eta ekonomia-balio edo -hierarkiak ordezkatzeko eta zilegi egiteko orduan.

2010ean GFarentzat egindako Gipuzkoako jaien azterketa genero ikuspegitik azterlanean, honakoa adierazten da: “Ikuspegi horretatik, emakumeen parte-hartzea ez da soilik jaiak gizonen baldintza-berdintasun beretan gozatu ahal izatea edo ez, izan ere emakumeek gizarte-espazioan okupatzen duten lekua irudikatu eta legitimatzen duen elementu bilakatzen da. Eta gizarte-eredua legitimatzen duela diogu, zeren erritualizatutako egituraz hornitzen baita, eta egitura horretan parte hartzen dute komunitateak nahiz boterearen hainbat ordezkariak”<sup>70</sup>.

Ikuspegi horretatik, beraz, biribiltasunez jokatzeko beharra ikusten dugu, berdintasunezkoak eta parte-hartzaileak diren aisialdi- eta ospakizun-ereduetarantz ibiltzeko. Izan ere, emakumeak jai edo aisialdi-espazio horietatik baztertzeari indarkeria matxistaren alderdi kultural eta sinbolikoen beste adierazpen bat dela uste dugu, eta, horiek horrela, gainerako indarkeria-formak, zuzenak edo zeharkakoak, zurriz edo onartzen laguntzen dute.

---

70 Gipuzkoako jaien azterketa genero ikuspegitik (2010), Farapi SL enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egina.

## 5. Helburuen matrizea

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK					
Helburua: Indarkeria zuzena eta zeharkakoa (egiturazkoa eta kulturala) egiteko kausei eta horien adierazpenei aurre egitea, indarkeria matxistarik gabeko bizitza eraikitzeko					
ESKU HARTZEKO ESPARRUA	HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	DEPARTAMENTUAK	
				ERANTZULEAK	PARTE HARTZEN DUTENAK
<b>Begirada zabaltzea</b>	V.1.: Pentsamendu feministaren joera guztien ekarpenak gehitzea indarkeria matxistaren inguruko politikak antolatzeko orduan, eta indarkeria horren oinarriei buruzko hausnarketa sakona sustatzea.	V.1.1. Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren kausa, adierazpen eta estrategien azterketa feminista sustatzea, gorputza era askotako indarkeria- eta bazterketa-ardatzek zeharkatutako unitatetzat hartuta.	Hausnartzeko eta aztertzeke antolatutako prozesuen kopurua. Hausnarketa- eta azterketa-prozesuetan landutako edukien tipologia. Parte hartu duten gizarte-mugimenduen kopurua Parte hartu duten gizarte-mugimendu motak Parte hartu duten zerbitzu publikoen kopurua. Abian jarritako zabalkunde ekintzen gehikuntza (kop./%) Prestakuntza ekintzen gehikuntza (kop./%)	Gizarte Politika Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza	Guztiak

			Prestakuntza ekintzetan parte hartzen duten entitateen gehikuntza /kop./%)		
		V.1.2.: Erakundeek indarkeria matxistaren aurkako borroka tratatzeko moduari buruzko azterketa feministaren antolaketa bermatzea.	Hausnartzeko eta aztertzeko antolatutako prozesuen kopurua. Hausnarketa- eta azterketa-prozesuetan landutako edukien tipologia. Planteatutako proposamenen kopurua Prozesuan inplikaturako departamentuen eta erakundeen kopurua	Gizarte Politika Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza	
<b>Indarkeria matxistaren adierazpen zuzenen aurkako borrokan</b>	V.2. Indarkeria matxistaren alorrean, osoko arreta ematen duten foru-zerbitzu eta -baliabideen eraginkortasuna hobetzea, aurre egin behar dioten emakumeen banakako eta taldeko jabeakuntzaren ikuspegitik.	V.2.1. Indarkeria matxistako egoerei aurre egin behar dieten emakumeei zuzendutako osoko arretako eta esku hartzeko foru-zerbitzuentzat egindako plangintza-, segimendu- eta etengabeko ebaluazio-mekanismo egonkorra hobetzea.	Zenbat azterketa egin diren. Abian jarri diren hobekuntza neurrien kopurua Egindako aldaketaren tipologia eta egokitasuna. Abian jarritako hobekuntza neurrien garapenean inplikaturako zerbitzuen bilakaera (kop./%)	Gizarte Politika Diputatu Nagusiaren Alorra: Berdintasun Zuzendaritza	
		V.2.2. Dauden zerbitzuen estaldura hobetzea, baliabideak berrantolatzea edo sortzea proposatuta, beharrezkoa denean.	Indarkeria matxistako egoeran dauden emakumei laguntzeko zerbitzuetan dauden plaza kopuruaren bilakaera Diskriminazio aniztuneko egoeran	Gizarte Politika	

			<p>dauden edo gizarte bazterkeriako arriskuan dauden emakumeei arreta ematen dieten zerbitzuak indartzeko ekintza kop.</p> <p>Indartzeko ekintzen tipologia eta egokitasuna</p>		
		<p><b>V.2.3.:</b> Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeak antzemateko eta horiei arreta emateko lanbide-gaitasunak hobetzea.</p>	<p>GFAko langileentzat zenbat prestakuntza ekintza dauden genero indarkeriari buruz</p> <p>GFAn genero indarkeriari buruzko edukiak dituzten prestakuntza ekintzen kop.</p> <p>Udaletako teknikari eta politikariek trukea egiteko eta prestakuntzarako egindako topaketa-kopurua.</p>	<p>Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa.</p>	<p>Gizarte Politika</p> <p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>
		<p><b>V.2.4.:</b> Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeentzat jabeakuntzako talde-prozesuak indartzea.</p>	<p>Jabeakuntzako talde-prozesuak sustatzeko emandako diru-laguntzen bilakaera (kop./%).</p> <p>Indarkeriaren alorrean lan egiten duten erakundeek zenbat topaketa-espazio antolatu eta esperientzia-truke burutu dituzten, GFAk sustatuta.</p> <p>Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeak gidari dituzten proiektu eta taldeen kopurua, GFAk sustatuta.</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>	<p>Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza</p>

	<b>V.3.:</b> Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen ardurapean neurri handiagoan edo txikiagoan dauden senideen autonomia-maila handitzea.	<b>V.3.1.:</b> Indarkeria matxistako egoerei aurre egiten dieten emakumeen ardurapean dauden seme-alaba eta beste pertsona batzuei zuzendutako banakako eta taldeko indartze-prozesuak bermatzea.	Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen ardurapean dauden pertsonen banakako eta taldeko arreta psikologikoa emateko indartze-neurrien kopurua.  Aipatu neurrien tipologia eta egokitasuna	Gizarte Politika	
		<b>V.3.2.:</b> Indarkeria matxistako egoera batetik irteten ari den emakume bat hornitzaile nagusia den etxeetan mendekotasuna duten pertsonen komunitateko laguntza-zerbitzu publikoak eskuratu ahal izango dituztela bermatzea.	Lurraldean dauden zerbitzuak ezaguarazteko ekintza kop.  Indarkeria matxistako egoeratik irteteko prozesuan dauden emakumeen ardurapean dauden eta mendekotasuna duten pertsonen eskaintako komunitateko zerbitzu publikoen kopuruaren bilakaera.  Laguntza solidarioko eta zerbitzu trukeko ekimen komunitario finantzatuaren kopurua	Gizarte Politika	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza
<b>Indarkeria matxistaren zeharkako adierazpen kulutral nahiz egiturazkoen aurkako borroka</b>	<b>V.4.:</b> Erakunde publikoen koordinazio eskasari eta indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeen ezegonkortasun ekonomikoari lotuta dagoen egiturazko indarkeriaren ondorioak murriztea.	<b>V.4.1.:</b> Indarkeria matxistari heltzeko eginkizuna duten GFako departamentuen arteko barne-koordinaziorako eta GFaren eta Autonomiako gainerako erakunde zein udal-erakundeen arteko koordinaziorako mekanismoak hobetzea.	GFak indarkeria matxistaren inguruko erakunde arteko batzordeetan eta lantaldeetan duen parte-hartzearen bilakaera (kop./%).  Genero indarkeriari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko genero ikuspegia txertatuta duten sistemen kop.  Zenbat jarduketa egin diren, eskualde mailan edo udal mailan,	Gizarte Politika	Diputatu Nagusiaren Alorra:  Berdintasun Zuzendaritza



			<p>prebentzioa, arreta eta esku-hartze zuzena lantzeko, eta tokiko zenbat jarduketa protokolo edo tokiko koordinaziorako mekanismo dauden.</p> <p>Planteatutako hobekuntza proposamenen kopurua</p>		
		<p><b>V.4.2.</b> Indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeen ezegonkortze ekonomikoari aurrea hartzeko eskura dauden prozesu eta baliabideak indartzea.</p>	<p>Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeentzako laguntza ekonomikoetarako sarbidea eta laguntza horien estaldura hobetzeko neurriak planteatzen dituzten laguntza kopuruaren bilakaera.</p> <p>Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeen laneratzea edo autoenplegua laguntzeko ekintza kopuruaren bilakaera</p> <p>Abian jarritako zabalkunde ekintzen gehikuntza</p>	Gizarte Politika	<p>Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa</p> <p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>
	<p><b>V.5.:</b> Indarkeria matxistaren adierazpen kultural eta sinbolikoen aurrean, gizartearen eta erakundeen arbuioa handitzea.</p>	<p><b>V.5.1.:</b> Herritarrak, erakundeak eta komunikabideak mobilizatzea, jendaurrean indarkeria matxistari gaitzespena azaldu eta zero tolerantzia duen politika egiteko konpromisoa adierazi dezaten.</p>	<p>GFArekin koordinatuta indarkeriaren inguruko ekintzak egiten parte hartzen duten udalerrri kopurua</p> <p>GFAk sustatuta, lurraldean indarkeria matxista orokorrean arbuizatzeko zenbat sentikortzeko kanpaina egin diren.</p> <p>Indarkeria matxistaren aurkako edukiak sartzen dituzten</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p>	<p>Kultura, Gazteria eta Kirola</p> <p>Gizarte Politika</p> <p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Komunikazio Zuzendaritza</p>

			<p>komunikabide kopurua</p> <p>Gaiari buruzko sentsibilizazio ekintzak antolatzen dituzten erakunde kopurua</p>		
		<p><b>V.5.2.:</b> Edertasunaren eta harreman afektiboen eredu heteropatriarkalen berrazterketa kritikoa sustatzea.</p>	<p>Indarkeria matxista gorputzetan inskribatzeko moduei buruz egin diren sentsibilizazio ekintza kopuruaren bilakaera</p> <p>Gazteriko foru eta udal langileen gaitasun profesionalak hobetzeko ematen diren prestakuntza ekintza kopuruaren bilakaera</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p> <p>Komunikazio Zuzendaritza</p> <p>Kultura, Gazteria eta Kirola</p>	
		<p><b>V.5.3.:</b> Aisialdi- eta ospakizun-eredu baztertzailerei erakundeen laguntza kentzea.</p>	<p>GFAk lagunduta, zenbat ekimen abian jarri diren aisialdi- eta ospakizun-eredu alternatibo eta ez baztertzaileren inguruan.</p> <p>Ekimen motak eta horien egokitasuna</p> <p>Prozesu erreferentzialei buruz zenbat material prestatu den, aisialdiko eta ospakizuneko espazio sozialak emakumeen berdintasuneko parte-hartzera ireki daitezen.</p>	<p>Diputatu Nagusiaren Alorra:</p> <p>Berdintasun Zuzendaritza</p> <p>Kultura, Gazteria eta Kirola</p>	

# III. ZATIA

## KUDEAKETA EREDUA

*Sarrera*

*Kudeaketa-  
ereduaren  
funtsezko  
alderdiak*

*Eredua ezartzeko  
esparrua*

*Berdintasunerako  
II. Foru Plana  
abian jartzeko  
koordinazioa*

*Gauzatzeko  
plangintza*

*Segimendua eta  
ebaluazioa*



## 1. Sarrera

Kapitulu honetan, GFAko II. Berdintasun Planaren kudeaketa modelo aurkezten da. Hura definituta, helburua da II. Plana berdintasunari buruzko erakunde zereginak abiaraziko dituen gida izatea Planak irauten duen bitartean.

Kudeaketa modeloak erakundearen eta gizartearen ardura partekatua artikulatu nahi du, baita II. Berdintasun Planaren planifikazioa eta jarraipena ere programazio prozesu kolektibo eta homogeneo baten bidez, zeinak praktikan parte hartzea sustatuko baitu eta antolakuntzan, errealitatearen analisi feministan eta foru politiketan genero ikuspegi ezartzean eskumen teknikoak eskuratzea erraztuko baitu.

Proposatzen den kudeaketa ereduan, genero mainstreaming estrategia egoki garatua ahal izango da, eraldaketaren zentzuan, foru erakundeetan. Horretarako, partaidetzaren eta talde lanaren guneak ahalbideratzen dira, jarduketa integratua eta sistematikoa sustatzen dutenak II. Berdintasun Planaren neurriak definitzeko eta zehazteko, eta Foru Aldundiko departamentuek -eta atalek- jakin dezaten zer espero den beraien aldetik.

Bestalde, kudeaketa modelo honek ez du zehazten zein lan modelo artikulatu behar den foru erakundearen eta Berdintasuneko Foru Kontseiluaren artean –GFaren eta mugimendu feministaren eta emakumeen elkartearen arteko elkarrizketa gunea den aldetik–, hartara berdintasun foru politiken diseinuan, planifikazioan, gauzatze aldiaren edota jarraipenean sortzen diren proposamenak integratzeko, ez baita artean sortu. Lan modelo hori sortu eta kudeaketa modelo honetan sartuta dagoenean ezarri behar da.

Hona hemen kudeaketa-eredua definitzeko eta Gipuzkoako Berdintasunerako II. Plana modurik hoberenean ezarriko dela bermatzeko kontuan hartu diren elementuak:

- Abiagunea de esku hartzeko ingurunea.
- Esku hartuko duten eragileak, eta eragile horiek zer-nolako egitekoa izango duten Berdintasunerako Planaren garapenean, eta nola egingo diren erantzule.
- Planaren plangintza, segimendua eta ebaluazioa egiteko prozesua.

Jarraian, elementu horietako bakoitza garatuko dugu.

## 2. Kudeaketa-ereduaren funtsezko alderdiak

### 2.1. Eredua ezartzeko esparrua eta faseak

Ezartzeko eta segimendua egiteko estrategiaren definizioa egin aurretik, beharrezkoa da hausnarketa laburra egitea metodologiaren arloko alderdi batzuei buruz, jarraian deskribatuko dugun kudeaketa- eta ezarpen-ereduaren osagarri direlako.

Lehenik eta behin, esku hartzeko ingurunearen giltzarri batzuk gogora ekarriko ditugu, hala nola:

- Erakundeetan eta gizarte-dinamiketan genero-desberdintasunen oinarri diren egiturazko alderdiak kontuan hartzen dituzten **berrelikadura-prozesu etengabeak** sortzea –plangintza-prozesuak, epe ertain eta luzera, eta etengabeko segimendua–.
- **Estrategia aktiboak-prebentziokoak** abian jartzea, desberdintasunen kausak desagerrarazten laguntzeko, ikuspegi *pasibo-zuzentzaileak* gaindituta, horiek bideratuago baitaude genero-desberdintasunek sortzen dituzten eragin negatiboak konpentsatzera.
- **Hausnarketa partekatua eta talde-lana**, antolaketa osoa barnean hartuta, planaren agiri teknikoaren definizioa egiten den unetik jardueren plangintza eta gauzatze koordinatua burutu arte. Barnean hartze hori funtsezkoa da erantzukizunen esparruaren zabalkuntzan, zeharkakotasuna finkatzeko orduan.
- **Osagarriak diren bi lan motari ekitea**: Departamentu guztiek partekatzen duten lan bat, genero-ikuspegia administrazio-prozeduretan sartzeko; eta lan espezifikoa bat, arlokako politikak eraldatzeko prozesuak abian jartzeko, zeharkakotasunaren ikuspegi duala ezarrita horrela.
- **Biziera ona** (edo pertsonen bizitzak zaintzeko lana ekonomia- eta gizarte-antolaketaren erdian kokatzea) **eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna**, antolaketaren inguruko politikak eta kultura eraldatzeko elementu bezala, Aldundian garatzen diren politiken barruan gai horietan gertatzen diren aurrerapen zehatzen arabera neurtuta.

Bigarrenez, kudeaketa-eredua ezartzeko bereizi behar diren faseak azalduko ditugu:


- **Aurretiatzko fasea**: fase honetan, geroago zeharkakotasunaren estrategia garatzeko oinarrizkoak izango diren baldintzak –borondate politiko, baliabide pertsonal eta ekonomikoak dagokienez– ziurtatu nahi dira. Fase hau bereziki garrantzitsua eta beharrezkoa da berdintasun printzipioaren zeharkakotasuna ezartzeko prozesuetan, antolaketaren eta oro har politika publikoen artean genero-berdintasunaren garrantzia antzemateko oraindik dauden erresistentziak eta zailtasuna kontuan hartuta. Oztopo horiek onartu eta begietan eduki behar dira Berdintasunerako Plana ezartzeko ziklo osoan, eta, prozesuaren hasieratik bertatik, zailtasun horiek eta beste batzuek Planaren funtzionamendu egokia ez galarazteko baldintza egokiak sortu behar dira.
- **Abiagunearen diagnostika edo azterketa egiten den fasea**: berez prozesua denaren hasiera da. Fase honetan, departamentuetan berdintasunari eta II. Planean proposatutako eraldaketa-ildoekin zerikusia duten gai eta edukiei dagokienez dagoen egoeraren irudi garbia lortzen da. Azterketa horrek ahalbidetuko digu lehentasunak edo jarduerak identifikatzea, ezarritako helburuak erdiesteko. Lehentasun horiek abiagune dira *urteko lan-programa* diseinatzeko.

Esku hartzeko  
markoaren  
gakoak

Kudeaketa  
ereduaren  
aplikazio  
faseak

- **Urteko diseinu edo programazioa egiten den fasea:** garatu behar diren ekintzak definituko dira; departamentu bakoitzak urtero har dezake horiek garatzeko konpromisoa, II. Planean zehaztutako estrategian adierazitako berdintasun-helburuak lortu ahal izateko, eta, hala, eragin eta erantzukizun handienez parte hartu behar duten zerbitzu eta arloak, eskura dauden baliabideak, eta abar identifikatu behar dira.
- **Ezarpn, segimendua eta ebaluazioa egiteko fasea:** funtsezko momentua da kudeaketa-prozesuan, Berdintasunerako Plana abian jarri eta garatzeko orduan erakusten den zorrotasuna delako berdintasuna eta genero-zeharkakotasuna errealitate bihurtzea ahalbidetzen duena, politika publikoen eta antolaketaren kudeaketa egunez egun egitean. Plana behar bezala gauzatuko dela bermatzeko, beharrezkoa da ezartzeko estrategia osatzen duten elementu guztien funtzionamendu ona ziurtatzea: berdintasun-organo sendo bat eduki behar da, departamentuetan egiten den lanari buruzko aholkua emateko, lanean laguntzeko eta lanaren segimendua egiteko gaitasuna duena; antolaketaren barruan, prestakuntza duten eta parte hartzen duten pertsonak egon behar dira, prozesuan funtzio jakin batzuk izango dituztenak; aldi-aldi, jorratu behar denaren plangintza egin eta segimendu egokia egiteko sistema bat abian jarri behar da, jardueren betetze-mailari buruzko azterketa progresiboa egitea errazten duena; eta azterketa kualitatibo bat burutu behar da, lortutako emaitzak –handiagoak edo txikiagoak– azaldu, interpretatu eta esanahiez betetzen dituena. Etengabeko berrelikaduraren ikuspegitik, ebaluazioaren emaitza izango da kontuak eta emaitzak aurkezteko unea, baina baita abiagune berria ere, ezarpen-ziklo berri bati hasiera emateko.

Beraz, prozesu jarraitu bat da, goranzko kiribil bat, eta hor ezarpen-prozesu bakoitzak hurrengo berrelikatzen du. Modu honetan irudika liteke:



## 2.2. Berdintasunerako II. Foru Plana abian jartzeko koordinazioa

Berdintasunerako II. Plana abian jartzeko orduan, eskakizunetako bat da alde batetik GFAko instantzien artean eta bestaldekik parte hartzen duten kanpoko eragileen artean (Emakunde, beste foru-diputazio batzuk, emakumeen elkarte-mugimendua eta mugimendu feminista, etab.) elkarlanean aritu eta koordinazioa egitea; hori, halaber, ezarpen-estrategia arrakastatsua izateko alderdi garrantzitsuenetako bat da.

Berdintasunerako II. Plana abian jartzeko eskakizunetako bat plan gidari eta estrategikoan gauzatzeko erantzule bezala identifikatu diren departamentu eta arlo guztien parte-hartze aktiboa eta konpromisoa da, hala nola Plana prestatzeko kontsultatu diren talde guztiena. Eragile horien arteko koordinazio egokiak bermatu egingo du abian jartzeko prozesua sustatu eta kontrolatuko dela, une garrantzitsuei buruzko jarraibideak eman eta prozesua behar bezala gauzatzeko lanetan erantzukizunak esleituta.

Eskakizun horiei erantzunez, GFAk, prozesuaren hasieratik bertatik, onartu egin zuen proposatutako aldaketak egitea errazteko eskumenak edo ezagupen nahikoak dituzten erakunde eta talde edo pertsona guztien artean parte hartzeko eta kanpoko nahiz barneko koordinazioa burutzeko mekanismoak indarberritzeko beharra zegoela.

Parte-hartzea sustatu eta talde-laneko prozesuen koordinazioa eta sorrera bermatzearen, barneko koordinaziorako egiturak indarberritu eta aldatu egin dira, maila politikoaren eta teknikoaren arteko lotura ezarrita. Egiturak [Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia](#), [Berdintasunerako Departamentu arteko Batzorde Politikoa](#), [Departamentu arteko Talde Teknikoa](#) eta [Departamentu barruko Unitateak](#) dira, horiek izango baitira Planaren abiaraztea sustatu eta haren urteko plangintza, segimendua eta ebaluazioa egiten dituztenak.

Segidan, horietako bakoitzari Berdintasunerako II. Foru Plan honen kudeaketan dagokion eginkizuna aurkezten da:

### ***Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia***

Berdintasunaren aldeko politikak foru-esparruan ezartzeko koordinazio-egitura guztiak sustatu, koordinatu, horien segimendua egin, aholkatu eta laguntzeko egitura da, erantzukizun politiko eta tekniko duena. Adierazitako erantzukizunez gain, berdintasunaren aldeko tokiko politikak ere sustatu behar ditu –horretarako sarean lan eginda, Lurraldeko udalerrietako teknikari eta politikariek–, elkarre-mugimenduaren eta mugimendu feministaren praktikak eta sareak finkatzen lagundu behar du, erakundearen eta elkarre-mugimendu eta mugimendu feministaren arteko elkarrizketa politikorako espazioak sustatu behar ditu, eta GFA erakunde arteko koordinazio-espazioetan –tekniko zein politikoak– ordezkatu behar du.

### ***Berdintasunerako Departamentu arteko Batzorde Politikoa***

Berdintasunerako [Plana gidatzeko eta haren segimendua egiteko](#) egitura egonkor moduan eratu da, eta bere eginkizun nagusia alderdi hauek bermatzea da: [adostasun politikoa](#) (Planaren ondorio diren eta beren izaera dela-eta adostasun politikoa behar duten ekimenak aztertu eta dinamizatuz), [gauzatzea eta segimendua egitea](#) (II. Planaren ildo estrategiko bakoitzaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahaleginak eta baliabideak batuz), eta [erakundeen konpromisoa eta departamentuen prestasuna](#) (politikak II. Planaren helburu estrategikoen arabera berriz diseinatu eta adierazteko jarraibideak ezarri eta adostuz).

**Osaera:** [Aldundiko zuzendari nagusiek](#) osatuta dago. Diputatu nagusia da zuzendaria, Berdintasuneko zuzendari nagusia zuzendariordea, eta Berdintasuneko Zerbitzuko burua idazkaria.

**Egitekoak:** Batzorde politikoaren eginkizun nagusiak hauek dira:

- Berdintasunerako Foru Planaren prestaketan parte hartzea eta urteko lan-plana onartzea.



- Aldundiak berdintasunarekin duen konpromisoa jakinaraztea eta zabaltzea.
- Egitura teknikoaren lana errazteko beharrezkoak diren baliabideak hornitu eta antolatzea.
- Urteko segimendu-txostena eta Planaren ebaluazio-txostena onartzea.
- Departamentu arteko Talde Teknikoaren eta Departamentu arteko unitateen lana zuzendu eta gainbegiratzea, eta bilkuretan kideak ez diren pertsonen parte har dezaten baimentzea.

*Funtzionamendua:* Osoko bilkuran edo azpibatzerdeetan; Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, emakumeen elkarte-mugimenduko eta mugimendu feministako adituak edo kideak gonbida daitezke. Urtean bitan gutxienez elkartuko dira kideak, urteko lan-programa eta haren segimendua onartzeko. Bilerak egin ahal izango dira ezohizko izaerako gaiak jorratzeko, Batzordeko kideek hala eskatuta.

### **Departamentu arteko Talde Teknikoa**

Maila politikoaren eta teknikoaren arteko koordinaziorako egitura egonkor bezala sortu da, eta bere eginkizun nagusia genero-ikuspegia administrazio-prozedura orokorretan gehitzeko eta ildo estrategikoak garatzeko beharrezkoak diren *euskarri teknikoa* eta aholkularitza eskaintzea da; era berean, departamentuetatik Plana ezartzeko koordinazioa eta segimendua egitea (urteko lehentasunak ezarri eta urteko programa prestatzeko proposamenak sistematizatu, Planean ezarritako helburuen lorpena aztertu eta urteko txostenak idaztea); eta, azkenik, jakintzaaren transferentzia-prozesuetako esperientziak eta azterketak bateratzea.

*Osaera:* idazkaritza teknikoek eta Aldundiko enpresa-batzordeko ordezkariak osatuta dago.

*Egitekoak:* Hauek dira Departamentu arteko Talde Teknikoaren eginkizunak:

- II. Planaren esparruan urteko lehentasunak zehaztea.
- Departamentuetako urteko programazioak bildu eta sistematizatzea, Aldundiak garatu beharreko urteko berdintasun-programa prestatzeko.
- Foru-jarduerak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipiora eta II. Planaren ildo estrategikoen ondorio diren helburuetara egokitzeko beharrezkoak diren erabaki teknikoak hartzea.
- Departamentu eta alor guztietan eragina duten aldaketekin zerikusi zuzena duten zeharkako jarduerak (lan partekatua) garatuko direla bermatzea.
- Departamentuek II. Planaren esparruan garatutako lana programatzea eta horren segimendua egitea, eta urtean bi bilkura gutxienez egitea, emaitzak aztertzeko.
- Jardueren bilakaeraren eta Planaren betetze-mailaren ebaluazioari buruzko informazioa lortzea eta ematea.

*Funtzionamendua:* urtean hiru aldiz gutxienez elkartuko dira –lauhilekoan behin– eta egokiak diren ezohiko bileretarako deiak egingo dira. Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak koordinatuko du talde hau.

### **Departamentu barruko unitateak**

Planean aurreikusitako neurriak eta jarduerak gauzatzeko eta burutze-adierazleetan

oinarritutako segimendua egiteko erantzukizun zuzena duten egiturak dira. Plana Aldundian kudeatzeko eta bertara iristeko funtsezko elementu dira, eta, halaber, departamentu eta arloetan berdintasunaren erreferente dira.

**Osaera:** Departamentu bakoitzeko zerbitzu-burutzak eta departamentuetako idazkari teknikoa.

**Egitekoak:** Departamentu barruko unitateen eginkizunak hauek dira:

- Planaren helburuak unitateen eskumenei dagokienez aztertzea eta helburuak garatzen dituzten ekintzak proposatzea.
- Departamentuan garatu behar diren Planeko ekintzak koordinatzea.
- Genero-ikuspegia kudeaketa-prozesu orokorretan ezartzen laguntzea.
- Departamentuan, urteko lan-plana abiaraztea eta segimendua eta ebaluazioa egiteko behar den informazioa ematea.
- *ad hoc* sortutako lan-taldeak, departamentu barruko edo departamentu artekoak, sustatzea eta horietan parte hartzea, politika publikoak egiteko eta diseinatzeko hautabidezko moduak identifikatzeko.

**Funtzionamendua:** Behin urteko lan-programa onartu denean, departamentu barruko unitateek, arloetako pertsonekin batera, bertan programatu eta hitzartu diren proposamenak gauzatuko dituzte. Planean jasotako jarduera estrategikoak garatzen laguntzen duten lan-taldeetan parte hartuko dute, zehazten den osaera eta funtzionamendua izango dituztela. Departamentu barruko unitateak Departamentu arteko Talde Teknikoaren bileretara joan ahal izango dira, eta bilera horiek Taldearekin batera prestatu ahal izango dituzte, unitateetakoren batek hala eskatzen duenean.

### 2.3. Gauzatzeoko plangintza

Atal honetan, urteko planak definitzeko jarraibideak (zer egin behar den, nork eta zein epetan) eta prozesua zehaztuko dira. Berdintasunerako II. Planaren ezarpena edo garapena **urteko lan-programen** bidez egingo dira; horietan, departamentu bakoitzaren eta bertako arloen konpromisoak finkatuko dira, Berdintasunerako Plana abian jartzeko bakoitzaren eskumen-esparruan.

Plangintzaren barruan, hainbat urrats eta erantzukizun-maila zehaztuko dira plana abian jartzeko; horretarako, hain zuzen ere, Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia funtsezko tresna izango da, prozesua egituratzeko orduan, zuzendaritza hori baita prozesuari eutsi eta lagundu, eta prozesua bermatu eta zaintzen duena.

**Urteko programa definitzeko prozesu edo prozedura:**

**Prozesuaren hasiera.** Departamentu arteko Talde Teknikoak bilera baten bidez hasiera emango dio urteko prozesuari; bertan, urteko lehentasunak zehaztuko dira, bai departamentu guztien artean egin beharreko lanetan, bai departamentu bakoitzari dagokion lanean.

**Ekintzak identifikatzea.** Departamentu barruko unitateek, departamentu bakoitzean berdintasunaren erreferente izanda, lehentasunen berri emango diote Plana euren departamentuan gauzatzeoko orduan esku hartzen duen alor bakoitzari, eta ekintzak identifikatzeko prozesuari ekingo diote, eginkizun hauek betez:

- **Abiagunearen azterketa:** departamentuan II. Planaren helburuei eta Planean proposatutako eraldaketa-ildoek dagokienez dagoen egoerari buruzko ikuspegi argia lortzearren.
- **II. Planaren helburuak aztertzea,** departamentuko eta arloetako gaiarekin

zerikusia duten zeregin, eskumen, publiko objektibo eta desberdintasunen arabera, hartu beharreko neurriak edo egin beharreko ekintzak zehazteko, Departamentu arteko Talde Teknikoak ezarritako lehentasunak kontuan hartuta. Era berean, horiek gauzatzeko alderdiak eta zerbitzu garrantzitsuenak ere identifikatuko dira.

- **Lortutako aurrerapenak**, orain arte hasitako eta jarraipena izan lezaketen eta II. Planaren helburuen barruan sar litezkeen jarduerak, proiektuak eta abar identifikatzea.
- **Urteko programazio-proposamena egitea, alor eta departamentuaren arabera.** Horretarako, Departamentu barruko unitateetako arduradunek, Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz, bilerak egingo dituzte Plana gauzatzeko esku hartzen duen alor bakoitzarekin, eta alorrek proposatutako lehentasunen eta ekintzen globaltasunaren azterketa egin eta gero, urte horretan gauza daitezkeenak hautatuko dituzte. Arloka egindako proposamen guztiez baliatuta, departamentu bakoitzeko urteko programazioaren proposamena egingo da, eta Departamentu barruko Unitateak jorratuko du proposamen hori.
- **Urteko lan-programa prestatzea.** Departamentu arteko Talde Teknikoak departamentu guztietan egindako proposamenak jaso eta aztertuko ditu, eta II. Planaren helburu orokorretan izandako eragina eta egindako ekarpena baloratuko ditu; horrez gain, urteko programa prestatuko du. Era berean, programazio-proposamen horiek antolatzeke eta gauzatzeko sor daitezkeen beharrak ere baloratuko ditu.
- **Batzorde Politikoak edo Departamentu arteko Batzordeak urteko lan-programa aurkeztea eta onartzea.** Departamentu arteko Talde Teknikoak urteko lan-programaren proposamena aurkeztuko du, Batzorde Politikoak onar dezan. Batzorde Politikoak, beharrezkoak diren baliabideak eta bitartekoak aztertu eta gero, adostasun-agiri bat emango du, alderdi horiek guztiak argitzeko; agiria barneko zabalkundea izango du. Behin lan-programa onartu denean, gauzatzeari ekingo zaio; prozesu hori gauzatzearen segimendua egiteko beharrezkoa den informazioa biltzearekin batera burutuko da. Era horretan, plangintza Foru Aldundiaren aurrekontu-egutegiarekin harmonizatuko da.
- **Komunikazioa eta prestakuntza:** urteko lan-programa onartu eta gero, barneko zein kanpoko zabalkundeari ekingo zaio aldi berean, emaitzak bermatzeko beharrezkoa den gaikuntza antolatuko da, eta parte hartzeko mekanismoak, lan-taldeak eta abar zehaztuko dira.

Hona hemen urteko prozedura iruditan:



Plangintza-prozesua erraztu eta koordinatzeko, Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak zehaztuko du zer informazio jaso behar den, eta, era horretan, informazio

homogeneoaren erabilera sustatuko du, bai plangintzan, bai segimenduan eta geroagoko ebaluazioan. Plangintza-prozesua informazio mota hauetan gutxienez oinarrituta egongo da:

- **Identifikazioari buruzko informazioa:** Programazioak barnean hartzen dituen Planaren ildoak, helburu nagusia eta helburu espezifikoak.
- Aurreikusitakoaren arabera, garatuko diren **neurriak edo ekintzak**.
- Horiek gauzatzeko **erantzukizuna** duten zerbitzu edo alorrak.
- Ekintza horiek **jasoko dituen publikoa**.
- Ekintzak gauzatzeko **epeak** (gauzatzearen denboralizatzea).
- Gauzatzeari dagozkion **adierazleak**, politiketan duten eragina eta zer aldaketa/eraldaketa mota egin nahi den.
- **Baliabideak**: inbertituko diren baliabide ekonomikoak (aurrekontua); alderdi hauek adieraziko dira: zer aurrekontu-saili esleituko zaizkien, zer portzentaje den departamentuaren aurrekontu orokorrarekin alderatuta, eta zer aldaketa ekarriko duen aurrekontuan aurreko urtearekin alderatuta; baita ere, zenbat langile behar diren eta zer prestasun izan behar duten, eta beste baliabide batzuk (azpiegiturak, adibidez).
- Gaitzeko, aholkua jasotzeko edo laguntza teknikoa jasotzeko hauteman diren **beharrak**, aurreikusita dauden neurriak gauzatu ahal izateko.

Azkenik, eta berrelikadura-ereduari berriro helduz, nabarmendu behar dugu plangintza-prozesua Berdintasunerako II. Planaren gauzatze eraginkorrean bermealderdi bat izateaz gain, Planaren **segimendua** egiteko ezinbestekoa den oinarria ere badela.

#### **2.4. Segimendua eta ebaluazioa**

Planaren segimendua egiteko sistema egokia diseinatu eta abian jartzea, eta egindakoaren aurrerapenaren eta horri buruzko ikaskuntzaren analisia ahalbidetzen duen ebaluazio bat funtsezko elementutzat ikusi behar dira, Planaren ezarpen-estrategiaren eta plangintza-prozesuaren barruan.

Jarraian, Berdintasunerako II. Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko sistemaren oinarritzko alderdiak aurkeztuko ditugu; hori izango da Batzorde Politikoak erabakiak hartzea errazteko oinarria, batzorde hori baita, azken buruan, prozedura ezartzeko eta erantzukizunak esleitzeko eskumena duena.

Baina, egin dezagun aurretiazko hausnarketa bat: egindako proposamenean, argi eta garbi bereizten dira segimendu-prozesua eta ebaluazio-prozesua, eta bigarren plan honetan segimendua identifikatzen da askotan etengabeko ebaluazioa izendatzen denarekin, eta ebaluazioa, aldiz, plana baloratzeko bukaerako prozesuarekin.

Segimendua, funtsean, egindakoaren egiaztapena da, hasierako programazioan aurreikusitakoarekin alderatuta, eta, beharrezkoa balitz, esku-hartzea bukatu baino lehen doikuntzak egitea ahalbidetzen du. Era berean, segimenduaren ondorio den informazioak hurrengo programazioa egiteko abiapuntu bat ezartzeko balio du, bere burua berrelikatzen duen prozesu batean, hobekuntzaren zikloari jarraituz:



## **Berdintasunerako II. Planaren segimendua**

Aurreko premisatik abiatuta, segimenduaren inguruko planteamenduak ez du kontrolatzeko funtziorik, baizik eta, areago, egindako lanari buruz hausnartu eta lana hori ikusgarri bihurtzekoa, eta baita informazioa –kuantitatibo zein kualitatibo– lortzekoa ere, Planaren gauzatzea errazten duten elementuak identifikatzeko, hobetu daitezkeen eta programatzeko geroagoko aldietan arreta handiagoa behar dutenekin batera.

Sistema dinámico eta malgua izan behar da, Planaren garapenerako balio behar duena. Ildo horretan, Plana gauzatu ahala sortzen diren beharretara egokitu behar da, hutsuneak hauteman behar ditu eta behar horiei erantzuteko modurik hoberenari buruzko informazio baliagarria eman behar du, erabakiak hartu ahal izateko.

Halaber definitu behar dira sistema horren helburuak, azterketarako ardatzak, segimendua burutzeko metodologia –informazioa biltzeko tresnak barne–, segimendu-prozesuan erantzukizuna duten egituren identifikazioa eta eginkizuna, eta gauzatzeko egutegia.

Segimendu-sistema egituratu behar da Berdintasunerako Planaren garapenean erantzukizuna duten **eragile** guztiek parte hartuta. Eta zehazki:

- **Batzorde Politikoa:** prozesua onartu eta emaitzak baloratzeko ditu.
- **Departamentu arteko Talde Teknikoa:** segimendu-prozesua eta informazioa biltzea koordinatzeko ditu; ondorioz, segimenduari buruzko informazioa gainbegiratu eta departamentuek urteko lan-programak nola egiten diren eta zer emaitza dituzten jakiteko informazio garrantzitsu eta nahikoa ematen dutela ziurtatzeko ditu.
- **Departamentu barruko unitateak:** segimenduaren oinarria den informazioa bilduko dute, eta horretarako diseinatzen diren tresnak bete egingo dituzte.
- **Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia:** prozesuari teknikoki eutsiko dio.

**Azterketarako ardatzei** edo Planaren segimendua egiteko behar den informazio motari dagokienez, ezinbestekotzat jotzen dira alderdi hauek:

- **Identifikazioari buruzko informazioa:** Ildoa, helburu orokorra, helburu espezifikoak, Planeko zer jarduera edo ekintzari egiten zaien segimendua.
- **Ekintzen gauzate-maila** zehaztutako segimendu-aldian, eta aurreikusitako/gauzatatutako denboraltasunaren azterketa.
- Gauzatatutako ekintza bakoitza **errealitatean jaso zuten herritarrek**, ekintza bakoitza benetan zer pertsona edo talderi zuzendu zen eta horien ezaugarriak, eta lortutako estaldura<sup>71</sup>.
- **Gauzatatutako aurrekontua**, aurrekontuaren balorazioa eta justifikazioa

<sup>71</sup> Estaldura era honetan defini dezakegu: hasiera batean Planeko neurrien jasotzaile izan behar ziren herritarren eta benetan jasotzaile izan ziren herritarren arteko zenbakizko erlazioa.

aurreikusitakoarekin alderatuta, eta departamentuaren lehentasunetan eragindako aldaketen deskribapena –aldaketarik egon bada–.

- Programazioan aurreikusitako **gauzatze**ko adierazleei buruzko informazioa, eta horien segimendua, Plana gauzatze
- **Informazio kualitatiboa**, alderdi hauen balorazioa –gauzatzean parte hartu dutenek eginda–: ekintzen jomuga izan diren beharrei zer mailatan erantzuten zaien, ekintzak garatzeko aurkitutako zailtasunak, gauzatzea erraztu duten elementuak, horien garapenean aritu diren eragile edo egiturek zer mailatan parte hartu duten, programazio berri bat egiteko beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza edo doikuntzak egiteko proposamenak, eta Planaren garapenaren ondorioz sortu diren behar berriak.

Segimenduaren une garrantzitsuenetan, informazio hori eskura egongo dela bermatuko da gauzatu baino lehenago finkatuko den informazioa kudeatzeko sistema baten bidez. Oso garrantzitsua da informazioaren bilketa aurreikusita eta informazio hori homogeneizatzen duten tresnak diseinatuta edukitzea, datuak sortu ahala erregistratzeko, izan ere, geroago egiten bada, zaila izango da datuak eskura izatea eta horien fidagarritasuna bermatzea. Hau da segimenduaren giltzarrietako bat, eta baita oztopo handienetako bat ere: ez aurreikustea segimenduari buruzko informazioa biltzeko eta kudeatzeko sistema bat. Ildo horretan, abian jarri behar den prozedura parte hartzen duten pertsonekin adostu behar da, era horretan jende guztiak jakingo du zehatz-mehatz zer egin behar den, noiz parte hartu beharko duten, zer tresna erabiliko diren, eta zer informazio mota bildu behar den Berdintasunerako Plana gauzatzearekin batera.

Bete beharreko **prozedura** urrats-segida honen arabera bete daiteke:

- Departamentu arteko Talde Teknikoak, Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, tresna partekatu edo II. Planaren segimendu-fitxa prestatuko du, departamentu barruko unitateek baliozkotuko dutena, eta Planaren garapenean parte hartzen duten zerbitzu edo alorretako pertsonen eskura jarriko dena.
- Gauzatzean parte hartu behar duten zerbitzuek informazioa jasoko dute arian-arian segimendurako tresnan, eta departamentu barruko unitateko arduradunari igorriko diote, horretarako aurreikusitako epeetan. Bildutako datu eta informazioak aztertuko dira eta horiei buruzko hausnarketa egingo da parte-hartzaileak aurrean dauden bilkura batean, seihilekoan behin gutxienez.
- Departamentu barruko unitateek segimendua egiteko informazioaren bilketa –departamentuak eskainia– antolatuko dute, eta Departamentu arteko Talde Teknikoari helaraziko diote; Talde Teknikoak Segimendu-txostena idatziko du. Txosten horretan –II. Plan honetan urterokoa izatea aurreikusi da–, urteko lan-programan zehaztutako adierazleen azterketa eta jadanik adierazi diren alderdi kualitatiboen deskribapena jasoko dira, eta, halaber, urteko programaren gauzatze-mailaz gain, programak helburu espezifikoak betetzeko orduan egindako ekarpena eta hurrengo programazio-aldirako hobekuntza- eta doikuntza-proposamenak.
- Segimendu-txostena Batzorde Politikoan eta Berdintasunerako Foru Kontseiluan aurkeztu eta eztabaidatuko da.
- Azkenik, eta Berdintasunerako Plana Aldundiaren politika orokorrari lotzeko modu bezala, Diputatu Nagusiaren Kabinetera bidaliko da, Diputatuen Kontseiluan aurkezteko eta gerora GFaren emaitza politiko bezala hedatzeko, eta, halaber, hurrengo programazio-aldian beharrezkoak izan daitezkeen

doikuntzen inguruko erabakiak hartzeko.

Deskribatutako prozeduraren bidez, mamitu egingo da plangintza-prozesuaren eta segimendu-prozesuaren arteko lotura: hala bada, urteko lan-programa segimendua egiteko erreferentzia nagusia den modu berean, segimendua egitean lortutako emaitzek zehaztu egingo dituzte hurrengo aldi heldu beharrekoaren inguruko ildoak (aldi honetan aurreikusita egonda gauzatu ezin izan dena, Planeko neurri berrieekin batera), eta zer egin behar den emaitza hobek hartzeko.

### **Berdintasunerako Planaren ebaluazioa**

Ebaluazioari, halaber, ikaskuntza-balio bat eman behar zaio, antolaketa nahiz Gipuzkoan egiazko berdintasunean eta bizitzaren iraunkortasunean aurrera egiteko bertan garatzen diren prozesuen ezagutza hobetzen dituelako eta informazioa ematen duelako, ez soilik gauzatzeari buruz –segimenduan ikusi den bezala–, baita Plana ezartzeko prozesuari berari buruz, koherentziari buruz –ildoan eduki politikoari eta eraldatzeko ahalmenari dagokionez–, emaitzei buruz eta lortutako eraginari buruz ere. Ebaluazioak, ikaskuntza eta hausnarketa modu egokian barnean hartzeko, izaera **aplikatua** izan behar du, baliagarria izan behar da etorkizuneko ekintza bideratzeko, eta epe ertain eta luzera estrategiak diseinatzeko eta Gipuzkoako Lurraldean biziera onaren definizio egokiturantz aurrera egiteko informazio garrantzitsua eman behar du.

Berrelikatze zikloari dagokionez, ebaluazioa prozesuaren bukaeraren neurketa ez ezik, plan estrategiko berri bati hasiera emateko behar diren inguruko erabakiak hartzeko abiagunea ere bada.

Segimendu-sistemeekin gertatzen den bezala, ezartzeko estrategiak barnean hartu behar du gutxienez diseinu bat, Planaren ebaluazioa nola burutu nahi den azaltzeko, eta galdera berei erantzuteko: *nork* egingo duen, *zer* ebaluatuko den, eta *nola* egingo den.



Goiko irudian ikus daitekeen bezala, ebaluazioaren kasuan garrantzitsua da ondo zehaztea zer den ebaluatu behar dena eta nola egingo den ebaluazioa. Jarraian, atal hau ilustratzeko zertzelada batzuk gehitu ditugu; hala ere, argi dago II. Plana ezartzeko orduan atal hau berriz definitu beharreko prozesuetako bat izango dela.

Ebaluazioaren zer galderari erantzuteko hasierako hurbilketa bat egiteko, beharrezkoa da definitzea ebaluazioan zer lortu nahi dugun, zer ezagutu nahi dugun behin Plana ezarri denean, eta zeintzuk diren Planak emaitza positibo eta betegarriak eman dituela baieztatzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak. Behean, adibide gisa, gehien erabiltzen diren ebaluazio-irizpideak eta irizpide horien erabileraren bidez erantzungo

diren galderak jaso ditugu era eskematikoan:



Nolanahi ere, ebaluatu beharreko alderdien inguruko erabakiak hartzeko erreferentzia Planean aurreikusitako **ebaluazioaren adierazleak** izango dira<sup>72</sup> (emaitza + eragina); adierazle horiek, gainera, alderdi hauei buruzko informazioa emango dute:

- **Plana gauzatzeko eta ezartzeko prozesua;** informazioa emango da honen inguruan: plana garatzeko orduan aurkitutako zailtasunei eta irtenbideei buruzko informazio kualitatiboa batik bat, urteko programen egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna, egituren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren zein mugimendu feministaren parte-hartzea eta konpromisoa, aldaketaren aurreko erresistentziak, ikuspegi feminista politika publikoetan gehitzea, etab.
- **Emaitzak** eta izandako eragina; horien bidez, jakin ahal izango dugu zein diren Planean proposatutako helburuen betetze-maila eta abiaguneko desberdintasunetan izandako eragina, edo ea politikak diseinatzean desberdintasunak eta ikuspegi feminista kontuan hartu diren departamentu bakoitzean, eta, horrekin batera, Aldundiak berdintasunaren aldeko politikak garatzeko erakunde bezala izandako aurrerapen- eta eskumen-maila, Planaren garapenean parte hartzen duten eragileek emaitzei buruz duten iritzia, etab.

**Nola** galderari dagokionez, Berdintasunerako II. Planaren ebaluazio-ereduan, ebaluazio mistoaren sistema bat kontuan hartu da; hau da, alde batetik barne-ebaluazioa, informazio-iturri nagusia segimendua egiteko bildutako datuen multzoa

<sup>72</sup> Planaren denbora-alderdia kontuan izanda, gerta daiteke bertan jasotako adierazleak beste era batera formulatu behar izatea, operatibizatzeko urteko prozesuaren ondorioz, eta adierazle berriren bat ere sor daiteke, segimenduaren emaitzak ikusita egokia bada.



(urteko segimendu-txostenak) izango duena, barnean egiten den azterketa kualitatiboagoarekin batera. Eta, bestaldetik, kanpo-ebaluazioa, Plana amaitzean; horren bidez, prozesutik kanpoko begirada eta azterketa gehituko da, eta berdintasunean zein politika publikoen ebaluazioan espezializatutako kanpoko langile independenteek egingo da.

Ebaluazioan parte hartzen duten eragileak deskribatzean, hau da, *nor*, barne-ebaluazioaz soilik arituko gara oraingoan; Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak, departamentu barruko unitateek eta Departamentu arteko Talde Teknikoak egingo dute ebaluazio hori.

Behean azaldu dugu zer eginkizun izango duen horietako bakoitzak ebaluazioan:

- Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak abian jarri behar den ebaluazio-sistema diseinatu eta ezartzeko ardura izango du; era berean, informazio-beharrak definituko ditu, finkatutako adierazle eta ebaluazio-galderetan oinarrituta. Horrez gain, lortzen den informazioa aztertu eta erdietsitako emaitzei buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko espazioak sustatuko ditu, berdintasunerako hurrengo planean joratu beharreko hobekuntza-alderdi berriak identifikatzeko. Azkenik, ebaluazioaren emaitzak herritarren eta parte hartu duten erakundeen artean zabaltzea sustatu eta ezagutzera emango ditu.
- Departamentu barruko unitateek ebaluazio-sistema garatuko dute dagokien zatian, ezarritako emaitzen adierazleek zer betetze-maila duten eta garrantzitsuak diren alderdi kualitatiboak zeintzuk diren aditzera emateko beharrezkoa den informazioa bildu eta aztertuko dute, eta emaitzen azterketa partekatua egiteko proposatzen diren hausnartzeko eta eztabaidatzeko espazioetan parte hartuko dute.

Emaitza kuantitatibo eta kualitatiboak Bukaerako Ebaluazio Txostenean jasoko dira, eta GFK-ko Departamentu arteko Talde Teknikoak nahiz Berdintasuneko Departamentu arteko Batzordeak onartuko dute.